

2018/URTEKO TXOSTENA

CAF

| | |
|---|---|
| **PRESIDENTEAREN ESKUTITZA** | **2** |
| **TALDE BATERATUAREN 2018KO KUDEAKETA TXOSTENA** | **7** |
| CAF Taldearen negozio eredua eta aurreikuspenak | 8 |
| Negozioen bilakaera eta emaitza | 10 |
| Jarduera komertziala | 12 |
| Industria-jarduera - Trenen segmentua | 14 |
| I+G+b jarduera - Trenen segmentua | 16 |
| Solaris | 18 |
| Inbertsioak | 20 |
| Arrisku eta zalantza nagusiak | 22 |
| Likidezia eta kapital-baliabideak | 24 |
| Burtsako informazioa | 26 |
| Beste informazio bat | 27 |
| **FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIOAREN EGOERA BATERATUA** | **28** |
| Ingurumeneko jarduera | 30 |
| Giza baliabideak | 34 |
| Giza eskubideekiko errespetua | 42 |
| Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka | 44 |
| Gizarte gaiak | 48 |
| **AUDITOREAREN TXOSTENAK** | **57** |
| **TALDE BATERATUAREN URTEKO KONTUAK** | **69** |
| Egoera Balantze Bateratuak | 70 |
| Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak | 72 |
| Aitortutako Sarrera eta Gastuen Egoera Bateratuak | 73 |
| Ondare Garbi Bateratuan Gertatutako Aldaketen Egoerak | 74 |
| Eskudiruaren Fluxuaren Egoera Bateratuak | 75 |
| Urteko Ekitaldiari Dagokion Memoria Bateratua | 76 |
| **ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ONARPENA** | **143** |
| Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiaren onarpenaren mende jarritako akordioak | 144 |
| **EMAITZA APLIKAZIO PROPOSAMENA** | **145** |
| **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA** | **145** |
| **INFORMAZIO OSAGARRIA** | **147** |
| Egoera Balantze Bateratuak | 148 |
| Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak | 150 |

2018. URTEKO TXOSTENA

Jatorriz gaztelaniaz argitaratutako txostenaren itzulpena. Desadostasunen bat izanez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

Argitalpen honek CAF eta bere Mendeko Sozietateen dokumentazio legala jasotzen du frantsesez,
gaztelaniaz eta ingelesez ere argitaratu da.

www.caf.net helbidean CAFi eta bere produktuei buruzko informazioa nahiz akziodun eta
inbertitzaileei legez ezarritakoa aurki daiteke.

# PRESIDENTEAREN ESKUTITZA



Akziodun agurgarriak:

Lehenengo eta behin, ongietorria eman nahi dizuet.

2018ko Urteko Txosten honek 2020rako ziklo estrategikoaren erdi-erdian dagoen ekitaldiari dagozkion jarduera, lorpen eta emaitza nagusien deskribapen zehatza jasotzen du. Horietako batzuk bereziki azpimarratu beharrekoak dira; izan ere, gure jardueren portfolioa areagotzea eta mugigarritasun jasangarriaren esparruan Taldearen posizionamendua sendotzea eragin dute.

Ziklo estrategiko horretan aitortutako helburuak lortzeari dagokionez (zehatzago esanda, gure negozioen hazkunde errentagarria eta jasangarria, epe luzera begira eta enpresa gisa gure ezaugarriak diren balioak oinarritzat hartuta), nabarmendu beharrekoa da Orbital Critical Systems-en partaidetza eskuratu dugula. Trengintzarako eta sektore aeroespazialerako sistema kritikoak garatzen eta egiaztatzen espezializatuta dagoen enpresa da, bi sektore horietan hazteko aurreikuspen handia izanik. Bestalde, Solaris Bus&Coach, bereziki hiriko autobusen esparruan ingurumenerako jasangarriak eta eraginkorrak diren alternatibei dagokienez Europako liderretako bat dena, erosi dugu.

2018ko irailaren 5ean (data horretan txertatu zen Taldearen ratio bateratuetan) Solaris erosi izanak jarduera-ildo esanguratsua ekarriko du berekin. Esparru horrek, zalantzarik gabe, hazteko aukera ugari dakar berekin hiri-inguruneetan garraioaren igorpen kutsakorrak gutxitzearekin lotuta administrazio publikoek zein herritarrek agertu duten interes ukaezina dela eta.

Enpresa gero eta globalago zein lehiakorragoak diren merkatuetarako prestatzen eta sendotzen jarraituko dugu eta UNIFEk egindako azken aurreikuspenen arabera, tren bidezko garraioak izango dituen aukeren aldeko apustua egingo dugu. Izan ere, aurreikuspen horien arabera, 2023. urtera arte, mundu mailako tren arloko materialaren eta zerbitzuen merkatu irisgarrian % 2,6ko urteko igoera jarraitua gertatuko da. Gainera, aurreikuspen on horiek CAFentzat interes berezia duten eskualdeetara ere zabal daitezke: Europara, Asia-Pazifiko eremura eta Amerikara.

Aurreko guztiaren eta CAF Taldearen lehia profilaren ondorioz, 2018a 2.902 milioi euroko kontratazio-zifrarekin itxi dugu. Horri esker, gure eskarien zorroan 7.716 milioi euroko beste maximo historiko bat lortu dugu. Hau da, trenen eta autobusen sektoreetan Taldeak izandako salmenta-zifra bateratua 3,7 aldiz. Honako hauek dira kontratu horien ezaugarri nagusiak (hauek Europar konponenteen eragin nabaria izanik): dibisekiko esposizio txikia dute, etorkizunean hedapenak egiteko aukerak biltzen dituzte, bezeroen errepikapen maila handia eta ordainketa-baldintzak hobetu egin dira aurreko urteekin alderatuta.

Trengintzari dagokionez, hainbat bezerok berritu dute CAFengan jarritako konfiantza. Hori gertatu da, adibidez, Budapest, Friburgo, Gasteiz eta Luxenburgo (azken horrek katenariarik gabe funtzionatu ahal izateko teknologia izanik) hirietako tranbiekin, bereziki Transport for NSWrekin (New South Wales) Parramattako (Sydney) proiektu integralaren bidez. Kontratu horrek tranbia-unitateen, seinaleztapenaren eta beste sistema osagarri batzuen hornikuntza eta mantentzea biltzen du 300 milioi euroko balioarekin. Era berean, aipatu beharrekoak dira Amsterdam, Napoles eta Medellín hirietako (azken hori unitate zaharrak birgaitzeko da) metroak edo NIR Northern Ireland Railways, Arriva, Trenitalia (birgaitze-lanak), SRO Saudi Railways Organization (mantentze-lanen zerbitzuak) eskualdeko operadoreenak eta Holandako NS Nederlandse Spoorwegen trenenak. Azken hori beste 88 Civity tren hornitzeko egindako kontratu-hedapena da 400 milioi euroko balioarekin.

Gainera, aurten beste izen batzuk ere gehitu dira. Horien artean daude, adibidez Lund (Suedia) eta Oslo hiriak, azken hau gainera, joan den urtean Europan izandako tranbien kontratu handiena izanik (87 unitate baieztatu dira 220 milioi euroko balioarekin eta beste 60 unitate gehigarri lortzeko aukera biltzen du kontratuak). Bestalde, aipatu beharrekoa da KeolisAmey operadorearekin sinatutako kontratua; izan ere, Wales&Borders frankiziarako 77 Civity DMU unitate jasoko ditu eta Newporteko (Gales) gure lantegi berrian muntatuko dira. Fabrika horren jarduera industriala arrakasta handiz abiatu zen irailean eta bertatik hazten ari den tren-merkatuaren (Britainia Handikoa, alegia) beharrei erantzuna ematea espero dugu.

Material berriaren eraikuntzarako jardueraz gain, nabarmen handitu da mantentze- eta birgaitze-lanetako zerbitzuen jardueran kontratatutako karga. Gainera, esanguratsua izan da Errodajeetako eta osagaietako (MiiRA) eta gainerako negozioetako eskarien zorroak eman duen bultzada.

Horrez gain, aipatu beharrekoa da autobusa; izan ere, Vectiak eta Irunerako eta Iruñerako autobus elektrikoko bi linea berriek (biak

daude funtzionamenduan dagoeneko) eta, batez ere Solarisek Taldearen eskarien zorroan ekarpen handia egin dute.

Hain zuzen ere, ekitaldiko helburu ekonomiko nagusiak honako hauek izan dira: zorroa mantentzea, sarreren lerroa bi digitutara igotzea eta irabazia handitzea. 2018a 2.048 milioi euroko salmenta-zifrarekin itxi genuen; hau da, aurreko urtekoa baino % 39 handiagoarekin. Jarduera industriala hazi egin zen, batez ere, abian dauden proiektu batzuen aurrerapena dela eta. Horien artean, hauek dira azpimarratu beharrekoak: NSrako (Holanda) gure CIVITY plataformako aldiriko tren elektrikoak, Northern eta Transpennine frankizietarako eskualdeko trenak, eta frankizia horrentzat eta Caledonian Sleepers-entzat (guztiak dira Britainia Handirako proiektuak) egindako kotxe atoidunak, Mexiko-Toluca hiriarteko treneko proiektu integralak eta Canberrako tranbiakoak. Esandakoaz gain, Aljerrerako eta Mexiko DFrako metro-unitateak, Utrechterako tranbiak eta Solarisen ekarpena gehitu behar da haren integraziotik aurrera.

EBITDAri dagokionez, 201 milioi eurokoa izan zen; hau da, urtetik urterako datuei dagokienez, % 12 handiagoa jarduera guztietarako marjina % 9,8koa izanik. Zergen aurreko cash-flowa ere hazi egin zen 101 milioi euro arte (% 31 gehiago). Zergen Aurreko Irabazia ere, 81 milioi eurora igo zen (% 19ko igoera). Dena den, Egotzitako Irabazi Garbia antzeko zifratan kokatu zen (zehazki, 43 milioi euroan), ekitaldian kontabilizatutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga-araudi berriak izandako eragina dela eta. Arau horrek, ordea, ez du hurrengo urteetan eragin esanguratsurik izango.

Tren arloko esparru industrialean aurreko ekitaldietakoa baino handiagoa izan den jarduera mailaren ondorioz, emaitza horien oinarria da gure jarduera guztien optimizazioari emandako etengabeko arreta honako hauek lortzeko: hornikuntza eta fabrikazioa, gure ibilgailuen entrega eta mantentze-lana kostu industrialetan eta horiei lotutako LCCan eragingarritasun handiagoa lortzeko, eta inbentarioen pixkanakako optimizazioa. Aurreko horri eta ekitaldian kontratatutako proiektuen kobrantza-profil positiboari esker, 2018a zor-merkatuetan sor daitezkeen ezegonkortasuneko gertaerei aurre egin ahal izateko aldeko finantza-egoerarekin amaitu dugu nahiz eta, Solaris erosi eta Orbitalen partaidetza eskuratu dugun. Hori guztia islatuta geratu da 324 milioi euroko finantza-zor garbian. Beste nolabait esanda, finantza-zor garbia ekitaldiko EBITDA baino 1,6 aldiz handiagoa izan da.

Hori guztia kontuan hartuta, Akziodunen Batzar Orokorrari dibidendu gisa 26,2 milioi euroko balioa duen kontu-saila onartzeko proposatzen diogu. Horrela akzio bakoitzeko banaketa gordina 0,765 eurokoa izanik, aurreko ekitaldiarekin alderatuz, gure akziodunei emandako ordainketa % 16an handituko litzateke.

Gure ziklo estrategikoko ibilbidearen erdi-erdian gaude. Orain arte, CAF Taldearen nazioarteko garapena hiru arlo nagusitan banatzen diren jarduerak lantzen jarraitu dugu: material gurpilduna eta haren osagaiak; bezeroei zuzendutako zerbitzuak (trenen eta tren-makinen mantentzea, operazioa, alokairua eta birgaitzea, eta zerbitzu digitalak); eta garraio-sistemekin lotutako beste jarduera esparru batzuen garapena (seinaleztapena, elektrifikazioa, EPC, autobusak, autobus elektrikoaren lineak eta abar) jardueren gama posible osoaren bidez (diseinua, eraikuntza, operazioa, mantentzea eta finantzaketa).

Horretarako, ezinbestekoa da bezeroei zuzendutako irtenbide, teknologia eta produktu berriak garatzen azken urteotan egindako inbertsio-ahaleginekin aurrera jarraitzea eta 2019ko Berrikuntza Plana ari gara horretarako garatzen. Plan horrek hainbat alderdi sakontzen du: seinaleztapena eta automatizazioa (CBTC eta ERTMS), pisu eta kontsumo energetikoen murrizketa eta energia-irtenbide alternatiboak pixkanaka txertatzea (kaptazioa eta birkarga, metaketa, hidrogenoa, hibridazioa material gurpildun eta autobusetan), balioztatze birtualeko inguruneak eta Tren Digitalaren ekimena. Azken hori predikziozko mantentze-lanetarako, operaziorako eta diagnostikorako datu erabilgarriak online prozesatzearekin eta lortzearekin lotuta dago eta arrakastaz aplikatu dugu material gurpildunarekin lotutako gure azken proiektuetan eta dagoeneko gure aurreko zein etorkizuneko bezeroentzat eskuragarri dagoen LeadMind plataformaren bidez. Oinarri horren bidez, trenen, autobusen eta, oro har, garraioaren sektorean aplikazio berri eta baliotsuak gara ditzakegu. Horrekin guztiarekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da gero eta handiagoa dela Industria 4.0ko teknologien erabilera: gehikuntza bidezko inprimaketa edo 3D, gauzen Interneta (makinak eta langileak konektatuta) edo errealitate areagotua. Kostuetan eta epeetan eragingarritasun handiagoa lortu ahal izateko, gure produkzioko eta prestakuntzako prozesuetan aplikatzen ditugu horiek guztiak.

Aurreko horri, gainera, negozioen hazkundea bultzatzeko egindako ahalegin inbertsiogilea gehitu behar diogu. Horien kontu-sail nagusiak lehen aipatu dugun Newporteko (Gales) lantegia betetzera eta irekitzera eta Corellan (Nafarroa) trenbidearen atal bat egokitzera bideratu ditugu. Azken horren kasuan, emakida-erregimenaren arabera, trenbidearen atala CAFek ustiatuko du bere eta hirugarren batzuen produktuetarako proba-bide gisa 20 urteko epean.

Azaldutako guztia CAF Taldea osatzen dugun pertsona guztion dedikazio eta konpromisoaren ondorio da. Nire esker ona agertu nahiko nieke guztiei; izan ere, haien laguntza eta ekarpen jarraituak behar-beharrezkoak dira ezarrita ditugun erronka eta helburuak lortzeko.

Aitortza hori bera helarazi nahi diet gure akziodunei ere, gure enpresa-proiektuari urte guzti hauetan eman dioten babes eta konfiantzagatik.

Eskerrik asko.

Andrés Arizkorreta García
Presidentea




**CAF** nazioartean erreferentea da mugigarritasuneko sistema integralak diseinatzen eta ezartzen.
CAFek proiektuen eta ingeniaritzako kudeaketa integrala eskaintzen du eta horrek honako hauek guztiak biltzen ditu: sistemaren diseinua, obra zibila, seinaleztapena, elektrifikazioa eta beste sistema elektromekaniko batzuk, material gurpildunaren hornikuntza, eta sistemaren operazioa eta mantentze-lanak.



## AUTOBUSAK

Solaris autobus konbentzionalen eta elektrikoen mundu mailako hornitzailea da. Proiektuak 700 hiri baino gehiagotan ditu, eta presentzia, aldiz, 32 herrialdetan. E-mobility arloko gama zabala azpimarratu behar da bereziki; izan ere, merkatuko irtenbideen gama zabalena eskaintzen du segmentu horri dagokionez.





# TRENBIDE PROIEKTUAK

## LINEA HANDIAK

### INTERCITY ETA BIDAIARIENTZAKO KOTXEAK

S/598 tren baskulagarriak (RENFE)
S/599 diesel trenak (RENFE)
S/449 tren elektrikoak (RENFE)
Diesel tren Aljeriarako
Push-Pull Irlanda Intercity zerbitzua
Korsika diesel trenak
Tunisia diesel trenak
Frantzia diesel trenak
Saudi Arabiako trenak
Sardiniako diesel-trenak
Ipar Irlandako trenak
Estatu Batuetako trenak
Eskoziako Caledonian Sleeper

### ABIADURA HANDIKOAK

Abiadura handiko eta zabalera aldakorreko S-120 eta S-121 trenak (RENFE)
Madril-Sevilla lineako Abiadura Handiko Trenak (AVF)
Lanzadera-trenak S-104 (RENFE)
Abiadura handiko trenak Turkiarako
Norvegiarako abiadura handiko trenak

## HIRIAK/HIRI

### TRANBIAK

Amsterdam
Antalya
Belgrado
Besançon
Bilbo
Birmingham
Boston
Budapest
Canberra
Cádiz-Chiclana
Cincinnati
Cuiabá
Debrecen
De Lijn
Edimburgo
Stockholm
Friburgo
Granada
Houston
Kaohsiung
Lieja
Lisboa
Lund
Luxemburgo
Manila
Maryland
Mauricio
Nantes
Oslo
Seatle
Sevilla
Sidney
St. Etienne
Tallinn
Utrecht
Valentzia
Vélez-Malaga
Vitoria-Gasteiz
Zaragoza

### METROAK

Amsterdam
Aljer
Bartzelona
Bilbo
Bukarest
Bruselas
Caracas
Istanbul
Helsinki
Hong Kong
Madril
Malaga
Medellin
Mexiko
Nápoles
New Delhi
Palma de Mallorca
Quito
Erroma
Txileko Santiago
Sao Paulo
Sevilla
Washington

### UNITATE ARTIKULATUAK

Amsterdam
Buenos Aires
Monterrey
Pittsburgh
Sacramento
Valentzia

## ALDIRIKO ETA ESKUALDEKO TRENAK

Auckland (Zeelanda Berria)
Caminhos de Ferro Portugueses (Portugal)
Companhia Brasileira de Trens Urbanos (Brasil)
Companhia Paulista de Trenes Metropolitanos (Brasil)
Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos (ET/FV)
Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha (FEVE)
Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC)
Finnish Railways (VR Ltd)
Heathrow Airport Express (Erresuma Batua)
Hong-Kong Airport Express
Irish Rail (Irlanda)
Izban (Turkia)
Montenegro
Nederlandse Spoorwegen (NS)
Northern-Arriva (Erresuma Batua)
Northern Ireland Railways (Ipar Irlanda)
Northern Spirit (Erresuma Batua)
Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE)
Regione Autonoma Friuli Venezia Giulia (Italia)
Secretaría de Comunicaciones y Transportes (Mexiko)
Serveis Ferroviaris de Mallorca (SFM)
TransPennine-First Group (Erresuma Batua)
West Midlands - Abellio, JRE, Mitsui & Co (UK)
Wales & Borders - KeolisAmey
Zweckverband Schönbuchbahn (Alemania)




Exit

# TALDE BATERATUAREN 2018KO KUDEAKETA TXOSTENA

# CAF TALDEAREN NEGOZIO EREDUA ETA AURREIKUSPENAK

**Lehiakortasuna gero eta handiagoa den merkatuan, gure bezeroen beharretara egokituta dauden eta haien asebetetzea areagotzen duten irtenbideak etengabe bilatzea da enpresaren DNAn txertatuta dagoen ezaugarria.**

Garraiorako sistema integralak eskaintzen 100 urte baino gehiagoko esperientzia duen talde multinazionala da CAF. Mugigarritasun iraunkorrean abangoardia teknologikoa eta balio erantsi altua eskaintzen ditu.

Trengintza sektorearekin lotuta, bezeroei merkatuko produktu-gama zabal eta malguenetako bat eskaintzen die: garraio-sistema integral osoenak zein horietarako zatiak. Hau da, material gurpilduna, osagaiak, azpiegiturak, tailerrak, seinaleztapena eta zerbitzuak (mantentze-lanak, birgaitzea eta finantza-zerbitzuak). Material gurpildunen segmentua da CAFen negozio tradizionalena eta produktuen gama zabala eskaintzen du: abiadura handiko eta oso handiko trenak, eskualdeko trenak eta aldirikoak (dieselak eta elektrikoak), metroak, tranbiak eta LRVak edo tren-makinak.

Negozio-zifraren % 90 inguru nazioarteko merkatuari dagokio eta gune handietako bat mendebaldeko Europa da. CAFek produkzio-lantegiak Espainian, Frantzian, Estatu Batuetan, Mexikon eta Brasilen ditu eta, gainera, duela gutxi Newporten (Gales, Erresuma Batua) beste lantegi bat inauguratu du. Bestalde, bost kontinenteetako 20 herrialde baino gehiagotan ditu tren-ibilgailuen flotak mantentzeko zentroak eta bulegoak.

Autobusen eta hiriko mugigarritasun iraunkorraren segmentuan, 2019a izango da Solaris Bus & Coach enpresaren kontroleko eta kontsolidazioko lehen ekitaldi osoa. Sektore horretan aurrerapauso handia ekarriko du CAF Taldeak Vectia irtenbideen gamaren bidez duela urte batzuk hasi zuen apustua sendotuz. 700 bezero baino gehiago eta propultsioko irtenbideen irtenbide-gama zabalena du (diesela, hibridoa, full electric, hidrogenoa, gasa eta trolebusa). Horri guztiari, gainera, Vectiak autobuseko sistema integraletan, mantentze-lanetan eta formula komertzial berritzaileetan (eskuragarritasunaren araberako ordainketak, leasing operatiboa eta abar) duen esperientzia gehitu behar diogu. Horrek guztiak asko hazten ari den segmentuan etorkizun oparoa ireki dio Taldeari.

2020. urtera arte, CAF Taldearen estrategiaren helburu nagusia Taldea modu errentagarrian haztea izango da. Horretarako, hurrengo urteotan, CAF Taldeko jarduerak aurreko ekitaldietako ekintza-ildoak garatzen jarraitzea eta jarduera esparru berriak abian jartzea izango dira. Honako hauek dira horietako batzuk:

- Tren eta osagaien diseinuko eta fabrikazioko negozio nagusian nazioartean dugun hazkundea sendotzea. Horretarako, merkatu tradizionalak eta proiekzio handiko merkatu alternatiboak arakatu beharko ditugu, lankidetza edo alientza bidezko negozio-formulak barne (dagokionean).






- Trenen sektorean aplikatuta epe luzerako zerbitzu-negozioetan hazkundea lortzeko egindako apustu irmoa floten mantentze-lanez harago joanda: emakidak, finantzaketa, tren-sistemen operazioa, trenen alokairua, mantentzea eta/edo birgaitzea, tranbiak eta tren-makinak. Duela gutxi lortu ditugun arrakastekin aurrera egitea eragingo du horrek: Liejakoa (Belgika), Parramattakoa edo New South Wales-ekoa (Sydney, Australia). Era berean, bezeroei zuzendutako zerbitzu digitalen komertzializaziotik erator daitezkeen balio-proposamen ugari biltzen du (floten kudeaketa, predikziozko mantentzea eta abar LeadMind izeneko gure irtenbidearen bidez -entrega-fasean dauden proiektu batzuetan dagoeneko instalatuta dago).

- Garapen teknologikoarekin lotuta egindako ahalegin inbertsiogilearekin aurrera jarraitzea teknologiei zein balio erantsi handiko produktuei dagokienez gure jarduera esparru guztietan (material gurpilduna, seinaleztapena, energia, datuen kudeaketa, ikuskapenak, autobusa eta abar). Besteak beste, Shift2Rail Europako tren arloko plataforma teknologikoan txertatutako proiektuak aipatu behar dira.

- Bezeroei zuzendutako balio-proposamenean aurrera egitea gure filialen garapen komertzialeko eta teknikoko planen bidez: Signalling, Power & Automation, Turnkey Engineering, Solaris, BWB eta abar. Estrategia horrek garraioaren eskaintza integrala areagotu eta dibertsifikatu nahi du trengintzaz harago joanda, mugigarritasun iraunkorreko behar sozial berriei erantzuna emanda. Horretarako, apustu teknologikoa estrategiaren oinarrizko elementua izan da eta da abangoardia lehiakorrean kokatzeko baliabide gisa.

- Aldi berean, aurrera egitea Orbital Sistemas Aerospaciales SLrekin (Noain, Nafarroa) abian jarritako eragiketak integratzeko prozesuarekin. Sektore aeronautikoan, espazialean eta tren arlokoan sistema kritikoak garatzeari lotuta dago eta 2018an haren % 30 eskuratu zuen CAF Taldeak. Partaidetza hori handitzeko aukera dago negozio-parametro jakin batzuek izandako bilakaeraren arabera. Partaidetza horren bidez, CAF Taldeak Orbitalek gaur egun dituen jarduerak sendotzen lagundu eta sistema kritikoen arloan punta-puntakoa den garapen-oinarriaren onura eskuratu nahi du. Enpresa horrek trenen garraio sektoreko irtenbideak garatzeko segurtasun-estandar handiak ditu (hardwarea, softwarea eta balioztatze-zerbitzuak eta -integrazioa).

- Gure prozesu operatiboak pixkanaka digitalizatzen aurrera jarraitzea (fabrikarekin zein zerbitzuen prestazioarekin lotutakoak) epe luzerako lehiakortasuna bermatu ahal izateko eragingarritasun handiagoa eta proiektuen lead-time txikiagoa lortze aldera (Industria 4.0). Bilakaera horren adibide batzuk dira teknologia hauek: onlineko datuak jasotzea, eraketa eta exekuzioa errealitate areagotuaren laguntzarekin, gehikuntza bidezko inprimaketa eta abar.

- Gastuei eusteko, kostuak eta inbentarioak gutxitzeko eta Taldearen negozio arlo eta jarduera guztien kalitate, segurtasun, ingurumen eta kudeaketa arloetako bikaintasuna lortzeko programak modu sistematikoan eta errepikarian aplikatzea. Hori guztia oso ingurune lehiakorrean egingo dugu. Honako hauek jasotzen ditu:

  – Eraikuntzako moduluen eta plataformen etengabeko hobekuntza (adibidez: Oaris, Civity UK eta Europakoa, Inneo metroak eta abar).

  – Industria Lanetako Aldaketa Plana pixkanaka hedatzea.

  – Produktuaren bizitza-zikloko kostua (LCC) optimizatzea. Gure lehia maila gero eta gehiago zehazten du elementu horrek.

- Azkenik, enpresa-kudeaketako oinarrizko alderdietan aurrera egitea. Horren baitan, honako hauek aipa ditzakegu: Erantzukizun Sozial Korporatiboa, akziodunei eta inbertsiogileei emandako arreta, arriskuen kudeaketa korporatiboa eta, oro har, gobernu korporatibo onarekin lotutako jardunbideak.

Azken finean, gero eta lehiakorragoa den merkatuan, gure bezeroen asebetetzea areagotu ahal izateko haien beharretara egokitutako irtenbideak etengabe bilatu nahi izatea da enpresaren ezaugarrietako bat. Hori guztia CAF Taldea osatzen duten pertsona guztien arteko kulturaren bidez egiten dugu, intereseko taldeen beharrei erantzun orekatua emanda.

# NEGOZIOEN BILAKAERA ETA EMAITZA

- Kontratazio maila handia eta Solaris CAF Taldean sartu izana direla eta, eskarien zorroa konpainiaren maximo historikotan dago eta Taldeko jarduerek garapen normala izango dutela bermatzen du horrek.
- Taldearen negozio-zifraren gaineko EBITDA marjina % 9,8koa izan da 2018ko ekitaldian eta maila absolututan % 12 hazi da.
- Finantza-posizioari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da enpresaren zirkulatzailean egindako inbertsioa hobetu egin dela eta horrek konpentsatu egin du ibilgetu materialean eta I+G+b arloan eta Solarisen kontrola hartzeko garaian ekitaldi horretan egindako ahalegin inbertsiogilea.
- Emaitzak aplikatzeko proposamena 26,2 milioi euro dibidenduak banatzera bideratzea izan da.



## Adierazle nagusiak (*)

| Datuak milioi eurotan | 2018 | 2017 | Aldaketa (%) |
|---|---|---|---|
| **Kontratazioa** | | | |
| Eskarien zorroa | 7.716 | 6.265 | % 23 |
| Ekitaldiko kontratazioa | 2.902 | 1.514 | % 92 |
| Kontratazioa-ratioa / Negozio-zifra | 1,42 | 1,03 | % 38 |
| **Emaitzak eta Cash-Flow-a** | | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 2.048 | 1.477 | % 39 |
| EBITDA | 201 | 180 | % 12 |
| Sozietate kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza | 43 | 42 | % 2 |
| Cash-Flowa | 101 | 77 | % 31 |
| Zirkulatzailean egindako inbertsioa | 40 | 247 | % -84 |
| Ibilgetu materialean eta I+G+b arloan egindako inbertsioa | 94 | 72 | % 31 |
| **Kapitalaren kudeaketa eta likidezia** | | | |
| Finantza-zor garbia | 324 | 219 | % 48 |
| Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia | 752 | 750 | % 0,3 |
| Likidezia erabilgarria | 944 | 606 | % 56 |
| Ratioa: finantza-zor garbia / EBITDA | 1,61 | 1,21 | % 32 |
| **Akzioko dibidendua banatzeko proposamena** | 0,765 | 0,66 | % 16 |

(*) Adierazleen definizioak “Errendimenduko neurri alternatiboak” atalean daude jasota.



Kontratazio maila altua eta Solaris CAF Taldean txertatu izana direla eta, eskarien zorroa enpresako maximo historikotan dago.






# JARDUERA KOMERTZIALA

Hirugarren urtez jarraian, ekitaldia kontratazio-zorroaren balioan errekorreko zifrarekin itxi da eta 7.716 milioi eurokoa izan da. Beste nolabait esanda, aurreko ekitaldiaren itxieran zehaztutako aurreko maximoarekiko % 23ko igoera gertatu da.

“Solarisekin batera, tren arloaz harago joanda, hiriko mugikortasuneko irtenbideetan liderra sortuko dugu eta, bereziki, e-mugikortasunaren arloan” adierazi zuen gure presidenteak eta horren erakusgarri da Letoniako hiriburuko, Rigarako, Urbino 18 modeloko 88 autobus artikulatu kontratatu izana. Beste adibide bat izan zen erabat elektrikoak diren unitate elektrikoak Bartzelonan aurkeztu izana. Azken bi urteotan Kataluniako hiriburuan ibili direnen antzeko ezaugarriak dituzte.

Hiriko mugigarritasunetik aldendu gabe, lehendik zeuden azpiegituretarako egindako material gurpildunaren eskari berriak azpimarratu behar ditugu. Euskotrenek, adibidez, Gasteizko tranbiaren zerbitzurako 7 moduluko 6 tranbia berri kontratatu ditu eta Lund izeneko Suediako hiriak, Skånetrafiken garraio-operadorearen bidez, 5 moduluko 7 tranbia kontratatu ditu (10 urteko mantentze-lanak ditu lotuta).

Bartzelonako metroak, zerbitzua hobetzeko bere planaren baitan, 1, 3 eta 5 lineetan zirkulatzeko 5.000 eta 6.000 serieetako 10 tren berri kontratatu ditu. Zehatzago esanda, 5.000 serieko trenetako bik 3. linean zirkulatuko dute; aldiz, gainerako 4 trenek 5. linean zirkulatuko dute. 6.000 serieko 4 trenak 1. linean egongo dira.

Italian, Napoles hiriko metroak 6na kotxe izango dituzten bi tren berri eskuratzeko zabalkuntza-aukera erabili du. Aukera hori hasiera batean hiriko metroko 1. linean zirkulatzeko 10 unitate hornitzeko 2017an sinatutako kontratuaren baitan zegoen jasota.

Gainera, Luxemburgeko tranbia-operadoreak beste 12 tranbia erosteko aukera erabili du 2015ean formalizatutako 21 tranbiako hasierako eskariarekin lotuta. Guztiak daude ontziratutako energia biltegiratzeko Greentech teknologiarekin.

Friburgo izeneko Alemaniako hiriak, aldiz, tranbia-zerbitzurako 7na moduluko 5 ibilgailu erosi ditu eta 12 ibilgailura arte handitzeko aukera biltzen du. Aurretik CAFek hornitu zituen eta hirian dagoeneko zerbitzua eskaintzen ari diren 12 ibilgailuei gehituko zaizkie.

Amsterdam hiriak, GVB Activa B.V. garraio publikoko operadorearen bidez, 3 kotxeko 30 unitateren hornikuntza kontratatu du zerbitzuan dauden metro zaharrak berritzeko. Kontratuak, gainera, 60 unitate arte zabaltzeko aukera biltzen du.

Norvegian, eta bertako hiriburuko, Oslorako, Sporveien-ek (hiri-garraioko operadorea) 87 tranbia berriren hornikuntza kontratatu du eta beste 60 unitatearekin zabaltzeko aukera ere jasotzen du kontratuak. Hala, Norvegiako hiriburura bisita egiten dutenek CAFek egindako produktuen moldakortasuna



**Hirugarren urtez jarraian, ekitaldia kontratazio-zorroaren balioan errekorreko zifrarekin itxi da eta 7.716 milioi eurokoa izan da. Beste nolabait esanda, aurreko ekitaldiaren itxieran zehaztutako aurreko maximoarekiko % 23ko igoera gertatu da.**




ezagutzeko aukera izango dute: Flytogetek operatzen dituen eta Gardemoengo aireportua lotuko duten abiadura handiko Oaris ibilgailuetatik hasi eta hiriko kaleetan joan-etorri atseginak egitea ahalbidetuko duten Urbos ibilgailuak barne.

Hiriko zirkulazioa eta Europa kontinentala albo atera utzita, aipatu beharrekoa da Erresuma Batua. KeolisAmey enpresaren eskutik, Wales and Bordersen frankiziaren operaziorako, 180 kotxe fabrikatzeko kontratua formalizatu dute. Frankiziari zerbitzua eskaintzeko 77 diesel-unitate osatuko dituzte. Kontratuak, gainera, unitateen mantentze-lan integrala gutxienez 15 urtez egitea du lotuta. Epe horretarako esleitu diote KeolisAmey enpresari frankiziaren ustiapena.

Erresuma Batutik aldendu gabe, Arriva UK operadoreak eta Eversholt Rail Group finantza-enpresak hasieran egindako eskaria zabaldu du Northernen frankizia ustiatzeko. Horren ondorioz, eskaria 290 kotxekoa izango da 43 unitate elektrikotan eta 58 diesel-konposiziotan banatuta.

Bi kontratu horiek Newporten (Gales) dugun produkzio-zentro berriko laneko karga handituko dute. Urteko bigarren seihilekoan hasi da lanean.

Ipar Irlandan, aldiz, Translinkek gure enpresan bere garaian jarritako konfiantza berritu eta beste 21 kotxe berriren hornikuntza kontratatu du. 2009an sinatutako kontratua handitu du horrek.

Bestalde, abenduan sinatu zuten Holandako NS operadorearen hornikuntza zabaltzeko kontratua; beste 302 kotxe izango dira, 3 kotxeko 50 unitate eta 4 kotxeko 38 unitate osatuz. Guztiak Civity familiako unitate elektrikoak izango dira.

Ia aldi berean sinatu zuten Sydney hirian (Australia) Parramattako tren arinaren proiektuko lehen fasea hornitzeko, operatzeko eta mantentzeko kontratua. Aipatutako proiektua CAF Rail Australiak eta Transdev Australasiak osatutako Great River City Rail Light kontsortzioak irabazi zuen . Proiektu horretarako, CAFek 7 moduluko 13 URBOS ibilgailu zein lineako sistemak eta integrazioa hornituko ditu. Trakzio-sistema, azpiestazioak, seinaleztapen-sistema eta proiekturako kontroleko eta komunikazioetarako zentroa biltzen dituzte.

Azkenik, aipatu beharrekoak dira Errodajeetako (MiiRA), mantentze-lanetako eta Taldeko gainerako filialetako jarduerekin lotutako kontratazioak eta horiek izandako funtzionamendu ona. Hori guztia dela eta, urteko kontratazioa 2.902 milioi eurokoa izan da. Era berean, aipatu beharrekoa da birgaitze-lanen jarduerak izan duen funtzionamendu ona. Aurten Renferekin sinatu ditu kontratuak parke metrikoko unitateetan sartzeko arrapalak gehitzeko, Italian 670 kotxetan suteak detektatzeko eta itzaltzeko ekipoak diseinatuko eta instalatuko dituzte, eta Medellineko metroaren kasuan 126 kotxe birgaituko dituzte (Kolonbiako hiri horretako metroko 42 unitate osatzen dituzte kotxe horiek).

2019a gure enpresa modu esanguratsuan presente dagoen merkatuetan aukera handiko urtea izango dela aurrez ikusi dugu. Estatuari dagokionez, Sustapen Ministerioaren mende dauden enpresek deitutako hainbat lehiaketa iragarri dute eta Britainia Handian, aldiz, bertako AVEa sustatzen duen High Speed Two (HS2) sozietate publikoarentzako abiadura handiko trenen lehiaketarekin lotuta sozietateak CAF enpresa gonbidatu du eskaintza aurkez dezan.



# INDUSTRIA-JARDUERA
# TRENEN SEGMENTUA



2018an CAFeko produkzio-lantegietan fabrikatutako kotxe kopurua 750ekoa izan da.

Ekitaldi honetan, bestalde, fabrikazioko mixak produktuen ia gama osoa jaso du: Norvegiako Flytoget bezeroarentzako abiadura handiko 2 unitateetatik hasi eta Boston hirirako fabrikatutako erabilera askoko LRV (Light Rail Vehicle) ibilgailuetaraino. Aurten haietako 3 unitate fabrikatu dira.

Aurreko urteetan abiarazitako eta 2018an aurrera jarraitu duten proiektuak asko izan dira eta jarduera industriala eragin dute haiek. Horien artean, nabarmendu beharrekoak dira hauek: Estatu Batuetako Amtrak operadorearentzako kafetegi motako 13 kotxeak, Caledonianentzako (Eskozia) tipologia ezberdinetako 45 kotxeak, Sao Pauloko metrorako azken trena (kontratatutako 26 trenen fabrikazioa osatu du horrek), Brasilgo hiri bereko CPTM operadorearentzako 10 trenak, Txileko metroarekin sinatutako 41 unitateko kontratua osatu duen azken trena eta Sain Etienne hiriak kontratatutako 16 tranbiak osatu dituen azken tranbia.

Aldi honetako jarduera industrial nagusia berriagoak diren beste proiektu batuetan pilatu da: Holandako Nederlandse Spoowegen operadorearentzako aldiriko trenak, 3 kotxeko 23 konposizioren eta 4 kotxeko 22 konposizioren fabrikazioa, edo Britainia Handiko Transpeninne Express operadorearentzako EMU motako (Electrical Multiple Unit) treneko 4 unitateak gehi atoian eramandako kotxeen 11 konposizioak. Erresuma Baturako, bestalde, EMU motako 8 tren fabrikatu dira 3 eta 4 kotxeko konposizioekin, eta DMU motako (Diesel Multiple Unit) 10 tren, 2 eta 3 kotxeko konposizio dituztenak. Biak Northern Arriva operadorearentzako dira.

Horiez gain, ekitaldi honetan, bestalde, aldiriko 13 tren fabrikatu dituzte Tolucarako (Mexiko), Utrechterako 5 moduluko 27 tranbietatik 10, Australiako Canberra hiriarekin sinatutako kontratua osatu duten 13 tranbiak, 5 tranbia Newcastlerako, Aljerreko metroak kontratatutako 12 trenen erdia, Mexiko Hiriko metroko 1. linearako izango diren lehen 3 trenak eta lehen 3 metro-unitateak Quito hirirako (Ekuador).

Kontratu batzuk burutu ahala, fabrikazioko lehen fasea hasi zuten beste batzuek: Bruselako metrorako trenek, Aucklanderako 15 treneko zabalkuntza-kontratuak eta Amsterdam hirirako 63 tranbiako proiektuak, adibidez.

**NEGOZIO ZIFRA** (milioika euro)



**2018an CAFeko produkzio-lantegietan fabrikatutako kotxe kopurua 750ekoa izan da eta enpresa mundu osoan garatzen ari den 21 proiektuei dagozkie.**

2018an fabrikatutako produktu garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

| KOTXE KOPURUA | |
|---|---|
| Flytoget abiadura handia | 8 |
| Amtrak distantzia luzeko kotxeak | 13 |
| Caledonian distantzia luzea | 45 |
| Transpeninne distantzia ertaina kotxeak + kabina | 55 |
| Transpeninne EMUak distantzia ertaina | 20 |
| Northern Arriva EMUak distantzia ertaina (3 kotxeko konposizioa) | 6 |
| Northern Arriva EMUak distantzia ertaina (4 kotxeko konposizioa) | 24 |
| Northern Arriva DMUak distantzia ertaina (2 kotxeko konposizioa) | 4 |
| Northern Arriva DMUak distantzia ertaina (3 kotxeko konposizioa) | 24 |
| CPTM aldirikoak | 80 |
| Sao Paulorako aldirikoak | 6 |
| Tolucarako aldirikoak | 65 |
| NSrako aldirikoak (3 kotxeko konposizioa) | 69 |
| NSrako aldirikoak (4 kotxeko konposizioa) | 88 |
| Txileko metroa | 5 |
| Quitoko metroa | 18 |
| Medellíneko metroa | 3 |
| Aljeriako metroa | 36 |
| Mexikoko metroko 1. linea | 27 |
| Bostonerako LRV | 9 |
| Saint Etiennerako tranbia | 5 |
| Utretchterako tranbia | 50 |
| Canberrarako tranbia | 65 |
| Newcastleko tranbia | 25 |
| GUZTIRA | 750 |

| BOGIEAK | |
|---|---|
| Mekanizatutako-soldatutako bastidorearekin | 1.326 |

| ERRODAJEETAKO ETA OSAGAIEN UNITATEAK (MiiRA) | |
|---|---|
| Muntatutako ardatzak (motorra + atoia) | 4.934 |
| Ardatz-gorputz solteak | 8.212 |
| Osoko gurpilak | 60.328 |
| Gurpil elastikoak | 1.637 |
| Loturak | 816 |
| Erreduzitzaileak | 2.163 |
| Bandajeak | 576 |

# I+G+b JARDUERA
# TRENEN SEGMENTUA

CAFi eta CAF I+D-ri dagokienez, 2018ko ekitaldian zehaztu zen 2019-2020 aldirako CAF Taldearen Berrikuntza Plan berria, Plan Estrategikoarekin lerrokatuta.

Berrikuntza-prozesu berriaren arabera zehaztutako Berrikuntza Planak I+G korporatiboko plana zein negozio hauetako produktu-planak biltzen ditu: CAF Ibilgailuak, CAF I+D, Rail Services, Birgaitzeak, MiiRA, CAF Power & Automation, CAF Signalling, CAF Turnkey Engineering, Cetest eta Vectia.

Berrikuntza Planak 192 proiektu biltzen ditu: 83 I+G korporatiboko planean, eta 109, berriz, negozio ugarietako produktu-planen artean.

Proiektu horiek finantzatzeko, I+Gko jarduera babesteko hainbat laguntza jaso da. Honako hauek emandakoak dira horiek:

- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritza.
- Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.
- Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateak Ministerioa.
- Europako Batzordea.

Ekitaldi honetan garatutako eta guztira 116 proiektu bildu dituen 2018-2019 Teknologia Planean, CAF, CAF I+D eta hainbat filial partaide dituzten proiektuak indartu dira eta hainbat zentro teknologiko eta unibertsitaterekin batera lan handia egin da.

2018-2019 Teknologia Planean jasotako proiektuek honako eremu hauek lantzen dituzte:

- Tren-produktu espezifikoak.
- Tren Digitala. Zerbitzuan lortutako datuak jasotzearekin eta tratatzearekin lotutako proiektuak biltzen ditu gero horiek produktuan eta mantentze-lanetan egin beharreko hobekuntzetan erabiltzeko. Horretarako, BigDatako teknologiak erabiltzen dira.
- Energiaren kudeaketa eta ekodiseinua trenen eta sistema orokorraren kontsumoa murrizteko eta optimizatzeko, hainbat baliabidetan energia lortzea eta biltegiratzea eta abar.
- Seinaleak, enbarkatuak zein finkoak.
- Trakzioa.
- Oinarrizko tren-teknologiei, trakzioari, gurpilei eta ardatzei, erreduzitzaileei, loturei, kontrolari eta komunikazioari, mantentze-lanei eta abarrei buruzko produktu eta teknologia espezifikoak.

Haietan guztietan, teknologietan oinarritutako produktuak garatuta, bateratu egin dute teknologiak bereganatzera zuzendutako proiektuen egikaritzea.

CAF Taldea lankidetza-proiektuetan parte hartzen ari da Estatuko programen eta Europako zazpigarren esparru-programaren eta Horizon 2020 ekimenaren baitan. Proiektu horien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- SMART TRAIN. CAFeko digitalizazioko ekimen estrategikoaren baitan sartuta dagoen proiektua da eta tren eta zerbitzu lehiakorragoen belaunaldi berria garatzea du helburu. Horretarako, trenak sortzen dituen datu guztien kaptura, biltegiratzea, prozesamendua eta azterketa aurreratua egiten du modu ziberseguruan.

- UNIMODEL, 2 urteko iraupena duen lankidetza-proiektua. Horren helburua da kostu unibertsaleko ereduaren (UCM) metodologia garatzea ibilgailua bidean operatzeak duen kostu orokorra kalkulatu, eta LCCren kostuak gutxitu eta hobetu ahal izateko. Horren bidez, tren-ibilgailuetan berrikuntza teknologikoak txertatzeak kostuari dagokionez duen eragina konpara daiteke.









**Ekitaldi honetan garatutako eta guztira 116 proiektu bildu dituen 2018-2019 Teknologia Planean, CAF, CAF I+D eta hainbat filial partaide dituzten proiektuak indartu dira.**

- STARS, trenen esparruan satelite bidezko posizionamendu globala egokia den ala ez zehaztea xede duena.

- AROSSen helburua da tren arloko materialaren errodadurako, esekidurako eta balazta-ekipoko sistemarako funtsezkoak diren elementuen predikzioko, monitorizazioko eta diagnostikoko irtenbideen garapenean oinarritzea, elementu horien bizitza eta kudeaketa aurreratua optimizatu ahal izateko.

- SHIFT2RAIL. Horizon 2020 programaren barruan tren arloko I+G bultzatzen duen Shift2Rail JU-aren (Joint Undertaking) kide sortzaile gisa, CAF teknologia garatzeko hainbat proiektutan ari da parte hartzen (CONNECTA 1, PINTA 2, IMPACT 1, FINE 1, X2RAIL 1, PIVOT, FR8RAIL1, IMPACT1, IMPACT2, CONNECTA 2, PINTA 2, X2RAIL 1, X2RAIL 2, X2RAIL 3, PLASA 2, FR8RAIL 2) eta 2024. urtera arte jarraituko dute.

CAF ibilgailuen plataformak garatzeaz, zabaltzeaz eta sakontzeaz gain, aurten landu diren ingeniaritza arloko proiektu nagusiak hauek izan dira:

- Diesel-unitateak eta unitate elektrikoak Northern-Arrivarentzat (Erresuma Batua).
- Transpennine Express-First Groupentzako (Erresuma Batua) unitate elektrikoak.
- LRVak Bostoneko eta Marylandeko (AEB) metrorako.
- Caledonian eta Transpennine Express-First Groupentzat (Erresuma Batua) atoian eramandako kotxeak.
- Tolucarako unitateak (Mexiko).
- Mexikoko metroa, 1. linea.
- Canberrarako eta Newcastlerako (Australia), eta Amsterdamerako (Holanda) tranbiak.
- RATPrako (Frantzia) lokotraktoreak.
- Schönbuchbahn-erako unitate elektrikoak (Alemania).
- STIBerako (Brusela) metro automatikoa.

2018an zehar honako hauek jarri dira martxan:

- DMU West Midlands (Erresuma Batua).
- Napoleseko metroa (Italia).
- LRV Manila (Filipinak).
- Bartzelonako metroa (Espainia).
- Amsterdameko metroa (Holanda).
- Oslo (Norvegia) eta Lunderako (Suedia) tranbiak.

# SOLARIS

**Solaris erosi izanari esker, CAF Taldea Europa mailako hiri-segmentuko liderretako bat bihurtu da. Gainera, Solarisen eta CAF Taldearen negozioak osagarriak direnez, sinergia handiak lortu ahal izango dituzte.**

2018ko irailaren 4an osatu zuen CAFek Solaris, autobusen Poloniako fabrikatzailea, erosteko prozesua. Solaris, 1996an eratutako enpresa, 32 herrialdetako 700 hiri baino gehiagotan presentzia duen autobus arrunt eta elektrikoen mundu mailako hornitzailea da. 2018ko negozio-zifra bateratua, gutxi gorabehera, 458 milioi eurokoa izan da eta Polonian bi produkzio-lantegi eta 2.300 pertsona baino gehiagoko plantilla ditu. Eragiketa horri esker, CAF Taldea Europa mailako hiri-segmentuko liderretako bat bihurtu da. Gainera, Solarisen eta CAF Taldearen negozioak osagarriak direnez (mundu osoan bezeroen kopuru handia dute), sinergia handiak lortu ahal izango dituzte.

2018an (12 hilabeteko datuak), Solarisek 1.226 autobus eta trolebus entregatu zituen eta haietako 402 Poloniako bezeroentzat izan ziren. Hala, hamaseigarren aldiz jarraian, enpresa zoru baxuko hiriko autobusen merkatuan lider nazional bihurtu zen % 33ko merkatu-kuotarekin.

Atzerriko bezeroei dagokienez, Solarisek 824 ibilgailu hornitu zituen 2018an. Gehienak Lituaniara (162), Alemaniara (153), Txekiar Errepublikara (141) eta Italiara (113) joan ziren. Enpresak 2018an izandako eskaera nagusiak honako hornikuntza hauekin lotutakoak izan ziren: Vilnius (149 autobus Solaris Urbino 12 eta Urbino 18), Erroma (90 Solaris InterUrbino), Brusela (63 hibrido Solaris Urbino 12) eta Düsseldorf (54 Solaris Urbino 18).

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da propultsio-lerro alternatiboak dituzten autobusek (batez ere hibridoek eta elektrikoek) gero eta rol garrantzitsuagoa betetzen dutela Solarisen salmenten eta produktuen egituran. 2018an, enpresak egindako kontratu guztien % 36 zegoen lotuta igorpen baxuko edo zero igorpeneko ibilgailuen hornikuntzarekin. Hemen laburbilduta dagoen aldian, 107 autobus elektriko entregatu zizkieten herrialde hauetako bezeroei: Belgika, Txekiar Errepublika, Espainia, Alemania, Norvegia, Polonia, Errumania, Eslovakia, Suedia eta Italia. Ondorioz, % 17ko merkatu-partaidetzarekin[1], Solaris mugigarritasun elektrikoko segmentuan presentzia handiena duten Europako enpresetako bat zela esan dezakegu. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Solaris Urbino 12 elektrikoa izendatu zutela 2017an hiri esparruan “urteko autobus” onena.

Solarisen salmenta-egituran autobus elektrikoek duten garrantzi handiagoa bat dator enpresaren epe luzera begirako garapen-estrategiarekin zein mugigarritasun elektrikoarekin lotuta CAF Taldeak duenarekin. Aurreikuspenen arabera, hurrengo hamarkadan, igorpen baxuko edo zero igorpeneko autobus-segmentua handitu eta hiriko autobusen merkatu osoko % 80 bihurtuko da, batez ere ohiko propultsio-lineen kontura. Solaris aldaketa horri aurre egiteko ondo prestatuta

2020-2030 URTEETAN AUTOBUSEN MERKATU-KUOTAREN PROIEKZIOA, EUROPAN AUTOBUS URBANOEN MERKATUKO PROPULTSIO-ITURRIAREN ARABERA (ITURRIA: ZeEUS/UITP)






dago eta, hurrengo urteotarako aurreikuspenen arabera, propultsio-linea alternatiboak dituzten autobusek produkzio osoaren erdia osatuko dute.

2018an Solaris produktuen hainbat premiere egin zen. Kielce-ko Transexpo azokan, aurreko udazkenean, portfolioari gehitu dioten azken modeloetako bat ezagutarazi zuten: Solaris Urbino 12 LE Lite hibridoa. Ibilgailuaren izenari gehitu dioten "Light" etiketa hori bere abantaila nagusiari lotuta dago: erregaiaren kontsumo baxua. Horri esker, merkatuan eskuragarri dauden antzeko ibilgailuekin alderatuta, operazioko kostuak txikiagoak dira. Aurtengo urtarriletik aurrera, diseinu berria fabrikatu berri diren autobus guztietarako estandarra izango da. Transexpo azokan saritu zituzten birdiseinatutako Solaris Urbino autobusek erabiltzaileentzako onura nabarmenak ere biltzen dituzte: LED argiztapena, gidariaren ikuspen eremua hobetzen duen diseinu berriarekin, eta bidaiarientzako helmugako pantailaren ikusgarritasuna eta autobusaren aerodinamika, adibidez. Horrek guztiak ondorengo mantentze-lanetan eragingarritasun handiagoa dakar berekin.

2019. urteari dagokionez, bi produktu berri merkaturatuko ditu Solarisek. Haietako lehenengoa izango da Solaris Urbino 12 Hidrogeno Elektrikoa, propultsio elektrikoko linea eta hidrogeno-erregaiaren gelaxka bat dituena. Stockholmen egingo den Garraio Publikoaren inguruko goi mailako bileran aurkeztea espero dute. Produktu horretan merkatuko punta-puntako aurrerapen teknologikoak aplikatu dira hidrogenoa biltegiratzeko eta energia sortzeko elementuei dagokienez.

Bigarren ibilgailua Bruselan urrian egingo duten Busworld merkataritza-azokan aurkeztuko dute eta Solaris Trollino 24 da. Eraikitzen ari diren trolebus hori da eragiteko bi ardatz izango dituen eta 24 metroko neurri handiko luzera izango duen lehen ibilgailu biartikulatua. Era berean, trolebuserako eraikuntza-plataforma eta autobus hibrido eta elektrikoak ere aipatu beharrekoak dira.

2019ari asmo handiko helburuak eta urte osorako jarduera bermatzen dituen eskarien zerrendari egingo dio aurre Solarisek. Ibilgailu horietako askok diseinuari eta produkzioari dagokienez propultsio-linea alternatiboak dituzte eta Solaris Europa mailako aditua da horretan gaur egun. Gainera, gure bezeroei eskainitako salmenta osteko zerbitzuek negozioaren estrategiaren zati esanguratsu bat osatzen dute eta horiek garatzea da Solaris taldearen helburu nagusia.

*1. Iturria: CME Solutions/Solaris*

# INBERTSIOAK

2018ko ekitaldian, CAF Taldeak egindako inbertsio materialen zenbatekoa 52.823 mila eurokoa izan da. Hauek nabarmen ditzakegu ekitaldiko inbertsioen artean:

Trenen fabrikazioari dagokionez, industrializazio-eredua hobetzera bideratutako plana gartzen ari gara enpresak esleitutako proiektuen kopuruari modu eragingarrian aurre egiteko beharrezko instalazio eta gaitasuna eduki ditzan. Planaren baitan, nabarmendu beharrekoak dira produkzio arloetako inbertsioak: bogieetako instalazio robotizatu berria, produktu-plataformaren araberako lerro espezifikoak sortu izana, egituretako fabrikazio-nabe berria egokitu izana, akaberako nabeen berrikuntza eta hornikuntza Lean metodologia aplikatuta eta kitting jarduerarako erabiltzen diren nabe horietako eremuak zabaldu izana.

Errodajeetako jarduerari dagokionez, MiiRA ardatzen mekanizazioko eta egiaztapeneko linea automatiko berrian egin beharreko egokitzapen-lana egiten ari da homologazioa lortu eta hainbat bezeroren eskakizunei erantzun ahal izateko. Era berean, sail horretako instalazio orokorrak modernizatzen ai dira.

Bestalde, enpresako gainerako sailei dagokienez, nabarmendu beharrekoak dira Kalitate arloan egindako inbertsioak. Instalazioetan lan egiten duten kanpoko ikuskatzaileen eta proiektuen kopurua handitu izanak eragin du hori eta,

**INBERTSIOAK** (milaka euro)




horretarako, bulego berriak egokitu eta neurketako tresna eta elementuak erosi dituzte jarduera behar bezala garatzeko. Era berean, plantillan gertatutako igoeraren ondorioz aurreko ekitaldian bulegoak berrantolatzeko eta zabaltzeko abian jarritako lanekin jarraitu dute.

Informazio-teknologiei dagokienez, backup-etarako hardwarearen azpiegitura berritu eta zabaldu dute. Gainera, ingeniaritza arloan diseinu-estazio birtualen irtenbidea hedatzen ari dira. Segurtasunari dagokionez, enpresako IKT zerbitzuetarako sarbide-kontrolaren gainean lanean ari dira



**2018ko ekitaldian, CAF Taldeak egindako inbertsio materialen zenbatekoa 52.823 mila eurokoa izan da. Besteak beste, haren bolumen eta garrantzia direla eta, nabarmendu beharrekoa da Erresuma Batuko fabrikazio-lantegi berria amaitu dutela.**




2017an egindako segurtasuneko auditoriaren eskakizunetako bat betez.

Era berean, nabarmendu beharrekoak dira filial batzuk beren hazkunde-planen barruan egiten ari diren inbertsioak. Hori da, adibidez, CAF Power & Automation eta CAF Signalling filialen kasua; trakzioko eta I+G-ko laborategiak zabaltzen eta hobetzen ari dira hurrenez hurren.

Atzerriko lantegiekin lotuta, bolumenari eta garrantziari dagokienez, nabarmendu beharrekoa da Erresuma Batuko fabrikazio-lantegi berria amaitu dela (aurreko urteko erdialdean hasi zituen lanak). Lantegia Newport (Gales) hirian dago eta tren-ibilgailu mota guztiak fabrikatzeko diseinatuta dago. Ibilgailuen muntaketako eta akaberako jarduerak zein zerbitzuan jarri aurretik egin beharreko proba guztiak egitea du aurrez ikusita. Era berean, aipatu beharrekoak dira Mexikoko lantegia zabaltzeko eta Estatu Batuetako lantegian ekipoak eta instalazioak erosteko egindako azken inbertsioak. Estatu Batuetako lantegian gaur egun garatzen ari diren proiektuetarako beharrezkoak dira.



# ARRISKU ETA ZALANTZA NAGUSIAK

CAF Taldea egiten dituen jarduerei eta lan egiten duen herrialde eta merkatu ugariei atxikitako hainbat arriskuren mende dago, eta bere helburuak lortzea eragotz dezakete horiek.

Gai hori lantzeko konpromisoarekin, CAF Taldeko Administrazio Kontseiluak arriskuak behar bezala kontrolatzeko eta kudeatzeko oinarrizko mekanismoak eta printzipioak finkatzen ditu Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Politika Orokorraren bidez. Politika hori bat dator Taldearen misioarekin, ikuspegiarekin eta balioarekin, eta horren bidez honako hauekin lotuta segurtasun eta ziurtasun handiagoa eskaintzeko konpromisoa hartzen du bere gain:

- CAF Taldeak aldakortasun kontrolatuarekin zehazten dituen helburu estrategikoak lortzea.
- Akziodunei ahalik eta berme maila handiena eskaintzea.
- CAF Taldearen erreputazioa eta emaitzak babestea.
- Akziodunen, bezeroen, Taldearen bilakaeran interesa duten beste talde batzuen eta, oro har, gizartearen interesak defendatzea.
- Enpresa mailako egonkortasuna eta finantza-irmotasuna denborari dagokionez modu iraunkorrean bermatzea.

Horretarako, Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Politika Orokorra CAF Talde osorako hedatzen da Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integralaren bidez. Sistema hori informazioko sistemen, arauen, prozesuen, prozeduren eta kontrolen multzoa da eta, horren bidez, arrisku guztiak behar bezala kudeatuta egoten dira honako hauek jasotzen dituen sistemako hurrengo etapen eta jardueren bidez:



1) Jarduera bakoitzerako arriskuen kudeaketako testuingurua ezartzea.
2) Taldeak aurre egin behar dien arrisku mota ugariak identifikatzea (izaera korporatiboa edo negoziokoa dela eta).
3) Identifikatutako arriskuen azterketa eta inplikazioa CAF Talde osoan.
4) Arriskuaren ebaluazioa zehaztutako apetitua kontuan izanda.
5) Arriskuen tratamendurako aurrez ikusitako neurriak.
6) Egungo arriskuen eta egon daitezkeen arriskuen aldizkako jarraipena eta kontrola.

Aurretik zehaztutako eta CAF Taldeak onartutako Arriskuen Kudeaketako Sistema Integrala nazioarteko estandarren araberakoa da arriskuaren azterketa eta kudeaketa integratua egiteko metodologia eragingarria eta Defentsako Hiru Lerroen Eredua (arriskuen kontrolarekin eta kudeaketarekin lotuta erantzukizunak esleitzeko) erabiltzeari dagokionez.

Horrekin lotuta, Administrazio Kontseilua da Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Politika Orokorraren arduradun gorena. Hark onartzen ditu arriskuak identifikatzeko, neurtzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura egokiak. Era berean, agintaritzako eta erantzukizuneko ildo argiak zehazteaz arduratzen da eta kudeaketarekin lotutako barneko kontrol eragingarri eta arrisku mota ugariak neurtzeko metodologia egokiak izatea eskatzen du. Horrez gain, Taldean ezarritako Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integrala ezartzeaz eta haren jarraipena egiteaz arduratzen da eta hark egiaztatuko du Talderako arrisku esanguratsuak sendoak direla eta ezarritako arriskuarekiko tolerantzia maila barruan daudela.

Bestalde, Auditoria Batzordeari dagokio ezarritako Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integralaren eta jarraipena egiteko diseinatutako prozeduren eragingarritasuna modu independentean gainbegiratzea edo ebaluatzea. Horretarako oinarria Arriskuen Kudeaketa Saila da eta, modu osagarrian, Barne Auditoriako Funtzioari dagokionez.

Hauek dira Taldeak dituen arrisku nagusiak, kategoriatan sailkatuta:

**Arrisku estrategikoak:** baldintza makroekonomikoek eta geopolitikoek zein Taldeak lan egiten duen sektoreko eta merkatuetako ezaugarriek eta hartutako plangintza estrategikoko eta teknologikoko erabakiek eragiten duten ziurgabetasunetik eratorritako arriskuak dira.

**Finantza-arriskuak:** merkatuen gorabeherek eragiten dituzte eta, horien barruan, arriskuko azpikategoria hauek daude jasota:

- Merkatuko arriskua, tipologia hauek kontuan hartuta:

**CAF Taldeak onartutako Arriskuen Kudeaketako Sistema Integrala nazioarteko estandarren araberakoa da arriskuaren azterketa eta kudeaketa integratua egiteko metodologia eragingarria eta Defentsako Hiru Lerroen Eredua (arriskuen kontrolarekin eta kudeaketarekin lotuta erantzukizunak esleitzeko) erabiltzeari dagokionez.**



– Interes-tasaren arriskua: interes-tasen aldaketen aurrean egon daitekeen arriskua. Emaitzetan zein Taldearen aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak eragin ditzakete aldaketa horiek.

– Truke-tasaren arriskua: moneten truke-tasen aldaketatik eratorritako arriskua. Horrek etorkizuneko transakzioen eta dibisan izendatutako aktiboen eta pasiboen balorazioaren gainean eragina izan dezake.

– Lehengaien prezioen arriskua: negozioetako hornikuntza-katean beharrezkoak diren lehengaiekin lotuta merkatuko aldagaietan eta prezioetan gertatzen diren aldaketetatik eratorritako arriskua.

• Kreditu-arriskua: Kaudimen-arriskua, hartzekodunen konkurtsoarena edo porrotarena edo Taldeak benetan kreditu garbia eman dien eta likidatu edo kobratu gabe dauden eta aurkako alderdiek diruzko obligazio zenbagarriak ordaintzeko garaian ez betetzearekin lotutakoa da.

• Likidezia-arriskua eta finantzaketa: pasiboari dagokionez, transakzioak egitea ezinezkoa izatearekin edo, sozietatearen kreditu-kalitatea gutxitu izanaren ondorioz edo beste kausaren bat dela eta funtsik edo finantza-merkatuetara sarbiderik ez duelako, jarduera operatiboetatik edo finantzarioetatik eratorritako obligazioak ez betetzearekin lotutako arriskua da. Aktiboari dagokionez, merkatu-prezioaren arabera salmenta egiteko une jakin batean aktiboaren eskuratzaileak ez lortu ahal izatearekin edo merkatu-preziorik ez izatearekin lotutako arriskua da.

Merkatu-arriskuarekin eta kreditu-arriskuarekin lotuta Taldeak duen esposizioa 5. oharrean (“Finantza-arriskuen kudeaketa”) dago jasota, eta jarduerek jasaten dituzten arriskuak estaltzeko erabiltzen diren finantza-tresna eratorrien erabilera urteko kontu bateratuen memoriako 17. oharrean, “Finantza-tresna eratorriak” izenekoan, dago jasota. Likidezia-arriskua hurrengo atalean modu zehatzagoan jorratuko dugu.

**Arrisku operazionalak:** gizakiaren akatsen/akats teknologikoen, barne-prozesu desegokien/akastunen edo kanpoko eragileen esku-hartzearen ondorioz galera ekonomikoak sortzen diren Taldeko jarduera, produktu, sistema eta prozesu guztien baitan dauden arriskuak dira. Izaera korporatiboa duten arriskuak zein proiektuak gauzatzearekin lotutakoak jasotzen dituzte.

**Gobernu Korporatiboaren arriskuak:** Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistema ez betetzetik eratortzen dira. Sistema honako hauek osatzen dute: (i) Estatutu Sozialak eta gobernu korporatiboko organo sozialak arautzen dituzten gainerako arauak, (ii) Taldeko enpresa nagusiko Administrazio Kontseiluak onartutako arauak eta politika korporatiboak, eta (iii) Taldeko gainerako organo eskumendunek onartutako garapeneko gainerako barneko politikak, arauak eta protokoloak. Gobernu-organoen diseinua, integrazioa eta funtzionamendua eta enpresako interes-taldeekin duten lotura arautzen dute eta, era berean, honako hauekiko konpromisoa dute oinarritzat: printzipio etikoak, jardunbide egokiak eta gardentasuna. Interes soziala defendatzea eta balio iraunkorra sortzea dira horren guztiaren ardatzak.

**Betetze-arriskuak eta araudi mailakoak** (zergekin eta kontratu mailako eskakizunekin lotutakoak barne): Taldearen auzietatik, kontratu mailako eskakizunetatik, Balio Merkatuko araudítik, datuak babesteko legetik, ingurumeneko arauditik, aplikagarria den laneko legeriatik, zigor-kodetik, eta, besteak beste, tokiko, Estatuko eta nazioarteko zerga-araudietatik eratorrita.

2018an amaitutako ekitaldiko Finantza arlokoa Ez den Informazioaren Egoera bateratuak sakondu ditugu aldez aurretik aipatutako arriskuen tipologia ugariak. Zehatzago esanda, giza eskubideekin, ingurumenarekin, pertsonekin eta ustelkeria eta eroskeriaren aurkako borrokarekin lotutako arriskuak azpimarratu dira.

Arriskuei dagokienez mundu mailako irismena dutenez, Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integrala etengabe eguneratzen da ingurunean izandako aldaketen, helburu eta estrategietan egindako berrikusketen edo sistemaren jarraipenetik edo kontroletik ikasitako lezioak jatorri dituzten eguneratzeen ondorioz Taldean eragina izan dezaketen arrisku berriak txertatzeko.

# LIKIDEZIA ETA KAPITAL-BALIABIDEAK

**Epe laburreko likidezia-eskuragarritasuna**

CAF Taldeak etengabe ebaluatzen du eskuragarri duen likidezia, eskudiruaren saldoak, epe laburreko inbertsio likidoak, kreditu-lerroen eskuragarritasuna, epe laburreko epemuga duten kapital-merkatuko tresnetarako sarrera eta eragiketetako kutxako fluxuaren sorkuntza barne. Horren guztiaren helburua Taldearen likidezia-beharrei uneoro arreta ematea da.

CAF Taldeak dituen epe laburreko likidezia-beharrak ebaluatzeko garaian, beste hainbat faktoreren artean, honako hauek hartzen dira kontuan: Taldearen likidezia-beharren hegakortasun historikoa, urtarokotasuna, zorraren epemugen profila, inbertsio-planetatik eratorritako beharrak, bezeroen aurrerakinen aurrez ikusitako maila eta kapital zirkulatzailearen bilakaera. Eskuragarri dagoen likidezia-helburuen mailak zehazteko, oinarrizko kasuaren gainean narriatutako testuinguruak hartzen dira kontuan.

2017ko abenduaren 21ean, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAk epe laburrerako ordaindukoen jaulkipen-programa erregistratu zuen Irlandako Burtsan 200 milioi euroko gehieneko bolumenarekin, eta programa 2018ko abenduaren 19an berritu zuen. 2018. urtean, programa horren baitan kokatze gehiago egin da eta inbertsiogileen eskari maila ona ekarri du horrek. Taldeak kreditu-lerroekiko finantzaketa-iturri alternatibo gisa erabili ditu horiek, hala finantzaketaren jatorria dibertsifikatuz eta likidezia-iturri osagarria gehituz.

Epe laburrera begira eskuragarri dagoen likideziaren iturriek aktibo likidoak, epe laburrerako finantza-inbertsioak eta erabili gabeko kreditu-lerroak jasotzen dituzte. Honako hau izan da azken ekitaldietan Taldean eskuragarri egon den likideziaren bilakaera:

**Kapitalaren egitura**

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorrean jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

Taldearen helburua bere negozioen profilerako egokiak diren kreditu-kalitate eta palanka-efektu mailak mantentzea da.

CAF Taldeak aldian-aldian aztertzen du bere pasibo-egituraren egokitasuna, aurrez ikusitako kutxa-fluxuak, zorraren epemuga-profila, kapital zirkulatzailearekin lotuta aurrez ikus daitekeen bilakaera eta likideziako etorkizuneko beste behar batzuk kontuan izanda.

2018ko irailean, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAk Poloniako autobusen fabrikatzailearen, Solarisen, kapital osoa erosi zuen. Kapitala erosteko balioa Taldeko enpresa nagusiak epe luzera begira duen zor osagarriarekin finantzatu zen batez ere. Erosketak inpaktu esanguratsua izan du, bai Taldearen finantza-zor gordineko zifretan akzioak erostera bideratutako Talde nagusiaren zorra handitu delako, bai Solaris Taldearen perimetroan sartu delako.

Taldearen pasibo-egiturako magnitude nagusiek azken ekitaldiotan izandako bilakaera honako hau izan da:

**LIKIDEZIA ERABILGARRIA** (milioika euro)




**FINANTZA-ZOR GARBIA** (milioika euro)



| Milioi €-tan | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakiden zor gordina | 421 | 346 | 364 | 283 | 239 |
| Solarisen zor gordina | - | - | - | - | 145 |
| Zor gordin korporatiboa | 429 | 531 | 403 | 406 | 650 |
| **Guztira** | **850** | **877** | **767** | **689** | **1.034** |

CAF Taldea pasibo finantzarioen bere egitura berriro negoziatzeko etengabeko prozesuan dago finantzaketaren kostua minimizatzeko eta epemugako epeak bere beharren arabera egokitzeko helburuarekin, zor-merkatuek eskaintzen dituzten aukeren barruan.

Taldearen 2018ko abenduaren 31ko zorraren epemugen profila honako hau da 2017ko ekitaldiaren itxierakoarekin alderatuta:

**Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Taldearen helburua bere negozioen profilerako egokiak diren kreditu-kalitate eta palanka-efektu mailak mantentzea da.**

**KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK EPEMUGA URTEEN ARABERA** (milioika euro)






# BURTSAKO INFORMAZIOA

| | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kotizazioa** | | | | | |
| Kapitalizazioa itxieran (milioi €) | 1.241 | 1.172 | 1.313 | 876 | 1.036 |
| Azken prezioa (eurotan) | 36,20 | 34,18 | 38,30 | 25,55 | 30,23 |
| Gutxieneko prezioa (eurotan) | 31,30 | 32,22 | 20,66 | 23,45 | 23,01 |
| Gehieneko prezioa (eurotan) | 43,60 | 39,50 | 38,39 | 34,39 | 39,70 |
| **Akzio bakoitzeko datuak (eurotan)** | | | | | |
| Akzio bakoitzeko irabazi garbia (BPA) | 1,27 | 1,24 | 1,02 | 1,20 | 1,74 |
| Akzio bakoitzeko dibidendua | 0,765 | 0,66 | 0,58 | 0,525 | 0,525 |
| **Burtsako ratioak** | | | | | |
| PER (batez besteko kotizazioa/BPA) | 30,14 | 29,06 | 30,30 | 23,76 | 18,53 |
| Kotizazioa/EBITDA | 6,50 | 6,84 | 7,84 | 5,87 | 7,55 |
| PVC (batez besteko kotizazioa/VC) | 1,74 | 1,64 | 1,37 | 1,39 | 1,50 |
| Dibidendu bakoitzeko errentagarritasuna | % 2,00 | % 1,84 | % 1,87 | % 1,85 | % 1,63 |
| Pay-out-a (Dibidendua/BPA) | % 60,3 | % 53,4 | % 56,8 | % 43,9 | % 30,2 |
| **Likidezia-ratioak** | | | | | |
| Free-float-aren errotazioa | % 65 | % 71 | % 89 | % 99 | % 123 |
| Negoziatutako bolumena (milioi akziotan) | 10,8 | 11,8 | 15,6 | 16,2 | 21,2 |

**CAF TALDEAREN BURTSAKO KOTIZAZIOAREN BILAKAERA (hileko batezbestekoa)**



# BESTE INFORMAZIO BAT

## ONDORENGO GERTAERAK

2019ko urtarrilaren 31n, 8.071.641 mila euroko eskaera-zorroa zuen modu irmoan kontratatuta.

Gainera, 2019ko otsailean, Transport for New South Wales-ek CAFek, Pacific Partnership-ek eta DIF Infraestructure V-k osatu duten Momentum Trains Pty Ltd. kontsortzioari esleitu dio Hegoaldeko Gales Berria izeneko Australiako estaturako eskualdeko trenen flota berria hornitzea eta 15 urtez mantentzea biltzen duen proiektua. Lan horiek partaidetza publiko-pribatuko modalitatearen (public private partnership) bidez egingo dituzte.

Kontratu honetan, CAFeko lanen irismen-bolumena 500 milioi euro baino gehiagokoa da eta eskualdeko 29 unitate diesel-elektrikoren eta bi simulagailuren hornikuntza, eta Sydneyren ipar-mendebaldean dagoen Dubbo udalerrian mantentze-lanetarako depositu berria eraikitzea eta ekipatzea biltzen ditu. Gainera, CAF partaide izango da sistema gidatuko duen sozietatearen kapitalean. Lehen unitateak 2022an zerbitzu komertzialean sartuko direla aurrez ikusi da.

## BERE AKZIOAK EROSTEA ETA BESTERENTZEA

2018. urtean, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAk eta haren eskumendeko enpresek ez dute erosi edo izan enpresako akziorik.

## HORNITZAILEEI ORDAINKETA

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen inguruko informazioari dagokionez, 2018an 80,77 egunekoa izan da. Epe hori 11/2013 Legeak ezarritako gehieneko epera egokitu eta murrizteko, Sozietatea esfortzua egiten ari da ordainketak sortzen dituzten ekintzak kobrantza-ekintzetara egokitzeko, beharrezko likidezia galdu gabe ordainketa-denbora murriztu ahal izateko.

## ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK

**Eskarien zorroa:** galera eta irabazien kontu bateratuko “Negozio-zifraren zenbateko garbia” epigrafean etorkizunean aitortuko diren eskari irmoen bolumena jasotzen du. Eskari bat irmoa da CAF Taldearen eta bezeroaren artean betebeharrak sortzen dituenean bakarrik. Trenen eta zerbitzuen kasuan, une hori alderdien arteko kontratua sinatzen den unean gertatzen da.

**Ekitaldiko kontratazioa:** ekitaldian irmotzat jotako eskariak zein aurreko ekitaldietako eskarietan gertatu diren aldaketak jasotzen ditu, eta honela lortzen da: (Aldiaren amaierako eskarien zorroa – Aldiaren hasierako eskarien zorroa + Negozio-zifraren zenbateko garbia). Adierazle horretan ez dago jasota ekitaldiko negozioen konbinazio bidez erositako eskarien zorroa.

**EBITDA:** kalkulua egiteko, galera eta irabazien kontu bateratuko “Ustiapenaren Emaitzatik” honako epigrafeetan sartutako zenbatekoak kendu dira: “Ibilgetuaren amortizazioa” eta “Ibilgetua besterentzearen narriadura eta eragina”.

**Cash-Flow-a:** kalkulua egiteko, galera eta irabazien kontu bateratuko “Sozietate kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza bateratutik” honako epigrafeetan sartutako zenbatekoak kentzen dira: “Ibilgetuaren amortizazioa” eta “Ibilgetua besterentzeagatik narriadura eta eragina”.

**Zirkulatzailean egindako inbertsioa:** balantze bateratuko kontu-sail hauek kontuan hartuta kalkulatzen da eta haien banakapena urteko kontu bateratuetatik lor daiteke:

+ Izakinak
+ Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk
+ Estalduratik eratorritako korronteak (aktiboa)
+ Beste aktibo korronte batzuk
– Hornidura korronteak
– Estalduratik eratorritako korronteak (pasiboa)
– Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk
– Beste pasibo korronte batzuk

**Finantza-zor garbia:** memoria bateratuko 14.h oharrean banakatuta dauden adierazle horren kalkulua osatzen duten kontu-sailak kontuan hartuta lortzen da.

**Likidezia erabilgarria:** Finantza Zor Garbia (Memoria bateratuko 14.h oharra), “Aldi baterako finantza-inbertsioak” eta “Eskudirua eta baliokide diren beste aktibo likido batzuk” kalkulatzeko zehaztutako kontu-sailak zein kreditu-lerroak eta erabili gabeko gainerako finantza-eskuragarritasunak jasotzen ditu.

**Kapitalizazioa itxieran:** ekitaldiko azken kotizazio-egunaren itxieran akzioek duten balioa burtsan zirkulazioan dauden akzioen kopuruaz biderkatuta (memoria bateratuko 14. oharra).

**Free-float-aren errotazioa:** negoziatutako tituluen bolumena aurrez ikusitako akzio flotatzaileekin alderatzen duen ratioa. Horietan ez dira kontuan hartzen akziodun adierazgarrien edo administrazio kontseiluko kideen esku daudenak edo sozietateak autozorroan dituenak. Aurrez ikusitako kapital flotatzailearen ehunekoa gobernu korporatiboaren urteko txostenean dago banakatuta (A.11 atala).

# FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIOAREN EGOERA BATERATUA


| | |
|---|---|
| SARRERA | 29 |
| INGURUMENEKO JARDUERA | 30 |
| GIZA BALIABIDEAK | 34 |
| GIZA ESKUBIDEEKIKO ERRESPETUA | 42 |
| USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA | 44 |
| GIZARTE GAIAK | 48 |




# SARRERA

Kudeaketa-txosteneko atal honetan daude jasota finantza arlokoa ez den informazioarekin lotutako gaiak. Indarrean dagoen legerian honela jasota dago: "finantza arlokoa ez den informazio-egoera". Eduki hori duela gutxi xehetasun osoz garatu da 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legearen bidez eta horrek aldarazi ditu honako hauek: Merkataritza Kodea, 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, eta Kontuen Auditoriari buruzko 2015eko uztailaren 20ko 22/2015 Legea, finantza arlokoa ez den informazioari eta aniztasunari buruzkoa.

Horrez gain, CAFek Erantzukizun Sozial Korporatibo arloko urteko txostena ere prestatzen du. Lehen aipatutako gaiez gain, erantzukizun sozial korporatiboarekin eta iraunkortasunarekin lotutako beste gai bazuen garapen handiagoa biltzen du.

Horrekin lotuta, eta CAFeko Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikarekin bat eginez, bere estrategia korporatiboaren ardatz nagusia da CAF Taldea osatzen duten pertsona guztiek beren jarduera fede onaren eta zintzotasunaren printzipio etikoetan oinarritzea eta haien jokabide-estandarren oinarriak aipatutako politikako balioak izatea.

CAF Taldearen lehentasunezko helburua da (eta hala dago jasota bere Jokabide Kodean) konfiantza sortzea eta balioa banatzea garraio-jarduerak eta beste batzuk egitera bideratuta dauden elementu, ekipo, material, ondasun eta zerbitzuen nazioko zein nazioarteko merkatuan; hori guztia honako hauen mesedetan: bezeroen beharrak, akziodunen inbertsioa, gure erakundeak dihardduen herrialdeetako lehiakortasuna, eta gure erakundean diharduten guztien itxaropenak.

Gainera, erantzukizun soziala bere enpresa-helburuak lortzea bultzatzeko konpromiso boluntario gisa zehazten da. Horren baitan, legezko betebeharrak betetzen eta interes-taldeekiko harremanetan oreka-irizpideak aplikatzen ditu balioa modu iraunkorrean sortzeko.

Iraunkortasunarekin lotuta Taldeak bere gain hartutako konpromisoa Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikak ezarritako 8 jarduera-printzipioren bidez egituratzen da: 1) Indarrean dagoen antolamendu juridikoa zorrotz betetzen dela bermatzeko prebentzioko neurriak finkatzea, 2) Gobernu onaren jardunbideen jarraipena egitea, 3) Oinarrizko eskubideak zorrotz errespetatzea, 4) Isilpekotasuna eta gardentasuna, 5) Komunikazio Arduratsuko Jardunbideak, 6) Erantzukizun fiskala betetzea, 7) Berrikuntzarekiko eta Iraunkortasunarekiko konpromisoa; eta 8) Ingurumenarekiko konpromisoa.

Erantzukizun sozial korporatiboaren kudeaketa hobetzeko lanean aurrera eginda, ISO 26000:2012 arauan jasotako irizpideak betetzen direla bermatzeko beharrezko jarduerak garatu ditugu. Horri esker, 2018an Ibilgailuen eta MiiRAren jarduueretarako hirugarren alderdi positiboaren aitorpena lortu da.

Finantza arlokoa Ez den Informazioaren Egoera hau prestatzeko garaian, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan identifikatutako intereseko taldeen eskakizun eta baldintzak hartu dira kontuan, arreta berezia jarrita haientzat esanguratsuenak diren eta Taldearen estrategian inpaktu handiena duten gaietan.

Horretarako, CAFek Erantzukizun Sozial Korporatiboarekin lotutako azterketa garatu zuen barneko eta kanpoko informazio-iturriak oinarritzat hartuta. Global Reporting Initiative estandarrak zehaztutako irizpideei jarraitu zieten eta gai materialak identifikatzeko, lehentasunak finkatzeko eta balioztatzeko prozesuan esparru horretan lan egiten duten zuzendaritza ugarien partaidetza jaso zuen. Indarrean jarraitzen du emaitzak eta, gainera, baieztatu egin da ISO 26000:2012 arauan jasotako Erantzukizun Sozial Korporatiboko irizpideen arabera garatutako azterketaren ostean.

2018ko ekitaldiko CAF Taldearen Erantzukizun Sozial Korporatiboko txostena GRI estandarren oinarrizko aukeraren arabera prestatu da.

Jarraian azaltzen den informazioa baino gehiago nahi izanez gero, ikus CAF Taldearen webgunean eskuragarri dagoen "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2018ko txostena".

# INGURUMENEKO JARDUERA



CAF Taldeak klima-aldaketaren aurka borroka egiteko eta ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu du bere gain batez ere bi esparru hauetan:

- Indarrean dagoen Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan jasota dagoen moduan, garraiobide eragingarriagoak eta ingurunea gehiago errespetatzen dutenak eskaintzea. Horretarako, Taldeak Berrikuntza Korporatiboaren Estrategia baitan Produktuaren eta Teknologiaren arloko berrikuntzako ekimenak bideratzen eta koordinatzen ditu. Horren helburua da garapen teknologikoko eta produktu/zerbitzuko jarduerak enpresaren erronka estrategiko nagusiekin lerrokatzea hala irtenbide eraginkorrak, irisgarriak eta ekologikoak garatzeko eta eskaintzeko gure bezeroei eta, aldi berean, gure lehiakortasuna bermatzeko.

- Ingurumen arreta-printzipioa txertatuta garatutako jarduera industrial guztien ingurumeneko inpaktuaren prebentzio bidez. CAFeko Ingurumen Politikan jasota dagoen moduan, bideratutako jarduerak ingurumeneko alderdi esanguratsuak kontrolatzeko eta minimizatzeko beharrezkoak eta ekonomikoki bideragarriak diren neurriak hartzera zuzenduta daude: atmosferara egindako igorpenak, hondakinak sartzea eta energia-kontsumoa, besteak beste.

Bi esparru horien baitan, eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuei zein enpresak egiten dituen jarduera industrialei lotutako ingurumeneko arrisku hauek identifikatu dira: (i) material kutsagarrien erabilera; (ii) energiaren kontsumoa ez optimizatzea; (iii) ur-iturrietan eragina; (iv) bioaniztasunean eragina; (v) berotegi-efektuko gasen igorpena; (vi) hondakinak sortzea; (vii) produktu eta zerbitzuen ingurumeneko inpaktua; (viii) aplikagarriak diren ingurumeneko araudiak ez betetzea; (ix) bezeroaren zehaztapenek ezarritako baldintzak ez betetzea; (x) klima-aldaketarekin lotutako muturreko egoera klimatologikoak.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek honako hauek eragin ditzakete: ingurumeneko legeak ez betetzearekin lotutako isunak eta ikuskapenak, ekosisteman eragindako kalte konponezinak eta eragina inguruan (biztanlerian eta abar). Horrek guztiak, gainera, klima-aldaketaren eragin kaltegarriak direla eta CAF Taldeko eragiketetan kostu osagarria ekar dezake. Inpaktu horiek zuzeneko eragina dute epe laburrean, baina azken bi inpaktu horiek epe ertainera begira ere izan dezakete intzidentzia; izan ere, ingurumen-inpaktuek denboran iraun egiten dute. Ildo horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da ez duela ingurumen-arriskuetarako zuzkidura edo bermerik; izan ere, ez du ingurumenaren hobekuntzarekin eta babesarekin lotutako auzirik edo kontingentziarik edo ingurumen-kutsadurako gertakizunik.

Arrisku horiek testuinguruaren arabera azalduta, Taldeak ingurumen-kudeaketako sistema du ezarrita ingurumeneko jarduera hobetzeko, legezko eskakizunak betetzeko eta ingurumen-helburuak erdiesteko helburuarekin. Sistema horren oinarria ISO 14001:2015 erreferentzia-esparrua da.

Ingurumen-kudeaketako sistema horrek Ingurumen Politika eta ingurumen-kudeaketako sistemaren eskuliburua biltzen ditu. Horietan daude jasota egindako jarduerak jasotzen dituzten erregistroak, kudeaketako printzipioak eta kudeaketa-sistemako prozeduren printzipioak.

Horrez gain, Ingurumeneko Batzordea du eta Zuzendaritzak hartzen du parte bertan. Aldizka biltzen da eta ingurumeneko kudeatzailearen lanak egiten ditu, ingurumen arloko lana lortzeko eta hobetzeko beharrezkotzat jotako ekintzak koordinatuz eta bultzatuz.

Esparru hori osatzeko, irismen korporatiboa duten arriskuen kontrol- eta kudeaketa-sistema dago. Aurrez zehaztutako arriskuak txertatzen eta horiek kudeatzera modu esklusiboan zuzendutako jardueren sekuentzia eskaintzen du. Prozesu horrek betetzen du erreferentziazko esparruaren arriskuen eta aukeren analisia egitearen betebeharra.

Garraiobide eragingarriagoak eta ingurunearekiko begirunetsuagoak direnak eskaintzeko helburuarekin, nabarmendu beharrekoak dira tren arloko abantaila ekologiko nagusiak. Horiei esker, garraiobide hau da sistema eragingarri eta lehiakorrena eta ingurumen-inpaktua gutxitzeko, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta ekosistema babesteko lanean modu aktiboan laguntzeko ahalmen handia du. Garraiobide ekologikoena den heinean, trengintza klima-aldaketaren aurkako borrokarako oso lagungarria izan daiteke.

Testuinguru horren baitan, CAFek, Berrikuntzako Plan Estrategikoaren bidez, ekodiseinuaren metodologiara eta ingurumen-inpaktua murriztera bideratutako jarduerak lehenesten ditu. Jarduera horien artean, hainbat laneko esparru bereiz dezakegu:

- Produktuaren Iraunkortasun Funtzioa ezartzea. Horretarako, ingeniaritza-prozesuetan ekodiseinuko metodologiak txertatu ditu sorreratik hasita produktuek beren bizitza-ziklo osoan dituzten ingurumeneko inpaktuak optimizatzeko eta kontrolatzeko. Jarduera horien ondorioz, Taldeko enpresa nagusiak produktuaren ingurumen arloko sei aitorpen (EPD Environmental Product Declaration) ditu segmentu ugarietan. 2018. urtean, proiektuaren birziklagarritasuneko aurretiazko ikerketa egin da tren-makinarako RATPera zuzenduta, eta aurretiazko LCA (Lifecycle Assesment) bat HS2ren eskaintzarako.

- Ibilgailuak erabilitako energiaren kudeaketa inteligentea, eta hor sartzen dira gidariari laguntzeko sistemak, gidatze automatiko eraginkorrerako sistemak eta ekipamenduen funtzionamendua kudeatzeko sistema inteligenteak.

- Energia metatua pilatzeko sistemak garatzea, bateria eta superkondentsadoreetan eta azkar kargatzeko sistemetan oinarrituta, eta ikerketa propultsio sistema berrietan, adibidez, hidrogenoa, katenariarik gabeko azpiegituretan trenen zirkulazioan aplikatzeko.

- Trenaren energia-kontsumoa murriztera bideratutako teknologia espezifikoak garatzea, bai eraginkortasuna hobetuta (silizio-karburuzko osagai berrietan oinarritutako trakzio-ekipamenduak, hobekuntza aerodinamikoak, etab.), edo bestela, ibilgailua arinduta (material berriak, arkitekturak sinplifikatuta eta kableak kenduta).

Bestalde, eragiketek ingurumenari sortzen dioten inpaktua nola minimizatu aintzat hartuta, fabrikazio-zentro garrantzitsuetan Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat dago, ISO 14001:2015 arauaren arabera ezarrita eta ziurtatuta. ISO 14001:2005 ziurtagiriari eusteko auditoria berrienak, 2018an, hauek izan ziren: abenduan CAF, SAn eta uztailean, berriz, Taldean 2018ko irailean sartu zen Solaris Bus & Coach-en.

Taldeak fabrikaziorako dituen gainerako zentroetan, Taldearen Ingurumen Kudeaketarako Eredua ezartzeko eta ziurtatzeko plan batean daude murgilduta eta lan horiek 2020an amaitzea espero dute. 2018an barneko auditoriak egin dizkiete denei eta horietan, aztertu egin dute kudeaketa-sistema ezartzeko egoera zertan den. Beste zentro batzuek, CAF TE eta CAF Signalling-ek, adibidez, nahiz eta ez diren arlo honetan inpaktu handikotzat hartzen, ISO14001 arauaren arabera ezarritako eta ziurtatutako Ingurumeneko Kudeaketa Sistema dute.

Jarraian daude laburbilduta fabrikazioko lantegi esanguratsuenetan ingurumeneko alderdi nagusiak kontrolatzeko ezarritako neurriak eta 2018an lortutako emaitzak[2].

*2. Ingurumenari dagokionez adierazgarriak diren fabrikazio-zentroen inguruko neurri eta emaitzak jaso dira; CAF Taldeko fabrikazio-zentroetako plantillaren % 90 biltzen dute.*



# INGURUMENEKO JARDUERA




## Lehengaiak

Ingurumen-irizpideak txertatu dira produkzio-prozesuetara bideratutako materialak erosteko garaian, eta arreta berezia jarri da materia berriztagarriak eta berrerabilgarriak hautatzeko garaian.

Egindako erosketa gehienak aurretik prozesatutako materienak izan dira; hau da, osagaiak. Metala izan da elementu komunena. Dena den, osagaiak fabrikatzera bideratutako lehengaiak ere erosi izan dira (guztiak berriztagarriak). Horien artean, kontsumo handiena dela eta, metalak nabarmendu behar dira eta, horien artean, hauek bereziki: altzairuzko eta aluminiozko txapak eta profilak (10.221 t) eta altzairuzko lingoteak (54.337 t).

## Energia

Instalazioen funtzionamenduan energia berriztagarrien (teknologia garbia eta ekologikoa) abantailak ahalik eta gehien aprobetxatzeko sistemak gehitu dira. Horretarako, adibidez, energia sortzeko eguzki-panelak erabili dira.

Batez ere, eta energia arloko auditorietako ekintza-planen ondorioz, 2018an CAF SAren lantegietan energia-kontsumoa gutxitzeko ekintzak honako hauek izan dira:

- Produkzio-prozesuetan (motorrak, bero-trukagailuak, haizagailuak…) energia-eragingarritasunerako funtsezkoak diren elementuen funtzionamendua optimizatzea eta horiek ordezkatzea.

- Ekoeragingarriagoa den beste luminaria batekin ordezkatzea.

Era berean, Solaris Bus & Coach-en kasuan, 2018ko ekintza-plana honako hau izan da:

- 2 transformadore ordezkatu dira galera gutxiagoko beste batzuekin urtean 22.600 kwh aurrezteko asmoz.

- Luminaria ekoeragingarriagoa den beste batekin ordezkatu da urtean 9.500 kwh aurrezteko asmoz.

| Zuzeneko eta zeharkako energia-kontsumoa | 2018 |
|---|---|
| Gas naturala (KWh) | 114.631 |
| Gasolioa (l) | 25.173 |
| Energia elektrikoa (MWh) | 51.762 |
| Energia-intentsitatea (guztizko energia-kontsumoa: (KWh/HHT) | 47,15 |

## Berotegi-efektuko gasak (BEG) eta igorpenak

Enpresaren Berotegi Efektuko Gasetan (BEG) eragina duten zuzeneko igorpenen iturri nagusia da energia-kontsumotik datorren CO2ren igorpena. Horrez gain, ingurunea gehien errespetatzen duten eta eragingarrienak diren garraiobideen garapenaren inguruan egindako ikerketetan agerian geratu da gure produktuen bizitza-zikloko inpaktu handiena erabilera fasean oinarritzen dela eta, bereziki, energiaren kontsumoari dagokionez. Horregatik, Taldeak BEG igorpenen intentsitatea pixkanaka gutxitzeko asmoan egin du ahalegin handiena bi bidetatik: energia-eragingarritasuna hobetzea produkzio arloko jarduera eta instalazioetan, eta garraio iraunkorreko irtenbideen garapena eta ikerketa.

Bestalde, Osagai Organiko Lurrunkorren (COV, gaztelaniaz) igorpenari dagokionez, 2018an aurrera jarraitu da substantzia espezifikoen (COVak) igorpenak gutxitzen. Hori lotzeko, instalazioak egokitu dira ur-pinturak erabiltzeko eta/edo pintatze hibridoko prozesuetarako. Hain zuzen ere, ibilgailuen jarduerako fabrikazioko instalazio esanguratsuenetan pintaketako prozesu estandar gisa definitu da hori. Era berean, Solaris Bus & Coachen lantegi nagusian, pintatze-prozesuetan aldaketak egin dira korrosioaren aurkako babesa aplikatzeko.



**Hondakinak**

Jarduerek eragindako hondakinak kudeatzeari dagokionez, Taldearen helburua horiek gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea da.

Hori dela eta, "ekonomia zirkularra" kontzeptuaren aldeko apustua egin da eta 2017tik Espainiako Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumena Ministerioaren ekonomia zirkularreko itunari atxikita dago. Hondakinak arau hauen arabera kudeatzen dira:

- Jatorrian hondakinak sortzea gutxitzea; adibidez: tresna itzulgarriak erabilita.

- Hondakinen berrerabilera, birziklapena eta balorizazioa maximizatzea. 2018an, balorizatutako hondakinen ehunekoa % 54koa izan da.

- Hondakinak bereiztearen eta minimizatzearen inguruko sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea.

- Hondakinen tratamendu eta kudeaketa egokia.

**Ura**

Taldeak ondo daki ura, baliabide naturalen artean, zaindu beharreko ondasun urria dela. Uraren erabilera iraunkorragoa lortzeko Taldeak bideratutako jarduera nagusiak honako hauek dira:

- Arrazoizko erabilera egitea eta hori sustatzea zirkuitu itxiak ezarrita eta langileen artean ingurumen arloko sentsibilizazioa bultzatuta.

- Baliabide hidriko guztien kontsumoa ezartzea eta kontrolatzea.

- Estres hidrikoko eremuetan ur-bilketa ekiditea.

- Kontsumo eta inpaktu txikiagoa lortzeko instalazioen mantentze-lan egokia egitea.

| Ur-kontsumoa | 2018 |
|---|---|
| Sareko ur-kontsumoa (ml) | 70,208 |

Ingurumen alderdiei buruzko informazio gehiago izateko, ikus CAF Taldearen webgunean eskuragarri dagoen "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2018ko txosteneko" 5. kapitulua: "Ingurumena zaintzen laguntzen".





# GIZA BALIABIDEAK

CAF Taldea osatzen duten pertsonak funtsezkoak dira Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan eta Jokabide Kodean modu esplizituan zehaztuta dagoen moduan proiektu iraunkorra garatzeko.

CAF Taldeak pertsonen garapen profesionala bultzatzen du, enpresaren helburuen eta langileen beharren nahiz itxaropenen arteko oreka posiblea aintzat hartuta. Gainera, gaitasun eta abileziak hobetzea eta etengabe egokitzea bultzatzen du. Pertsonen motibazioa, esperientzia eta ezagutza produktu eta zerbitzu guztietan islatuta daude.

Etengabeko hobekuntza eta oreka hori lortzeko, 2017. urtetik giza baliabideen arloko jardunbideak berrikusi dira eta, horren arabera, maila korporatiboan pertsonen kudeaketarako prozesu berria zehaztu da. Esparru horrek Taldeko sozietate guztietarako estandar propioa eta komuna zehazten du. Izaera integral horrek antolaketa mailako egokitzapena bermatzea, barne-mugigarritasuneko eta sarrerako jarduerak, profesionalen ebaluazioa eta kualifikazioa, eta haien prestakuntza eta garapena biltzen dituen irismen zabala jasotzen du. Era berean, ordainsarien kudeaketarekin zein lan-harremanekin lotutako politikak maila korporatiboan berrikusi eta zehaztu dira. 2018an, Taldeko zein Estatu mailako eta nazioarteko filialetako jarduera ugariak betetzen direla bermatzeko ekintzak jarri dira abian eta 2019. urtean aurrera jarraituko dute.

Esparru horren baitan daude identifikatuta laneko arriskuen prebentzioarekin zein langileen garapen profesional egokiarekin lotuta dauden arrisku hauek: (i) langileen txandatzea, (iii) behar adinakoa ez den prestakuntza eta garapen profesionala, (iii) aniztasun-gabezia eta aukera-berdintasuna, (iv) istripu-indizea eta osasunarekiko eragina.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuen ondorioz, honako hauek gerta daitezke: langileen produktibitatea gutxitzea, langileen osasuna eta motibazioa okertzea, eta langileen laneko segurtasunarekin lotutako isunak. Arrisku horiek eta haien inpaktuak pixkanaka gertatzen direnez, denbora mailako isla epe ertainerakoa izaten da.

Arrisku horiek testuinguruaren arabera finkatuta, Taldeak langileekin lotutako gaiak lantzen eta gauzatzen ditu erantzukizun sozialeko ikuspegitik garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako, erreferentziazko ISO 26000:2012 arauan oinarritzen da.

Arau hori politika eta eskuliburu hauetan dago jasota: Erantzukizun Sozial Korporatiboko politika, laneko arriskuen prebentzio-politika eta pertsonen kudeaketako prozesu korporatiboa (lehen aipatutakoa). Dokumentu horiek ezartzen dituzte pertsonekin lotutako gaiak lantzeko beharrezkoak diren oinarrizko jarduera-printzipioak, prozedurak eta kontrolak.



Esparru hori osatzeko, irismen korporatiboa duten arriskuen kontrol- eta kudeaketa-sistema dago. Aurrez zehaztutako arriskuak txertatzen eta horiek kudeatzera modu esklusiboan zuzendutako jardueren sekuentzia eskaintzen du. Prozesuak erreferentzia-esparruko arriskuen eta aukeren azterketa osatzeko eskakizuna betetzen du.

### Pertsonak dira gakoa

2018an, jarduera ugarien hazkunde-ekimenei erantzuna emateko baliabideak txertatzeko planarekin aurrera jarraitu da. Taldearen batez besteko plantilla 9.630ekoa izan da 2018an, eta 2018ko abenduaren 31n, langile kopurua 11.433 pertsonakoa zen[3]. Horrekin lotuta, CAF Taldeko batez besteko langile kopurua 1.682 pertsonatan handitu da 2018an, eta aldiaren itxieran, 3.005etan. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Solaris Bus & Coach Taldean sartu izanaren eragina; ekitaldiaren itxieran zuen langile kopurua 2.432 pertsonakoa zen.

| CAF Taldeko plantilla | 2018/12/31 | 2017/12/31 | Bilakaera |
|---|---|---|---|
| Unibertsitateko tituludunak | 3.634 | 2.783 | 851 |
| Tarteko arduradunak eta administrazioko langileak | 1.906 | 1.306 | 600 |
| Produkzioa eta zerbitzuak | 5.893 | 4.339 | 1554 |
| **Guztira** | **11.433** | **8.428** | **3.005** |

Aldiaren itxieran, sozietate nagusiaren plantilla 4.275ekoa zen, eta batez besteko kopurua, aldiz, 4.237koa.

| CAF SAko plantilla | 2018/12/31 | 2017/12/31 | Bilakaera |
|---|---|---|---|
| Unibertsitateko tituludunak | 1.155 | 1.064 | 91 |
| Tarteko arduradunak eta administrazioko langileak | 589 | 558 | 31 |
| Produkzioa eta zerbitzuak | 2.531 | 2.307 | 224 |
| **Guztira** | **4.275** | **3.929** | **346** |

Plantillaren bilakaera bat etorri da negozio-zifrak izandako bilakaerarekin eta jarduera ugarirekin lotuta zorroan dauden proiektuei zein zehaztutako planetan jasotako erronkei aurre egiteko dagoen beharrari erantzun dio.

Hona hemen aniztasuneko irizpide adierazgarri hauen arabera egindako langileen banaketa: generoa, adina eta erlijioa.

| **Adinaren araberako banaketa** (Plantilla kontuan hartuta 2018/12/31n) | **%** |
|---|---|
| 30 baino gutxiago | % 15 |
| 30 eta 50 urte artean | % 72 |
| 50 urte baino gehiago | % 13 |
| **Guztira** | **11.433** |

| **Generoaren araberako banaketa** (Plantilla kontuan hartuta 2018/12/31n) | **%** |
|---|---|
| Gizonak | % 85 |
| Emakumeak | % 15 |
| **Guztira** | **11.433** |

| **Herrialdeen araberako banaketa** (Plantilla kontuan hartuta 2018/12/31n) | **Eskualdea, %** | **Herrialdea, %** |
|---|---|---|
| Europa[4] | % 85 | |
| Espainia | | % 55 |
| Polonia | | % 20 |
| Erresuma Batua | | % 5 |
| Europako gainerako tokiak | | % 5 |
| Amerika[5] | % 12 | |
| Brasil | | % 4 |
| Mexiko | | % 4 |
| Estatu Batuak | | % 3 |
| Amerikako gainerako tokiak | | % 1 |
| Munduko gainerako tokiak | % 3 | % 3 |
| **Guztira** | **% 100** | **% 100** |

Kalitatezkoa eta egonkorra den enplegua da CAFen apustu den ezaugarrietako bat. Pertsonen esperientzia eta ezagutza dira CAFek uneotan bere jarduera guztietan duen posizio lehiakorra lortzea ahalbidetu duten ardatzetako batzuk. Aldi horren amaieran, plantilla finkoaren ehunekoa % 89koa zen CAF Taldean. Emakumeen kolektiboan, ehuneko hori % 87koa da.

*3. Sozietate bakoitzeko informazio-sistemetatik eskuratu dira datuak. Enpresaren arabera azpikontratatutako langileen bidez bere instalazioetan jarduerak egitea behar denean, CAFek zerbitzu-prestazioko kontratuak egiteko irizpidea erabiltzen du. Horietan zehazten da egin beharreko jarduera mota. CAFek gainbegiratzen ditu egindako azpikontratazio-jarduerak eta ez da beharrezkotzat jotzen azpikontratatutako langileen inguruko estatistikak mantentzea (ez da adierazgarria). Hori dela eta, dokumentu honetan ez dago jasota GRI estandarretako 102-8 eta 102-41 edukietan azpikontratatutako langileen inguruan eskatutako informazioa.*

*4. Europan, honako hauek dira herrialde nagusiak: Espainia, Polonia eta Erresuma (eskualdearen % 94 biltzen dute).*

*5. Amerikan, herrialde esanguratsuenak Estatu Batuak, Mexiko eta Brasil dira (kontinentearen % 85 biltzen dute).*

# GIZA BALIABIDEAK



Geografia arloari dagokionez, CAF Taldeak presentzia esanguratsua[6] duen herrialde guztiek plantilla finkoaren % 86 baino gehiago biltzen dute. Era berean, sailkapen profesionala (enplegatuak[7] eta langileak) aintzat hartuta, plantilla finkoaren ehunekoa % 87 baino gehiagokoa da. Kontratu-tipologiaren arabera banaketan dauden aldaketak aurreko ekitaldian hazkunde handiena izan zuten kolektibo edo geografiei lotuta daude. Horrekin lotuta, 30 urte baino gutxiagokoen kolektiboaren kasuan, enplegu finkoa % 69koa da. Zifra horiek ikusita, Taldearen enplegu finkoaren bilakaera egonkorra dela esan dezakegu. 2017 aldian, plantilla finkoa % 90ekoa zen.

| **Kontratu motaren araberako banaketa** (Plantilla kontuan hartuta 2018/12/31n) | **%** |
|---|---|
| Finkoa | % 89 |
| Aldi baterakoa | % 11 |
| **Guztira** | **11.433** |

Bestalde, eta batez besteko plantilla, kontratu mota[8] eta aniztasuneko irizpide adierazgarriak (generoa, adina eta talde profesionala) kontuan hartuta, datuak antzekoak dira eta jarraian dauden tauletan ikus daitezke.

**Batezbestekoaren banaketa kontratu motaren eta adinaren arabera**

| | **Finkoa** | **Aldi baterakoa** |
|---|---|---|
| 30 baino gutxiago | % 68 | % 32 |
| 30 eta 50 urte artean | % 91 | % 9 |
| 50 urte baino gehiago | % 97 | % 3 |

**Batezbestekoaren banaketa kontratu motaren eta generoaren arabera**

| | **Finkoa** | **Aldi baterakoa** |
|---|---|---|
| Gizonak | % 88 | % 12 |
| Emakumeak | % 89 | % 11 |

**Batezbestekoaren banaketa kontratu motaren eta talde profesionalaren arabera**

| | **Finkoa** | **Aldi baterakoa** |
|---|---|---|
| Enplegatuak | % 90 | % 10 |
| Langileak | % 88 | % 12 |

Urtearen amaierako zifra horiek 2018an plantillako langileen artean gertatutako baja eta alta berrien emaitza garbia dira. Bajekin lotuta, borondatezkoak ez diren desloturak plantilla osoaren % 1,2koak izan dira. Hortik kanpo geratzen dira jarduerak amaitu izanari lotutako irteera kolektiboak (batez ere Brasilen). Datu horiek Taldeko plantillaren banaketaren araberakoak dira aniztasun-irizpideak aintzat hartzen baditugu.

CAF Talde baitan, ordainsarien kudeaketa eta finkatze-tratamendua egiteko garaian, zehaztutako ordainsarien kudeaketarekin lotutako politika hartzen da kontuan. Taldean aplikatzen da. Araudi korporatibo horren helburua da ordainsarien kanpoko lehiakortasunari eta barne-koherentziari dagokienez tratamendu egokia ematen dela bermatzea eta horiek guztiak jardueren beharrekin eta erronkekin lerrokatzea. Horrekin lotuta, aholkulari espezializatuek prestatutako informazioa erabiltzen da.

Irizpide orokor horiek ordainsari maila egokietan zehazten dira eta aztertutako aldian, langileen[9] batez besteko ordainsaria[10] 34.903,91 €-koa izan da. Talde profesionalen arabera, ordainsarien batezbestekoarekiko dagoen aldea % 18 handiagoa da enplegatuen talderako, eta % 17 txikiagoa kolektiboko gainerakoentzat.

**Talde profesionalaren araberako ordainsaria**

| | **Soldata mailako arraila Taldearen arabera**[11] |
|---|---|
| Enplegatuak | (% 18) |
| Langileak | % 17 |

CAF Taldeko batez besteko ordainsariak, adinaren arabera aztertuta, agerian uzten du adinaren eta jasotako ordainsariaren artean korrelazioa dagoela. 50 urte baino gehiagokoen kolektiboak batezbestekoa baino % 20 handiagoa den batez besteko ordainsaria jasotzen du; 30 eta 50 urte artekoen kolektiboak batezbestekoa baino % 3 handiagoa, eta 30 urte baino gutxiagokoen kolektiboaren ordainsaria batezbestekoa baino % 34 txikiagoa da.

Bestalde, CAF Taldean lan egiten duten emakume guztien batez besteko ordainsaria 34.678,25 €-koa da, eta gizonezkoena baino % 1 txikiagoa. Taldean generoaren araberako ezberdintasunak eragiten dituena antzinatasunaren faktorea dela identifikatzen da.

**Soldata mailako arraila generoaren, talde profesionalen eta antzinatasunaren arabera - CAF Taldea**

| | Soldata mailako arraila generoaren arabera[12] | Antzinatasunarekin lotutako aldea[13] |
|---|---|---|
| Enplegatuak | % 15 | % 27 |
| Langileak | % 23 | % 28 |
| **Orokorra** | **% 1** | **% 29** |

**Soldata mailako arraila generoaren, talde profesionalen eta antzinatasunaren arabera - Europa**

| | Soldata mailako arraila generoaren arabera | Antzinatasunarekin lotutako aldea |
|---|---|---|
| Enplegatuak | % 15 | % 28 |
| Langileak | % 12 | % 33 |
| **Orokorra** | **(% 1)** | **% 31** |

Datuak adin-tarteen arabera aztertzen baditugu, 50 urte baino gehiagokoen tartean bakarrik da emakumeen kolektiboaren ordainsaria % 6 txikiagoa. Aldiz, 30 urte baino gutxiagokoen segmentuan, eta 30 eta 50 urte artekoenetan, aldea positiboa da emakumeen kolektiboaren alde: % 14koa eta % 1ekoa hurrenez hurren.

**Soldata mailako arraila generoaren eta adinaren arabera**

| | |
|---|---|
| 30 baino gutxiago | (% 14) |
| 30 eta 50 urte artean | (% 1) |
| 50 urte baino gehiago | % 6 |
| **Guztira** | **% 1** |

Soldata arloko arrailarekin lotutako portaera hori kolektibo eta geografia ugarietako generoaren araberako banaketan dagoen asimetriaren mende dago.

Edonola ere, indarrean dauden hitzarmen kolektiboek eta CAF Taldeko sozietateetan aplikagarriak diren ordainsariekin lotutako arauek soldata-baldintzak finkatzeko garaian tratamendu ekitatiboa egitea bermatzen dute, generoa aintzat hartu gabe.

Sozietate nagusiko kontseilariekin lotutako ordainsarien tratamendua kotizatutako enpresa gisa aplikagarriak diren gardentasun-irizpideen arabera egiten da. Horrekin lotuta, kontseilarien kolektiborako baldintzen banakako banakapena eta xehetasuna helburu horretarako prestatzen den Kontseilarien Ordainsarien gaineko Urteko Txostenean dago islatuta eta indarrean dagoen araudiaren arabera argitaratzen da. Bestalde, aldi horretako zuzendaritza exekutiboaren ordainsariei dagokienez, aipatutako kolektiboan emakumezkorik ez dagoenez, ez da generoaren araberako batez besteko datuaren bereizketarik egin beharrik.



*6. Taldeak Espainian, Erresuma Batuan, Polonian, Estatu Batuetan, Mexikon eta Brasilen duen presentzia langile guztien % 90ekoa da.*

*7. Enplegatuen talde profesionalak unibertsitateko tituludunak, tarteko arduradunak eta administrazioko langileak biltzen ditu.*

*8. Kontratu-tipologiaren araberako batezbestekoa kalkulatzeko, aldi-amaierako banaketa hartu da erreferentziatzat, eta gero ekitaldiko batez besteko plantillaren arabera datua aplikatuta estrapolatu da. Ez dago jasota lanaldi partzialeko kontratuen batezbestekoa; izan ere, Taldeko plantilla barruan ez du ordezkaritza adierazgarririk.*

*9. Aipamen espezifikoa egin zaien kontseilariak eta goi mailako zuzendariak salbuetsita.*

*10. Taldeko jarduera guztien gutxienez % 98 biltzen dituzten eta eskuragarri dauden lanaldi osoko urteko kontzeptu finko guztiak hartu dira kontuan, Solaris Bus & Coach-en eta haren filialen eguneratutako ordainsariak jasota. Bihurketa egiteko, aldi horretako batez besteko kanbio-tasa hartu da kontuan.*

*11. (Batez besteko ordainsaria - Taldeko batez besteko ordainsaria) / Batez besteko ordainsaria.*

*12 (Taldeko gizonezkoen batez besteko ordainsaria - Taldeko emakumezkoen batez besteko ordainsaria) / Taldeko gizonezkoen batez besteko ordainsaria.*

*13. (Taldeko gizonezkoen batez besteko antzinatasuna - Taldeko emakumezkoen batez besteko antzinatasuna) / Taldeko gizonezkoen batez besteko antzinatasuna.*

# GIZA BALIABIDEAK



Kalitatezko enplegua sortzeak, bestalde, lanaren antolaketa herrialde bakoitzeko legeriaren, langileen estatutuen eta hitzarmen kolektiboen arabera egitea eskatzen du. Hala, Taldeko sozietate bakoitzak zehazten ditu besteak beste honako gaiekin lotutako alderdiak: lanaldia, atseden-denborak, egutegia, oporrak, baimenak eta eszedentziak. Hala, hori guztia Taldean aplikagarria den eta zehaztuta dauden lan-harremanen arloko politikan jasotzen da. Gainera, sozietate bakoitzak finkatzen ditu kontziliazioa erraztera bideratutako neurriak eta haietako batzuk lanaldia arautzearekin lotuta daude. Horren jarraipena, oro har, sartzeko eta irteteko ordua erregistratuta egiten da.

Absentismo-tasa da pertsonekin lotuta erakundeetan kontuan hartzen den ohiko adierazle bat. Adierazle horrek galdutako orduak neurtzen ditu ordu teorikoekin alderatuta. Aurten, maila korporatiboan, tasa hori % 4koa[14] izan da.

## Elkarrizketa soziala

Elkarrizketa sozialaren antolaketarekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da haien interes eta aurreikuspenak ezagutzeko enpresaren, sindikatuen eta langileen artean izandako etengabeko komunikazioa. Horrek guztiak guztiontzako onuragarriak diren akordioak lortzea ahalbidetu beharko luke. Talde baitan langileei informazioa emateko, kontsultak egiteko eta negoziatzeko erabiltzen diren prozedurak ugariak dira eta horrek bide egokienak moldatzeko malgutasun handiagoa eskaintzen du eremu geografiko eta legezko araudi bakoitzeko ohitura eta erabilerak aintzat hartuta.

Enpresa nagusiko eta Taldeko jardueretako Estatu mailako filialetako enplegatu guztiak daude enpresako edo sektore mailako hitzarmen kolektiboen mende eta horiek guztiak, oro har, langile guztien kasuan aplikatzen dira. Nazioartean, gai ugarirekin lotuta eta geografia askotan (Aljer, Brasil, Txile, Mexiko, Zeelanda Berria, Polonia…) garatzen diren negoziazio kolektiboak (ordainsariak, lanaldia eta laneko denbora) azpimarratu behar dira. Horiek guztiek CAF Taldeko langileen % 85 biltzen dute.

## Prestakuntza

Prestakuntza-prozesua oinarrizko elementua da pertsonak kudeatzeko jardueretan eta agerian geratzen da sozietate nagusian zein jarduera nagusiei lotutako Estatuko eta nazioarteko filial guztietan[15].

Prestakuntza-plan eragingarria eta eraginkorra bermatzeko asmoz, prozesu horren baitan hiru jarduera-bloke nagusi zehaztu dira. Adierazle batzuen bidez, aldizka monitorizatzen dira. Hasierako fasean, prestakuntza-beharren inguruko diagnostikoa egiten da funtzio bakoitzaren ikuspegi bertikala zein horizontala barneratuz prestakuntzarekin lotutako zeharkako gaietan (laneko segurtasuna eta osasuna, produktuaren segurtasuna, araudia betetzea eta abar). Prestakuntza-plana onartu eta jakinarazi ondoren, exekuzioa eta ebaluazioa hiru mailatan hasiko da (asebetetzea, eragingarritasuna eta urteko balantzea) jardueraren lehentasunekiko lerrokatzea eta eragingarritasuna sendotzeko.

2018. urtearen amaieran, prestakuntza-prozesuaren eragingarritasuneko eta jardueraren adierazleek zifra positiboak dituzte. Talde mailan, prestakuntzako 196.000 ordu baino gehiago jaso dira enplegatuen eta langileen kolektiboen artean

modu baliokidean banatuta. Pertsona bakoitzak, batez beste, urtero prestakuntzako 21 ordu jasotzen ditu eta emakumeen kolektiborako kopuru hori 23 ordukoa da.

**Aukera-berdintasuna eta aniztasuna**

CAFeko Jokabide Kodeak, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikak eta Aniztasuneko eta Kontseilariak Hautatzeko Politikak zehazten duten moduan, CAFek pertsonekiko duen konpromisoaren oinarrietako bat da aniztasunaren errespetua eta gizon eta emakumeen tratu- eta aukera-berdintasuneko eskubidea. Horretarako, Taldeak bereizkeria mota oro, izan zuzena edo zeharkakoa, ez egotea sustatzen du modu aktiboan eta, bereziki, sexu-bereizkeriarekin lotuta; era berean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa lan-esparruan defendatzen eta eraginkortasunez aplikatzen dela bultzatzen du, eta lan- eta familia-bizitza uztartzearen alde egiten duten neurriak ezartzean aurrera egiten du.

Horrekin lotuta, CAF SAren hitzarmen kolektiboak (Beasaingo, Irungo eta Madrilgo zentroetarako) emakumeei lan-mundurako sarbidea errazteko nahia adierazten du, baita harremanean berdintasun-printzipioaren aplikazio eraginkorra, eta gizonen eta emakumeen arteko lanaren baldintzetan diskriminaziorik eza lortzekoa ere.

2018an, CAF Taldean sartutako emakumeen ehunekoa sarrera guztien % 17koa izan da. Azkenik, nabarmendu beharrekoa da Taldean izandako sarrera horiek Taldean 2017an enplegatutako guztizko emakumeen kopurua gainditzen lagundu dutela eta horren arabera adierazgarritasuna % 14koa dela.

Taldea konprometitua dago barneko estrategia eta politiken bidez berdintasunezko aukerak sustatzearekin eta langileek beren potentziala garatzeko aukera berberak izango dituztela bermatzearekin. Ondorioz, dagozkion neurriak eta erabakiak hartuko ditu sexuagatiko bereizkeria den edo sortzen duen edozein jarduketa gertatzen bada.

Konpromiso horien eta haien ekimenen kontrol integrala egin ahal izateko, Taldeko sozietate guztiek betetzen dute berdintasun-planen[16] garapenarekin lotutako legezko araudia. Era berean, hainbat kudeaketa-mekanismo eratu da: sexu-jazarpeneko edo sexu-arrazoiengatiko jazarpeneko kasuen aurrean jarduteko protokoloa eta langileen eta enpresaren ordezkaritza biltzen dituzten berdintasuneko batzordeak, esate baterako. Sozietate nagusiaren barruan, haren neurria dela eta, aipatu beharrekoa da berdintasun-planak egiteaz, gauzatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen den berdintasuneko batzorde bat dagoela. Laneko eta familiako bizitza kontziliatzen laguntzen duten neurri eta ekintza posibleak aztertzen ditu. Gaur egun, 2022. urtera arte indarrean egongo den eta Taldearen etengabeko hobekuntza lortzearen alde ezarrita duen helburua erakusten duen hurrengo berdintasun-plana prestatzen ari da.

CAF Taldean aplikatzen diren aukera-berdintasuneko eta bereizkeriarik ezeko printzipioak Jokabide Kodean daude jasota. Esparru horren baitan, 2018an ez da detektatu CAF Taldean diskriminazioko kasurik.

Aniztasuna bultzatu ahal izateko, CAFek irisgarritasun unibertsala errespetatzen du lan-inguruneak zein fabrikatutako produktuek giza aniztasuna errespetatzea eta seguruak, osasungarriak, funtzionalak, ulergarriak eta estetikoak izatea ahalbidetzen duten irizpideak aintzat hartuta.

CAFeko ingurune fisikoetako irisgarritasuna bultzatzeko, eraikin industrialetan eta zerbitzuetan egiten den edozein inbertsio berri zein zerbitzu orokorrekin lotutako instalazio eta hornikuntza guztietan egindako egokitzapen edo moldaketa guztiak tokiko irisgarritasuneko estandarren eta araudiaren arabera egiten direla bermatzen da.

Produktuen eta zerbitzuen irisgarritasunari dagokionez, CAFek, diseinu fasetik hasita, horietara irisgarritasuna izatea lehenesten du biztanleria osoarentzako erabilera unibertsala bermatu ahal izateko. Diseinuek gaitasun ezberdinetako pertsonentzat erabilgarriak izan behar dute, aldaketa edo egokitzapen berezirik gabeak.

CAFek fabrikatutako produktu guztiak lizitazioko herrialde bakoitzeko araudian jasotako irisgarritasuneko eskakizunak zein erreferentziazko Europako araudiak xedatutako baldintzak betetzeko (eta kasuren batean, gainditzeko) diseinatzen dira.

CAFek fabrikatutako tren arloko material gurpildunaren kasuan, mugigarritasun mugatuko pertsonentzat Europar Batasunak 2014an kaleratutako Interoperabilitateko eta Irisgarritasuneko Zehaztapen Teknikoan jasotako eskakizunei erantzuten zaie. Hiriko autobusekin lotuta, motordun ibilgailuak homologatzeko esparrua sortzen duen 2007/46 Direktibako IV. eranskinean jasotako zehaztapenen arabera egiten dira eraikitze-lanak. Aipatutako araua duela gutxi aldatu du UE 2017/2400 Araudiak. Hornikuntza horiek M2 edo M kategoriako ibilgailuak homologatzearekin lotutako xedapen uniformeen inguruko Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (CEPE) onartutako 107. Araudiak xedatutako eskakizunak biltzen

*14. Absentismo-tasa hori Taldeko plantillaren % 82ari dagokio, eta laneko istripuari edo gaixotasunari lotutako galdutako orduak hartzen ditu kontuan.*

*15. Jarduera nagusiei lotutako Estatuko eta nazioarteko filial guztiek CAFeko plantilla osoaren % 84 biltzen dute.*

*16. Enpresen % 100ek araudian jasotako baldintzak bete eta hurrengo aldian garatu du.*





dituzte eraikuntzako ezaugarri orokorrei dagokienez eta, zehatzago esanda, mugigarritasun mugatuko bidaiarien irisgarritasunarekin lotuta.

CAFek proiektu irisgarriak garatzen duen esperientzia zabalari esker, alderdi horrekin lotutako kalitate gorena eskain dezake soiltasuna bermatuz. Izan ere, edozein bidaiari, aldez aurretiko esperientzia izan beharrik gabe, bere garraiobideetan bere kabuz moldatzeko gai izango da. Ibilgailuek behar bezala seinaleztatuta dituzte sarbideak eta mekanismoak edozein bidaiarik erabili ahal izatea bermatzeko. Gainera, erraztasuna ere bermatuta dago, gaitasun fisikoek ez dezaten baldintzatu erabiltzailearen esperientzia.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da CAF Taldeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideekin eta haien gizarteratze-eskubideekin lotuta herrialde bakoitzeko legeriak xedatutakoa betetzen duela. Hori guztia ziurtatutako desgaitasuna duten langileak zuzenean kontratatuta eta indarrean dagoen legerian jasotako neurri alternatiboak abian jarrita egiten da.

**Langileen segurtasuna eta osasuna**

CAFeko Zuzendaritzak onartutako Laneko Arriskuen Prebentziorako politikak berariaz adierazten du indarrean dagoen legeria betetzea bermatuko duen prebentzio-sistema mantentzeko eta hobetzeko konpromiso irmoa duela eta bere gain hartzen duela langileak laneko arriskuetatik babestea.

Politika horrek prebentzioaren kudeaketa enpresako jarduera eta erabaki guztietan txertatzen du; bai prozesu teknikoetan, bai lanaren antolaketan eta lan egiteko baldintzetan, eta hierarkiako maila guztietan txertatu nahi da: Zuzendaritza, arduradunak, langileak eta sindikatuetako ordezkariak. Hala, aipatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dira erabilgarri.

2018an argitaratu da lehen aldiz prebentzio- eta ingurumen-politika integratua, jarduera nagusietan[17] aplikagarri dena, eta gainerako filial garrantzitsuetan[18] txertatutako neurriei gehitu zaie. Bestalde, Taldean sartu berria den sozietateak ere, Solaris Bus & Coach delakoak, lan-arriskuak prebenitzeko bere politika propioa du.

Istripurik ez izatea eta laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzea lortzeko, aipatutako politika horrez gain, CAFek lan-arriskuak prebenitzeko Kudeaketa Sistema bat du ezarrita eta hura hedatzea sustatzen du. Sistema hori hainbat jardueraren garapena, ezarpena eta jarraipena egiteko moduan dago egituratuta. Jarduera horiek, multzoan hartuta, laneko istripuen, gaixotasun profesionalen eta kalte materialen prebentzioaren sistematika osatzen dute. Kudeaketa-sisteman daude ezarrita prebentzio-jarduerak garatzen dituzten sistemako kudeaketaren, prozeduren eta prozesuen oinarriak.

Lan-arriskuen prebentzioaren arloan, Taldeak ebaluaziorako eta jarraipena egiteko ziurtagiriak eta mekanismoak ditu, Taldeak presentzia duen herrialde bakoitzean legez eska daitekeenetik haragokoak.

Ildo horretan, 2018an, Beasaingo eta Irungo lantegietan, Kudeaketa Sistemaren ziurtagiria berritzeko auditoria egin dute OHSAS 18001:2007 arauak ezarritako baldintzen arabera; baita arauzko auditoria ere. Horrez gain, ziurtagiri hori bera mantentzeko auditoria egin dute Zaragozako lantegirako eta CAFen T&E eta CAF Singnalling filialetarako. Era berean, eta estandarraren baldintzen arabera ezarritako kudeaketa-sistemaren barneko jarraipena egin ahal izateko, haietako bakoitzean barne-auditoriak egin dira.

Laneko arriskuak prebenitzeko CAFen kudeaketa-sistema Ibilgailuak[19] eta Autobusak fabrikatzen dituzten gainerako instalazioetara hedatzeari dagokionez, barneko auditoriak egin dira horietan guztietan eta auditorietan aztertu da kudeaketa-sistema ezartzeko lanak zertan diren eta ekintzak eta helburuak finkatu dira instalazio bakoitzean; adibidez, Solaris Bus & Coach-en kudeaketa-sistemaren ziurtagiria, ISO45001:2018 arauaren araberako, 2020an lortzeko helburua.

Segurtasunaren eta osasunaren arloan ere abian da elkarrizketa soziala, langilea-enpresa batzorde formalen bidez kudeatuta.

CAFeko Ibilgailuak eta Autobusak jardueraren fabrikaziorako instalazio nagusiek eta CAF T&E, CAF, Signalling eta CAF Rail Services filialek laneko segurtasun- eta osasun-batzorde bat dute eta batzorde horretan hartzen dute parte zuzendaritzak, prebentzioko ordezkariek, prebentzio zerbitzuak eta, hala dagokionean, jardueraren arduradunek. Batzorde horiek maila operatibo batzuetako eta besteetako informazioa jaso eta lan-arriskuen prebentziorako planak onartzen dituzte eta langileek ere plan horiek zehazteko lanetan parte hartzen dute. Gainera, une bakoitzean dagozkion erabakiak hartzen ditu eta jarraipena egiten die proposatutako ekintzei, finkatutako helburuak betetzeko. Beste sozietate batzuetan kontsultarako eta langileek parte-hartzeko foroak dituzte eta alderdi interesatuekin komunikatzeko bide gisa balio dute. Horien bidez proposamenak eta intereseko gai garrantzitsuak jasotzen dira. Mekanismo horiek aukera ematen dute arreta berezia behar duten jarduueretan ari diren pertsonen % 100 eta Taldeko langile guztien % 71 ordezkatzeko, laneko osasun eta segurtasunari lotuta.

Taldeko egoitza eta jarduera nagusietako laneko arriskuen prebentzioko planek zehazten dituzte prebentzio-jardueraren plangintza eta lan-arriskuen prebentzio arloko urteko helburuak. Istripu-indizearen helburuei dagokienez, batez ere hiru adierazle neurtzen dira: maiztasun-indizea, larritasun-indizea eta maiztasun-indize absolutua. Beheko taulan daude jasota CAF taldearen bertako eta nazioarteko eragiketa nagusiei[20] dagozkien adierazleak eta identifikatutako gaixotasun profesionalei lotutako kasuen kopurua.

| Laneko arriskuen prebentzioa zifratan | CAF Taldea |
|---|---|
| Maiztasun Indizea | 20,40 |
| Larritasun Indizea | 0,42 |
| Maiztasun Indize absolutua | 78,69 |
| Gaixotasun profesionalen tasa | 10,28 |

Giza Baliabideekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus CAF Taldeko webgunean eskuragarri dagoen "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2018ko txosteneko" 4. kapitulua: "Gure taldearen bikaintasuna".

*17. Ibilgailuetako, Rail Servicesen eta MiiRAren jarduerak.*

*18. CAF T&E, CAF Signalling eta CAF P&A filialak, adibidez.*

*19. CAF France, CAF USA, CAF México, Trenasa eta CAF UK.*

*20. CAF Taldeko guztizko plantillaren % 94ren adierazleak daude jasota. Aipatutako perimetroan lan egindako ordu kopurua 16.812.399koa izan da. Maiztasun-indizeak kalkulatzeko, lan egindako 1.000.000 ordu hartu dira kontuan; larritasun-indizea kalkulatzeko, lan egindako 1.000 ordu, eta gaixotasun profesionalen tasa kalkulatzeko, 10.000 langile. Gaur egungo plantillaren generoaren araberako banaketa kontuan hartuta, ez da beharrezkotzat jo irizpide horren arabera aipatutako indizeen banakako estatistikak mantentzea.*



# GIZA ESKUBIDEEKIKO ERRESPETUA

CAFek, bere jarduerak garatzen dituen lurralde guztietan indarrean dagoen antolamendu juridikoa zorrotz betetzeko konpromisoa bere gain hartzeaz gain, bere Jokabide Kodean eta Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan jasotzen du oinarrizko eskubideak, tratu-berdintasuneko printzipioak eta ez bereizkeriakoak zein Nazio Batuen Munduko Itunean eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako gainerako printzipio guztiak modu zorrotzean errespetatuko direla bermatzen duten neurriak betetzeko bere konpromisoa.

CAF Taldeak bere jarduerak egiten dituen herrialde guztietan langileek elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa izateko eskubideak izango dituztela bermatzeko beharrezkotzat jotako neurriak hartzen ditu. Era berean, haurren lana, bortxazko lana, derrigorrezko lana edo gazteei lan arriskutsuak ematea eragozteko beharrezko neurriak jartzen ditu abian bere lanetan zein atzeraka egindakoetan bere hornitzaileen artean. Hori guztia Gizarte Gaiekin lotutako gaian aipatutako Ecovadis-ekin duen lankidetzari esker egiten du. Gainera, Estatu mailan zein nazioartean CAFeko jarduera nagusiarekin lotuta Jokabide Kodea betetzen dela ziurtatzeko gainbegiratze-lanak egiten dituzte. 2017an, Taldeak 2015eko Modern Slavery Act-en jasotako esklabotzaren eta pertsonen trafikoaren aurkako adierazpena kaleratu zuen.



Konpromiso horiek aintzat hartuta, betetzea zalantzan jar dezaketen arriskuak identifikatzen dira: (i) lanean tratu-berdintasuneko eta/edo bereizketako printzipioa haustea; (ii) bere zentroetan eta/edo hirugarren batzuen zentroetan elkartzeko eta negoziazio kolektiborako askatasunik ez izatea; (iii) haurren esplotazioa bere zentroetan eta/edo hirugarren batzuen zentroetan; (iv) nahitaezko lana bere zentroetan eta/edo hirugarren batzuen zentroetan; (v) herri indigenen eskubideen urraketa; (vi) jazarpen psikologikoa; (vii) ezintasuna duten pertsonen gutxiegizko integrazioa.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek laneko segurtasunarekin eta giza eskubideen urraketarekin lotutako isunak ekar ditzakete eta, gainera, CAF markaren irudia edo erreputazioa kaltetu, urraketa horien berri komunikabideetan emanez gero. Lehen inpaktu horrek epe laburrera begira du isla, baina beste inpaktuek epe ertainera begirako eragina izaten dute horiek gauzatzea pixkanakagoa delako.

Arrisku horiek testuinguruaren arabera finkatuta, Taldeak giza eskubideen errespetuarekin lotutako gaiak lantzen eta gauzatzen ditu erantzukizun sozialeko ikuspegitik garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako, erreferentziazko ISO 26000:2012 arauan oinarritzen da.

Arau hori politika eta eskuliburu hauetan dago jasota: Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Politika, Jokabide Kodea, Jazarpen Psikologikoa Prebenitzeko Protokoloa eta Delituak Prebenitzeko Eskuliburua. Dokumentu horiek ezartzen dituzte giza eskubideen errespetuarekin lotutako gaiak lantzeko beharrezkoak diren oinarrizko jarduera-printzipioak, prozedurak eta kontrolak.









Esparru hori osatzeko, irismen korporatiboa duten arriskuen kontrol- eta kudeaketa-sistema dago. Aurrez zehaztutako arriskuak txertatzen eta horiek kudeatzera modu esklusiboan zuzendutako jardueren sekuentzia eskaintzen du. Prozesuak erreferentzia-esparruko arriskuen eta aukeren azterketa osatzeko eskakizuna betetzen du.

CAF Taldeak Taldeko plantilla osatzen duten pertsonen artean gai horren inguruan bere gain hartutako konpromisoen gaineko hedapeneko eta prestakuntzako jarduerak garatu ditu. Helburu horrekin jasotako prestakuntza-planean sartutako pertsonen % 91k garatu du. Era berena, CAF Taldeak bere harreman komertzialen profesionaltasuneko eta integritateko estandar gorenak mantentzeko konpromisoa hartu du bere gain. Zehatzago esanda, hornitzaileen ebaluazio-prozesuaren baitan dago jasota giza eskubideekin lotutako alderdien ebaluazioa. Hori guztia Gizarte Gaiei[21] buruzko atalean dago jasota modu zehatzagoan.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da Laneko Arriskuen Prebentzio Sisteman Jazarpen Psikologikoa Prebenitzeko Protokoloa dagoela jasota. Protokolo horren helburua laneko jazarpen psikologikoko egoerak zehaztea, egoera horiek prebenitu eta ekiditeko prebentzio-neurriak finkatzea eta, horiek gertatuz gero, enpresako langileek nola jardun behar duten jakin dezaten prozedurak finkatzea da. 2018an ez da Taldearen negozio-harremanen bidez edo zuzenean enplegatutako langileen artean giza eskubideen urraketarekin lotutako kasurik izapidetu.

Giza Eskubideekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus CAF Taldeko webgunean eskuragarri dagoen "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2018ko txostena".

*21. Ebaluazio horiek, batez ere, Ibilgailuen jarduerarekin lotutako hornitzaileei egiten zaizkie, hori baita CAF Taldearen jarduera nagusia.*





# USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA

CAF Taldeak bere jarduera garatzeko garaian, ondo daki kudeaketa gardena eta egokia ezinbesteko faktorea dela balioa sortzeko, ekonomia mailako eragingarritasuna hobetzeko eta akziodunen eta inbertsiogileen konfiantza indartzeko. Hori guztia “Gobernu Korporatibo Onaren” kontzeptuan oinarritutako Gobernu Korporatiboaren Sistema bidez ezartzen da.

Gobernu Korporatiboko Sistema horren oinarria honako hauekiko konpromisoa da: printzipio etikoak, jardunbide egokiak eta gardentasuna. Horrez gain, CAF Taldearen intereseko taldeentzako balio iraunkorra sortzea eta interes soziala defendatzea dira lanaren funtsak. Era berean, printzipio eta jardunbide egoki horiek CAF Taldeko Barne mailako Araudi Sistema osorako zabaltzea ahalbidetzen du.

Testuinguru horren baitan, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka Gobernu Onaren eta Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloko funtsezko helburuak dira, eta CAF Taldeak bere jarduerak garatzen dituen lurraldeetan indarrean dagoen antolamendu juridikoa zorrotz betetzen dela bermatzeko prebentziozko neurriak ezarri ditu. Neurri horietako batzuk dira Jokabide Kodea eta CAF Talderako Delituak Prebenitzeko Eskuliburu korporatiboa onartu eta ezarri izana.

2011. urtetik, CAF Taldearen Jokabide Kodeak ezartzen ditu Taldeko profesional guztien eta, bere jarduera profesionalaren baitan, Taldearekin harremana duen edo lankidetzan diharduen edozein elkarte edo pertsonaren kasuan aplikagarriak diren gobernu korporatiboko eta jokabide profesionaleko arau eta printzipio orokor guztiak. Gainera, lehenengo horren osagarri izan daitezkeen gai espezifikoen inguruko beste edozein jokabide-kodetarako oinarria da.

Jokabide Kodea eskuragarri dago CAF Taldearen webgunean (www.caf.net) eta CAF Taldeko Atariaren bidez langile guztiei zabaldu zaie.

Jokabide Kodea garatzearekin lotuta, delituak prebenitzeko programa ezarri eta CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan jaso zen. CAF SAko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko apirilaren 29an (hasierako bertsioan) eta haren baitan dago jasota Jokabide Kodea haren funtsezko elementu gisa.

Bi dokumentu horiek CAFek filialak dituen herrialde bakoitzeko tokiko legedira egokitzen dira beharrak aintzat hartuta.

Eskuliburu horren, eta haren garapen eta eguneratzeen helburua enpresako prozedurak eta kontrolak nahikoa diren egiaztatzea eta horiek modu eragingarrian ezartzea da, CAF Taldearen jarduerekin eta haien ondorioekin lotuta delitu esanguratsuak egiteko arriskua ahal den neurrian prebenitzeko asmoz.

Helburu hori aintzat hartuta, besteak beste, CAF Taldeko legezko ordezkariek, profesionalek eta azken horren sozietateekin kontratuak hitzartzen dituzten hirugarren batzuek CAFeko Jokabide Kodeak ezartzen dituen printzipio orokorrak errespetatzeko betebeharra finkatu da.

Horrekin lotuta, CAFeko Jokabide Kodearen printzipio orokorrak derrigor bete beharreko jokabide-arauak eta estandar etikoak dira. Honako hauek zorrotz betetzearen ingurukoak dira: legeak, giza eskubideak, askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak, tratu-berdintasuneko eta ez-bereizkeriako printzipioak, haurren lan-esplotazioaren aurkako



babesa eta Giza Eskubideen inguruko Adierazpen Unibertsalean eta Giza Eskubideekin lotuta Nazio Batuen Munduko Itunean jasotako gainerako printzipioak, eta lanarekin, ingurumenarekin eta ustelkeriaren aurkako borrokarekin lotutakoak.

Era berean, CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburua aldizka berrikusten da (zehatzago esanda, berrikusketak 2016an eta 2018an egin ziren) eta CAF SAko Administrazio Kontseiluak onartutako azken aldaketa 2018ko abenduaren 18koa da. Aipatutako Eskuliburuaren bertsio berri bat edo haren garapen bat onartzen denean, hedatzeko eta prestatzeko dagozkion neurriak hartzen dira.

**Ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapitala zuritzearen aurkako borrokari lotutako arrisku eta jarduerak**

Delituak Prebenitzeko Eskuliburura prestatzeko asmoz, arrisku penalen azterketa prestatu zen eta, hari esker, pertsona juridikoek egin ditzaketen delituen katalogo osotik, "delitu nabarmenak" deitzen zaienak mugatu ahal izan genituen. CAF Taldearen jardueraren helburuarekin nolabait erlaziona ditzakegunak dira eta, horrenbestez, delituak egitea prebenitzeko ikuspegitik arreta handiena eskatzen duten jarduerak ezartzen dituztenak.

Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari lotuta daude honako hauek: (i) partikularren arteko ustelkeria-delitua, (ii) eroskeria-delitua eta (iii) ustelkeria-delitua nazioarteko transakzioetan. CAF Talderako esanguratsuak diren delitu-katalogoan, era berean, sartuta dago kapital-zuriketa.

Aipatu ditugun eraginak direla eta, arreta berezia eskatzen duten CAF Taldearen jarduerak hauek dira: (i) lehiaketa publikoetako lizitazioak, (ii) kontratu publiko eta pribatuen exekuzioa, eta (iii) proiektu integralak. Dena den, Delituak Prebenitzeko CAF Taldeko Eskuliburuak eta, dagokionean haren garapenek, arrisku-jarduera horietako bakoitzaren eta horiek kudeatzeko moduaren inguruko azterketa zehatzagoa eskaintzen dute.

Bestalde, 2018ko ekitaldian, CAF Taldeak ez die ekarpen esanguratsurik egin irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta fundazioei.

**Ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapitalak zuritzearen aurkako borrokari lotutako arrisku espezifikoen kudeaketa**

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan identifikatutako arriskuen kudeaketa espezifikoa honela egiten da: (i) jarduera-politika zehatzak aplikatuta, (ii) Eskuliburuaren eragina jasango duten CAF Taldeko pertsona guztiak kontzientziatuta prestakuntzako eta hedapeneko jardueren bidez, (iii) Jokabide Kodea edo aipatutako Eskuliburua hausten duten jokabideak detektatzea ahalbidetuko lukeen salaketen bidea kudeatuta, eta (iv) Eskliuburuaren ezarpena CAF Taldeko



filialetara egokituta Taldeko sozietate guztietan aplikagarria izango dela bermatzeko.

Betetze Batzordea edo Unitatea zaintzarako eta kontrolerako ahalmenak dituen CAF Taldeko organoa da, eta Eskuliburuaren bidez ezarritako delituen prebentzio-eredua gainbegiratzeaz arduratzen da.

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuaren arabera, Betetze Unitateak edo Batzordeak ordezkari bat izendatu ahal izango du eta Batzorde edo Unitate horren mende egongo da bere funtzioei dagokienez indarrean dagoen tokiko legeriak hala eskatzen duelako edo filial edo sukurtsalaren neurri edo ezaugarriak direla eta gomendagarria den jurisdikzioetan dauden CAF Taldeko filial edo sukurtsaletan.

Jarduera-politika zehatzak

Delituak Prebenitzeko CAF Taldeko Eskuliburuak eta haren garapenek modu espezifikoan jasotzen dituzte Taldeak garatzen dituen arrisku-jarduerak egin daitezkeen delituzko jokabideekin lotuta eta, delituak egitea ekiditeko errespetatu behar diren jarduera-politika jakin batzuk esleituta.

Jarduera bat "arriskutsutzat" jotzeak ez du esan nahi legez kontrakoa edo delituzkoa denik, baizik eta beharrezko neurriak hartu ezean, inplikazio penalak eragin ditzaketen egoera sor daitezkeela.

Bestalde, CAF Taldeak finkatutako protokoloak edo jarraitu beharreko prozedurak dira jarduera-politikak, arrisku-jardueretan delituzko portaerak saihesteko helburua dutenak.

# USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuak araudia ez betetzearen baliokide dira eta horiek prozedura judizialak eragin ditzake. Horiek, aldi berean, aurretik zehaztutako delituekin lotutako zigor larriagoak eta isunak ekar ditzakete, eta CAF markaren irudia edo erreputazioa kaltetzea eragin. Aipatutako inpaktuek zuzeneko isla dute enpresaren jardueran epe ertainera-luzera begira.

Delituak Prebenitzeko Eskuliburuaren prestakuntza eta hedapena

Langileek etengabeko sarbidea dute Delituak Prebenitzeko Eskuliburura CAFeko Atariaren bidez. Horrez gain, Eskuliburuaren edozein aldaketa onartu ostean argitaratutako bertsio berriak espresuki eta berehala jakinarazi ahal izango zaizkio.

Prestakuntza-jarduerekin lotuta, Delituak Prebenitzeko Eskuliburua aplikatzera, hedatzera eta sentsibilizatzera zuzendutako jarduerekin aurrera jarraitu dute 2018an. 2016an jarduera horiek hasi zituzten CAF Taldeko langileei zuzenduta dago.

Dokumentua prestatzeko garaian, gai horrekin lotutako prestakuntza-planean sartutako pertsonen % 93k zuen prestakuntza amaituta enpresa nagusia eta filial nazionalak kontuan hartzen baditugu. 2018an nabarmen egin dugu aurrera nazioartean, eta kontsolidazio-perimetroko % 98an jarri dira prestakuntza-programak abian. Gai horrekin lotutako prestakuntza jaso dute 3.800 lagunek; hau da, aplikagarria den kolektiboko % 91k. Uneotan, programa lantzen ari dira 687 pertsona. Era berean, langile berriak trebatzeko sistematika mantendu da eta programa hori langile berrientzako harrera-planetan txertatu da. Eguneratuta daude prestakuntzako materialak.



Era berean, CAF Taldeko negozioko bazkideen % 100ek dakite, lan egiten duen eskualde guztietan, CAFeko Jokabide Kodeko printzipio orokorrak indarrean daudela eta derrigor bete beharrekoak direla.

Salaketetarako bidea

Delituak Prebenitzeko Eskuliburuak salaketen berri emateko salaketetarako bide bakarra finkatzen du. Betetze Batzordeak edo Unitateak gainbegiratzen du kanal hori. Organo horrek aldizka jasotako salaketak aztertzen ditu eta, egoki bada, salaketa bakoitzaren egoera zehatzen arabera dagozkion ekintzak bideratzen ditu. Salaketak arreta handiagoa behar duela uste izanez gero, Betetze Batzordeak edo Unitateak dokumentazioa dagokion sailera bidal dezake, harekin batera, gertakizunen balorazioa egiteko eta hartu beharreko neurriak zehazteko.

Betetze Batzordeak edo Unitateak Administrazio Kontseiluari, Auditoria Batzordeari edo Zuzendaritza Nagusiari ematen dio salaketen eta, oro har, Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan eta Jokabide Kodean detektatutako arau-hauste guztien berri, detektatutako ustezko arau-hauste horien gorabeheren eta izaeraren arabera.

Jasotako salaketa guztietatik erregistro egokia egiten da, bidaltzailearen nahiz edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko.

Eskuliburuak, bestalde, tokiko legeriak hala eskatzen duen jurisdikzioetan salaketak jasotzeko beste baliabide edo bide batzuk egokitzeko aukera aurrez ikusten du.

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburua filialetan egokitzea

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburua loteslea da Taldeko nazioarteko eta Estatu mailako filial guztietarako. Horrekin lotuta, nazioarteko filialen kasuan aplikagarria den antolamendu juridikoko berezitasunak eta eskakizunak moldatu behar dira. Horren guztiaren ondorioz, eta lehen aipatutako horren arabera, atzerriko filialen kasuan oinarrizko egokitzapena egiten da kasu guztietan, eta egokitzapen zehatza identifikatutako beharren arabera.

CAF Taldearen nazioarteko dimentsionamendua, 2018ko abenduaren 31n, honako hau zen: atzerriko 61 filial bost kontinentetako 33 herrialdetan.

Delituak Prebenitzeko Eskuliburuaren oinarrizko egokitzapena 2017ko ekitaldian osatu zen guztiz garai hartan CAF Taldea

osatzen zuten filial guztietarako eta honako hauek jaso zituen: (i) CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuarekin lotutako formalitate juridikoak, (ii) Betetze Batzordea edo Unitatea onartzea eta (iii) prestakuntza eta informazioa gobernu-organoei. Hemendik aurrera, oinarrizko egokitzapen hori modu sistematikoan egingo da filial berria sortzeko garaian zein integrazio-planaren baitan lehendik zegoen sozietate bat CAF Taldera gehitzen denean.

Bestalde, egokitzapen espezifikoa Delituak Prebenitzeko Eskuliburuari gehitutako eranskinaren bidez zein Betetzearekin lotutako azpiprograma garatuta egingo da. Dagokion herrialdeko lege mailako araudiaren mende egongo da neurri handi batean. Zehatzago esanda, 2018ko ekitaldian sortu da CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuko 5 eranskin osagarrietako azkena (beste hainbat herrialdetan). Horien bidez egokitu da Jokabide Kodea beharrezko gaietan eta, aldi berean, dagokion antolamendu juridikoaren arabera esanguratsuak diren delituak identifikatu eta horren ondoriozko jarduera-politikak egokitu dira.

Era berean, tokiko legediak xedatutakoa betez, 4 herrialdetan zigor arloko betetzearekin lotutako azpiprogramak jarri dira abian, eta hurrengo ekitaldian osatuko direla aurrez ikusi da.

Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokarekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago dago eskuragarri CAF Taldearen webguneko “Erantzukizun Sozial Korporatiboaren 2018ko Txostena” agiriko “Gobernu Korporatibo Oneko” 2. kapituluan.





# GIZARTE GAIAK

CAF Taldeak erantzukizun sozial korporatiboko printzipioak bultzatzen ditu bere Taldean txertatuta dauden sozietateetan eta jardueretan. Horrekin lotuta, bere misioaren garapena inguruko komunitatearen eta interes-talde ugarien interesekin uztartzen du epe luzera begira modu jarraituan.

Konpromiso hori hainbat bidetatik bultzatzen du: (i) lan egiten duen komunitateetan eta jarduerei dagokien ingurunean bizi-kalitatea hobetzera bideratutako ekimenak garatzea, (ii) balio-katean praktika arduratsuak sustatzea eta hornitzaileak hautatzeko prozesuen ezaugarri lehiakortasuna eta kalitatearen bilaketa izatea, (iii) bezeroak une bakoitzean dituen beharretara ondoen egokitzen diren proiektuak, produktuak eta zerbitzuak eskaintzea eta horietan kalitate onena eta segurtasuna eskaintzea, (iv) konfiantza sortzea eta bertako eta nazioarteko merkatuan balioa banatzea arduratsu jokatuz, batez ere zerga-arloan, fede onean, leialtasunean eta gardentasunean oinarrituta lan egiten duten langile konprometituekin.

Hemen behean azalduko ditugu xehetasunez gai sozialekin lotutako arriskuak, arlo bakoitzari lotuta. Hala ere, Taldeak alderdi sozialak erantzukizun sozialaren ikuspegitik jorratzen eta gauzatzen ditu kasu guztietan, garapen iraunkorrari ahalik eta ekarpen handiena egiteko. Horretarako, ISO 26000:2012 erreferentzia-arauan oinarritzen da.

Erantzukizun sozialeko esparru hau Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Politikak gauzatzen du. Politika horretan daude ezarrita, hain zuzen, jarduteko printzipioak, interes taldeekin hartutako konpromisoak eta jarraipena egiteko metodoak eta sistemak.

Esparru horren osagarri, arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema bat dago, korporazio mailakoa, eta hor daude jasota aurrez identifikatutako arriskuak eta soil-soilik arriskuak kudeatzera bideratutako jardueren sekuentzia ere eskaintzen du. Prozesu horrek betetzen du erreferentziazko esparruaren arriskuen eta aukeren analisia egitearen betebeharra.

**Enpresak garapen iraunkorrari lotuta hartutako konpromisoak**

CAF Taldeak lan egiten dituen jarduerek ekarpena egiten diote lanean aritzen diren komunitateei eta hango ongizateari. Hobekuntza horietako batzuk CAFen jarduerek berezkoak dituzte; adibidez, garraio-sare iraunkorretan egiten diren inbertsioak eta beste batzuk lankidetzarako eta parte-hartzeko ekimenei lotuta, lau eremutan: ingurune ekonomikoa, ezagutza sortzea, hezkuntzako eta prestakuntzako erakundeekin lankidetza eta alderdi sozial zein kulturalak.

Konpromiso horiei lotuta, jarduera garatzen duen ingurune sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta linguistikoak errespetatzeaz gain, arrisku hauek identifikatu dira: (i) tokiko komunitateetan bere jarduerek duten eragin negatiboa; (ii) komunitate ugariei dagokienez, CAF Taldearen helburu sozialak ez daude lerrokatuta; (iii) harreman iraunkorrak eta tokiko komunitateetan mantentzeko helburua duten harremanak ezartzeko zailtasuna; (iv) lankidetza ez-eragingarria tokiko erakundeekin eta administrazio publikoekin; (v) errespeturik eza gizarte, ekonomia, kultura eta hizkuntza arloko inguruneekiko.

Tokiko ekonomiarekiko konpromisoa hartzen du bere gain oinarrizko bi alderditan (baina ez dira bakarrak). Haietako lehenengoa jarduerak garatzen dituen tokian kalitatezko enplegua sortzea da. Enpleguaren kalitatea aipatzen dugunean, baldintza orokor egokiak eta enplegua egonkor izateko helburuaz ari gara. Horren erakusgarri da CAF Taldeko enplegu finkoaren ehunekoa % 89tik gorakoa dela. Ildo horretan, CAF Taldeak bermatu egiten du gizonen eta emakumeen hasierako soldaten baldintza-berdintasuna, Taldearen sozietatean indarrean diren negoziazio kolektiboen bidez.

Bestalde, aipagarria da, CAFek sustatu egiten duela jarduerak garatzen dituen eremu geografikoetan langileak kontratatzea eta horren alde egiten duela. 2018an, 10 langiletik 9 tokikoak[22] izan dira.

Bigarrenak lan egiten duen tokietako ekonomian eragina izan dezaketen ekimenekin eta jarduera espezifikoekin du lotura. Hori dela eta, intentsitate eta irismen ezberdinarekin, enpresa-egituraren hazkundea bultzatzen lagundu nahi du. Azken ardatz horri lotuta, CAF Taldeak tokiko zein nazioarteko mailan hartzen du parte eta hala, ehun ekonomikoa sustatzen du, zuzenean nahiz zeharka.

Ekonomian eragiten diren zuzeneko inpaktuak Taldeak sortutako moneta-fluxuen ondorioz sortzen dira; adibidez, tokiko hornitzaileetan egiten den gastuari lotuta. 2018an, tokiko mailan egin den gastuaren ehunekoa % 64koa[23] izan da, eta horrek lagundu egin du tokiko hornitzaileetan enpleguari eusteko zeharkako ekarpena egiten.

Bestalde, zeharkako jarduerekin jarraituz, aipagarria da duela 10 urtetik gora abiarazitako eskualde mailako lankidetza. Horren emaitza izan Goierri Valley delakoa sortzea. CAF ekimen horren enpresa gidaria eta zuzendaritzako kidea da. Beste intentsitate batekin eta irismen handiagoarekin jarraitzen du CAFek enpresa zein sektore mailan garrantzia duten ekonomiaren arloko erakundeen jardueretan parte hartzen; adibidez, hauekin: ADEGI, Gipuzkoako enpresaburuen elkartea; Confebask; FEMS Metalaren Zaragozako Federazioa; CEOE; UITP Union Internationale des Transports Publics; Electric Vehicles Promotion Foundation eta UNIFE Europako Trenbide Industria.

Aurreko ekitaldietan bezala, CAF Taldeak bere lanen ingurunean ezagutza sortzeko lanean jarraitzen du. 2018an, hiru modalitateren inguruan egitura daitezkeen hainbat ekimen izan



du abian: parte-hartzea ikerketa- edo teknologia-zentroetako zuzendaritza-organoetan edo organo gidarietan; epe luzerako lankidetza unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin ezagutza garatzeko; eta parte-hartzea berrikuntzara zuzendutako erakunde publiko edo pribatuetan.

CAF teknologia-zentroekin lankidetzan aritzen da zuzendaritzako edo artezkaritzako organoetan parte hartuta. Zentro horien artean daude, besteak beste, hauek: CEIT – IK4, CiC Nanogune, Lorterk-IK4 eta Tecnalia Reseach & Innovation Fundazioa.

Ezagutza garatzeko bidean lankide ditugun tokiko komunitateetako eragileei dagokienez, aipagarria da, bertakoei begira, CAFek CEIT teknologia-zentroarekin eta Tecnun Ingeniaritza Eskolarekin egiten duen lankidetza eta Arrasateko Goi mailako Eskola Politeknikoarekin batera egiten dugun lana; honako jarduera hauek egiten ditugu, hain zuzen: irakaskuntzako programak diseinatzea, eskolak ematen parte hartzea, proiektuak zehazten parte hartzea eta enpresako esperientziak diseinatzea. Nazioartekoei begira, Estatu Batuetan, adibidez, Boards of Cooperative Educational Services of New York delakoarekin aritzen da CAF lanean, profesionalek prestakuntzan eta gaitasunetan dituzten behar aldakorrak identifikatzen eta garatzen. Bestalde, aipagarria da Polonian Solaris Bus & Coach delakoak Krakoviako AGH University of Science and Technology delakoarekin garatutako doktoretza-tesien programa. Programa horren helburua zientzia-komunitatearen eta ingurune sozioekonomikoaren artean lankidetzarako baldintzak sortzea da. Horretarako, langileei doktoretza-tesiak egiteko aukera ematen zaie langileen, unibertsitatearen eta enpresaren artean hiru alderdien arteko akordioa sinatuta.

Azkenik, aipatu dugun moduan, CAFek berrikuntzara bideratutako erakunde pribatu edo publikoetan ere hartzen du parte. Horien artean daude, esate baterako, hauek: trenen sektorerako "European Railway Research Advisory Council" izeneko Europako plataforma teknologikoa edo Shift2Rail ekimena. Bertan, CAFek, kide sortzaile gisa, I+G arloko jarduerak garatzen eta irtenbideak bilatzen hartzen du parte tren arloko produktu berritzaileetan teknologia aurreratuak integratzeko lana bizkortuz. Era berean, CAF Innobasqueko zuzendaritza-batzordean sartuta dago, Tecnalia zentro teknologikoak zuzendutako "Fik" ekimenean (zahartzapenera eta aniztasun funtzionalera bideratuta dago) bazkide gisa hartzen du parte eta Bind 4.0 (Basque Industry 4.0) programan laguntzen du. Hidrogenoaren energiari dagokionez, Taldeak Aragoin Hidrogenoaren Teknologia berriak garatzeko Fundazioarekin eta Hydrogen Europe (NEW – IG) elkartearekin

*22. Taldeko langileen kolektiboarekin lotuta eskuragarri dauden datuak biltzen ditu (tokikoa deitzen diogu herrialde berean kokatuta dagoenean).*

*23. Taldeko ezarpen esanguratsuetan egindako erosketen datuak daude jasota; CAFeko langileen % 85 biltzen dute. Autobusen jarduerarako irailean Taldean sartu izanetik jasotako datuak gehitu dira. Hornitzailea tokikotzat jotzen da herrialde berean kokatuta dagoenean.*





egiten du lan. Azken hori energiaren eta garraioaren sektoreetan teknologia garbi hori merkatuan txertatzeko prozesua bizkortzeko lan egiten duen Europako industrian liderra da.

Era berean, etorkizuneko profesionalak trebatzearen aldeko apustua mantendu du eta, horretarako, lan egiten duen inguruneko gazteen enplegua bultzatzeko lankidetza-hitzarmenak ditu ezarrita hezkuntza arloko erakundeekin eta elkarteekin. Unibertsitate eta lanbide-eskola nagusiekin akordio aktiboak ditu. 2018an egindako nazioarteko lana nabarmendu behar da. Izan ere, CAF Taldeak herrialde hauetan dituen egoitzetan graduatuentzako bekak bultzatu dituzte: Suedia, Finlandia, Holanda, Frantzia, Ingalaterra, Txile, Mexiko, Hungaria eta Arabia (besteak beste).

Azkenik, CAF Taldeak beste erakunde publiko eta/edo pribatu batzuekin batera egiten du lan kokatuta dagoen komunitateetan inpaktu positiboa izango duten gizarte, ezagutza eta kultura arloetako proiektuak babesteko.

Jarraian, 2018an CAFek modu aktiboan lan egin duen eta Estatu mailan zein nazioartean bere garapena lortzen lagundu duten erakunde nagusiak azaltzen dira: Goierri Eskola Fundazioa (tokiko garapen soziala eta kulturala lortzeko pertsonen prestakuntza integrala oinarri duen hezkuntza-proiektua); Elhuyar Fundazioa (euskarazko kultura zientifikoa bultzatzeko CAF-Elhuyar saria banatzen du harekin batera); SuEskola Fundazioa (suteen prebentzioarekin eta suteak itzaltzearekin lotutako prestakuntzaz arduratzen da eta benetako suarekin egiten den teknologia berritzailea erabiltzen du); Green Dachshund Foundation (Solaris Bus&Coachek 2012an sortu zuen fundazio hori babesik gabe daudenei laguntzeko).

Gainera, CAFek babesletzako jarduerak egiten ditu (batez ere toki mailan) eta, horien artean, lan egiten duen jarduera sektoreekin lotutako ekimen eta azoken, kirol-jardueren (lasterketa herrikoiak, txirrindularitza, xakea eta abar) eta kultura eta erakusketarako guneen sustapena azpimarratu behar dira.

Amaitzeko, jarduera horien artean, nabarmendu beharrekoa da Beasaingo eta Irungo lan-zentroetan euskararen erabilera bultzatzeko egindako lana. Horrekin lotuta, Bikain ziurtagiria lortu zuen zilarrezko kategorian. Ingurune profesionalean euskararen hizkuntza-kudeaketarekin lotuta erakutsitako kalitatearen ziurtagiria da aitorpen hori.

**Hornikuntza-katearen kudeaketa-estrategian iraunkortasuna txertatzea**

CAF Taldeak hornitzaile eta azpikontratista guztiei eskatzen die webgune korporatiboan (www.caf.net) argitaratuta dagoen CAFeko Jokabide Kodean zehaztutako printzipio etikoak betetzeko. Horietan daude jasota gizarte mailako konpromisoak, genero-berdintasunarekin lotutakoak eta ingurumenekoak[24]. Gainera, Ibilgailuen jarduerak (negozio-zifrari dagokionez esanguratsuena da), Erosketen Politika eta Hornitzaileen Jokabide Kodea[25] onartu ditu 2018an. Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan eta Taldearen Jokabide Kodeak lehendik ezarritako konpromisoak gartzen dituzte.

Arlo horren inguruan, gizarte, genero-berdintasun eta ingurumen gaiekin lotutako erosketen politikaren inguruko arrisku hauek identifikatu dira: (i) hornitzaileek enpresako etika urratzea; (ii) hornitzaileek ez betetzea araudiak eta legeak; (iii) giza eskubideak babestea baztertzea (iv) ekintza usteletan (eroskeriak) parte hartzea.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuak direla eta, CAF markaren irudia edo erreputazioa kaltetzea, bezeroekin hitzartutako kontratuak ez betetzea/zigorrak finkatzea eta hornitzaileak galtzea gerta daiteke. Bi inpaktu horiek zuzeneko eragina dute epe laburrera begira, baina inpaktu horiek eragina

izan dezakete epe ertainera begira haiek ordezkatuko lituzketen hornitzaileak bilatu beharra dela eta.

Hornitzaileek Jokabide Kodea betetzen dutela ebaluatu ahal izateko, ekitaldi honetan, CAF Taldeak nabarmen indartu du Erosketen Programa Arduratsua jarduera hauen bidez:

- Trenen industriako balio-kate osoan jardunbide iraunkorrak hedatzean oinarritutako Railsponsible izeneko sektore mailako ekimenarekiko atxikipena.

- Lankidetza-akordioa Ecovadis enpresarekin (iraunkortasuneko ebaluazioetan espezializatuta dago).

- Prestakuntza Erantzukizun Sozial Korporatiboko eta Ingurumen Kudeaketako alderdietan. Prestakuntza hori erosketen prozesuan parte hartzen duten 36 lagunek jaso zuten, honako hauek barne: CAF SAko Kategoriako kudeatzaileek, erosleek eta hornitzaileen homologazio-taldeak.

- Ibilgailuetako eta MiiRAko jarduerek CAFeko Jokabide Kodearen betetze maila ebaluatzera bideratutako kanpaina egin dute eta ingurumeneko inpaktu handiena duten materialen eta ekipoen hornitzaileei zein alderdi sozialei dagokienez arriskuan dauden herrialdeetan egin beharreko lanekin lotutakoei zuzendu zaie. Aipatutako negozioetako erosketen % 46 biltzen duten hornitzaileei egindako ebaluazio horren ondorioz, gizarte edo ingurumen mailako inpaktu negatiboa duten hiru hornitzaile identifikatu dituzte eta horiek arintzeko neurriak abian jartzeko eskatu zaie.

**Bikaintasuna bezeroarekiko eta erabiltzaileekiko harremanean**

Bezeroa da CAFek garatzen dituen jarduera guztien gakoa. Horren helburua da haien behar eta aurreikuspenak modu iraunkor eta eragingarrian asebetetzea.

Nazioartekotzearen helburu estrategikoari erantzunez, azken urteotan, CAF bost kontinenteetara zabaldu da. Bere nazioarteko esperientziaren erakusgarri da 44 herrialdetan 148 proiektu baino gehiagorekin pilatutako ibilbidea. Bezeroengandik gertu dagoenez, Taldeak produkzio eragingarriagoa garatu eta laguntza-zerbitzuen eta mantentze-lanen estaldura bikaina eskain dezake.

Esparru horren baitan daude identifikatuta produktuen kalitate eta segurtasun arloko politikarekin eta erabiltzaileen eta bezeroen erreklamazioekin lotutako arrisku hauek: (i) bezeroarekin hitzartutako kontratua ez betetzea eta bezeroak egin ditzakeen erreklamazioak eta (ii) bezeroa ez egotea gustura CAFen produktuarekin eta esperientziarekin.

*24. Datuak 2018ko ekitaldian jarduera nagusietako Estatu mailako eta nazioarteko filialetan egindako erosketen % 66 adierazten du (material gurpilduna, tren-zerbitzuak, osagaiak, seinaleztapena, potentzia- eta trakzio-ekipoak eta ingeniaritza eta autobusa). Autobusen jardueraren kasuan, irailean Taldera sartu osteko datuak gehitu dira.*

*25. Hornitzaileen zein azpikontratisten kasuan da aplikagarria.*





Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek bezeroekin hitzartutako proiektuekin lotutako erreklamazioak eta etorkizuneko proiektuetan bezeroarekin lotuta kontratua deslotzea eragin dezakete. Inpaktu horiek zuzeneko eragina izango dute epe laburrera eta ertain-luzera begira (hurrenez hurren).

**Produktuaren kalitatea eta segurtasuna**

CAF Taldeko negozioek kalitate eta segurtasun arloko politika dute eta haien ardatz nagusia bezeroa da. Era berean, Kalitateko eta Segurtasuneko Kudeaketa Sistema egituratzen eta antolatzen duen oinarria da.

Ibilgailuen Negozioko Kalitate eta Segurtasun Politikak (gainerako jardueren antz handia du) erakusten du CAFek bezeroekin eta, zeharka, erabiltzaileekin zer inplikazio duen, segurtasunaren kultura sustatzeko konpromisoaren bidez. Kultura hori gailentzen zaie trenbide arloko ondasun eta zerbitzuen gainerako alderdi guztiei. Horrekin batera, oinarrizko printzipioak dira, halaber, kontratuek, legeek eta arauek ezarritako eskakizunak betetzea; lehiaren eta pertsonaren prestakuntzaren garrantzia; eta gure ondasun eta zerbitzu guztien kalitatea eta segurtasuna zainduko dituen laneko giroa sustatzea. Era berean, segurtasunaren kudeaketa eragingarria lortzeko jarduerak modu erregularrean aplikatzen dira produktu eta zerbitzu guztietan, erakunde osoan eta proiektuaren bizitza-ziklo osoan: eskaintza-prozesua, produktuaren garapena eta fabrikazioa eta zerbitzuan jartzea, eta bermearen kontratu mailako aldiaren amaiera. Kontratistak eta hornitzaileak ere biltzen ditu horrek.

Eragiketan zehar segurtasun-arriskuak ezabatu egiten dira edo tren-estandarren arabera eta aplikagarri diren kontratuzko segurtasun-eskakizunen eta araudien arabera onargarria den maila batera murrizten dira. Azterketa horrek desbideratze posibleak prebenitzen eta Kalitate eta Segurtasunaren Kudeaketa Sistemako jardunbide egokiak ezartzen laguntzen du. Era berean, enpresako plan estrategikoarekiko koherenteak diren eta gutxienez urtean behin berrikus daitezkeen helburuak ezartzen dira.

Bizitza-ziklo osoan bezeroaren aurreikuspenei erantzuna emateko eta aplikagarriak diren legezko eskakizunak betetzen direla bermatzeko, kalitatea eta segurtasuna kudeatzeko sistema propioa ezarri da eta CAF Taldeko produktu eta zerbitzu esanguratsuen kategoria guztietan egindako ebaluazioa jasotzen du.

Alde batetik, erakundearen eragingarritasunaren, eta produktu eta zerbitzuen kalitatearen jarraipena egitea ahalbidetzen du. Horri esker, lortu nahi den kalitatea lor daiteke kostu ezin hobean, eta bezeroek CAFen produktu eta zerbitzuetan duten asebetetzea eta konfiantza handitu. Taldearen instalazio ugariek merkatu osoko teknologia modernoena dute eta produkzioa optimizatzeko teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte arau hauek ezarritako estandarren arabera (Taldeko negozio batzuk horien arabera ziurtatuta daude gainera): ISO 9001:2015 eta ISO TS 22163 (IRIS v3).

Bestalde, CAFeko negozioetako Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren helburua da erakunde osoaren segurtasuna zaintzea proiektuaren bizitza erabilgarri osoan: lizitazio-prozesua, haren garapen eta fabrikazioa eta kontratu mailako berme-aldiaren amaiera (kontratistak eta hornitzaileak barne). CAFeko negozio ugariek beren Segurtasuneko Kudeaketa Sistemaren araberako ziurtagiria dute. Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren ziurtagiri honek arriskuaren ebaluazio eta balioraziorako segurtasuneko metodo komuna hartzearekin lotutako (EU) 402/2013 eta 445/2011 arauen eta EN 50126 1:1999 segurtasun arloko erreferentziazko arauaren ("Tren arloko aplikazioak. Fidagarritasuna, eskuragarritasuna, mantentzeko gaitasuna eta segurtasuna erakustea eta zehaztea (RAMS)") arabera eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen du.

**Bezeroaren asebetetzea**

Bezeroaren asebetetzea da CAFen lehen mailako helburua eta erakunde osora hedatuta dago negozioen, prozesuen eta proiektuen bidez.

Prozesuen araberako gure kudeaketa-ereduak bezeroaren aurreikuspen eta beharrak asebetetzera bideratzen du erakundea. Horren helburua da hura leial bihurtzea eta merkatuari eskainitako gure balio-proposamena areagotzea eta eskarien zorroaren bidez erakustea.

Horretarako, Kalitatearen eta Segurtasunaren Kudeaketa Sisteman barneratuta daude bezeroek kexak eta erreklamazioak egiteko prozedurak. Gainera, horiek konpontzeko eta haien jarraipena egiteko mekanismoak ere zehaztuta daude.

Bestalde, nabarmendu beharrekoak dira bezero potentzialekin egiten diren eta marketineko jardueretan zehaztuta dauden bilerak (azokak, bisitak eta abar). Gainera, asebetetze-inkestak banatzen dira CAFeko balio-eskaintza osatzen duten elementuen gainean bezeroak duen zuzeneko iritzia neurtzeko eta gure lehiakortasuna hobetzea ahalbidetuko luketen faktoreak identifikatzeko tresna gisa.

**Zerga-informazioa**

Zerga arloari dagokionez, eta Politika Fiskal Korporatiboan ikus daitekeen moduan, CAFen misioa da lan egiten duen lurralde bakoitzean indarrean dagoen zerga arloko araudia betetzen dela bermatzea, zerga arloko arriskuak ekidinez eta zerga arloko agintariekin harreman kooperatiboa bultzatuz.

CAFen azken helburua da konfiantza sortzea eta jarduera arduratsuaren bidez Estatuko eta nazioarteko merkatuan balioa banatzea eta, bereziki, zerga arloari dagokionez. Horrek, aldi berean, estrategia korporatiboa diseinatzea eta erakunde baitan zerga-portaera irmoa bermatzea ahalbidetu beharko luke. Horren bidez, azken finean honako hauek lortu beharko genituzke: (i) interes-taldeak asebetetzea, (ii) zerga arloko administrazioekin elkarrekiko konfiantza-harremana mantentzea eta (iii) komunitateak hobetzen laguntzea zergen ordainketa bidez.

CAFen Politika Fiskalean daude jasota CAFen zerga arloko jarduera-printzipioak eta horien guztien oinarria osatzen dute hauek: Jokabide Kodea, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politika eta Arriskuen Kontrol eta Kudeaketako Politika Orokorra. Horiek bihurtu behar dute aplikagarria zaien erakunde eta pertsona guztien gidalerro.

Oro har, Auditoria Batzordeari eta, azken buruan Administrazio Kontseiluari dagokio CAF Talde osoak Zerga Politika betetzen dela bermatzea. Horretarako, barne-kontroleko mekanismoak ezartzea dago aurrez ikusita espresuki eta, gainera, Ekonomia eta Finantza arloko Sailak Auditoria Batzordeari informazio-fluxuak bideratzea eskatzen da, gero Kontseilura bidali ahal izateko.

Irabazien gaineko zergari dagokionez, aipatu beharrekoa da 2018ko ekitalditik Country by Country Report txostena ezarri dela CAF Taldeak lan egiten duen administrazio fiskalekin lotuta. Txosten horretan, presentzia duen jurisdikzioetako bakoitzeko finantza-egoerekin lotuta funtsezkoak diren elementuak azaltzen dira banakatuta eta, gainera, tokiko zerga arloko agintariei negozioaren jarduerarekin lotutako informazio esanguratsuari, irabaziei, ordaindutako zergei eta langileei buruzko ikusgarritasuna ematen zaie.

Jarraian, herrialde bakoitzean lortutako irabazien eta ordaindutako irabazien gaineko zergen inguruko informazio esanguratsua azaltzen da CAFek lan egiten duen kokapen nagusien arabera multzokatuta:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **Zerga aurreko emaitzak (1)** | **Irabazien gaineko zergekin lotutako ordainketak (kobrantzak) (2)** |
| Espainia | 17.534 | 1.880 |
| Mendebaldeko Europa | 1.138 | 2.379 |
| Ekialdeko Europa | -6.582 | 630 |
| Ekialde Ertaina | 4.191 | 894 |
| Afrika | 297 | 13 |
| Ipar Amerika | 47.791 | 27.526 |
| Hego Amerika | 15.731 | 6.625 |
| Asia eta Ozeania | 475 | 407 |
| **Guztira** | **80.575** | **40.354** |

*(1) Herrialde bakoitzeko zergen aurreko emaitzak, dibidenduak, barneko marjinak eta partaidetutako enpresen zuzkidurak (besteak beste) kentzearen kontsolidazio-doiketa osagarriak barne.*

*(2) 2018ko ekitaldiko zergengatiko ordainketak urteko kontu bateratuen efektibo kontsolidatuko fluxuen egoeratik lortuta.*

Jasotako diru-laguntzei dagokienez, nabarmena da administrazio publikoek Taldearen jarduerari emandako babesa eta, batez ere, Ikerketa eta Garapena eta berrikuntza jarduera lantzeko garaian Kudeaketa Txosteneko atalean jasota dagoen moduan. Atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko ustiapeneko diru-laguntzen zenbatekoa 4.495 mila eurokoa da 2018ko ekitaldian.

Gizarte gaiekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago dago eskuragarri CAF Taldearen webguneko "Erantzukizun Sozial Korporatiboaren 2018ko Txostena" agiriko "Gure jardueraren balio soziala" izeneko 6. kapituluan.



## FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIO EGOERAREN EDUKIAK ETA GRI EDUKIAK BILTZEN DITUEN ERREFERENTZIA TAULA

| | GRI | Or. |
|---|---|---|
| **SARRERA** | | |
| Taldeko negozio-eredua | (1) | 8 - 9 |
| Taldeak aplikatzen dituen politiken deskribapena | 103-2 Kapitulu bakoitzean zehaztutako Kudeaketa Ikuspegia (hemendik aurrera, "KI") | Ikus FEIE kapituluak |
| Taldearen jarduerei lotutako gai horien inguruko arrisku nagusiak | 102-15 | Talde bateratuko kudeaketa-txostena, "Arrisku eta zalantza nagusiak" (22 - 23), 30, 34, 42, 45, 48, 50, 51 |
| **INGURUMENEKO JARDUERA** | | |
| Enpresaren jarduerek ingurumenean eta, dagokionean, osasunean eta segurtasunean dituzten egungo eraginak eta aurrez ikus daitezkeenak | (1) | 30 |
| Ingurumeneko ziurtagiria edo ebaluazio-prozedurak | 307 GRIko 103-2 KI 102-11 | 31 |
| Ingurumeneko arriskuak prebenitzera bideratutako baliabideak | (1) | 30 |
| Zuhurtzia-printzipioaren aplikazioa | 102.11 | 30 |
| Ingurumeneko arriskuetarako zuzkiduren eta bermeen zenbatekoa | 307.1 | 30 |
| **Kutsadura** | | |
| Ingurumenean eragin larria duten CO2 igorpenak prebenitzeko, gutxitzeko edo konpontzeko neurriak | 305 GRIko 103-2 KI | 30 - 32 |
| Edozein kutsadura atmosferikoko igorpenak prebenitzeko, gutxitzeko edo konpontzeko neurriak | 305 GRIko 103-2 KI | 30 - 32 |
| **Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa** | | |
| Hondakinak prebenitzeko neurriak | 306 GRIko 103-2 KI | 33 |
| Hondakinak birziklatzeko neurriak | 306 GRIko 103-2 KI | 33 |
| Hondakinak berrerabiltzeko neurriak | GRI 306ko 103-2 KI | 33 |
| Hondakinak berreskuratzeko eta desagerrarazteko beste modu batzuk | 306 GRIko 103-2 KI | 33 |
| Elikagaiak alferrik xahutzeari aurre egiteko ekintzak | (2) | (2) |
| **Baliabideen erabilera iraunkorra** | | |
| Tokiko mugen arabera ur-kontsumoa eta -hornikuntza | (1) | 33 |
| Lehengaien kontsumoa | 301.1 | 32 |
| Lehengaien erabilera-eragingarritasuna hobetzeko hartutako neurriak | 301 GRIko 103-2 KI | 30 - 32 |
| Energiaren zuzeneko eta zeharkako kontsumoa | 302.3 | 32 |
| Energia-eragingarritasuna eta energia berriztagarrien erabilera hobetzeko hartutako neurriak | 302 GRIko 103-2 KI | 30 - 32 |
| **Klima-aldaketa** | | |
| Enpresako jardueren ondorioz sortutako berotegi-efektuko gasen igorpenekin lotutako elementu esanguratsuak | 305 GRIko 103-2 KI | 32 |
| Klima-aldaketaren ondorioetara moldatzeko hartutako neurriak | 305 GRIko 103-2 KI | 30 - 32 |
| Berotegi-efektuko gasen igorpenak gutxitzeko epe ertainera eta luzera begira ezarritako helburuak | 305 GRIko 103-2 KI | 32 |
| Berotegi-efektuko gasen igorpenak gutxitzeko ezarritako neurriak | 305 GRIko 103-2 KI | 32 |
| **Bioaniztasuna babestea** | (2) | (2) |

| | GRI | Or. |
|---|---|---|
| **GIZA BALIABIDEAK** | | |
| **Enplegua** | | |
| Langileen guztizko kopurua eta banaketa generoa, adina, herrialdea eta sailkapen profesionala kontuan hartuta | 102-8 | 35 |
| Kontratu-modalitateen banaketa eta guztizko kopurua | 102-8 | 36 |
| Kontratu mugagabeen, aldi baterako kontratuen eta denboraldi partzialeko kontratuen urteko batezbestekoa generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera | (1) | 36 |
| Kaleratze kopurua generoa, adina eta sailkapen profesionala kontuan hartuta | (1) | 36 |
| Batez besteko ordainsariak generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera banakatuta | 102-36 | 36 |
| Soldata-arraila | (1) | 36 - 37 |
| Sozietateko Lanpostu berdinetako ordainsaria edo batez bestek ordainsaria | 405 GRIko 103-2 KI | 36 - 37 |
| Kontseilarien eta zuzendarien batez besteko ordainsaria | 102-35 | 37 |
| Laneko deskonexio-politikak ezartzea | 401 GRIko 103-2 KI | 38 |
| Desgaitasuna duten langileak | | 40 |
| **Lanaren antolaketa** | | |
| Laneko denboraren antolaketa | 401 GRIko 103-2 KI | 38 |
| Absentismo-orduen kopurua | (1) | 38 |
| Kontziliazioa izatea erraztera eta gurasoek horiek modu erantzukidean gauzatzea bultzatzera bideratutako neurriak | 401 GRIko 103-2 KI | 38 |
| **Osasuna eta segurtasuna** | | |
| Osasun- eta segurtasun-baldintzak lanean | 403 GRIko 103-2 KI | 40 - 41 |
| Laneko istripuak, bereziki haien maiztasuna eta larritasuna, eta gaixotasun profesionalak | (1) | 41 |
| **Harreman sozialak** | | |
| Elkarrizketa sozialaren antolaketa | 402 GRIko 103-2 KI | 38 |
| Herrialdeko hitzarmen kolektiboak estalitako langileen ehunekoa | 102-41 | 38 |
| Hitzarmen kolektiboen balantzea, batez ere laneko osasun eta segurtasun arlokoak | 403-1 | 40 - 41 |
| **Prestakuntza** | | |
| Prestakuntza arloan ezarritako politikak | 404 GRIko 103-2 KI | 38 |
| Prestakuntzako orduen guztizko kopurua, kategoria profesionalen arabera | 404-1 | 38 - 39 |
| **Irisgarritasuna** | | |
| Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala | 405 eta 406 GRIko 103-2 KI | 39 |
| **Berdintasuna** | | |
| Emakumeen eta gizonen artean aukera- eta tratu-berdintasuna bultzatzeko hartutako neurriak | GRI 405eko 103-2 KI | 39 |
| Berdintasun-planak | 405 eta 406 GRIko 103-2 KI | 39 |
| Enplegua bultzatzeko hartutako neurriak | 404-1 | 39 |
| Sexu-jazarpenaren eta generoarekin lotutako jazarpenaren aurkako protokoloak | 405 eta 406 GRIko 103-2 KI | 39 |
| Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala eta integrazioa | 405 eta 406 GRIko 103-2 KI | 39 |
| Edozein diskriminazio motaren aurkako politika eta, dagokionean, aniztasunaren kudeaketarekin lotutakoa | 405, 406 eta 406-1 GRIko 103-2 KI | 39 |

| | GRI | Or. |
|---|---|---|
| **GIZA ESKUBIDEEKIKO ERRESPETUA** | | |
| Giza eskubideen arloko arreta egokiko prozedurak aplikatzea | 412 GRIko 103-2 KI 102-16, 412-2, | 42 - 43 |
| Giza eskubideak urratzearekin lotutako arriskuen prebentzioa eta, dagokionean, eragindako abusuak arintzeko, kudeatzeko eta konpontzeko neurriak | 412 GRIko 103-2 KI | 42 - 43 |
| Giza eskubideak urratu izaneko kasuekin lotutako salaketak | (1) | 43 |
| Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboko eskubidea errespetatzearekin lotutako Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenetan jasotako xedapenak bultzatzea ta betetzea | 407 GRIko 103-2 KI | 42 - 43 |
| Derrigorrezko edo bortxazko lana desagerraraztea | 409 GRIko 103-2 KI | 42 - 43 |
| Haurren lana modu eragingarrian deuseztatzea | 408 GRIko 103-2 KI | 42 - 43 |
| **USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA** | | |
| Ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko hartutako neurriak | 205 GRI , 102-16ko 103-2 KI | 44 - 47 |
| Kapital-zuriketaren aurka borroka egiteko neurriak | 205 GRI , 102-16ko 103-2 KI | 44 - 47 |
| Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta fundazioei egindako ekarpenak | (1) | 45 |
| **GIZARTE GAIAK** | | |
| **Enpresak garapen jasangarriarekiko bere gain hartutako konpromisoak** | | |
| Sozietatearen jarduerak enpleguan eta tokiko garapenean duen eragina | 203, 203-2, 204-1 GRIko 103-2 KI | 48 |
| Tokiko udalerrietan eta lurraldean sozietatearen jarduerak duen inpaktua | 203, 203-2 GRIko 103-2 KI | 48 |
| Tokiko komunitateetako eragileekin izandako harremanak eta haiekiko elkarrizketa-modalitateak | 203, 203-2 GRIko 103-2 KI | 48 - 50 |
| Elkartzeko edo babesteko ekintzak | 102-13 | 48 - 50 |
| **Azpikontratistak eta hornitzaileak** | | |
| Erosketa-politikan gai sozialekin, genero-berdintasunarekin eta ingurumenarekin lotutako gaiak txertatzea | 308 eta 414 GRIko 103-2 KI | 50 |
| Bere gizarte eta ingurumen arloko erantzukizunaren pean dauden hornitzaileekin eta azpikontratistekin izaten diren harremanetarako oharrak | 308 eta 414 GRIko 103-2 KI | 51 |
| Gainbegiratze-sistemak eta auditoriak, eta haien emaitzak | 308 eta 414 GRIko 103-2 KI | 51 |
| **Kontsumitzaileak** | | |
| Kontsumitzaileen osasunerako eta segurtasunerako neurriak | 416 GRIko 103-2 KI | 52 |
| Jasotako erreklamazio eta kexen sistemak eta horien konponbidea | (1) | 52 |
| **Zerga-informazioa** | | |
| Lortutako irabaziak, herrialdeka | (1) | 53 |
| Ordaindutako irabazien gaineko zergak | (1) | 53 |
| Jasotako diru-laguntza publikoak | (1) | 53 |

*(1) Eduki honen oinarriak honako lege hauek dira: 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legea ( Merkataritza Kodea aldarazi zuena), 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital sozietateen Legearen inguruko testu bategina, eta Kontuen Auditoriari buruzko 2015eko uztailaren 20ko 22/2015 Legea, finantza arlokoa ez den informazioari eta aniztasunari buruzkoa, GRI estandarrei erreferentzia egin gabe.*

*(2) Eduki hau ez da CAF Taldeko jarduerarako materiala.*

# AUDITOREAREN TXOSTENAK



Deloitte.

Deloitte, S.L.
Plaza Julio Caro Baroja, 2
20018 San Sebastián
España

Tel: +34 94267800
www.deloitte.es

*Jatorriz gaztelaniaz igorritako txostenaren itzulpena Espainian oro har onartzen diren ikuskaritza-arauen arabera eta Urteko Kontu Bateratuen inguruan egindako gure lana oinarri hartuta, jatorriz gaztelaniaz eta Europar Batasuneko finantza-informazioari buruzko nazioarteko araudiaren arabera igorriak. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniaz igorritako bertsioa lehenetsiko da.*

# AUDITORE INDEPENDENTE BATEK IGORRITAKO URTEKO KONTU BATERATUEN AUDITORIA TXOSTENA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA enpresako akziodunei:

## Urteko kontu bateratuei buruzko txostena

### Iritzia

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren (sozietate nagusia) eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu bateratuak auditatu ditugu. Guztiek 2018ko abenduaren 31ko balantzea, irabazi eta galeren kontua, onartutako sarrera eta gastuen egoera, ondare garbian izandako aldaketen egoera, eskudiruaren fluxuen egoera eta memoria biltzen dituzte, guztiak bateratuak dira eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkie.

Gure ustez, atxikitako urteko kontu bateratuek Taldeak 2018ko abenduaren 31n duen finantza-egoeraren eta ondarearen, zein haren eskudiruaren emaitzen eta fluxuen irudi leiala erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan. Guztiak bateratuak dira, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkio eta honako hauek xedatutakoa betetzen dute: Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak, Europar Batasunak onartutakoak (FINA-UE) eta Espainian aplikagarriak diren finantza-informazioko araudiko gainerako xedapenak.

### Iritziaren oinarria

Gure auditoria Espainian indarrean den kontuen auditoria-jardueraren araudi erregulatzailearen arabera egin dugu. Arau horien araberako gure erantzukizunak geroxeago datoz jasota, gure txosteneko Urteko kontu bateratuen auditoriarekin lotuta auditorearen erantzukizunak izeneko atalean.

Etikako eskakizunen arabera (independentziarekin lotutakoak barne), Taldearekiko independenteak gara. Eskakizun horiek Espainia mailan urteko kontu bateratuen gure auditoriarako aplikagarriak dira kontuen auditoria-jarduera xedatzen duen araudiak ezarritakoaren arabera. Horrekin lotuta, ez dugu kontuen auditoriarekiko ezberdina den zerbitzurik eskaini eta ez da araudi horretan ezarritakoaren arabera beharrezko independentzian eragina izan zezakeen eta hori ezbaian jar zezakeen egoera edo gorabeherarik gertatu.

Lortu dugun auditoretzaren ebidentziak gure auditoretzarako iritzia egiteko nahikoa oinarri eta oinarri egokia ematen digula uste dugu.

Deloitte, S.L. Inscrita en el Registro Mercantil de Madrid, tomo 13.650, sección 8ª, folio 188, hoja M-54414, inscripción 96ª. C.I.F.: B-79104469.
Domicilio social: Plaza Pablo Ruiz Picasso, 1, Torre Picasso, 28020, Madrid.

## Auditoriarekin lotutako oinarrizko gaiak

Auditoriako oinarrizko gaiak egungo aldiko urteko kontu bateratuen inguruan egin dugun auditorian gure ustez adierazgarritasun handiena izan duten gaiak dira. Gai horiek urteko kontu bateratuen gure auditoriaren testuinguruan eta horien inguruan dugun iritzia osatzeko garaian orotara landu ditugu, eta ez dugu gai horien inguruko iritzi bereizirik adierazten.

### Ekitaldian egindako negozioen konbinazioaren kontabilizazioa

| Deskribapena | Auditorian aplikatutako prozedurak |
| --- | --- |
| 2.f oharrean zehaztuta dagoen moduan, ekitaldi honetan, Taldeak Solaris Bus & Coach SAren eta mendeko sozietateen kontrola eskuratu du. Hiriko garraioa da haren jarduera. Eragiketa hori negozioen konbinaziotzat jo da.<br><br>Horren ondorioz, Taldeak negozioen konbinazioaren behin-behineko kontabilizazioa egin du eta aktibo ukiezinen eta merkataritzako funtsaren kontularitzako aitorpena egin da honako zenbateko hauekin hurrenez hurren: 142 milioi eta 94 milioi euro.<br>Testuinguru horren baitan, eskuratutako aktiboen eta onartutako pasiboen zein erosketa-datan agerian jarritako merkataritza-funtsaren arrazoizko balioa zehaztu ahal izateko, beharrezkoa da aktiboen eta pasiboen balorazioekin lotutako estimazioen prozesuan iritzi esanguratsuak ematea. Horretarako, Taldeak helburu horretarako kontratatutako adituen laguntza jaso du. Alderdi horiek direla eta, eragiketa honen azterketa gure auditoriarako oinarrizko gaia izan da. | Gure auditoria-prozedurek, besteak beste, funtsezkoa den kontratu mailako dokumentazioa jasotzea eta aztertzea jaso dute Taldeko Zuzendaritzak negozioen konbinazioan eskuratutako aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioaren inguruan egindako zehaztapena aztertu eta ondorioak atera ahal izateko.<br>Arreta berezia jarri du aktibo ukiezinen balorazioan (markak eta bezeroekiko harremanak) eta, horrekin lotuta, Taldeak erabilitako metodologiak eta hipotesiak barneratu ditugu, eta bereziki honako hauek zehazteari dagokionez: beherapen-tasak, royalty tasak eta bizitza baliagarria esleitzea (horien arabera, aktiboetan amortizazio sistematikoa egiten da).<br><br>Besteak beste erositako aktibo ukiezinen arrazoizko balioa zehaztu ahal izateko Taldeak kontratatutako adituei dagokienez, aditu horien gaitasunak, ahalmena eta objektibotasuna aztertu ditugu. Gainera, aditu horiek egindako lanaren eta lan horren egokitzapenaren inguruko ezagutza eskuratu dugu auditoriaren ebidentzia gisa.<br><br>Gure barneko adituak sartu ditugu balorazioetan Taldeak egindako azterketan erabili duen metodologia (batez ere) ebaluatzeko.<br><br>Azkenik, urteko kontu bateratuetan emandako informazioaren banakapenak egokiak diren aztertu dugu (2.f oharra). |

### Sarrerak eta marjinak aurrerapen mailaren arabera aitortzea

| Deskribapena | Auditorian aplikatutako prozedurak |
| --- | --- |
| Taldeak, batez ere, bere jarduera tren-materialaren fabrikatzaile gisa garatzen du eta, epe luzera begirako eraikuntza-kontratuei dagokienez, atxikitako memoria bateratuko 3.f. eta 12. oharretan zehaztuta dagoen moduan, kontratu bakoitzari dagozkion emaitzak eta sarrerak haietarako aurrez ikusitako aurrerapen mailaren arabera erregistratzeko irizpide orokorra erabili da. Hori guztia kontratuari egotzitako orduak aurrekontuan jasotako | Gure auditoria-prozedurek Taldeak ezarritako kontrol adierazgarrien eragingarritasun operatiboaren inguruko proben konbinazio bat jaso dute; funtsezko azterketa analitiko eta azterketa analitiko zehatzak eta aurrerapen mailen araberako sarrerak aitortzeari lotutakoak dira kontrol horiek. Horrekin lotuta, besteak beste, aipatutako kontrol horiek modu eragingarrian funtzionatzen dutela egiaztatzeko probak egin ditugu eta, horien artean, |

guztizko ordu kopuruarekin alderatuta lortu da. Aurrerapen maila aplikatuta 2018ko ekitaldian trenen kontratuekin lotuta aitortutako sarreren zenbatekoa 1.315 milioi eurokoa izan da.

Aurrerapen maila zehaztu ahal izateko, beharrezkoa da Zuzendaritzak konplexutasun eta estimazio maila altua izatea honako hauei dagokienez: kontratu bakoitzean barneratu beharreko guztizko kostuak, kontratu bakoitzean egotzitako ordu kopurua aurrekontuan jasotako guztizko ordu kopuruarekin alderatuta edo, aurrez ikusitako sarrerak eta barneratzeko aurrez ikusitako kostuak kontuan izanda, marjinaren aurreikuspena. Era berean, egindako orduak proiektuko guztizko ordu kopuruaren arabera kontuan hartuta Taldeak kalkulatutako aurrerapen mailak arrisku esanguratsua dakar berekin; izan ere, proiektu bakoitzean kontuan hartutako guztizko ordu kopuruaren gainean egindako estimazioen mende egoteaz gain, ekitaldi bakoitzean proiektu horietako bakoitzaren eraginpean dauden langileek egindako inputazio zuzenari ere lotuta dago.

Horregatik guztiagatik, gure auditoriarako funtsezko gaia izan da aurrerapen mailaren arabera erregistratutako marjinak eta sarrerak aitortzea.

informazio-sistemen kontrolak egin ditugu. Horretarako, teknologia eta sistemen arloko gure barneko adituak sartu ditugu. Gainera, proiektu nagusien aukeraketa baten azterketa zehatza eta indibidualizatua egin dugu faktore kualitatiboak eta kuantitatiboak oinarri hartuta. Horren helburua Taldeak egindako hipotesien eta onarpenen arrazoizkotasuna ebaluatzea izan da eta Taldeko langileekin bildu gara horretarako. Gainera, aurreko ekitaldian Taldeak egindako estimazioen koherentzia berrikusi dugu ekitaldi honetako benetako datuak eta beste prozedura esanguratsu batzuk oinarri hartuta: kontratu esanguratsuenak zehatz-mehatz irakurrita eta haiek Zuzendaritzarekin batera aztertzea adostutako baldintzak behar bezala ulertu ahal izateko; bezeroekiko kontratu mailako baldintza eta beharrak aintzat hartuta, sarrerak behar bezala erregistratuta dauden aztertuta; Zuzendaritzak egindako estimaziok arrazoizkoak diren ebaluatu ahal izateko hautaketa-oinarrien arabera, proba zehatzak eginda, eta sentsibilitate maila handieneko hipotesiak berrikusita; eta teknologian eta sistemetan adituak direnek lagunduta zein eskuz proba konbinatuak eginda sarreren kontuetan erregistratutako idazpenak eskuratzeko eta egiaztatzeko.

Atxikitako urteko kontu bateratuetako 6. eta 12. oharrek Taldearen aurrerapen mailaren araberako sarrekin lotutako banakapenak eta informazioa jasotzen dituzte.

## Kontratu komertzialetatik eratorritako pasibo-kuotak

### Deskribapena

Taldeak jarduten duen sektoreetan, ohikoa da epe luzeko eraikuntza-kontratuetan aintzat hartzea pasiboen erregistroa eskatzen duten betebeharrak, unitateak entregatzean produkzio-egutegiarekin lotuta izandako atzerapenengatik edo beste kontratu-konpromiso batzuk ez betetzeagatik.

Atxikitako memoria bateratuko 12. eta 20. oharretan azaltzen den bezala, betebehar horiei aurre egiteko Taldeak erregistratutako

### Auditorian aplikatutako prozedurak

Gure auditoria-prozedurek, besteak beste, erregistratutako hornidurei buruz Zuzendaritzak egindako kalkuluen xehetasunak eskuratzea eta aztertzea jaso dute, eta kontratuen lagin baterako (oinarri selektiboetan eskuratutakoa) Zuzendaritzak egindako kalkuluak arrazoizkoak diren aztertu dugu; horretarako, kalkulu horiek aipatutako kontratuetako baldintzekin eta haietatik eratorritako betebeharrekin, aipatutako kontratuek biltzen dituzten gorabeherekin zein esperientzia historikoarekin alderatu ditugu.

| Kontratu komertzialetatik eratorritako pasibo-kuotak | |
|---|---|
| **Deskribapena** | **Auditorian aplikatutako prozedurak** |
| horniduren zenbatekoa 117 milioi eurokoa da 2018ko abenduaren 31n. Horrek "Salmenten araberako bezeroak eta zerbitzuak" epigrafea minoratu du eta "Hornidura korronteak" epigrafean erregistratutako zenbatekoa 58 milioi eurokoa izan da.<br><br>Hala badagokio, betebehar horiek aitortzeko Zuzendaritzak egiten duen ebaluazio-prozesua zaila da, eta juzguaren erabilera handia eskatzen du; produktuaren eraikuntza-prozesuan izandako gertakizunen erantzukizuna hartzean oinarritzen da, eta baita Taldeari egotzi ezin zaizkion arrazoiak identifikatzean ere.<br><br>Horregatik guztiagatik, deskribatutako egoera funtsezko gaia da gure auditorian. | Gainera, hirugarren batzuek eman beharreko baieztapenak, Taldearen eta bezeroen arteko elkarrekikotasuna eta, dagokionean, aholkulari legalen iritzia lortzeko egiazko probak egin ditugu.<br><br>Azkenik, urteko kontu bateratuetan emandako informazioaren banakapenak egokiak diren aztertu dugu (ikus 12., 20. eta 26. oharrak). |

## Beste informazio bat: Kudeaketa-txosten bateratua

Beste informazioa 2018 ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratua da bakarrik. Txosten hori egitea sozietate nagusiko administratzaileen ardura da, eta ez da urteko kontu bateratuen barnean sartzen.

Urteko kontu bateratuei buruzko gure auditoria-iritziak ez du barnean hartzen kudeaketa-txosten bateratua. Kudeaketa-txosten bateratuan jasota dagoen informazioari buruzko gure erantzukizuna kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegian zehaztuta dago. Arautegi horrekin lotutako bi maila desberdin daude ezarrita:

a) Berariazko maila bat, finantza arlokoa ez den informazioaren egoera bateratuari eta Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean dagoen informazio jakin bati aplikatzeko, Kontu Auditoriari buruzko 22/2015 Legeko 35.2.b) artikuluan zehazten den bezala. Helburu bakarra da egiaztatzea aipatutako informazioa eman dela kudeaketa-txosten bateratuan, edo, hala badagokio, txosten horretan sartu dela finantza arlokoa ez den informazioari buruzko txosten bereiziari buruzko aipamena, araudian aurreikusitako moduan, eta, bestela, hori jakinaraztea.

b) Kudeaketa-txosten bateratuan dagoen gainerako informazioari aplikatzeko maila orokorra. Helburua da informazio hori urteko kontu bateratuekin bat datorren aztertu eta jakinaraztea (kontuan izanda kontu horien auditoria egitean lortu den Taldearen ezagutza, eta auditorian ebidentzia gisa eskuratu den informazioaz aparteko informaziorik sartu gabe) eta kudeaketa-txosten bateratuaren zati horren edukia eta aurkezpena aplikagarria den araudiarekin bat datorren aztertu eta jakinaraztea. Egin dugun lanean oinarrituta hutsegite materialak daudela ondorioztatzen badugu, horri buruz jakinarazteko betebeharra dugu.

Egindako lana oinarri hartuta, lehen azaldutakoaren arabera, egiaztatu dugu aurreko a) atalean aipatutako informazioa kudeaketa-txosten bateratuan ematen dela, eta kudeaketa-txosten bateratuak duen gainerako informazioa bat datorrela 2018. ekitaldiko urteko kontu bateratuetako informazioarekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datorrela aplikagarria den araudiarekin.

### Sozietate nagusiaren administratzaileen eta auditoria-batzordearen erantzukizuna urteko kontu bateratuei dagokienez

Sozietate nagusiaren administratzaileak dira atxikitako urteko kontu bateratuak adierazteko arduradunak; kontu horiek fidelki agertu behar dute Taldearen ondarea, finantza-egoera eta emaitza bateratuak, NIIF-EB arauak eta Taldeari Espainian aplikatzen zaion finantza-informazioaren araudi-esparruko gainerako xedapenak betez. Halaber, haien ardura da beharrezkoa irizten duten barne-kontrola, iruzurragatik edo hutsegiteagatik akats materialik ez duten urteko kontu bateratuak prestatzeko.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Sozietate nagusiaren administratzaileen ardura da Taldeak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasuna baloratzea; dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin lotutako alderdiak ezagutaraziko dira eta funtzionamenduan dagoen enpresa kontabilitate-printzipioa erabiliko da, salbu administratzaile horiek Taldea likidatzeko edo haren eragiketak eteteko asmoa badute, edo beste aukera errealistarik ez badago.

Sozietate nagusiaren auditoria-batzordearen ardura da urteko kontu bateratuak egin eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.

### Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoriaren inguruan

Gure helburuak hauek dira: arrazoizko segurtasuna izatea urteko kontu bateratuek ez dutela, oro har, akats materialik (iruzurragatik edo hutsegiteagatik), eta gure iritzia jasotzen duen auditoria-txosten bat egitea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegiaren arabera egindako auditoria batek beti antzemango duenik akats material bat, akats hori dagoen kasuan. Akatsak iruzurragatik edo hutsegiteagatik izan daitezke, eta akats materialak direla irizten da, baldin eta modu arrazoituan aurrez ikus badaiteke eragina izango dutela, banaka edo batera, erabiltzaileek urteko kontu bateratuetan oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Auditoria-txosten honetako eranskinean, urteko kontu bateratuen auditoriarekin lotuta gure erantzukizunen deskribapen zehatzagoa agertzen da. Eranskinean jasota dagoen deskribapen hori gure auditoria-txostenaren zati bat da.

## Beste lege-eskakizun eta arauzko eskakizun batzuei buruzko txostena

### Txosten osagarria sozietate nagusiaren auditoria-batzordearentzat

Txosten honetan agertzen den iritzia bat dator sozietate nagusiaren auditoria-batzordearentzat egindako gure txosten osagarrian adierazitakoarekin. Txosten osagarriaren data 2019ko otsailaren 27a da.

## Kontratazio-aldia

2018ko ekainaren 2ean izandako Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiak auditore izendatu gintuen urtebeterako, 2017ko abenduaren 31n amaitu zen ekitalditik kontatzen hasita.

Aurretik, Akziodunen Batzar Nagusiak hartutako akordioaren/akordioen bidez urtebeteko aldirako izendatu gintuzten, eta kontu-auditoria egiten jardun dugu, modu jarraituan, 2001eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldirik, kontuan izanda EBko 537/2014 zenbakidun Arautegiaren 8. ataleko 17. artikuluaren edukia, interes publikoko erakundeen lege-auditoritzarako berariazko eskakizunei buruzkoa.

DELOITTE, SL
ROACen inskribatua, S0692 zenbakiarekin.

Pablo Mugica
ROACen inskribatua, 18694 zenbakiarekin.

2019ko otsailak 27

**Gure auditoria-txostenaren eranskina**

Gure auditoria-txostenean sartutakoaz gain, eranskin honetan sartu ditugu urteko kontu bateratuen auditoriaren inguruko gure erantzukizunak.

## Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoriaren inguruan

Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegiarekin bat datorren auditoriaren parte denez, gure juzgu profesionala erabiltzen dugu, eta eszeptizismo profesionalari eusten diogu auditoria guztian barrena. Era berean:

- Urteko kontu bateratuetan akats materialen arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu (iruzurraren edo hutsegitearen ondorioz sortzen direnak), arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak diseinatu eta ezartzen ditugu, eta gure iritziaren oinarria ezartzeko nahikoa eta egokia den auditoria-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren eraginez gertatzen den akats materiala ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondorioz gertatzen den akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurrak berekin izan ditzake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez betetzeak, nahita egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

- Auditoriarako garrantzitsua den barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoria-prozedurak diseinatzeko helburuarekin, eta ez Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.

- Aztertzen dugu ea egokiak diren ezarritako kontabilitate-politikak eta kontabilitateko kalkuluak eta sozietate nagusiko administratzaileek ezagutzera emandako dagokion informazioa arrazoizkoak diren.

- Erabakitzen dugu ea egokia ote den sozietate nagusiko administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresa kontabilitate-printzipioa erabiltzea, eta lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, erabakitzen dugu ea ziurgabetasun materialik dagoen ala ez funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko Taldeak duen gaitasunari buruz zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaera edo baldintzekin lotuta. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatzen badugu, beharrezkoa da gure auditoria-txostenean ohartaraztea urteko kontu bateratuetan ezagutzera ematen den horri buruzko informazioari buruz, edo, informazio horiek ezagutzera ematea egokia ez bada, iritzi aldatua agertzea. Gure ondorioen oinarria da gaurko egunera arte gure auditoria-txostenetik lortutako auditoria-ebidentzia. Hala ere, etorkizuneko gertakizun edo egoerak direla-eta, baliteke Taldeak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari uztea.

- Urteko kontu bateratuen aurkezpen globala, egitura eta edukia aztertzen dugu, ezagutzera emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu, era berean, urteko kontu bateratuetan transakzioak eta azpiko gertaerak adierazten diren moduak benetako irudia islatzen duen.

- Ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu Taldearen barneko erakundeen edo enpresa-jardueren finantza-informazioari buruz, urteko kontu bateratuei buruzko iritzia adierazteko. Taldearen auditoria gidatu, gainbegiratu eta gauzatzeko arduradunak gara. Gure auditoria-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Sozietate nagusiaren auditoria-batzordearekin harremanetan jartzen gara, beste gai batzuen artean, hauen inguruan: auditoriaren norainokoa eta egiteko unea (aurretik planifikatuak) eta auditoriaren aurkikuntza esanguratsuak, bai eta auditorian barrena antzemandako barne-kontrolaren edozein gabezia esanguratsuetan ere.

Era berean, Sozietate nagusiaren auditoria-batzordeari adierazpen bat helarazten diogu, adieraziz aplikagarriak diren etika-eskakizunak bete ditugula, independentziaren arlokoak barne, eta batzorde hari jakinarazi dizkiogu gure independentziarentzat mehatxuak izan daitezkeen gaiak, eta, hala badagokio, haien aurreko babesak.

Sozietate nagusiaren auditoria-batzordeari jakinarazi dizkiogun gaien artean, zehazten ditugu egungo aldiko urteko kontu bateratuen auditorian esanguratsuenak izan direnak, eta, ondorioz, auditoriaren funtsezko gaiak direnak.

Gai horiek azaltzen ditugu gure auditoria-txostenean, lege-xedapenek edo arauzko xedapenek gai hori jendaurrean agertzea debekatzen ez badute.

Deloitte.

Deloitte, S.L.
Plaza Julio Caro Baroja, 2
20018 San Sebastián
España

Tel: +34 943267800
www.deloitte.es

*Jatorriz gaztelaniaz igorritako txostenaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniaz igorritako bertsioa lehenetsiko da.*

# CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SAren ETA MENDEKO SOZIETATEEN 2018KO EKITALDIKO FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIO EGOERA EGIAZTATZEKO TXOSTEN INDEPENDENTEA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA enpresako akziodunei:

Merkataritza Kodearen 49. artikuluak xedatutakoa betez, segurtasun mugatuko irismenarekin, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta mendeko sozietateen (hemendik aurrera Taldea) 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion atxikitako Finantza arlokoa Ez den Informazio Egoera Bateratuaren (hemendik Aurrera, FEIE) inguruko egiaztapena egin dugu. Aipatutako egoera Taldearen atxikitako Kudeaketa Txostenean jasota dago.

Kudeaketa Txostenaren edukiak finantza arlokoa ez den informazioarekin lotuta indarrean dagoen merkataritzako araudiak eskatzen ez duen informazio osagarria jasotzen du. Hori ez da gure egiaztapen-lanaren helburu izan. Horrekin lotuta, gure lana atxikitako Kudeaketa Txostenean jasotako "finantza arlokoa ez den informazio-egoeraren edukien eta GRI edukien erreferentziazko taula" izenekoan identifikatutako informazioa egiaztatzera mugatu da modu esklusiboan.

## Administratzaileen erantzukizuna

Taldearen Kudeaketa Txostenean jasotako FEIE zein haren edukia zehaztea CAFeko administratzaileen erantzukizuna da. FEIE prestatzeko garaian, kontuan hartu dira indarrean dagoen merkataritzako araudian jasotako edukiak eta hautatutako *Sustainability Reporting Standards* de *Global Reporting Initiative* (GRI estandarrak) irizpideei zein Kudeaketa Txosteneko "finantza arlokoa ez den informazio-egoeraren edukien eta GRI edukien erreferentziazko taula" izenekoan gai bakoitzerako aipatutakoaren arabera ezarritako irizpideei jarraituta egin da.

Erantzukizun horrek, era berean, iruzurra edo akatsa dela eta FEIEa okertasun materialik gabe egotea ahalbidetzeko beharrezkotzat jotako barne-kontrola mantentzea, diseinatzea eta ezartzea jasotzen du.

Horrez gain, CAFeko administratzaileak izango dira FEIEa prestatzeko beharrezko informazioa lortzeko erabiltzen diren kudeaketa-sistemak zehaztearen, ezartzearen, egokitzearen eta mantentzearen arduradunak.

## Gure independentzia eta kalitate-kontrola

Kontularitzako Profesionalentzako Etikako Nazioarteko Arauen Kontseiluak (IESBA, ingeleseko laburduren arabera) igorritako Kontularitzako Profesionalentzako Etikako Kodeak zehaztutako independentzia-eskakizunak eta etika arloko gainerako eskakizunak bete ditugu. Hori guztia funtsezko printzipio hauetan oinarrituta dago: zintzotasuna, objektibotasuna, eskumen profesionala, ardura, isilpekotasuna eta profesionaltasuna.

Gure enpresak Kalitatearen Kontroleko 1. Nazioarteko Araua (NICC 1) aplikatzen du eta, ondorioz, etikarekin, arau profesionalekin eta aplikagarriak diren legezko eta arauzko xedapenekin lotutako

Deloitte, S.L. Inscrita en el Registro Mercantil de Madrid, tomo 13.650, sección 8ª, folio 188, hoja M-54414, inscripción 96ª. C.I.F.: B-79104469.
Domicilio social: Plaza Pablo Ruiz Picasso, 1, Torre Picasso, 28020, Madrid.

eskakizunak betetzeari lotutako politikak eta prozedura dokumentatuak jasotzen dituen kalitatearen kontroleko sistema globala mantentzen du.

Lantaldea Finantza arlokoa ez den Informazioa eta, zehatzago esanda, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko lanarekin lotutako informazioa, berrikusten adituak diren profesionalek osatu dute.

## Gure erantzukizuna

Gure erantzukizuna da egindako lanean oinarrituta (2018ko ekitaldiari dagokio modu esklusiboan) segurtasuneko egiaztapen-txosten independentean gure ondorioak azaltzea. Aurreko ekitaldietako datuak ez zeuden gaur egun indarrean dagoen merkataritzako araudian aurrez ikusitako egiaztapenaren mende. Gure egiaztatze-lana Kontularien Nazioarteko Federazioaren (IFAC) Auditoriako eta Aseguramenduko Nazioarteko Arauen Kontseiluak (IFAC) igorritako eta indarrean dagoen Aseguramenduko Enkarguen Nazioarteko Araua 3000an (Berrikusitakoa), "Auditoriarekiko edo Finantza Informazio Historikoaren Berrikusketarekiko ezberdinak diren Aseguramendu Enkarguetan" (Berrikusitako AENA 3000) eta Espainiako Kontuetako Zinpeko Aztertzaileen Institutuak igorritako Finantza arlokoa ez den Informazio Egoera egiaztatzeko enkarguei buruzko Jarduera Gidak ezarritako eskakizunen arabera egin dugu. Aseguramendu mugatuko lanaren kasuan, bideratzen diren prozedurak aldatu egiten dira izaeraren eta unearen arabera, eta hedapen txikiagoa izaten dute arrazoizko segurtasuneko lanean egindakoek baino eta, horrenbestez, lortzen den segurtasuna ere nabarmen izaten da txikiagoa.

Gure lana Zuzendaritzari eta FEIE prestatzen parte hartu duten CAFeko unitateei galderak egitea, FEIEn aurkeztutako informazioa biltzeko eta balioztatzeko prozesuak berrikustea eta laginketa bidezko berrikusketa-probak eta prozedura analitikoak aplikatzea izan da. Horiek guztiak jarraian zehaztuta daude:

- Bilerak Taldeko langileekin aplikatutako kudeaketa-ikuspegiak, politikak eta negozio-eredua, eta gai horiekin lotutako arrisku nagusiak ezagutzeko, eta kanpoko berrikusketa egiteko beharrezko informazioa lortzeko.
- 2018ko ekitaldiko FEIEn jasotako edukien osotasunaren, irismenaren eta garrantziaren azterketa Taldeak egindako eta FEIEko "Sarrera" atalean azaltzen den materialtasun-azterketa kontuan hartuta. Horrekin lotuta, indarrean dagoen merkataritza-araudian eskatutako edukiak ere kontuan hartu dira.
- Prozesuen azterketa 2018ko ekitaldiko FEIEn aurkeztutako datuak biltzeko eta balioztatzeko.
- 2018ko ekitaldiko FEIEn aurkeztutako alderdi materialekin lotuta aplikatu diren kudeaketa-ikuspegiei, politikei eta arriskuei buruzko informazioaren berrikusketa.
- Lagin baten hautaketa oinarritzat hartuta, 2018ko ekitaldiko FEIEn jasotako edukiei buruzko informazioa egiaztatzea eta, CAFeko informazio-iturriek emandako datuen arabera, behar bezala bilduta dagoela egiaztatzea.
- Administratzaileen eta Zuzendaritzaren adierazpenen gutuna jasotzea.

## Ondorioa

Gure egiaztapenean egindako prozedurak eta lortutako ebidentziak oinarritzat hartuta, ez da agertu 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion Taldearen FEIE alderdi esanguratsu guztiei dagokienez honako hauetan jasotako edukien arabera prestatu ez dela erakusten duen alderdirik: indarrean dagoen merkataritzako araudia, hautatutako GRI estandarretako irizpideak eta Kudeaketa Txosteneko "finantza arlokoa ez den informazio-egoeraren edukien eta GRI edukien erreferentziazko taula" izenekoan gai bakoitzerako zehaztutakoaren arabera jasotako gainerako irizpide guztiak.

## Erabilera eta banaketa

Txosten hau Espainian indarrean dagoen merkataritzako araudian ezarritako eskakizunari erantzunez prestatu da; ondorioz, baliteke ez izatea egokia beste helburu eta jurisdikzio batzuetarako.

DELOITTE SL

Pablo Mugica

2019ko otsailak 27



# TALDE BATERATUAREN URTEKO KONTUAK

## 2018KO EKITALDIA





Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Egoera Balantze Bateratuak

## 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| Aktiboa | 2018/12/31 | 2017/12/31 (*) |
|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea:** | | |
| **Ibilgetu ukiezina (7. oharra)** | | |
| Merkataritza-funtsa (2.f. oharra) | 101.827 | 24.124 |
| Beste ibilgetu ukiezin batzuk | 206.535 | 46.421 |
| | **308.362** | **70.545** |
| **Ibilgetu materiala (6. eta 8. oharrak)** | **365.084** | **244.513** |
| **Partaidetza-metodoaren aplikatuta zenbatutako inbertsioak (9. oharra)** | **18.188** | **19.752** |
| **Finantza-aktibo ez-korronteak (9. oharra)** | **537.061** | **560.660** |
| **Estaldurako eratorri ez-korronteak (17. oharra)** | **10.720** | **15.842** |
| **Zerga geroratuengatiko aktiboak (18. oharra)** | **148.548** | **144.989** |
| **Beste aktibo ez-korronte batzuk (21. oharra)** | **2.684** | **-** |
| **Aktibo ez-korrontea, guztira** | **1.390.647** | **1.056.301** |
| **Aktibo korrontea:** | | |
| **Izakinak (11 oharra)** | **375.426** | **71.654** |
| **Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk** | | |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak (10 eta 12 oharrak) | 1.311.835 | 1.277.243 |
| Beste zordun batzuk (9., 10. eta 19. oharrak) | 205.122 | 198.470 |
| Zerga korrontearekin lotutako aktiboak (19. oharra) | 13.633 | 10.030 |
| | **1.530.590** | **1.485.743** |
| **Finantza-aktibo korronteak (13. oharra)** | **94.293** | **84.838** |
| **Estaldura-eratorri korronteak (17. oharra)** | **5.849** | **41.864** |
| **Beste aktibo korronte batzuk (21. oharra)** | **6.343** | **3.229** |
| **Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide** | **602.813** | **371.625** |
| **Aktibo korrontea, guztira** | **2.615.314** | **2.058.953** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.005.961** | **3.115.254** |



| Pasiboa eta ondare garbia | 2018/12/31 | 2017/12/31 (*) |
|---|---|---|
| **Ondare garbia (14. oharra):** | | |
| **Berezko funtsak** | | |
| Eskrituratutako kapitala | 10.319 | 10.319 |
| Jaulkipen-prima | 11.863 | 11.863 |
| Birbalorizazio-erreserba | 39.119 | 39.119 |
| Erakunde kontrolatzailearen eta sozietateen integrazio globalaren eta partaidetza-metodoaren bidez bateratutako beste erreserba batzuk | 793.755 | 770.489 |
| Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza | 43.462 | 42.406 |
| | **898.518** | **874.196** |
| **Beste emaitza integral bat** | | |
| Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak (9. oharra) | - | 39 |
| Estaldurako eragiketak | (5.024) | (6.580) |
| Bihurketako aldeak | (141.782) | (117.238) |
| | **(146.806)** | **(123.779)** |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia** | **751.712** | **750.417** |
| **Partaidetza ez-kontrolatzaileak** | **5.555** | **9.783** |
| **Ondare garbia, guztira** | **757.267** | **760.200** |
| **Pasibo ez-korrontea:** | | |
| **Hornidura ez-korronteak (20. oharra)** | **6.877** | **7.071** |
| **Finantza-pasibo ez-korronteak (15 eta 16 oharrak)** | | |
| Zorrak eta betebeharrak kreditu-erakundeekin edo beste balio negoziagarri batzuk | 766.464 | 625.645 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | 47.774 | 52.039 |
| | **814.238** | **677.684** |
| **Zerga geroratuengatiko pasiboak (18. oharra)** | **177.191** | **153.805** |
| **Estaldura-eratorri ez-korronteak (17. oharra)** | **11.206** | **18.131** |
| **Beste pasibo ez-korronte batzuk (3.f. eta 21 oharrak)** | **82.186** | **55.821** |
| **Pasibo ez-korrontea, guztira** | **1.091.698** | **912.512** |
| **Pasibo korrontea:** | | |
| **Hornidura korronteak (20. oharra)** | **224.970** | **227.939** |
| **Finantza-pasibo korronteak (15 eta 16 oharrak)** | | |
| Zorrak eta betebeharrak kreditu-erakundeekin edo beste balio negoziagarri batzuk | 255.416 | 46.262 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | 23.356 | 40.725 |
| | **278.772** | **86.987** |
| **Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk** | | |
| Hornitzaileak (26. oharra) | 664.865 | 423.385 |
| Beste hartzekodun batzuk (12, 15 eta 19 oharrak) | 911.961 | 646.593 |
| Zerga korrontearekin lotutako pasiboak (19. oharra) | 6.447 | 5.009 |
| | **1.583.273** | **1.074.987** |
| **Estaldura-eratorri korronteak (17. oharra)** | **64.167** | **52.313** |
| **Beste pasibo korronte batzuk (21. oharra)** | **5.814** | **316** |
| **Pasibo korrontea, guztira** | **2.156.996** | **1.442.542** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.005.961** | **3.115.254** |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).
Atxikitako 1etik 28ra arteko oharrak 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuaren baitan daude.



Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| (Zor) Hartzekoak | 2018 | 2017 (*) |
|---|---|---|
| **Eragiketa jarraituak:** | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia (6, 9 eta 10 oharrak) | 2.048.419 | 1.477.039 |
| Amaitutako produktuen eta fabrikazio-fasean dauden izakinen aldaketa +/- | 73.250 | (77.035) |
| Aktiborako enpresak egindako lana | 14.488 | 8.977 |
| Hornidurak (22. oharra) | (1.089.940) | (542.771) |
| Ustiapeneko beste sarrera batzuk (2.b eta 22. oharrak) | 21.339 | 7.886 |
| Pertsonalaren gastuak (23. oharra) | (518.473) | (446.381) |
| Ustiaketako beste gastu batzuk (22. oharra) | (347.605) | (247.463) |
| Ibilgetuaren amortizazioa (7 eta 8 oharrak) | (46.738) | (34.690) |
| Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina (2.f, 7, 8 eta 9 oharrak) | (10.572) | 148 |
| **Ustiapenaren emaitza** | **144.168** | **145.710** |
| Finantza arloko sarrerak (9, 10 eta 13 oharrak) | 7.627 | 7.309 |
| Finantza arloko gastuak (9, 16 eta 17 oharrak) | (64.160) | (68.551) |
| Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa | 7 | 35 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | (6.673) | (17.591) |
| Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko kaltea eta emaitza (9. oharra) | 9 | 4 |
| **Finantza arloko emaitza** | **(63.190)** | **(78.794)** |
| Baloratutako erakundeen emaitza, partaidetza-metodoaren arabera (9. oharra) | (403) | 594 |
| **Zergen aurreko emaitza** | **80.575** | **67.510** |
| Irabazien gaineko zerga (18. oharra) | (40.955) | (24.993) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza** | **39.620** | **42.517** |
| **Ekitaldiko emaitza bateratua** | **39.620** | **42.517** |
| Honako hauei egotzitakoa: | | |
| Erakunde kontrolatzailea | 43.462 | 42.406 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | (3.842) | 111 |
| **Akzio bakoitzeko irabazia (eurotan)** | | |
| Oinarrizkoa | 1,27 | 1,24 |
| Diluitua | 1,27 | 1,24 |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).
Honi erantsitako 1etik 28ra arteko oharrak 2018ko ekitaldiko galera eta irabazi bateratuen kontuko zati dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Aitortutako Sarrera eta Gastuen Egoera Bateratuak

## 2018ko eta 2017ko ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| | 2018 | 2017 (*) |
|---|---|---|
| **A) Ekitaldiko emaitza bateratua:** | **39.620** | **42.517** |
| **B) Aldiko emaitzaren arabera birsailkatzen ez diren kontu-sailak:** | **10.917** | **(4.771)** |
| Irabazi eta galera aktuarialenak (3.j oharra) | (2.403) | (5.525) |
| Beste emaitza integral batean aldaketak dituzten ondare-tresnak (9. oharra) | 13.320 | - |
| Zerga-eragina (18. oharra) | - | 754 |
| **C) Aldiko emaitzaren ondoren birsailka daitezkeen kontu-sailak:** | **(22.988)** | **(41.168)** |
| **Eskudiruaren fluxuen estaldurak:** | **1.700** | **(2.058)** |
| Balorazioaren araberako irabaziak/galerak (17. oharra) | 1.620 | (2.138) |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | 80 | 80 |
| **Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak:** | **-** | **39** |
| Balorazioaren araberako irabaziak/galerak (9. oharra) | - | 39 |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | - | - |
| **Bihurketako aldeak:** | **(24.635)** | **(40.385)** |
| Balorazioaren araberako irabaziak/galerak (14. oharra) | (24.635) | (40.385) |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | - | - |
| **Negozio bateratuetan eta elkartuetan egindako inbertsioak direla eta aitortutako beste era bateko emaitza orokorreko partaidetza:** | **442** | **656** |
| Balorazioarekin lotutako irabaziak/galerak | | |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (9 eta 17 oharrak) | 31 | 160 |
| Bihurketako aldeak | 91 | (150) |
| | 122 | 10 |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | | |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra) | 320 | 646 |
| Bihurketako aldeak | - | - |
| | 320 | 646 |
| **Zerga-eragina** | **(495)** | **580** |
| **Aitortutako sarrerak eta gastuak, guztira (A+B+C)** | **27.549** | **(3.422)** |
| Honako hauei egotzitakoa: | | |
| Erakunde kontrolatzailea | 31.391 | (3.533) |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | (3.842) | 111 |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Honi erantsitako 1etik 28ra arteko oharrak 2018ko ekitaldiko aitortutako sarrera eta gastu bateratuenegoeraren zati dira.

# Ondare Garbi Bateratuan Gertatutako Aldaketen Egoerak

## 2018 eta 2017 ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| | Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Funts propioak | | | | | | | | |
| | Kapital soziala | Jaulkipeneko prima | Egin gabeko aktibo eta pasiboen birrebaluazioagatiko erreserba | Beste erreserba batzuk | Ekitaldiko emaitza garbia | Estaldurako eragiketak | Bihurketako aldeak | Partaidetza ez-kontrolatzaileak | Ondare garbia, guztira |
| **2016ko abenduaren 31ko saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **758.268** | **35.013** | **(5.908)** | **(76.703)** | **11.706** | **783.677** |
| **Aitortutako sarrerak/gastuak, guztira** | **-** | **-** | **-** | **(4.771)** | **42.406** | **(633)** | **(40.535)** | **111** | **(3.422)** |
| **Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak** | **-** | **-** | **-** | **1.862** | **(19.883)** | **-** | **-** | **(2.034)** | **(20.055)** |
| Dibidenduen banaketa | - | - | - | - | (19.883) | - | - | (3.005) | (22.888) |
| Kanpoko bazkideekin egindako eragiketak (2.f oharra) | - | - | - | 1.862 | - | - | - | 971 | 2.833 |
| **Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk** | **-** | **-** | **-** | **15.130** | **(15.130)** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| Ondare garbiaren kontusailen arteko intsuldaketak (14. oharra) | - | - | - | 15.130 | (15.130) | - | - | - | - |
| **2017ko abenduaren 31ko saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **770.489** | **42.406** | **(6.541)** | **(117.238)** | **9.783** | **760.200** |
| Kontularitzako irizpideetan egindako aldaketen ondoriozko doiketak (2.b eta 7. oharrak) | - | - | - | (7.432) | - | (39) | - | - | (7.471) |
| **2018ko urtarrilaren 1ean doitutako saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **763.057** | **42.406** | **(6.580)** | **(117.238)** | **9.783** | **752.729** |
| **Aitortutako sarrerak/gastuak, guztira** | **-** | **-** | **-** | **10.917** | **43.462** | **1.556** | **(24.544)** | **(3.842)** | **27.549** |
| **Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak** | **-** | **-** | **-** | **-** | **(22.625)** | **-** | **-** | **(386)** | **(23.011)** |
| Dibidenduen banaketa | - | - | - | - | (22.625) | - | - | (1.555) | (24.180) |
| Negozio-konbinazioak | - | - | - | - | - | - | - | 97 | 97 |
| Kanpoko bazkideekin egindako eragiketak (2.f oharra) | - | - | - | - | - | - | - | 1.072 | 1.072 |
| **Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk** | **-** | **-** | **-** | **19.781** | **(19.781)** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| Ondare garbiaren kontusailen arteko intsuldaketak (14. oharra) | - | - | - | 19.781 | (19.781) | - | - | - | - |
| **2018ko abenduaren 31ko saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **793.755** | **43.462** | **(5.024)** | **(141.782)** | **5.555** | **757.267** |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Atxikitako 1etik 28ra arteko oharrak 2018ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko aldaketen egoeraren baitakoak dira.



Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Eskudiruaren Fluxuaren Egoera Bateratuak

## 2018 eta 2017 ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| | 2018 | 2017 (*) |
|---|---|---|
| **Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren fluxuak:** | | |
| Zergen aurreko emaitza | 80.575 | 67.510 |
| Emaitzaren doiketak | | |
| Amortizazioak (7 eta 8 oharrak) | 46.738 | 34.690 |
| Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak (7, 8 eta 9 oharrak) | 10.634 | (222) |
| Horniduren aldaketa (3 eta 20 oharrak) | 40.078 | 8.912 |
| Galera eta irabazien beste kontu-sail bazuk | 22.389 | 20.734 |
| Aktibo ez-korronteak besterentzearen ondoriozko emaitza (8. oharra) | (175) | 108 |
| Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak (9. oharra) | 403 | (594) |
| Finantza-sarrerak | (7.627) | (7.309) |
| Finantza-gastuak | 64.160 | 68.551 |
| Kapital korronteko aldaketak | | |
| Zordun komertzialak eta beste aktibo korronte batzuk (3.d eta 12 oharrak) | (57.630) | (22.989) |
| Izakinak (11 oharra) | (105.264) | (25.282) |
| Hartzekodun komertzialak (12. oharra) | 352.938 | 33.461 |
| Bestelako pasibo korronteak | (3.877) | 45 |
| Beste aktibo eta pasibo ez-korronte batzuk | (11.087) | (1.263) |
| Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk | | |
| Irabazien gaineko zergekin lotutako kobrantzak/(ordainketak) (19. oharra) | (40.354) | (10.351) |
| Ustiapeneko jardueren beste kobrantza/(ordainketa) batzuk | (2.575) | (944) |
| **Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (I)** | **389.326** | **165.057** |
| **Inbertsio-jardueretako eskudiruaren fluxuak:** | | |
| Inbertsioen araberako ordainketak | | |
| Taldeko enpresak eta lotutakoak | - | (61) |
| Negozio-unitateak (2.f oharra) | (171.664) | (8.329) |
| Ibilgetu materiala, ukiezina eta inbertsio higiezinak (7 eta 8 oharrak) | (90.588) | (51.254) |
| Beste finantza-aktibo batzuk (9 eta 13 oharrak) | (17.387) | (4.028) |
| Desinbertsioen araberako kobrantzak | | |
| Taldeko eta elkartutako enpresak (9. oharra) | 9.081 | 693 |
| Ibilgetu materiala, ukiezina eta inbertsio higiezinak (7 eta 8 oharrak) | 921 | 182 |
| Beste finantza-aktibo batzuk (9 eta 13 oharrak) | 24.717 | 35.567 |
| Interesen kobrantzak (9 eta 13 oharrak) | 6.560 | 5.189 |
| **Inbertsio-jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (II)** | **(238.360)** | **(22.041)** |
| **Finantzaketa-jardueretako eskudiruaren fluxuak:** | | |
| Ondare-tresnen jaulkipena - kanpoko bazkideak | 1.072 | 4.000 |
| Ondare-tresnen erosketa - kanpoko bazkideak | - | (1.167) |
| Finantza-pasiboko tresnen araberako kobrantzak/(Ordainketak) | | |
| Jaulkipena (15 eta 16 oharrak) | 544.557 | 76.543 |
| Itzulketa eta amortizazioa (15 eta 16 oharrak) | (376.346) | (128.307) |
| Dibidenduen araberako ordainketak eta ondarearen beste tresna batzuek ordainketak (14. oharra) | (24.180) | (22.888) |
| Finantzaketa-jardueretako eskudiruaren beste fluxu bazuk | | |
| Interesen ordainketa (16. oharra) | (64.539) | (76.862) |
| **Finantzaketa-jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (III)** | **80.564** | **(148.681)** |
| **Eskudiruaren eta eskudiruaren baliokideen igoera garbia (I+II+III)** | **231.530** | **(5.665)** |
| Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak aldiaren hasieran | 371.625 | 392.022 |
| Truke-tasen aldaketen eragina altxortegian | (342) | (14.732) |
| **Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak aldiaren amaieran** | **602.813** | **371.625** |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Atxikitako 1etik 28ra arteko oharrak 2018ko ekitaldiko eskudiruaren fluxuaren egoera bateratuan sartuta daude.



Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Urteko Ekitaldiari Dagokion Memoria Bateratua

## 2018ko abenduaren 31n amaitutako

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

## 1. ERAKUNDE KONTROLATZAILEAREN IZAERA ETA JARDUERA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA (aurrerantzean CAF edo erakunde kontrolatzailea) Donostian (Gipuzkoa) sortu zen 1917an, mugarik gabeko izaerarekin eta helbide soziala Beasainen du (Gipuzkoa).

Helburu soziala Estatutu Sozialen 2. artikuluan deskribatuta dago.

Erakunde kontrolatzailearen oraingo jarduera nagusia trenbideetarako materiala fabrikatzea da.

Erakunde kontrolatzaileak, bere jarduera garatu ahal izateko, beste sozietate batzuetan partaidetzen gehiengoa du (2.f. oharra).

## 2. URTEKO KONTU BATERATUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

### a) Aurkezteko oinarriak

CAF Taldearen 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak administratzaileek formulatu dituzte:

– Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera (FINA, hemendik aurrera) egin dira kontuak. Europar Batasunak finkatuak dira arau horiek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Arauarekin (EB) bat etorriz, Nazioarteko Kontabilitate Arauak (NKA) eta Financial Reporting Interpretations Committee (IFRIC) eta Standing Interpretations Committee (SIC) erakundeen irizpideak barne direla. 3. oharrean daude laburbilduta atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko aplikatu diren kontabilitateko printzipiorik eta balorazioko irizpiderik adierazgarrienak.

– Bestalde, aintzat hartu dira urteko kontu bateratuetan eragin nabarmena duten eta nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide guztiak, baita araudiak horretarako baimentzen dituen alternatibak ere (3. oharrean daude zehaztuta).

– Hori dela eta, CAF Taldeak 2018ko abenduaren 31n duen ondare bateratuaren eta finantza-egoeraren araberako irudia erakusten dute. Horrez gain, data horretan amaitutako ekitaldian Taldean sortu diren lanen emaitzen, ondare garbi bateratuko aldaketen eta eskudiruaren fluxu bateratuen emaitzak ere jasotzen ditu.

– Kontuan izan dira, halaber, erakunde kontrolatzailearen eta Taldeko gainerako sozietateen kontabilitate-erregistroak. Dena dela, ikusirik Taldearen urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak (FINA) ez datozela bat Taldeko sozietate bakoitzak erabiltzen dituenarekin (tokian tokiko araudia), zenbait doiketa eta birsailkatze erantsi zaizkio bateratze-prozesuari, elkarrekin bateragarri egiteko aipatutako printzipioak eta irizpideak eta Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara egokitzeko.

2017ko ekitaldiari dagozkion CAF Taldearen urteko kontu bateratuak 2018ko ekainaren 2an egindako CAFeko Akziodunen Batzar Orokorrak onartu zituen. Akziodunen Batzar Orokorrek onartu behar dituzte 2018ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuak eta haren partaide diren sozietateen urteko kontuak. CAFeko Administrazio Kontseiluaren iritziz, inongo aldaketarik gabe onartuko dira urteko kontu horiek.

### b) Argitaratu diren arau eta interpretazio berriak betetzea

2018ko urtarrilaren 1ean sartu dira indarrean kontularitzako arau hauek: 15. FINA Sarreren aitorpena eta 9. FINA “Finantza-tresnak”.

Bi kasuetan, horietarako trantsizioa atzeraeraginez egin da 2018ko hasierako saldoaren doiketa gisa. Horrenbestez, ez dugu berriro adierazi 2017ko ekitaldiko informazio konparagarria. Arauaren hasierako aplikazioak izan duen eragin metatua erreserbetako hasierako doiketa gisa aitortu da.

Honako hau da egoera-balantze bateratuan kontu-sail horietako bakoitzak 2018ko urtarrilaren 1ean izan duen inpaktua:



| | 2018/01/01eko balantzea | 9. FINA trantsizioa | 15. FINA trantsizioa | 2018/01/01eko balantze doitua |
|---|---|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea** | **1.056.301** | **(849)** | **590** | **1.056.042** |
| Ibilgetu ukiezina | 70.545 | - | - | 70.545 |
| Ibilgetu materiala | 244.513 | - | - | 244.513 |
| Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 19.752 | - | - | 19.752 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 576.502 | (3.054) | - | 573.448 |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 144.989 | 2.205 | 590 | 147.784 |
| **Aktibo korrontea** | **2.058.953** | **(4.237)** | **(86.069)** | **1.968.647** |
| Izakinak | 71.654 | - | 20.815 | 92.469 |
| Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk | 1.485.743 | (3.626) | (106.884) | 1.375.233 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 126.702 | (27) | - | 126.675 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 3.229 | - | - | 3.229 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 371.625 | (584) | - | 371.041 |
| **Aktiboa, guztira** | **3.115.254** | **(5.086)** | **(85.479)** | **3.024.689** |
| **Ondare garbia** | **760.200** | **(5.086)** | **(1.867)** | **753.247** |
| **Pasibo ez-korrontea** | **912.512** | **-** | **-** | **912.512** |
| Hornidura ez-korronteak | 7.071 | - | - | 7.071 |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | 695.815 | - | - | 695.815 |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | 153.805 | - | - | 153.805 |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 55.821 | - | - | 55.821 |
| **Pasibo korrontea** | **1.442.542** | **-** | **(83.612)** | **1.358.930** |
| Hornidura korronteak | 227.939 | - | (83.612) | 144.327 |
| Finantza-pasibo korronteak | 139.300 | - | - | 139.300 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.074.987 | - | - | 1.074.987 |
| Bestelako pasibo korronteak | 316 | - | - | 316 |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **3.115.254** | **(5.086)** | **(85.479)** | **3.024.689** |

Lehen zehaztutako 15. FINAra egindako trantsizioak izandako inpaktuak honela laburbil daitezke:

– Taldearen kontratu jakin batzuetan, bezeroaren hautazko zabaltzeak daude, eta Taldeak bezeroarekin zabaltzea sinatu ondoren erregistratzen ditu. Arau berriaren arabera, jatorrizko kontratua eta erabilitako aukera bereizita erregistratzen dira eta ez bateratuta, orain arte egiten zen bezala, eta horrek eragina izango du Taldeak aitortutako sarreren eta gastuen aldi baterako erregistroan.

– Taldearen kontratu jakin batzuetan, produktu eta zerbitzu diferentzialak hornitzen ari dira, baina trantsizioa egin arte modu bateratuan bideratzen ziren. Arau berriaren arabera, produktu eta zerbitzu diferentzialak bereizita erregistratu behar dira. Taldearen sarreren eta gastuen erregistroan denbora mailako inpaktua eragingo da produktu/zerbitzu bakoitzaren aurrerapena bereizita aurrez ikusi delako.

– Gainera, Taldearen kontratu gehienek transakzioaren prezio probablea aldaraz dezaketen zigor-klausulak biltzen dituzte. Arau berriak xedatutakoa betez, zigor horien sailkapena aldatu egin da eta sarrera txikiagotzat erregistratzeara igaro dira (ondorioz, egoera-balantze bateratuko "Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk" ataleko kontu-sailak gutxitu egin da) gastuarekin lotutako kontu-sail gisa erregistratu beharrean (egoera-balantze bateratuko "hornidura korronteak").



– Azkenik, Taldeak hondakinen eta txatarraren salmentengatik jasotako sarrerak zein hornitzaileei egindako birfakturazioak erregistratzeko modua aldatu du. 2018ko urtarrilaren 1etik, sarrera horiek atxikitako irabazi eta galeren kontu bateratuko “Ustiapeneko beste sarrera batzuk” epigrafean erregistratzen dira.

9. FINAri dagokionez, honela laburbil dezakegu inpaktua:

– Balio-narriadura: esperotako galeran oinarritutako balio-narriaduraren eredu berria ezartzen da, egun dagoen gertatutako galeraren ereduaren ordez. Esperotako galera-eredu horren arabera, ez da beharrezkoa narriadura-gertaera galera aitortu aurretik jazotzea. Taldeak banakako balorazio-eredua ezarri du eta, bertan, kalkulurako hipotesi nagusi gisa, bezero bakoitzaren kaudimen maila eta kobratzeko Taldeak dituen bermeak erabiltzen dira.

3.d eta 3.f oharretan daude banakatuta araudi berri horren arabera aplikatutako kontularitza-printzipioak eta balorazio-irizpideak.

### Indarrean ez dauden eta jaulki diren arau eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, IASBk argitaratuak zituen jada arau, aldaketa eta interpretazio hauek guztiak, baina artean indarrean sartu gabe zeuden, urteko kontu bateratuen data baino geroagokoa dutelako eragin-data, edo Europar Batasunak artean onartu gabe zituelako.

| **Erabakia** | **IASBren eragin-data** | **Europar Batasuneko eragin-data** |
|---|---|---|
| 16. FINA - Errentamenduak | 2019ko urtarrilak 1 | 2019ko urtarrilak 1 |
| 17. FINA – Aseguru-kontratuak | 2021eko urtarrilak 1 | Zehaztu gabe |
| 3. FINAn egindako aldaketak - Negozio-definizioaren azalpena | 2020ko urtarrilak 1 | Zehaztu gabe |
| 9. FINAn egindako aldaketak - Finantza-tresnak | 2019ko urtarrilak 1 | 2019ko urtarrilak 1 |
| 23. IFRIC – Ziurgabetasunak zerga-tratamenduetan | 2019ko urtarrilak 1 | 2019ko urtarrilak 1 |
| 1. NKAn egindako aldaketa - Finantza-tresnen aurkezpena | 2020ko urtarrilak 1 | Zehaztu gabe |
| 8. NKAn egindako aldaketa - Kontularitzako politikak, aldaketak kontularitzako aurreikuspenetan eta akatsak | 2020ko urtarrilak 1 | Zehaztu gabe |
| 19. NKAn egindako aldaketa – Plan baten aldaketa, murrizketa eta likidazioa | 2019ko urtarrilak 1 | Zehaztu gabe |
| 28. NKAn egindako aldaketak - Inbertsioak lotutako erakundeetan | 2019ko urtarrilak 1 | 2019ko urtarrilak 1 |
| Urteko hobekuntzak FINA arauetan - 2015-2017 zikloa | 2019ko urtarrilak 1 | Zehaztu gabe |

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartuko diren arauetarako eta hurrengoetarako, Taldeak aurretiazko ebaluazioa egin du arau horiek etorkizunean aplikatzeak finantza-egoera bateratuetan izango dituen eraginak aurretiaz aztertzeko. Taldearen ustez, eragin nagusia 16. FINAn egongo da.

Taldeak horren zein informazioaren banakapen-osagarrien inpaktuaren inguruko aurretiazko ebaluazioa egin du araua indarrean sartu ostean urteko kontu bateratuak molda daitezen beharrezkoa izanez gero.

2018ko abenduaren 31ri dagokion finantza-pasiboaren eta erabilera-eskubidearen balorazio-estimazioa Taldeak data horretan duen guztizko aktiboaren % 1,5 ingurukoa izango dela aurrez ikusi da. Ez da Taldearen ondare garbian inpaktu esanguratsurik espero lehen aplikazioa egingo den egunean.

Era berean, emaitzen kontu bateratuan, errentamendu operatiboen gastuak, gaur egun “Ustiapeneko beste gastu batzuk” izeneko epigrafean jasota daudenak, kontu-sail horretan erregistratzeari utziko zaio eta “Ibilgetuaren amortizazioa” epigrafean erregistratuko da “Erabilera-eskubidearen” balio-galerari dagokion zatia, eta “Finantza-gastuak” epigrafean finantza-pasiboari lotutako kostua. Errentamendu operatiboak direla eta 2018ko ekitaldian erregistratutako zenbatekoa 16.268 mila eurokoa da (3.m oharra).



### c) Moneta funtzionala

Eurotan aurkeztu dira urteko kontu bateratu hauek, Taldeak lan egiten duen ingurune ekonomiko nagusiko moneta euroa baita. 2.f oharrak deskribatzen dituen politiken arabera erregistratzen dira atzerriko operazioak.

### d) Egindako estimazioak

Batzuetan, estimazioak erabili dira CAF Taldearen 2018ko ekitalditako urteko kontu bateratuetan. Hitz gutxitan esanda, eskuragarri dagoen informazio onenaren arabera egindako estimazio horiek honako hauen ingurukoak dira:

– Aktibo batzuen narriaduragatiko galera posibleen ebaluazioa (7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 13 oharrak).

– Pentsioen pasiboen eta langileekiko beste konpromiso batzuen aktuaritza-kalkuluan erabilitako hipotesiak (15. oharra).

– Aktibo material eta ukiezinen bizitza erabilgarria (3.a eta 3.b oharrak).

– Finantza-aktibo jakin batzuen arrazoizko balioa (3.d. oharra).

– Hornikuntzen kalkulua (20. oharra).

– Erregistratutako eta erabili gabeko kreditu fiskalak aplikatu ahal izateko etorkizuneko zerga-irabaziak erabilgarri izateko probabilitatearen ebaluazioa (18. oharra).

– Gauzatutako obra-proiektuen aurrekontuetan estimatutako kostuen bilakaera eta aurrerapen maila (3.f oharra).

Estimazio horiek aztertutako gertaeren inguruan 2018ko abenduaren 31n eskuragarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren arren, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen jazoerek horiek aldaraztea (gorantz zein beherantz) hurrengo ekitaldietan; hori dela eta, 8. NKAk xedatutakoaren arabera egin beharko lirateke aldaketa horiek etorkizunera begira, estimazio-aldaketaren eraginak kontuan hartuta dagokion galera eta irabazien kontu bateratuan.

Urteko kontu bateratu hauetan eragin nabarmenik izan duen aldaketarik ez da egon kontabilitate-estimazioetan, 2017arekin alderatuta.

### e) Informazioa alderatzea

1. NKAk xedatutakoa betez, 2017ko ekitaldiaren inguruko memoria honetan azaltzen den informazioa 2018ko ekitaldiko informazioarekin batera ageri da alderatu ahal izateko.

Alderaketa egiteko erantsi ditugun 2017ko urteko kontu bateratuak ere Europar Batasunak finkatutako FINAen arabera egindakoak dira, 2018ko ekitaldikoekin aplikatutakoen antzera. Dena den, behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da Taldeak bere egin duela 9. eta 15. FINA kontularitzako arau berrietarako trantsizioa egiteko garaian “berriro ez adierazteko” aukera. Eragina jasandako kontu-sail nagusiak memoria bateratuko 2.b oharrean daude zehaztuta.

Era berean, 2018 eta 2017 ekitaldietako urteko kontu bateratuen arteko alderaketa egokia egin ahal izateko, kontuan hartu behar dira 2.f oharrean zehaztutako perimetroko aldaketak.

### f) Talde bateragarria eta bateratze-printzipioak

#### Bateratze-eremua

Erakunde kontrolatzailearenak eta haren kontrolpeko sozietateenak dira honi erantsita datozen urteko kontu bateratuak. Kontrola finantza arloko politikak zein politika operatiboak zuzentzeko ahalmena da, jarduera horietatik irabaziak lortu ahal izateko.



2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren (Erakunde kontrolatzailea - 1. oharra) eta ondoren data haren arabera zerrendatu diren mendeko sozietateen eta lotutako sozietateen banakako kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira:

| **Trenen segmentua** | **Kontrol edo eraginaren %** | **Helbide soziala** | **Jarduera** |
|---|---|---|---|
| **Integrazio osoz bateratuak** | | | |
| CAF SA | Kontrolatzailea | Gipuzkoa | Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza- eta industria-jarduera |
| CAF USA, Inc. | % 100 | Delaware | Fabrikazioa |
| CAF México SA de CV | % 100 | Mexiko DF | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Brasil Industria e Comercio SA | % 100 | Sao Paulo | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Argentina SA | % 100 | Buenos Aires | Konponketa eta mantentze-lanak |
| CAF Rail UK Ltda. | % 100 | Belfast | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Italia, SRL | % 100 | Erroma | Konponketa eta mantentze-lanak |
| CAF Chile, SA | % 100 | Txileko Santiago | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Turquia, LS | % 100 | Istanbul | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Argelia, EURL | % 100 | Aljer | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Trenes CAF Venezuela, CA | % 100 | Caracas | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Rail Australia Pty. Ltd. | % 100 | Sydney | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF India Private Limited | % 100 | Delhi | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF France, SAS | % 100 | Paris | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Trenes de Navarra, SAU | % 100 | Nafarroa | Fabrikazioa |
| Construcciones Ferroviarias de Madrid, SLU | % 100 | Madril | Fabrikazioa |
| CAF Digital & Design Solutions SA (*****) | % 100 | Jaen | Fabrikazioa eta ingeniaritza |
| Tradinsa Industrial, SA | % 100 | Lleida | Konponketa eta mantentze-lanak |
| CAF New Zealand Ltd | % 100 | Auckland | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Sisteme Feroviare SRL | % 100 | Bukarest | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Colombia, SAS | % 100 | Medellín | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Arabia, Co. | % 100 | Riyadh | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Deutschland GmbH | % 100 | Munich | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Taiwan Ltd. | % 100 | Kaohsiung | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Hungria K.F.T. | % 100 | Budapest | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Netherlands B.V. | % 100 | Utrecht | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Rolling Stock UK, Ltd. | % 100 | Newport | Fabrikazioa |
| CAF Track Test Center SL | % 100 | Nafarroa | Bideko probak |
| Metro CAF Mauritius, Ltd. | % 100 | Maurizio | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Belgium, SPRL | % 100 | Brusela | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Tram Liége Maintenance SA | 65% | Lieja | Mantentze-lana |
| CAF I+D SL (kide bakarreko sozietatea) | % 100 | Gipuzkoa | I+G |
| CAF Power & Automation SLU | % 100 | Gipuzkoa | Potentziako ekipamenduak eta ekipamendu elektronikoak |
| Vectia Mobility Research & Development A.I.E. | % 70 | Nafarroa | I+G |
| Vectia Mobility SL | % 70 | Nafarroa | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| CAF Turnkey & Engineering SLU | % 100 | Bizkaia | Ingeniaritza |
| Centro de Ensayos y Análisis Cetest SL | % 100 | Gipuzkoa | Probak |
| Lander Simulation and Training Solutions SA | % 57 | Gipuzkoa | Simulagailuak |



| Trenen segmentua | Kontrol edo eraginaren % | Helbide soziala | Jarduera |
|---|---|---|---|
| Geminys SL | % 100 | Gipuzkoa | Operazio-eskuliburuak |
| CAF Signalling SLU | % 100 | Gipuzkoa | Seinaleztapena |
| CAF Sinyalizasyon Sistemleri Ticaret Ltd. Sirketi | % 100 | Istanbul | Seinaleztapena |
| BWB Holdings, Ltd. (**) | % 100 (*) | Nottingham | Ingeniaritza |
| Actren SA | % 51 | Madril | Mantentze-lana |
| Sermanfer SA | % 100 | Madril | Mantentze-lana |
| Sefemex, SA de CV | % 100 | Mexiko DF | Zerbitzuen eskaintza |
| Corporación Trainemex, SA de CV | % 100 | Mexiko DF | Administrazioa |
| CAF Investment Projects SAU | % 100 | Gipuzkoa | Enpresa-sustapena |
| CAF Diversified Business Development SA (******) | % 100 | Gipuzkoa | Akzioak edukitzea |
| Ctrens Companhia de Manutençao, SA | % 100 | Sao Paulo | Errentamendu-zerbitzuak |
| Provetren, SA de CV | % 100 | Mexiko DF | Errentamendu-zerbitzuak |
| Regiotren SA de CV | % 100 | Mexiko DF | Errentamendu-zerbitzuak |
| Sermantren SA de CV | % 100 | Mexiko DF | Zerbitzuen eskaintza |
| Ennera Energy and Mobility SL | % 100 | Gipuzkoa | Energiaren sorkuntza |
| Ennera Kaihatsu CO, Ltd. | % 100 | Tokio | Energiaren sorkuntza |
| Rail Line Components SLU | % 100 | Gipuzkoa | Merkaturatzea |
| Sermanbra Serviços de Manutençao Brasil, Ltda. | % 100 | Sao Paulo | Mantentze-lana |
| CAF Group UK, Ltd. | % 100 | Coventry | Akzioak edukitzea |
| Rifer S.R.L. | % 100 (*) | Milan | Osagaien mantentze-lana |
| Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Ekipamendua |
| **Partaidetza-metodoaren bidez bateratuak (9. oharra)** | | | |
| Ferrocarril Interurbano SA de CV | % 49,63 | Mexiko DF | Fabrikazioa eta ekipamendua |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L.(***) | % 50 | Gipuzkoa | Irtenbide teknologikoak |
| Asirys Vision Technologies, S.A. | % 22,33 | Gipuzkoa | Produkzio automatikoa |
| Tumaker SL | % 21,11 | Gipuzkoa | Inprimatze-ekipoak |
| Ferrocarriles Suburbanos SA de CV | % 43,35 | Mexiko DF | Garraio-zerbitzuen eskaintza |
| Plan Metro SA | % 40 | Gipuzkoa | Errentamendu-zerbitzuak |
| Consorcio Traza SA (****) | % 25 | Zaragoza | Akzioak edukitzea |
| Arabia One for Clean Energy Investments PSC. | % 40 | Ma'an | Energiaren sorkuntza |
| Purple Line Transit Operators LLC | % 20 | Delaware | Operazioa eta mantentze-lanak |
| Orbital Sistemas Aeroespaciales SL | % 30 | Nafarroa | Irtenbide aeronautikoak |
| Great River City Light Rail Pty Ltd. | % 30 | Sydney | Operazioa eta mantentze-lanak |

(*) Urteko kontu bateratuetako 15. oharrean zehaztutako aukerak kontuan hartuta.

(**) Sozietate honek % 100eko partaidetza du Quincey Manon Practice, Ltd., BWB Consulting, Ltd. eta BWB Regeneration, Ltd sozietateetan.

(***) Sozietateak % 100eko partaidetza du egoitza soziala Estatu Batuetan duen NEM Solutions USA, Inc. sozietatean.

(****) Sozietateak % 80ko partaidetza du sozietate honetan: Sociedad SEM Los Tranvías de Zaragoza SA.

(*****) Lehen "Construcciones Ferroviarias – CAF Santana SA" izena zuen.

(******) Lehen "Urbanización Parque Romareda SA" izena zuen.



| Autobusen segmentua | Kontrol edo eraginaren % | Helbide soziala | Jarduera |
|---|---|---|---|
| **Integrazio osoz bateratuak** | | | |
| Solaris Bus & Coach SA | % 100 | Bolechowo | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Openaco Trading Co. Ltd. | % 100 | Zipre | Akzioak edukitzea |
| Solaris Deutschland GmbH | % 100 | Berlin | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Austria GmbH | % 100 | Viena | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Schweiz GmbH | % 100 | Hausen | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Italia SRL | % 100 | Erroma | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus & Coach Latvia Ltd. | % 100 | Riga | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Czech spol. S.r.o. | % 100 | Ostrava | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Norge AS | % 100 | Oslo | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus Iberica SL | % 100 | Madril | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris France SARL | % 100 | Ennery | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Sverige AB | % 100 | Malmö | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Hellas SA | % 70 | Atenas | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Slovakia s.r.o. | % 100 | Kosice | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bulgaria EOOD | % 100 | Sofia | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus Israel Ltd. | % 100 | Tel Aviv | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus & Coach Romania SRL | % 100 | Bukarest | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Danmark Bus A/S | % 100 | Padborg | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| **Partaidetza-metodoaren bidez bateratuak (9. oharra)** | | | |
| JBM Solaris Electric Vehicles Private Limited | % 20 | Ballabhgarh, India | Hiri-garraiorako irtenbideak |

## Aldaketak bateratze-eremuan

2018ko irailaren 4an, erakunde kontrolatzaileak Solaris Bus and Coach SAren eta mendeko sozietateen (hemendik aurrera, Solaris) kontrola eskuratu du eta CAF Taldearen kontsolidazio-perimetrora gehitu dira. Ohar honetako aurreko atalean dago zehaztuta Solaris zer sozietatek osatzen duten eta zein diren sozietate bakoitzeko partaidetza-ehunekoak.

Taldeak eragiketa hori dela eta sortutako kostuak 3.424 mila eurokoak izan dira eta atxikitako 2018ko ekitaldiko irabazi eta galeren kontu bateratuan gastu gisa erregistratu dira.



Deskribatutako eragiketan eskuratutako aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioaren xehetasuna honako hau da:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea** | |
| Ibilgetu ukiezina | 142.068 |
| Ibilgetu materiala | 106.207 |
| Taldeko enpresetan eta lotutakoetan egindako inbertsioak | 1.586 |
| Epe luzerako finantza-inbertsioak | 84 |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 15.316 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 2.684 |
| **Aktibo korrontea** | |
| Izakinak | 165.824 |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 89.232 |
| Finantza-aktibo korronteak | 2.725 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 3.764 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 31.939 |
| **Pasibo ez-korrontea** | |
| Epe luzerako hornikuntzak | (206) |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | (111.891) |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | (27.016) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | (40.976) |
| **Pasibo korrontea** | |
| Hornidura korronteak | (44.556) |
| Finantza-pasibo korronteak | (74.388) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak | (149.177) |
| Bestelako pasibo korronteak | (8.862) |
| **Aktibo garbiak, guztira** | **104.357** |
| Eskuratutako % | % 100 |
| Erositako aktibo garbiak, guztira | 104.357 |

2018ko abenduaren 31n, negozioen konbinazioa behin-behinean erabakita eta erregistratuta dago, eta eskuratutako aktibo eta pasiboen arrazoizko balioa zehazteko aplikagarri den araudian aurrez ikusitako urtebeteko epearen barruan dago. Epe hori bete aurretik, eskuratutako aktiboen eta pasiboen merkatuko balorazioa eskuratzeko beharrezko lanak amaituko dira. Jarraian, merkataritza-funtsaren behin-behineko kalkuluaren banakapena dator:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| Kontraprestazioa | 197.979 |
| Erositako aktibo garbiak | 104.357 |
| Merkataritza Funtsa (7. oharra) | 93.622 |

Eragiketa horrek 2018ko abenduaren 31n sortutako kaxako fluxu garbia koadro honetan banakatuta dago:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| Eragiketan ordaindutako eskudirua | 197.979 |
| Eragiketan eskuratutako eskudirua | 31.939 |
| Transferitutako eskudiru garbia | 166.040 |



Solaris Taldearen erosketa ekitaldiko lehen egunean egin izan balitz, Taldeko negozio-zifraren zenbateko garbia 297.059 mila euroan areagotuko zatekeen eta ondoriozko emaitza ez zatekeen adierazgarria izango.

6. oharrean dago jasota Solaris Taldeak atxikitako 2018ko irabazi eta galeren kontu bateratuan egindako ekarpenaren xehetasuna.

2018ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak % 30eko partaidetza eskuratu du Orbital Sistemas Aeroespaciales SL enpresan 5.500 mila euroko zenbatekoaren truke, eta sozietate hauek eratu ditu: Metro CAF Mauritius Ltd., CAF Belgium SPRL, CAF Track Test Center SL, Tram Liége Maintenance SA eta Great River City Light Rail Pty. Ltd.

Gainera, 2018ko ekitaldian, honako sozietate hauen izen soziala aldatu dira: Urbanización Parque Romareda SA aldatu eta CAF Diversified Business Development SA bihurtu da, eta  Construcciones Ferroviarias – CAF Santana SA CAF Digital & Design Solutions SL bihurtu da.

Azkenik, Tumaker SL sozietatearen partaidetza-ehunekoa aldatu eta % 21,11ko partaidetza lortu du.

2017ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak gehiengodun partaidetzak eskuratu zituen eta, hala, Rifer SRL eta BWB Holdings Ltd. sozietateen gaineko kontrola eskuratu zuen. Haiek CAF Taldeko kontsolidazio-parametroan txertatu ziren 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuerako 2.f oharrean zehaztuta dagoen moduan.

2018ko ekitaldian, araudiak xedatutako epeen barruan, aditu independente baten lankidetzari esker eskuratutako aktibo eta pasibo guztien balorazioa berrikusi da (2.e oharra). Aurreko hori kontuan hartuta, jarraian zehaztuta dago arrazoizko balioaren arabera baloratutako eta eragiketa horietan eskuratutako aktibo eta pasiboen xehetasuna:

| | Mila eurotan | | |
|---|---|---|---|
| | **Rifer, S.R.L.** | **BWB Holdings, Ltd.** | **Guztira** |
| **Aktibo ez-korrontea** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 4.142 | 14.298 | 18.440 |
| Ibilgetu materiala | 372 | 661 | 1.033 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 22 | - | 22 |
| **Aktibo korrontea** | | | |
| Izakinak | 513 | 1.688 | 2.201 |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 1.702 | 18.070 | 19.772 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 8 | - | 8 |
| Eskudirua eta baliokideak | 108 | 1.384 | 1.492 |
| **Pasibo ez-korrontea** | | | |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | - | (94) | (94) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | - | (618) | (618) |
| Zerga gerorатuaren ondoriozko pasiboak | (1.123) | (2.694) | (3.817) |
| **Pasibo korrontea** | | | |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak | (129) | - | (129) |
| Finantza-pasibo korronteak | - | (4.938) | (4.938) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak | (1.882) | (17.670) | (19.552) |
| Bestelako pasibo korronteak | (398) | - | (398) |
| **Aktibo garbiak, guztira** | **3.335** | **10.087** | **13.422** |
| Eskuratutako % | % 100 | % 100 | |
| Erositako aktibo garbiak, guztira | 3.335 | 10.087 | 13.422 |



Jarraian, merkataritza-funtsaren kalkuluaren banakapena dator (mila eurotan):

| | Rifer, S.R.L. | BWB Holdings, Ltd. | Guztira |
|---|---|---|---|
| Kontraprestazioa | 4.713 | 18.434 | 23.147 |
| Erositako aktibo garbiak | 3.335 | 10.087 | 13.422 |
| Merkataritza Funtsa | 1.378 | 8.347 | 9.725 |

2017ko ekitaldian, CAF Netherlands, B.V., CAF Group UK, Ltd, CAF Rolling Stock UK Ltd eta Sermanbra Serviços de Manutençao Brasil, Ltd sozietateak eratu ziren, eta BASA TMB SL eta UPR Argentina SA sozietateak likidatu. Gainera, Vectia Mobility Research & Development, A.I.E., Vectia Mobility SL eta CAF Santana SA partaidetzen ehunekoetan aldaketak gertatu ziren, % 2,52, % -9,46 eta % 16,27 hurrenez hurren; sozietate horietan dagoeneko horien gaineko kontrola zegoen, eta Taldearen perimetroan 2.833 mila euroko zenbatekoa duen kaxako sarrera eragin zuten.

### Bateratze-metodoa

Erakunde kontrolatzaileak kontrolatzeko gaitasuna duen enpresei deitzen zaie “mendeko sozietate”. Erakunde kontrolatzaileak partaidetutako sozietateen jardueretatik etekinak eskuratu ahal izateko haien finantza- eta eragiketa-politikak gidatzeko ahalmena izateak adierazten du gaitasun hori. Integrazio orokorreko metodoa aplikatuta bateratzen dira mendeko erakundeen urteko kontuak erakunde kontrolatzailearenarekin. Hori dela eta, bateratze-prozesutik kanpo utzi dira bateratutako sozietateen arteko transakzioetako saldo eta efektu guztiak.

“Sozietate elkartuak” dira, halaber, erakunde kontrolatzaileak haien gainean bere eragina nabarmen erabiltzeko gaitasuna duen guztiak, haiek kontrolatzeko (bere kasa edo beste batzuekin batera) gai izan ez arren. “Baterako negozioa” akordio bat da, horren bidez, sozietatearen gainean baterako kontrola duten alderdiek aktibo garbiekiko eskubideak bateratuta dituzte. Urteko kontu bateratuetan, “partaidetza-metodoaren” bidez baloratzen dira sozietate elkartuak; hau da, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren ondare garbiaren zatikiaz, haietatik jasotako dibidendu-kenketak eta beste ondare batzuenak egin ondoren (sozietate elkarturen batekin transakziorik egin bada, Taldeak haren kapitalean duen partaidetza-ehunekotik kendu behar dira galerak edo irabaziak), ken banakako partaidetzetan izandako balio-narriadurak.

Baterako eragiketa baterako akordio bat da, eta haren bidez, akordioaren baterako kontrola duten alderdiek aktiboaren eskubideak eta pasiboekiko obligazioak dituzte, akordioarekin lotuta. Kontratuz erabakitako kontrolaren banaketa da baterako kontrola; jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiek kontrola partekatzen duten alderdien aho bateko adostasuna behar dutenean soilik gertatzen da. Taldeko sozietate batek baterako eragiketen testuinguruan egiten dituenean jarduerak, Taldeak, baterako operadore den heinean, honako hauek aitortuko ditu, baterako eragiketan duen parte-hartzea dela eta:

– aktiboak eta pasiboak, mantendutako baterako aktibo eta pasiboetan duen partaidetza barne;

– baterako eragiketak egindako sarrera eta gastuetan duen partaidetza.

### Atzerri-monetako finantza-egoeren bihurketa

Atzerri-monetako finantza-egoerak 'itxiera-kanbioko tasan' bihurtu dira eurotara. Hau da, itxiera-egunean indarrean zegoen kanbio-tasa erabili da ondasun, eskubide eta obligazio guztien balioak eurotara bihurtzeko, eta galera eta irabazien kontuko kontu-sailak bihurtzeko, berriz, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasa.



Kanbio-tasa historikoa erabiliz bihurtutako atzerriko sozietatearen fondo propioen (galera eta irabazien kontuaren saldoa izan ezik, lehenago aipatutakoagatik) eta ondasunak, eskubideak eta obligazioak itxiera-eguneko kanbio-tasan bihurtzeagatik sortutako ondare-egoera garbiaren arteko diferentzia balantze bateratuko Ondare Garbiari dagokion kontu-sailean erregistratu da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, diferentzia horretatik kontrolatzaileak ez diren partaidetzei dagokien zatia kendu ondoren. Kanpoko bazkideei dagokien zati hori “Ondare garbia – Partaidetza ez-kontrolatzaileak” kontuan erregistratu da.

**g) Akatsak zuzentzea**

Atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko garaian ez da 2017ko urteko kontu bateratuetan bildutako zenbatekoak berriro adieraztea eragin duen akats aipagarririk detektatu.

## 3. ERABILI DIREN KONTABILITATE-PRINTZIPIO ETA -POLITIKAK, ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

2018ko eta 2017ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak egiteko CAF Taldeak erabilitako balorazio-arau nagusiak honako hauek izan dira:

**a) Ibilgetu ukiezina**

### Merkataritza Funtsa

Merkataritza-funtsa aktiboan agertzen da baldin eta kostubidezko erosketa dela medio, negozio-konbinazio batean, haren balioa azaleratzen bada. Negozio-konbinazioaren etekinak bereganatzea espero den unitate eskudiru-sortzaile bakoitzari esleitzen zaio merkataritza-funtsa, eta ez da amortizatzen. Horren ordez, narriadura-testa egiten zaie unitate eskudiru-sortzaile horiei, urtean behin gutxienik, 3.c oharrean adierazitako metodologiaren arabera, eta, hala badagokio, balorazioaren zuzenketa ere egiten da.

### Beste ibilgetu ukiezin batzuk

Aktibo ukiezinak erosketa-kostuaren edo aplikatutako fabrikazioko kostu pilatuaren arabera baloratzen dira izakinen balorazio-arauen arabera (3.e oharra) aplikazio informatikoen eta arrakasta tekniko eta komertzialaren inguruko zalantzarik ez dagoen garapeneko proiektuen barneko garapenen kasuan.

Harreman komertzialen, bezeroen zorroaren eta marken jatorria, batez ere, negozioen konbinazioa izan da (BWB, Rifer eta Solaris erosi izana) eta hasiera batean arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira eta erosketa-datan duten kostua esleitzen zaie (2.f oharra).

“Beste ibilgetu ukiezin bat”eko elementuen amortizazioa egiteko metodo lineala erabiltzen da, kalkulatutako bizitza baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

| | **Bizitza erabilgarrirako estimatutako urteak** |
|---|---|
| Harreman komertzialak eta bezeroen zorroa | 1,5 – 18 |
| Patenteak, lizentziak eta markak | 20 – Mugagabea |
| Garapen-gastuak | 5 |
| Aplikazio informatikoak eta beste batzuk | 2 - 10 |

Ikerketa-proiektuak erosten direnean (edo amaitzen direnean) hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira, linealki, edo denbora-epe horretan lortu diren garapenarekin erlazionatutako kontratuen kosturik handien gisa berreskuratzen dira. Azken kasuan, izakinetara igortzen dira (7. oharra).



**b) Ibilgetu materiala**

'Ibilgetu materiala' epigrafeko elementuak eroste-kostuan baloratzen dira. Hala badagokio, zenbait lege-xedapenek aldatuta dago kostua (besteak beste, abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua, aktibo horien kostuaren zatitzat jo izan dena, FINAren arabera), baita 1. FINAko alternatibak ere; horren arabera kostu-baliotzat jotzen da zenbait aktibo jakinentzat trantsizio-datako arrazoizko balioa.

Ondasunen produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna areagotu edo haien bizitza baliagarria luzatzen duten zabaltzearen, modernizatzearen edo hobetzearen kostuak ondasun horien kostu handiago gisa kapitalizatzen dira.

Sozietate bateratuek beren ibilgetuan egindako lanak ekoizpen-kostu metatu gisa erregistratzen dira, izakinak zenbatesteko arauak aplikatuta (3.e oharra).

Ibilgetu materialeko elementuak metodo lineala erabiliz amortizatzen dira, kalkulatutako bizitza baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

| | **Bizitza erabilgarrirako estimatutako urteak** |
|---|---|
| Eraikinak | 25 – 50 |
| Instalazio teknikoak eta makinak | 3 – 10 |
| Garraio-elementuak (leasing-a) | 5 - 10 |
| Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak | 3 – 10 |
| Gainerako ibilgetua | 5 – 20 |

Erabiltzeko moduan egoteko urtebetetik gora behar duten ibilgetuei dagokienez, oro har, ondasuna martxan jarri aurretik sortutako eta hornitzaileak igorritako finantza-gastuak ere sartzen dira kapitalizatutako kostuetan, baita haren fabrikazio edo erosketari zuzenean egotz dakiokeen kanpoko finantzaketari (berariazkoa edo generikoa) dagozkionak ere.

**c) Aktiboen balio-narriadura**

Itxiera-datan, bere aktibo ez-korronteen balioa aztertzen du CAF taldeak, narriaduragatik galera-aztarnarik baduten jakiteko. Aztarnarik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarriaren kalkulua egiten da, saneamenduaren kostua zehazteko, baldin eta haren beharrik izaten bada. Berreskura daitekeen zenbatekoa merkatuko balioa salmentako kostuaren eta erabilera balioaren arabera minoratutakoaren arteko handiena izaten da. Hori dela eta, etorkizunerako estimatutako kutxako fluxuen egungo balioa izaten da:

Balio berreskuragarriak efektiboa sortzen duen unitate bakoitzerako kalkulatzen dira, baina ibilgetu materialen kasuan, ahal den guztietan, narriadura-kalkuluak elementuz elementu, banaka, egiten dira.

Merkataritza-funts oso bat edo haren zati bat esleitu zaion eta efektiboa sortzen duen unitate baten narriaduragatiko galera aitortu behar denean, lehenengo eta behin, unitate horri dagokion merkataritza-funtsaren kontularitzako balioa murrizten da. Narriadura horrek zenbatekoa gaindituko balu, bigarrenik, haren kontularitzako balioaren proportzioaren arabera, efektiboa sortzen duen unitateko gainerako aktiboena gutxitzen da hurrengoen artean balio handiena duenaren mugara arte: haren arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak, erabilera-balioa eta zero.

Balio-narriaduragatiko galera bat gero itzultzen denean (gorabehera hori ez dago baimenduta merkataritza-funtsaren kasu espezifikoan), aktiboko liburuetako zenbatekoa edo eskudirua sortzen duen unitatearen zenbatekoa zenbateko berreskuragarriaren arabera berrikusitako estimazioaren arabera areagotzen da, baina handitutako liburuetako zenbateko horrek ezingo du inola ere gainditu aurreko ekitaldietan narriaduragatiko galerarik aitortuta ez balego liburutan zehaztuko zatekeen zenbatekoa. Balio-narriaduragatiko galeraren bihurketa hori sarrera gisa aitortzen da.



**d) Finantza-tresnak**

Taldeak, 9. FINAk finkatutako sailkatze-irizpideen arabera, finantza arloko tresnak kategoria hauetan sailkatzen ditu:

**Finantza-aktiboak**

Taldearen finantza-aktiboak, finantza-aktiboaren kontratu mailako efektiboaren fluxuek dituzten ezaugarrien eta finantza-aktiboak kudeatzeko negozio-ereduaren arabera, kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. Finantza-kostuak amortizatutako kostuan

Kategoria honetan jasota daude kontratua gauzatzetik eratorritako efektiboaren fluxuak eta, data espezifikoetan, printzipaleko kobrantzak eta printzipal horrekiko interesak bakarrik diren eskudiruaren fluxuak eragiten dituzten kontratu mailako baldintzak jasotzeko helburuarekin mantendu diren finantza-aktiboak.

Aktibo horien hasierako balioa arrazoizko balioa izaten da, baina gerora amortizatutako kostuaren arabera baloratzen dira.

Taldeak hurrengo 12 hilabeteetarako aurrez ikusitako galera erreferentziatzat hartuta espero dituen kreditu mailako galerengatiko balio-narriadura kalkulatzen du. Salbuespena da kreditu-arriskua nabarmen areagotu izana eta, kasu horretan, hornidura kalkulatzeko, Taldeak aktiboaren bizitza-denbora hartzen du erreferentziatzat.

Narriadura hori kalkulatzeko, zordunen kreditu-kalitatea hartzen da erreferentziatzat, merkatuan eskuragarri dagoen informazioaren arabera (rating-ak) kalkulatuta eta eskuragarri dauden kobrantza-bermeen banakako azterketa egin ostean doituta.

Bestalde, Taldeak finantza-aktiboei baja ematen die aktiboaren jabetzako onura eta arrisku guztiak beste erakunde batera transferitzen dituenean edo aktiboaren fluxuekin lotutako kontratu-eskubideak iraungitzen direnean. 2018ko abenduaren 31n, Taldeak 28.108 mila euroko zenbatekoa duten kobratu beharreko kontuei eman die baja atxikitako egoera-balantze bateratutik (63.151 mila euro 2017ko abenduaren 31n) baliabiderik gabeko factoring-eko eragiketak direla eta.

2. Beste emaitza integral batean aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako finantza-aktiboak

Kategoria horretan jasota daude Taldeak beste emaitza integral batean aldaketak dituen arrazoizko balioaren araberako finantza-aktibo gisa tratatzeko erabaki atzeraezina hartu duen ondare mailako tresnak.

Kategoria honetan jasotako finantza-aktiboak hasiera batean arrazoizko balioaren arabera kalkulatzen dira, transakzio-kostuak barne. Ondoren, beste emaitza integral batean aldaketekin arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Metatutako irabazia edo galera ez da emaitzen kontura transferitzen ondare-tresna horiek baja ematean. Sortutako dibidenduak irabazien eta galeren kontu bateratuko “Finantza-sarrerak” epigrafean erregistratzen dira.

Taldeak ondare-tresnetako inbertsio guztiak beste emaitza integral batean aldaketak dituzten eta arrazoizko balioaren arabera baloratutako inbertsio gisa izendatu ditu (9. oharra).

3. Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera irabazi eta galeren kontu bateratuan aldaketekin

Kategoria horretan aitortuta daude beste bi kategoria horietan sartzeko ezaugarriak betetzen ez dituzten aktiboak. Kategoria honetan jasotako finantza-aktiboak, hasiera batean, haien arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Aurkakoa agerian geratzen denean izan ezik, transakzio-prezioa izango da eta entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea izango da. Zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko irabazi eta galeren kontu bateratuan aitortzen dira. Hasierako aitorpenaren ostean, kategoria horretako aktiboak arrazoizko balioan baloratzen dira irabazi eta galeren kontu bateratuan aldaketekin.



**Finantza-pasiboak**

Hasieran, merkatu-balioaren arabera baloratzen dira ordaindu beharreko kontuak, eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes efektiboko tasarekin. Taldeak finantza-pasiboei baja ematen die sortu dituzten obligazioak iraungitzen direnean.

Finantza-zorrak, hasiera batean, arrazoizko balioa ken eragindako transakzio-kostuak eginda aitortzen dira. Ondoren, finantza-zorrak kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira; lortutako funtsen (lortzeko beharrezkoak diren kostuen garbiak) eta itzulketa-balioaren artean egon daitekeen edozein alde emaitza-kontuan aitortzen da zorraren bizitza osoan interes efektiboko tasaren metodoaren arabera.

Betebeharrak baliogabetzen, ezeztatzen edo iraungitzen direnean bakarrik ematen die finantza-pasiboei baja Taldeak.

Finantza-tresna eratorriak

Kontratatutako obretako eta partaidetutako sozietateetako zenbait inbertsiotako estaldura-eragiketetan erabiltzen ditu Taldeak tresna horiek, truke-tasak aldatzeko arriskutik babesteko, eta bestalde, emandako maileguetako interes-tasak aldatzeko arriskutik babesteko (5 eta 17 oharrak).

Eratorritako finantza-tresnen arrazoizko balioa kalkulatzeko, kreditu-arriskua sartu dugu: pasiboaren eratorriei dagokiena eta aurkako alderdiarena aktiboko eratorrietan.

Finantza-deribatuak estaldurakotzat jotzeko behar diren irizpideak aztertu ditu Taldeak, baldintza hauek bete ahal izateko: (1) Hiru arrisku mota hauek estaltzea (“arrazoizko balioen estaldura”, “eskudiru-fluxuen estaldura” edo “atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura”); (2) Estalitako elementu edo posizioari dagokion arriskua egoki kentzea aurrez ikusitako estaldura-epe osoan, eta (3) Finantza-eratorriaren kontratazioa espezifikoki saldo edo transakzio jakin batzuk estaltzeko balia daitekeela eta estaldura egokia neurtzeko eta lortzeko moduaren inguruan dokumentatzea; betiere, modu hori Taldeak hartzen dituen arriskuen kudeaketarekin koherentea baldin bada.

Finantza-arriskuak kudeatzeko helburuak eta politikak finkatu ditu CAF Taldeak, baita idatziz zehaztu ere deribatuen kontratazio-politika eta estaldura-estrategia.

Hasieran, eroste-balioaren arabera baloratzen dira finantza-tresna horiek. Ondoren, honela erregistratzen dira estaldura gisara sortu eta gauzatu diren finantza-tresna deribatuetako arrazoizko balioaren aldaketak:

– Arrazoizko balioaren estalduran, estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan sortutako diferentziak (estaltzen den arrisku motari dagokionez) honi erantsitako galeren eta irabazien kontu bateratuaren “Finantza-emaitza” epigrafean sartzen dira. Taldeak arrazoizko balioaren estaldura gisa obretarako kontratatutako estaldurak erregistratu ditu estaldura horietarako beharrezko baldintzak betetzen direnean (konpromiso irmoa izatea).

– Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondarearen “Beste emaitza integral bat – Estaldura-eragiketak” epigrafean erregistratzen dira, behin-behingoz, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. Irizpide hori erabiltzen du Taldeak estalitako arriskua konpromiso irmoa eta sinatua izan beharrean, etorkizunerako oso probablea den transakzioa denean eta interes-tasaren estalduretan. Gertatzea oso litekeena den transakzioa konpromiso irmo bihurtu ahala, lehendik ondarean onartutako zenbatekoak emaitza bezala birsailkatzen dira.

– Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondarearen ‘Bihurtze-diferentziak’ epigrafean erregistratzen dira, behin-behingoz, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. CAF USA, Inc. sozietatearen (partzialki) eta Provetren SA de CVren funts propioetarako erabili da estaldura hori.



Finantza-pasiboen eta -aktiboen balorazioa mailen arabera banakatuta dago haien arrazoizko balioaren arabera 13. FINAk zehaztutako hurrengo hierarkiaren arabera:

– 1. maila: kotizazio-prezioak merkatu aktiboetan aktiboko eta pasiboko tresna berdinetarako.

– 2. maila: 1. mailan sartutakoen kotizazio-prezioarekiko ezberdinak diren datuak eta aktiboko edo pasiboko tresnarako kontuan har daitezkeenak zuzenean (hau da, prezioak) edo zeharka (hau da, prezioetatik eratorritakoak).

– 3. maila: merkatuko datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen tresna aktiborako edo pasiborako datuak.

CAF Taldearen aktiboen eta pasiboen 2018ko eta 2017ko abenduaren 31ko banakapena honako hau da (mila eurotan) hierarkia mailen arabera duten arrazoizko balioaren arabera baloratuta:

**2018ko ekitaldia**

| | 1. maila | 2. maila | 3. maila | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Aktiboak** | | | | |
| Ondare-tresnak (9.b oharra) | - | - | 22.834 | 22.834 |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 16.569 | - | 16.569 |
| Beste finantza-aktibo batzuk (*) (13. oharra) | 59.281 | - | - | 59.281 |
| **Aktiboa, guztira** | **59.281** | **16.569** | **22.834** | **98.684** |
| **Pasiboak** | | | | |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 75.373 | - | 75.373 |
| **Pasiboa, guztira** | **-** | **75.373** | **-** | **75.373** |

(*) 2018ko ekitaldian "Beste finantza-aktibo batzuk" bezala erregistratutako zenbatekoak 2017an izendapen honen arabera jaso zirenak dira: "Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak".

**2017ko ekitaldia**

| | 1. maila | 2. maila | 3. maila | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Aktiboak** | | | | |
| Ondare-tresnak (9.b oharra) | - | - | 9.506 | 9.506 |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 57.706 | - | 57.706 |
| Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak (13. oharra) | 55.120 | - | - | 55.120 |
| **Aktiboa, guztira** | **55.120** | **57.706** | **9.506** | **122.332** |
| **Pasiboak** | | | | |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 70.444 | - | 70.444 |
| **Pasiboa, guztira** | **-** | **70.444** | **-** | **70.444** |

Eratorritako finantza-tresnen arrazoizko balioa beha daitezkeen merkatuko datuetan oinarritutako aldagaiak erabilita kalkulatu da batez ere (itxierako kanbio-tasak eta interes-tasaren kurbak).

Ondare-tresnen arrazoizko balioa kalkulatzeko metodo gisa Taldeak partaidetza bakoitzerako eskuragarri dauden datuen bolumenaren eta gorabeheren arabera egokiak diren balorazio-teknikak erabiltzen ditu, behagarriak diren elementu esanguratsuen erabilera maximizatzen saiatuta. Inbertsio horiek arrazoizko balioan baloratu ahal izateko, haietako bakoitzaren negozio-ereduak eta kontratu mailako baldintzak hartu dira kontuan, testuinguru ezberdinak ebaluatuta eta aditu independenteekin alderatutako beherapen-tasak erabilita (9.b oharra).



**e) Izakinen balorazioa**

Lehengaien eta beste zenbait hornikuntzen eta merkataritza-produktuen izakinak batez besteko erosketa-prezioan edo, txikiagoa balitz, balio garbi bihurgarrian zenbatesten dira.

Fabrikazio-bidean dauden produktuak, produktu bukatuak eta erdibukatuak dagoeneko likidatuta dauden kostuak kenduta (3.f oharrean deskribatutako prozeduraren arabera) eta irizpide hauei jarraituz zenbatetsiko dira:

– Obra bakoitzari egotzitako materialak eta gastuak batez besteko erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan.

– Eraldatze-gastuak, eskulanaren kostuak eta zeharkako eta zuzeneko ekoizpen-gastuak barne hartzen dituzten ordu-tasa estandarren arabera (ez dira ordu-tasa errealen oso desberdinak).

– Saldu ahal izateko baldintzetan egoteko urtebete baino gehiagoko denbora-tartea behar duten izakinetarako, kostuak finantza-gastuak biltzen ditu.

**f) Sarreren eta emaitzen onespena**

Taldeak iturri nagusi hauetako sarrerak aitortu ditu:

Eraikuntzako eta ingeniaritzako kontratuak

Trenen eta trakzio-ekipoen eraikuntza-kontratuei dagokienez, kontratu bakoitzari dagozkion sarrerak eta emaitzak horien aurrerapen maila kalkulatuaren arabera erregistratzeko irizpidea erabiltzen du Taldeak, oro har. Aurrez ikusitako ordu guztiekiko kontratuari egotzitako orduen ehunekoaren arabera kalkulatzen da aurrerapen maila hori, eta bateragarria da sistema hori aurrerapen maila aurrekontuko kostuen arabera zehaztu beharrean eragindakoen arabera finkatzen duten beste metodo batzuekin.

Kontratu bakoitzeko aurrez ikusitako emaitza jakitean, Taldeak indize zuzentzaile hauek aplikatzen ditu emaitzak eta sarrerak zehazteko:

– % 0 eta % 10 arteko aurrerapen mailarekin, ez da irabazirik edo sarrerarik erregistratzen, epe luzerako kontratuetan dagoen hasierako ziurgabetasunaren marjina aztertzeko.

– Aurrerapen maila % 10ekoa baino handiagoa denean, aurrerapen-maila horren baliokidea den irabazien eta sarreren ehunekoa erregistratzen da.

Obra zibileko eraikuntzako, seinaleztapeneko eta ingeniaritza-zerbitzuetako kontratuetarako, sarrera eta emaitzak horien inguruan aurrez ikusitako aurrerapen mailaren arabera erregistratzen dira. Horretarako, kontuan hartzen dira sortutako kostuak eta aurrekontuan sartutako guztizkoak.

Kontratatutako proiektuetan sor daitezkeen galerak zenbateko osoaz erregistratzen dira, galera horiek ezagutzen direnean edo zenbatets daitezkeenean.

Taldeak erreklamazioengatiko sarrerak bezeroak erreklamazioa onartu duenean eta kontratu mailako aldaketaren edo antzeko legezko izaera duen dokumenturen baten bidez aldaketaren onarpenaren ebidentzia dagoenean bakarrik erregistratzen ditu.

Izandako diru-sarreren eta kontratu bakoitzean aurrez ikusitako emaitzaren arabera (aurreko paragrafoetan adierazi bezala kalkulatuta), eta aurrerapen maila kontuan hartuta, izakinei baja ematen zaie, likidatutako kostuen zenbatekoaren arabera. Zenbateko hori dagokion galeren eta irabazien kontu bateratuan zordundu eta egoera-balantze bateratuko aktiboaren "Izakinak" epigrafean ordainduko da (11. oharra).

Azkenik, kontratu horietan eskaintzen diren bermeak, sektorekoak baino altuagoak ez direnez eta berme osagarriak ez direnez, laneko betebehar bakartzat hartzen dira entregatu beharreko ondasunak bezalaxe.



### Autobusen salmenta, errodajeak, ordezkoak eta birgaitze txikiak

Autobusen, errodajeen, ordezkoen eta birgaitze txikiagoen salmentetan, sarrera aktiboaren kontrola bezeroari transferitzen zaion eta erakundeak exekuzioaren betebeharra asebetetzen duen unean aitortzen da. Betebehar hori ondasuna entregatzen den denbora-puntua izaten da.

Autobusen kontratu batzuetan, berrerosketako aukerak (buyback izenekoak) daude. Kasu horietan, kontrola bezeroari transferitu zaion kasuz kasu aztertzen da. Kasu horietako transferentzia-irizpidea bezeroak aukera hori gauzatzeko pizgarri ekonomiko esanguratsurik baduen ala ez ikustean datza. Bezeroak berrerosketa-aukera erabiltzeko pizgarri ekonomikoa duela ulertzen bada, sarrera errentamendu operatibo gisa aitortzen da transakziotik hasi eta berrerosketa-aukeraren datara arteko epe osoan (21. oharra).

Bezeroarentzat pizgarri ekonomikorik badagoen ondorioztatzeko kontuan hartzen den faktore nagusia honako hauen arteko alderaketa izaten da: berrerosketako prezioa eta une horretako autobus-merkatuak egindako balio-estimazioa.

Bezeroak aukera hori erabiltzeko pizgarri ekonomikorik ez duela ondorioztatuz gero, sarrera itzulketa-eskubidearekin salmenta-ereduaren arabera aitortzen da. Kasu horretan, sarreraren proportzio handi bat autobusa entregatzearekin batera aitortzen da. Gainera, itzulketa-pasiboa eta itzulera-eskubideengatiko aktiboa aitortzen dira egoera-balantze bateratuan. Azkenean autobusa itzuliko ez balitz aukera erabiltzeko datan, pasiboa sarrera gisa aitortzen da, eta aktiboa gastu gisa (21. oharra).

### Mantentze-lanetako kontratuak

Mantentze-lanekin lotutako sarrerak kontratuaren bizitza osoan aitortzen dira. Irizpide orokor gisa, sarrerak aipatutako denbora-tarte osoan modu linealean aitortzen dira, beste metodo batek une bakoitzean egindako lanaren ehunekoa hobeto islatzen duela agerian geratzen denean izan ezik. Hau da, hileroko fakturazio iraunkorra duten urte askotako proiektuetan, zerbitzua egiteko baliabideak linealak direnean, egindako fakturazioa sarreren baliokidea dela ulertzen da.

Baina denbora-aldi espezifikoetan konponketa handiak egin behar izanez gero, kontratua egiteko maila atzeratu eta jasotako fakturazioekin lotutako sarreren erregistroaren zati bat konponketa handiak egiten direneko aldietara geroratzen da.

Kasu horietan, alde hori honi erantsitako irabazi eta galeren kontu bateratuko “Negozio-zifraren zenbateko garbia” epigrafean erregistratzen da, eta ordainketa honi atxikitako egoera-balantze bateratuko (21. oharra) “Beste pasibo ez-korronte batzuk” epigrafean.

### Finantza-aktiboekin lotutako sarrerak

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak aitortzeko, interes-tasa efektiboaren eta dibidenduen metodoa erabiltzen da akziodunak horiek jasotzeko duen eskubidea onartzen denean. Nolanahi dela ere, erosketa ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak galera eta irabazien kontu bateratuko diru-sarreratzat aitortzen dira.

### g) Sarrerak aitortzearekin lotutako balantze-saldoak

Sarreren aitorpena ez bezala, bezeroari fakturatutako zenbatekoen oinarria kontratuan ezarritako mugarriak eta horien gainean bezeroak egiten duen aitorpena izaten da. Hala, ekitaldi batean sarrera gisa aitortutako zenbatekoek ez dute zertan bezeroak fakturatutako zenbatekoekin bat etorri. Onartutako sarreren (3.f. oharra) eta horregatik fakturatutako zenbatekoaren arteko aldea honela erregistratzen da:

– Positiboa bada, “Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk - Salmenten araberako bezeroak eta zerbitzuak ematea” (12. oharra) epigrafe baitako “Kontratuko aktiboak” gisa.

– Negatiboa bada, “Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk – Beste hartzekodun batzuk” eta “Beste pasibo ez-korronte batzuk” ataletako “Kontratuko pasiboak” gisa (12. oharra).



**h) Zorren sailkapena: epe laburrekoak ('korrontea') eta luzekoak ('ez-korrontea')**

Aktibo eta pasibo korronteetan, aplikagarri den araudian ezartzen den moduan, konpainiaren ziklo normalaren zati direnez, egikaritze-epea hamabi hilabete baino gehiagoko epean gauza daitezkeen kontu-sailak sailkatzen dira (kontratuko aktiboak, kontratuko pasiboak eta hornidura korronteak). Kontu-sailak oso-osorik kontuan hartuta, administratzaileen estimazioen arabera, aktibo korronteak epe laburrean egingo dira batez ere eta, edonola ere, hamabi hilabetera baino gehiagora egin beharreko pasibo korronteek 12 hilabetera baino gehiagora egingo liratekeen aktibo korronteak gaindituko dituzte (12. eta 21. oharrak).

**i) Diru-laguntza ofizialak**

Jasotako diru-laguntzak zenbatesteko, irizpide hauek erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek:

– Itzultzekoak ez diren kapitaleko diru-laguntzak diruz lagundutako aktiboaren balio txikien gisa erregistratzen dira, behin betiko ematen direnean, dagokien zenbatekoarekin, eta emaitzen kontura eramaten dira, diruz lagundutako aktiboen amortizazio-erritmoaren arabera.

– Ustiapeneko diru-laguntzei dagokienez, behin betiko ematen dituztenean eramaten dira emaitzen kontura, diruz lagundutako kostuak murriztuz.

**j) Enplegu osteko prestazioak**

Sozietate bateratuek erretiro edo heriotzengatik beren langileetako batzuekin dituzten obligazioak mantentzen ditu Taldeak, aseguru-konpainia independenteetan gordailatutako edo gordailatze bidean diren kanpo-funtsetako prestazio eta ekarpen jakin batengatiko prima ordainduta hornitzen dira. 2018an eta 2017an langileen kolektibo ugarietarako jarritako zenbatekoa 8.543 mila eta 6.777 mila eurokoa izan da. 2018ko eta 2017ko ekitaldietako irabazi eta galeren kontu bateratuetan konpromiso horiek izandako inpaktua 3.308 mila eta 4.085 mila eurokoa izan da "Pertsonaleko gastuak" epigrafearen kargura. 2018an, hipotesi aktuarialetan izandako aldaketak direla eta 2.403 mila euroko galera erregistratu da zuzenean ondare garbian irabazi eta galera aktuarialak direla eta (hipotesi aktuarialetan izandako aldaketekin lotutako galera 5.525 mila eurokoa izan zen 2017ko ekitaldian).

Sortzapen-printzipioari jarraiki, 2018ko abenduaren 31n, Taldeak 268 mila euroko zenbatekoa duen aktibo korrontea du erregistratuta egoera-balantze bateratuko aktibo korrontean, aditu independente batek kalkulatuta. Zenbateko hori zehaztutako prestazio-konpromisoen oraingo balioaren eta "aktibo atxikitzat" jotzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten aktiboen arrazoizko balioaren arteko aldea da (2.833 mila euroko pasiboa, eta 268 mila euroko aktiboa 2017ko abenduaren 31n). Dagokion ekitaldiko emaitzen kontu bateratuan erregistratu behar dira hartutako konpromisoari gerora egiten zaizkion aldaketak (15, 18 eta 23 oharrak).

Hirugarren independente batek eginiko azterketa aktuarialeko hipotesietan, merkatu mota bati deskontatu zaizkio etorkizuneko konpromisoak, betiere iraganeko soldata-igoeren antzekoen arabera.

Erakunde kontrolatzaileko langile guztien urteko oinarrizko soldataren % 2,3ko ekarpena egin du erakunde kontrolatzaileak gizarte-aurreikuspeneko erakunde batera, indarrean den hitzarmen kolektiboaren arabera (23., 24. eta 25. oharrak).

Azkenik, hainbat mendeko sozietatek langileekin beste konpromiso batzuk dituzte haien herrialdeko legeek hala behartuta. Arrazoi hori dela medio "Hornidura ez-korronteak" eta "Hornidura korronteak" epigrafeetan erregistratutako horniketa, 2018ko abenduaren 31n, 3.946 eta 3.456 mila eurokoa zen, hurrenez hurren (3.095 eta 2.703 mila euro 2017ko abenduaren 31n - 20. oharra).

**k) Erretiro aurreratuak eta lana uzteagatiko kalte-ordainak**

2018ko abenduaren 31n, egoera-balantze bateratuko (honi erantsia) "Finantza-pasibo ez-korronteak – Beste finantza-pasibo batzuk" eta "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk – Beste hartzekodun batzuk" epigrafeek 3.408 mila eta 2.799 mila euroko, hurrenez hurren, zenbatekoak zituzten (2017an, 5.892 mila eta 3.113 mila euro). Bat datoz zenbateko horiek 2018ko abenduan 2013ko ekitaldian onartutako aurre-erretiroen planari atxikita zeuden edo errelebo-



kontratuak sinatuta zituzten langileei egin beharreko etorkizuneko ordainketekin, erakunde kontrolatzaileko administratzaileek egindako kalkuluen arabera. 2018ko hornidura horretara bideratutako hornidura honi atxikitako irabazi eta galeren kontu bateratuko (23. oharra) “Pertsonaleko gastuak” epigrafean erregistratu da eta 575 mila euroko zenbatekoa izan du (“Pertsonaleko gastuetara” bideratutako zenbatekoa 6.272 mila eurokoa izan zen 2017ko ekitaldian).

**l) Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateen Gaineko Zerga eta atzerriko sozietate bateratuetako antzeko gainerako zergak galeren eta irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, ondare garbian zuzenean erregistratzen den transakzio baten ondorio ez badira behintzat; hala badira, ondare garbian erregistratzen da dagokion zerga ere.

Geroratutako zergarengatiko pasiboak onartzen zaizkie denbora-alde aplikagarri guztiei, salbu eta, oro har, merkataritza-funtsaren hasierako onespenetik sortua bada denbora-aldea. Bestalde, zerga geroratuarengatiko aktiboak (oinarri ezargarri negatiboekin, konpentsatzeko dauden kenkariekin eta denbora-aldeekin identifikatuak) kasu bakarrean onartzen dira: uste baldin bada erakunde bateratuek gerora izango dutela behar adina zerga-irabazirik (eskari-zorroak estaltzen duenik, alegia) haien kontura diru bihurtzeko. CAF Talde Bateratuan, eskaera-zorroak estaltzen duena jotzen da irabazi nahikotzat.

FINAen arabera, zerga geroratuarengatiko aktibo eta pasibo guztiak aktibo eta pasibo ez-korrontetzat sailkatu dira.

**m) Errentamenduak**

Finantza-errentamendu gisa sailkatzen ditu CAF Taldeak errentamendu-kontratu hauek: errentatzaileak errentariari ondasun-jabetzaren arrisku eta onura guztiak besterentzen dizkionak. Gainerako errentamenduak eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira.

Finantza-errentamenduak

Taldeak errentatzaile gisa jokatzen duen finantza-errentamenduko eragiketetan, hasierako unean errentamenduagatik jasotzeko gutxieneko ordainketen uneko balioaren kreditu bat gehi aktiboaren hondar-balioa aitortzen da, kontratuaren interes-tasa inplizitua deskontatuta. Aktiboan erregistratutako kredituaren eta kobratu beharreko zenbatekoaren arteko aldea, sortu gabeko interesei dagokiena, ekitaldiko galeren eta irabazien kontu bateratuari egozten zaio interesak sortu ahala, interes-tasa efektiboaren metodoari jarraituz (9.c. oharra).

Errentamendu operatiboa

Errentamendu operatiboko ereduaren arabera arautaka autobusen transakzioaren kasuan, 3.f oharrean aipatutakoaren arabera, Taldeak, errentatzaile gisa, errentamenduaren amaierako datara arte onartzen ditu sarrerak modu linealean.

Kontratu horiek direla eta aurrez jasotako fakturazioa atxikitako egoera-balantze bateratuko epigrafe hauetan erregistratzen da: “Beste pasibo ez-korronte batzuk” eta “Beste pasibo korronte batzuk” (21. oharra). Errentan hartutako aktiboak honi erantsitako egoera-balantze bateratuko “Ibilgetu materiala” epigrafean erregistratzen dira.

Taldeak, errentari gisa, 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n hainbat eragiketa-errentamenduren kontratu ditu eta, beraz, 2018ko eta 2017ko ekitaldietan 16.268 eta 9.917 mila euroko gastua egin du hurrenez hurren, atxikitako galeren eta irabazien kontu bateratuko “Beste ustiapen-gastu batzuk” epigrafearen kargura. Taldeak ondasun horiek alokatzen jarraitzeko asmoa du (batez ere informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta higiezinak) eta horien kostuak KPIarekin dute erreferentzia.

2018ko abenduaren 31n indarrean dauden errentamendu operatiboekin lotuta etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako ordainketa-konpromisoak 83.195 mila eurokoak dira hurrengo urteetan. Zenbateko horretatik, 13.259 mila euroko zenbatekoa 2019an egingo da (30.057 mila euro 2017ko abenduaren 31n eta horietatik 7.908 mila euro dira 2018an ordaindu beharrekoak). Ordainketa-konpromiso horien kalkuluak egiteko garaian, 2018ko ekitaldian, Taldeko sozietateek etorkizunean egin daitezkeen luzapen-aukerak kontuan hartu dituzte, erabilgarriak baitira.

Kontratua indarrean den bitartean, galeren eta irabazien kontu bateratuko “Beste zenbait ustiapen-gastu” epigrafeari egozten zaizkio errentan hartutako aktiboetan sortutako gastuak.



### n) Emakida administratiboak

Emakida-kontratuak emakida ematen duen erakunde publikoaren eta CAF Taldeko sozietateen arteko akordioak dira eta horien bidez, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzte; hala nola tren-lineen prebentziorako mantentze-lanak, zuzentzeko-lanak eta berrikuspenak. Horretarako, azpiegitura ustiatzen da. Bestalde, zerbitzua eskaintzetik etorritako diru-sarrerak erabiltzaileen eskutik edo, batzuetan, emakida emailea den erakundearen eskutik jasotzen dira. Erakunde horrek arautzen ditu zerbitzua ematearen prezioak.

Emakida-eskubideak, normalean, denbora-tarte jakin batean zerbitzua ustiatzeko monopolioa izatea esan nahi du. Aldi hori igarotakoan, zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den eta emakidari dagokion azpiegitura emakida-emaileari itzultzen zaio, normalean, ordainik gabe. Emakida-kontratuak azpiegituraren kudeaketa edo jarduera bere baitan hartzea ezinbesteko baldintza da. Era berean, kontratuaren indarraldian emakidaren zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren elementu guztiak eskuratzeko edo eraikitzeko betebeharra ere izaten da.

Emakida-kontratu horiek “Zerbitzuen emakida egiteko akordioak” 12. FINAIBan xedatutakoaren bidez erregistratzen dira. Oro har, bi fase argi bereizi behar dira. Lehenengoan, emakida-emaileak eraikuntza- edo hobekuntza-zerbitzuak eskaintzen ditu eta “Bezeroekin egindako kontratuetatik etorritako sarrerak” 15. FINA araua aintzat hartuta duen aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, aktibo ukiezin edo finantza-aktibo batean kontrapartidarekin eta, bigarren fasean, berriz, aipatutako azpiegituraren hainbat mantentze- edo ustiapen-zerbitzu eskaintzen dira, eta horiek arau berean ezarritako moduan aitortzen dira.

Aktibo ukiezin bat aitortzen da emakidadunak demanda-arriskua bere gain hartzen duenean eta finantza-aktibo bat aitortzen da demanda-arriskua emakida-emaileak hartzen duenean bere gain. Emakidadunak kontratu-eskubide baldintzarik gabea du, eraikuntza- edo hobekuntza-zerbitzuen kobrantzak jasotakoan. Kostu amortizatuko emakiden finantza-aktiboa neurtzearen ondoriozko finantza-sarrera galera eta irabazien kontu bateratuko “Negozio-zifraren zenbateko garbia” epigrafean erregistratuta dago. Taldeak bateratutako emakidak (9. oharra) finantza-aktibotzat hartzen dira, erregistratzeko modu horretarako beharrezko baldintzak betetzen direlako.

## 4. ERAKUNDE KONTROLATZAILEAREN EMAITZAREN BANAKETA

Ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamena, erakunde kontrolatzaileko administratzaileek egin dutena eta Akziodunen Batzar Orokorraren onarpenaren mende egongo dena, honako hau da:

| Banaketa | Mila eurotan |
|---|---|
| **Banaketaren oinarria** | |
| Galera eta irabazien kontuko saldoa | 4.285 |
| Borondatezko erreserbak | 21.940 |
| | **26.225** |
| **Aplikazioa** | |
| Dibidenduetara | 26.225 |



## 5. FINANTZA-ARRISKUEN KUDEAKETA

CAF Taldea egiten dituen jarduerei eta lan egiten duen herrialde eta merkatu ugariei atxikitako hainbat arriskuren mende dago, eta bere helburuak lortzea eragotz dezakete horiek.

Arrisku horien artean, finantza-arriskuak daude: merkatuko arriskua (kanbio-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua eta lehengaien prezioen arriskua barne), kreditu-arriskua, likidezia- eta finantzaketa-arriskua.

Finantza-merkatuen ziurgabetasuna kudeatzeari arreta berezia jarri dio CAF Taldeak, eta saiatzen da Taldearen helburuak lortzeari dagokionez horrek eragin ditzakeen aurkako kalteak murrizten.

Taldearen Finantza Sailak finantza-arriskuen jarraipena eta kontrola identifikatzen, aztertzen, ebaluatzen, tratamendua definitzen eta egiten du, Administrazio Kontseiluak ezarritako finantza-arriskua kudeatzeko politika espezifikoen eta arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko politika orokorraren arabera.

### a) Merkatuko arriskua

Merkatuko arriskua Merkatuko Arriskuen Politikan ezarritako printzipioen arabera kudeatzen da CAF Taldean.

#### a.1) Eskudiruaren fluxuen eta arrazoizko balioaren interes-tasaren arriskua

Interes-tasaren arriskua merkatuko interes-tasetan gertatzen diren mugimenduen ondorioz Taldearen finantza-aktiboen edo -pasiboen balioan aldaketak gertatzea izaten da. Politikaren arabera, finantzaketa-eragiketak kostuari, epeari eta arriskuari dagokienez egoera egokian egiten dira. Uneoro hartzen da kontuan finantzaketa-iturri edo -tresnen aprobetxamendu egokia. Zehatzago esanda, interes-tasa finkoaren eta aldakorraren (gehienetan Euriborra) artean zortzapen-egitura orekatua mantentzea ezartzen da helburu gisa (eta merkatuek ahalbidetzen duten tokiraino). Horrekin lotuta, ezarritako baldintza da finantzaketa-kostuaren eta interes-tasen aldaketa-arriskuaren arteko balantze egokia mantentzea.

Horrekin lotuta, 2018ko abenduaren 31ko finantza-zorpetzearen zati handia honako bi hauekin lotuta zegoen: Brasilen eta Mexikon lortutako emakidekin (9 eta 16 oharrak); eta Taldeko erakunde kontrolatzaileak bere jarduera finantzatzeko duen zorrarekin eta Taldeko beste sozietate batzuek dutenarekin.

Brasilgo trenak alokatzeko sozietatearekin lotutako zorra Project Finance modalitatean egituratutako zorra da, Taldearen gainerako sozietateekiko baliabiderik gabea eta TJLPrekin erreferentziatua (Brasilgo Banku Zentralaren epe luzerako tasa). Mexikoko trenen alokairuko sozietateari lotutako zorrari dagokionez, berriz, Taldeak interes-tasaren swap bat kontratatu du maileguaren interes-tasaren erreferentzia aldakorra erreferentzia finko bihurtzeko, maileguaren zenbatekoaren % 80rekin eta zenbateko horren % 80ri eraginez.

Erakunde kontrolatzaileak 2018ko abenduaren 31n duen zorrari dagokionez, merkatuko interes-tasen aldaketaren mende 205,8 milioi euroko pasiboaren esposizioa du (103 milioi eurokoa zen 2017ko abenduaren 31n), eta 410,2 milioi eurokoa tasa finkoan (263 milioi eurokoa 2017ko abenduaren 31n). Zenbateko horietatik, 31,7 milioi euro finko bihurtu dira interes-tasaren eratorrien bidez (16. eta 17. oharrak). CAF Investment Projects SAU eta Solaris Taldea mendeko sozietateen zorra merkatuko interes-tasei erreferentziatuta dago (16. oharra).

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n zegoen saldoa kontuan hartuta, kanpoko baliabideen erreferentziatutako interes-tasen batez bestekoa oinarrizko 100 puntu handiagoa izan balitz gainerako aldagaiei bere horretan eutsita eta deskribatutako estaldura-politikak kontuan hartuta, finantza-zorretik etorritako finantza-gastua 5.283 eta 3.125 mila euro handituko zen hurrenez hurren eta gutxi gorabehera.

#### a.2) Truke-tasaren arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek eta, horrenbestez, truke-tasaren arriskupean daude, dibisekin eragiketak egiteagatik (une honetan, Amerikako dolarra, Brasilgo erreala, libera esterlina, Poloniako zloty-a, Taiwaneko dolarra, Suediako koroa, Australiako dolarra, Saudi Arabiako riala, Mexikoko pesoa, Japoniako yena, Kanadako dolarra Kolonbiako pesoa besteak beste).



Nazioarteko bere lanak direla eta Taldeak aurre egin behar dion kanbio-tasaren arriskua Merkatuko Arrisku Politikaren arabera kudeatzen da. Arrisku hori murriztera bideratutako hainbat estrategia aurrez ikusten du eta, horien artean, adibidez, hauek: finantza-estaldurak edo estaldura naturalak zehaztea, kanbio-tasen fluktuazio edo gorabeherak etengabe monitorizatzea eta beste neurri osagarri batzuk.

Politika horren printzipioek xedatutakoa betez, oro har, Taldeak hirugarren batzuei bideratzen die (kostua arrazoizkoa denean) Taldearen moneta funtzionalarekiko (euroa) ezberdina den dibisatan artikulatutako kontratuetako kanbio-tasaren arriskua. Estaldura horien helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Horri esker, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuen isla zehatza izatea lortu nahi da. 2018ko abenduaren 31ko itxieran kanbio-tasa dela eta Brasilgo errealak % 10eko debaluazioa izan du euroaren aurrean eta horrek 2018ko ekitaldiko emaitzen kontu bateratuan izan duen eragina 3.297 mila euro galtzekoa izango litzateke (4.801 mila euro 2017ko abenduaren 31n). Bestalde, Solaris Bus & Coach SA Taldeko sozietateak 4.429 mila euroko irabazia eskuratuko zukeen bere moneta funtzionalak (Poloniako zlotya) % 10eko balio-gutxitzea jasango balu euroaren aurrean 2018ko abenduaren 31ko itxierako kanbio-tasa oinarritzat hartuta. Aipatutako kanbio-tasaren aldaketa horrek aurkako eragina izango luke Poloniako zlotyetan adierazitako atzerriko inbertsio garbiaren gainean. Gainerako dibisek emaitza-kontuan duten eragina ez da esanguratsua.

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, Taldea moneta funtzionala euroa ez den filialetako inbertsio garbiaren gaineko kanbio-tasaren arriskuaren mende dago Estatu Batuetako dolarraren kasuan izan ezik, harekiko esposizioa partzialki estalita baitago.

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n euroa ez den beste moneta funtzionalen bat duten mendeko sozietateetako aktiboen eta pasiboen kontrabalioa, milaka eurotan, banakapen honen araberakoa da:

| | Kontrabalioa mila eurotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2018/12/31 | | | 2017/12/31 | | |
| **Dibisa** | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Esposizio garbia** | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Esposizio garbia** |
| Txileko pesoa | 27.615 | 24.547 | 3.068 | 20.841 | 18.569 | 2.272 |
| Mexikoko pesoa | 145.372 | 124.414 | 20.958 | 134.198 | 115.494 | 18.704 |
| Argentinako pesoa | 980 | 492 | 488 | 2.355 | 1.414 | 941 |
| Brasilgo erreala | 451.589 | 265.408 | 186.181 | 614.174 | 365.957 | 248.217 |
| Estatu Batuetako dolarra (3.d oharra) (*) | 557.795 | 304.907 | 47.284 | 533.774 | 309.080 | 3.433 |
| Britainiar libera | 91.805 | 35.972 | 55.833 | 84.931 | 41.212 | 43.719 |
| Aljeriako dinarra | 4.540 | 2.641 | 1.899 | 4.852 | 3.105 | 1.747 |
| Turkiako lira | 4.139 | 2.578 | 1.561 | 3.780 | 2.937 | 843 |
| Bolivarra | 59 | 59 | - | 53 | 50 | 3 |
| Indiako errupia | 8.509 | 83 | 8.426 | 8.880 | 88 | 8.792 |
| Australiako dolarra | 1.091 | 964 | 127 | 965 | 593 | 372 |
| Kolonbiako pesoa | 2.126 | 1.589 | 537 | 2.263 | 1.729 | 534 |
| Saudi Arabiako riyala | 12.134 | 8.388 | 3.746 | 20.613 | 20.139 | 474 |
| Zeelanda Berriko dolarra | 5.675 | 3.896 | 1.779 | 5.960 | 4.844 | 1.116 |
| Errumaniako leua | 307 | 187 | 120 | 239 | 125 | 114 |
| Taiwaneko dolar berria | 13.224 | 7.409 | 5.815 | 27.330 | 21.302 | 6.028 |
| Hungariako florina | 625 | 380 | 245 | 866 | 715 | 151 |
| Japoniako yena | 1.141 | 1.056 | 85 | 610 | 538 | 72 |
| Maurizioko errupia | 1.491 | 1.476 | 15 | - | - | - |
| Poloniako zlotya | 659.046 | 419.945 | 239.101 | - | - | - |
| Suitzako frankoa | 4.275 | 1.689 | 2.586 | - | - | - |
| Norvegiako koroa | 5.545 | 8.606 | (3.061) | - | - | - |
| Suediako koroa | 7.047 | 6.070 | 977 | - | - | - |
| **Guztira** | **2.006.130** | **1.222.756** | **577.770** | **1.466.684** | **907.891** | **337.532** |

(*) 2018ko abenduaren 31n, atzerriko inbertsio garbiaren estaldurak (17. oharra) 205.604 mila euroko zenbatekokoak dira ekitaldiaren amaierako kanbio-tasa aplikatuta (221.261 mila eurokoak 2017ko abenduaren 31n).



Dibisa guztien % 10eko guztizko igoera edo murrizketa dela eta, Taldearen ondare garbiko eragina 57.777 mila eurokoa izan da 2018ko abenduaren 31n (33.753 mila eurokoa 2017ko abenduaren 31n), zerga-inpaktua kontuan hartu aurretik.

Hona hemen atzerriko moneta duten mendeko sozietateen saldo nagusien banakapena, kontu-sailen ezaugarrien arabera:

| | **Kontrabalioa mila eurotan** | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **2018/12/31** | | **2017/12/31** | |
| **Saldoen izaera** | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Aktiboak** | **Pasiboak** |
| Merkataritza-funtsa | 101.620 | - | 19.831 | - |
| Beste ibilgetu ukiezin batzuk | 156.466 | - | 236 | |
| Ibilgetu materiala | 184.733 | - | 66.778 | - |
| Finantza-ibilgetua eta zerga geroratu aktiboak | 513.249 | - | 565.308 | - |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 2.684 | - | - | |
| Izakinak | 314.042 | - | 146.361 | - |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 544.254 | - | 505.698 | - |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 50.703 | - | 38.825 | - |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 138.379 | - | 123.647 | - |
| Pasibo ez-korrontea | - | 503.645 | - | 400.818 |
| Pasibo korrontea | - | 719.111 | - | 507.073 |
| **Guztira** | **2.006.130** | **1.222.756** | **1.466.684** | **907.891** |

### a.3) Lehengaien prezioen arriskua

Lehengai nagusiei dagokienez, proiektu berri bakoitza indarrean sartzean egiten ditu eskariak eta hitzartzen du prezioa Taldeak. Horri esker, lehengaien prezioek izan dezaketen goranzko bilakaerak kontratuko marjinetan modu negatiboan eragina izateko arriskua estal dezake.

### b) Kreditu-arriskua

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasu gehienetan, proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordainketak agintzen dituzte kontratuek.

Ohiko jarduera da Taldeak esportazio-kontratuak bertan behera uzteko edo ez ordaintzeko zenbait arrisku bermatzea. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGAko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera. Estaldura egiteko edo ez egiteko erabakia, bezero motaren eta lan egiten duen herrialdearen arabera hartzen da.

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, Taldeak kreditu-aseguruen bidez kobratu beharreko bezeroen kontuen zati bat bermatua du; atzerriko hainbat herrialdetako lanei dagozkie kobrantza horiek eta haietako bakoitzaren arriskua kontuan hartuta dago (12. oharra).

### c) Likidezia-arriskua eta finantzaketa

Likidezia eta Finantzaketa Politikak xedatzen duen moduan, likidezia- eta finantzaketa-arriskuaren kudeaketak bere gain hartutako betebeharretatik eratorritako ordainketa-konpromisoak bermatzea, finantzaketa-egitura optimizatzea eta Taldearen soberakinen behar bezala kudeaketa babestea eskatzen du epe luzerako estrategiaren baitan (14.h eta 16 oharrak).



Likidezia- eta finantzaketa-arriskua mekanismo hauen bidez kudeatzen da CAF Taldean:

– Autofinantzaketako ahalik eta maila handieneko negozio-aukerak bilatzea eta hautatzea merkatuetako baldintzen barruan kontratu bakoitzerako. Ibilgailuen fabrikazio-proiektuetan (haiek gauzatzeko batez besteko aldia, gutxi gorabehera, hiru urtekoa izaten da), fakturazioko eta lanak gauzatzeko helburuak baliteke ez egotea denborari dagokionez lerrokatuta eta horrek beti finantza-baliabideen kontsumoa ekartzen du.

– Zirkulatzailearen kudeaketa aktiboa ezartzea eta mantentzea kontratatutako proiektu bakoitzeko fakturazioko helburuen betetze mailari modu iraunkorrean jarraituta.

– Epe laburrera, likidezia-posizio sendoari eustea.

– Erabili gabeko finantzaketa-ahalmen soberakinari eutsiz.

## 6. SEGMENTAZIOA

### a) Segmentazio-irizpideak

Hona hemen urteko kontu bateratuetan CAF Taldeak informazio segmentatua aurkezteko irizpideak:

– Segmentazioa negozio-unitateen arabera egin zen, “Trenen arloa” eta “Autobusak" bereizita. Azken hori Solaris erosi izanaren (2.f oharra) ondorio da.

– Gainera, irizpide geografikoen, eta produktuen eta zerbitzuen taldearen araberako informazioa ere bildu da.

### b) Segmentukako informazioaren oinarriak eta metodologia

Segmentuari zuzenean dagozkionak dira haren ohiko sarrera eta gastuak; hortaz, ez da sartu inbertsio-salmenten, berreskuratze-eragiketen edo zor-amaierako eragiketen interes, dibidendu, irabazi eta galerarik. Segmentuen aktiboek eta pasiboek lotura zuzena dute haren ustiapenarekin edo jarduera horretara zuzendutako sozietateetako partaidetzarekin.

Segmentazio nagusirako oinarriak Nazioarteko Araudiaren (8. FINA “Segmentu operatiboak”) arabera aztertu ondoren, segmentu nagusitzat sailkatu ditu CAF Taldeak izan dituen bi negozio-unitateak, haien antolakuntza-egitura, kudeaketa eta administrazio- eta zuzendaritza-organoetarako barne-informazioko sistema direla eta, eragiketak negozio-unitate batean edo bestean (produktuen eta lotura duten zerbitzuen multzoa) egitearen araberakoak baitituzte arriskuak eta emaitzak. Azken batean, segmentazioaren bidez identifikatzen dira CAF Taldeko zenbait osagai identifikagarri, beste ingurune batzuetan diharduten eragiketa-osagaiek ez bezalako arrisku eta errendimenduak dituztenak hain justu ere.

Hurrengo segmentu nagusien sorreran eragina izan du Taldeak, urteetako eskarmentuak adierazten digunez. CAFen iritziz, segmentu horiek betetzen dituzte barneko homogeneotasuneko arauak baldintza ekonomiko edo politikoen kidetasunari dagokionez, baita aplikagarri diren erregulazioek, truke-tasak edo jardueren hurbiltasunak eragiten dituzten arriskuei dagokienez ere.

– Trenak

– Autobusak



Jarraian, informazio hori negozio-segmentuen arabera azaltzen da:

| | 2018 (Mila eurotan) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Negozio-unitatearen araberako segmentazioa** | **Trenak** | **Autobusak** | **Orokorra** | **Segmentuen artekoak** | **Guztira** |
| Kanpoko salmentak | 1.887.731 | 160.688 | - | - | 2.048.419 |
| Segmentuen arteko salmentak | - | - | - | - | - |
| **Salmentak, guztira** | **1.887.731** | **160.688** | **-** | **-** | **2.048.419** |
| **EBITDA** | **192.916** | **8.562** | **-** | **-** | **201.478** |
| Ibilgetuaren amortizazioak (7 eta 8 oharrak) | (38.583) | (8.155) | - | - | (46.738) |
| Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina (Gastua) (7, 8 eta 9 oharrak) | (10.703) | 131 | - | - | (10.572) |
| **Ustiapenaren emaitza** | **143.630** | **538** | **-** | **-** | **144.168** |
| Finantza arloko emaitza | (47.184) | (4.551) | (11.455) | - | (63.190) |
| Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan | (488) | 85 | - | - | (403) |
| **Zergen aurreko emaitza** | **95.958** | **(3.928)** | **(11.455)** | **-** | **80.575** |
| Irabazien gaineko zerga | | | | | (40.955) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza garbia** | | | | | **39.620** |
| Partaidetza ez-kontrolatuei egotzitako emaitza | | | | | (3.842) |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza** | | | | | **43.462** |
| **AKTIBOAK** | **2.734.913** | **674.343** | **596.694** | **11** | **4.005.961** |
| **PASIBOAK** | **2.033.208** | **421.995** | **793.486** | **5** | **3.248.694** |
| Ibilgetu ukiezineko eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak) | 78.220 | 2.771 | - | - | 80.991 |



| | 2017 (Mila eurotan) | | |
|---|---|---|---|
| **Negozio-unitatearen araberako segmentazioa (*)** | **Trenak** | **Orokorra** | **Guztira** |
| Kanpoko salmentak | 1.477.039 | | 1.477.039 |
| Segmentuen arteko salmentak | - | - | - |
| **Salmentak, guztira** | **1.477.039** | **-** | **1.477.039** |
| **EBITDA** | **180.252** | **-** | **180.252** |
| Ibilgetuaren amortizazioak (7 eta 8 oharrak) | (34.690) | - | (34.690) |
| Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina (7, 8 eta 9 oharrak) | 148 | - | 148 |
| **Ustiapenaren emaitza** | **145.710** | **-** | **145.710** |
| Finantza arloko emaitza | (69.126) | (9.668) | (78.794) |
| Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan | 594 | - | 594 |
| **Zergen aurreko emaitza** | **77.178** | **(9.668)** | **67.510** |
| Irabazien gaineko zerga | | | (24.993) |
CAF Taldeak partaidetza du Brasilen partzuergo batean eta haren helburua da tranbia linea berri bat eraikitzeko kontratua exekutatzea eta lineara horretarako ontzidia hornitzea. Partzuergoan, CAFen irismena batez ere ibilgailuen hornidurari eta seinaleztapenari dagokio. Gaur egun, partzuergoa eta bezeroa zenbait prozeduratan sartuta daude eta, besteak beste, batez ere obra zibileko lanekin lotuta, bi alderdiek kontratua ez ote duten bete aztertzen ari dira. Horrekin lotuta, gaurko datan, CAFeko lege-aholkulariek uste dute Partzuergoak elementu sendoak dituela defentsa justifikatzeko eta obrak ez amaitzea bezeroak betebeharrak bete ez dituelako gertatu dela ondorioztatzeko. Edonola ere, kasu horietan Partzuergoari zigorra jarriz gero, batez ere Partzuergoko beste kide batzuei egotz dakizkiekeen ez-betetzeak direnez, CAFek arduradun horiei galera potentzialak erreklamatu ahal izango lizkieke. Taldeak 2018ko ekitaldiaren itxieran egin du bere estimazio onena eguneratutako egoera eta demanden egoera judiziala kontuan hartuta. 2018ko abenduaren 31n, kontratu horri lotutako "Zerbitzuen prestazioekin eta salmentekin lotutako bezeroen” epigrafean erregistratutako zenbatekoa, 180 egun baino gehiagoz iraungita dagoena, jasotako aurrerakinen garbia, 13,3 milioi eurokoa da (erregistratutako narriadurak kontuan izan gabe), eta ez da aitortu zenbatekorik jatorrizko kontratuaren erreklamazio osagarriengatik.

### Narriaduragatiko hornidurak

Narriaduragatiko hornidura-mugimendua honako hau da:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| **Saldoa 2017/12/31n** | **8.584** |
| 9. FINAren hasierako doiketa (2.b eta 2.e oharrak) | 3.626 |
| **Saldoa 2018/01/01ean doituta** | **12.210** |
| Aldaketak kontsolidazio-perimetroan | 5.961 |
| Bihurketako aldeak | (309) |
| Horniduraren aplikazioa | (758) |
| “Ustiapeneko beste gastu batzuk” epigrafera ordaindutako horniduren bihurketa | (732) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **16.372** |

Kontsolidazio-perimetroan izandako aldaketetatik eratorritako horniduren igoera, batez ere, Solaris Bus & Coach SAri dagokio.



## 13. BESTE FINANTZA-AKTIBO KORRONTE BATZUK

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, hau zen epigrafe honen zehaztapena:

**2018ko ekitaldia**

| | Mila eurotan | | |
|---|---|---|---|
| **Finantza-aktiboak: izaera/kategoria** | **Amortizatutako kostua (*)** | **Arrazoizko balioa emaitzetan aldaketekin (**)** | **Guztira** |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 35.012 | 59.281 | 94.293 |
| **Epe laburra / korronteak** | **35.012** | **59.281** | **94.293** |

(*) Epigrafe honetan daude jasota batez ere 2017ko ekitaldian izen hau zuten kontu-sailak: "Maileguak eta kobratu beharreko kontu-sailak" eta "Mugaegunera arte gordetako inbertsioak".

(**) Epigrafe horretan, batez ere, 2017ko ekitaldian izen hau duen kontu-saila azaltzen da: "Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak".

**2017ko ekitaldia**

| | Mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Finantza-aktiboak: izaera/kategoria** | **Maileguak eta kobratu beharreko kontu-sailak** | **Mugaegunera arte gordetako inbertsioak** | **Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak** | **Guztira** |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 115 | 29.603 | 55.120 | 84.838 |
| **Epe laburra / korronteak** | **115** | **29.603** | **55.120** | **84.838** |

"Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan" atalean daude jasota zor publikoko diruzaintzako soberakinak, birjarpenak, epe laburrerako gordailuak eta epe finkoko ezarpenak. "Finantza-aktiboak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioan" atalean daude jasota errenta finkoko inbertsio-funtsak. Epe laburrerako inbertsioak dira biak; horien emaitzak honi atxikita azaltzen den galera eta irabazien kontu baterako "Finantza-sarrerak" epigrafean ordainduta erregistratzen dira. 2018ko eta 2017ko ekitaldietan, Taldeak 5.077 mila eta 5.156 mila euroko sarrerak erregistratu ditu kontzeptu horregatik eta eskudiru-soberakinengatik hurrenez hurren.

## 14. ONDARE GARBIA

### a) Erakunde kontrolatzailearen kapital soziala

2018ko abenduaren 31n eta 2017ko abenduaren 31n, 0,301 euroko balio nominaleko 34.280.750 akzioz osatuta zegoen erakunde kontrolatzailearen kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkatuta eta guztiak harpidetuta eta ordainduta zeuden (guztiek Burtsan kotizatzen dute).

Honako hauek dira 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari Sozietatearen kapital sozialaren % 3ko baino gehiagoko boto-eskubideak dituztela jakinarazi dioten sozietateak edo erakundeak:



| | % 2018 | % 2017 |
|---|---|---|
| Cartera Social SA (1) | % 25,16 | % 25,46 |
| Kutxabank SA (2) | % 14,06 | % 14,06 |
| Indumenta Pueri SL (3) | % 5,02 | % 5,02 |
| Templeton Investment Counsel LLC. (4) | % 3,01 | % 3,01 |
| EDM Gestión SA S.G.I.I.C. (5) | % 3,02 | % 3,02 |

(1) Sozietateko akziodunak erakunde kontrolatzaileko langileak dira.

(2) Kutxabank SAk zuzeneko partaidetza du, baina zeharkako titularra Kutxabank SAren kontrola duen Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa da.

(3) Indumenta Pueri SL zeharkako titularra da. Zuzeneko titularra Global Portfolio Investments SL da, Indumenta Pueri SL-k kontrolatzen duen sozietatea.

(4) Templeton Investment Counsel LLC zeharkako titularra da. Inbertsioen kudeaketa-sozietate gisa T Global Smaller Co Fd, eta beste batzuen aktiboak kudeatzen ditu.

(5) EDM Gestión, SA SGIIC zeharkako titularra da. EDM Inversión FI eta beste batzuen boto-eskubideak kontrolatzen ditu.

2018ko ekainaren 2an, Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrean ahalmena eman zitzaion Administrazio Kontseiluari kapital soziala behin edo gehiagotan handitzeko akzio berriak jaulkita eta diru-ekarpenetan zordunduta bost urteko eperako eta baimendutako unean kapital sozialaren erdira arte. Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko garaian, ez da akordio horretatik inolako kapital-gehikuntzarik egin. Akordio honek eraginik gabe utzi du Batzar Orokorrak 2013ko ekainaren 8an emandako eskuordetzea.

2015eko ekainaren 13an egindako Akziodunen Batzar Orokorrak data horretatik aurrera bost urteko epean akzio propioak erosteko ahalmena eman zion Administrazio Kontseiluari. Urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, ez da akordio horrez geroztik akzio propiorik erosi.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak, 2017ko ekainaren 10ean egindakoak, erabaki zuen erakunde kontrolatzailearen Administrazio Kontseiluari eskuordetuko ziola, ordezkapeneko-gaitasun espresuarekin, eta data horretatik aurrera bost (5) urteko epean, Sozietateko edo taldeko beste sozietate batzuetako akzio bihur zitezkeen obligazioak eta gainerako errenta finkoko edo bestelako baloreak (warrantak barne) jaulkitzeko gaitasuna, akziodunen lehentasunezko harpidetza-eskubidea kanpo uzteko gaitasuna barne, baimenaren unean kapital sozialaren zenbatekoaren % 20ko zenbatekoagatik gehienez. Akordio horrek eraginik gabe utzi zuen Sozietatearen Ohiko Batzar Orokorrak, 2014ko ekainaren 7an egindakoak, hartutakoa. Urteko kontu hauek egin diren datan, ez da balore bihur daitezkeen jaulkipenik egin akordio horrez geroztik.

**b) Jaulkipen-prima**

Jaulkipen-primaren saldoa eskuragarri dago hura erabiltzeko muga espezifikorik ez dagoen neurrian.

**c) Birbalorizazio-erreserba**

Hau da erreserba horrek 2018ko eta 2017ko ekitaldietan izan duen zenbatekoa:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| Aktibo materialen birbalorizazioa: | | |
| Lurrak (FINA) | 30.418 | 30.418 |
| 11/1996 Foru Arauaren araberako eguneratzea | 8.701 | 8.701 |
| **Guztira** | **39.119** | **39.119** |



11/1996 Foru Arauaren araberako eguneratzea

Saldo hau kontabilitate-emaitza negatiboak berdintzeko, kapital soziala zabaltzeko edo bana ezin daitezkeen erreserbetara eramateko erabil daiteke, aplikatu gabeko kontuaren saldoari dagokionez. Kontu horren saldoa 11/1996 Foru Arauan aurrez ikusita ez bezala erabiliko balitz, saldo horri dagozkion zergak ordaindu egin beharko lirateke.

**d) Legezko erreserba**

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateratuaren arabera, ekitaldiko irabaziaren % 10 eraman behar da legezko erreserbetara, horiek kapital sozialaren % 20 izan arte. Legezko erreserba dagoeneko gehitu den kapitalaren % 20tik gora dagoen saldoari dagokion kapitala handitzeko erabil daiteke. Aipatutako helburu horretarako izan ezik eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak berdintzeko bakarrik erabili ahal izango da, eta betiere horretarako erabil daitezkeen behar adinako beste erreserbarik ez badago. 2018ko eta 2017ko ekitaldien itxieran, erreserba hori erabat eratuta zegoen.

**e) Erreserba mugatuak eta eskuraezinak**

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, 89.943 mila eta 82.813 mila euroko erreserbak zeuden, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, bateratutako sozietateen banakako urteko kontuetan, legezko erreserban, balantzeak eguneratzeagatiko erreserban, produkzio-inbertsioetarako erreserban (2/2014 Foru Araua), kapitala amortizatzeagatiko erreserban eta abarretan, eta horiek ezinbesteko eta mugatutako izaera dute hurrenez hurren. Halaber, sozietate batzuek finantzaketa-kontratuetatik eratorritako mugak dituzte (16. oharra).

Era berean, garapen-gastuen kontu-saila erabat amortizatu arte, debekatuta dago dibidenduak banatzea, erreserba erabilgarrien zenbatekoa amortizatu gabeko saldoen adinakoa, gutxienez, ez bada behintzat. 2018ko ekitaldiaren amaieran, beraz, 59.473 mila euroko erreserbak ez zeuden erabilgarri aipatutako arrazoiagatik (2017ko ekitaldiaren itxieran, 39.612 mila euro).

**f) Bihurketako aldeak**

Hona hemen “Bihurketa-diferentziak” kontuaren banaketa, sozietate bakoitzaren arabera, 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n:

| | **Mila eurotan** | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| CAF México SA de CV | (1.998) | (2.495) |
| CAF Brasil Industria e Comercio SA | (45.800) | (34.567) |
| CAF Argentina SA | (2.768) | (2.323) |
| CAF USA, Inc. | 816 | (106) |
| Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, S.A. de C.V. | (2.282) | (2.825) |
| CAF Turquia, LS | (1.510) | (1.186) |
| CAF Argelia, EURL | (519) | (553) |
| CAF India Private Limited | (1.008) | (606) |
| Ctrens Companhia de Manutençao, SA | (86.565) | (73.010) |
| Trenes CAF Venezuela, CA | (650) | (647) |
| Provetren, SA de CV | 1.480 | 1.532 |
| Beste sozietate batzuk | (978) | (452) |
| **Guztira** | **(141.782)** | **(117.238)** |



### g) Partaidetza ez-kontrolatzaileak

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko "Ondare garbia – Partaidetza ez-kontrolatzaileak" epigrafearen mugimendua eta osaera, 2018ko eta 2017ko ekitaldietan, hau izan zen:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| **2016ko abenduaren 31ko saldoa** | **11.706** |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileei egotz dakizkiokeen irabaziak | 111 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileekin egindako eragiketak | 971 |
| Dibidenduak | (3.005) |
| **2017ko abenduaren 31ko saldoa** | **9.783** |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileei egotz dakizkiokeen irabaziak | (3.842) |
| Negozio-konbinazioa | 97 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileekin egindako eragiketak | 1.072 |
| Dibidenduak | (1.555) |
| **2018ko abenduaren 31ko saldoa** | **5.555** |

### h) Kapitalaren kudeaketa

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorrean jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

CAF Taldeko administratzaileen iritziz, jarritako helburuak betetzearen adierazle da ahalik eta txikiena izatea matrizearekiko palanka-efektuaren maila. 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, zorraren zatirik handiena Brasilgo eta Mexikoko emakidari eta antzeko jarduerei zegokien (3.n eta 9.c oharrak). Finantza-zor garbiaren zenbatekoaren eta ondare garbiaren arteko erlazioari deitzen zaio palanka-efektuaren maila:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| Finantza-zor garbia: | | |
| Itzuli beharreko aurrerakinak interesekin (15. oharra) | 12.451 | 16.667 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak – Pasibo ez-korrontea (16. oharra) | 766.464 | 625.645 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak eta betebeharrak – Pasibo korrontea (16. oharra) | 255.416 | 46.262 |
| Finantza-inbertsioak – Aktibo ez-korrontea (9.c oharra) | (13.194) | (13.666) |
| Aldi baterako finantza-inbertsioak (13. oharra) | (94.230) | (84.723) |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | (602.813) | (371.625) |
| | **324.094** | **218.560** |
| Ondare garbia: | | |
| Erakunde kontrolatzaileari egotzitakoa | 751.712 | 750.417 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | 5.555 | 9.783 |
| | **757.267** | **760.200** |



## 15. BESTE FINANTZA-PASIBO KORRONTE ETA EZ-KORRONTE BATZUK, ETA BESTE KONPROMISO BATZUK

Hona hemen Taldeak 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n zituen finantza-pasiboen banakapena, bakoitzaren izaeraren arabera sailkatuta, hobeto baloratzeko:

**Mila eurotan**

| | 2018/12/31 | | 2017/12/31 | |
|---|---|---|---|---|
| | Epe luzera | Epe laburrera | Epe luzera | Epe laburrera |
| Itzuli beharreko aurrerakinak | 32.929 | 11.620 | 34.753 | 18.351 |
| Langileekiko konpromisoak (3.k eta 23. oharrak) | 3.408 | - | 5.892 | - |
| Partaidetzak erosteagatiko pasiboak (2.f oharra) | 8.465 | 1.137 | 10.371 | 2.825 |
| Ibilgetuaren hornitzaileak | - | 9.572 | - | 18.979 |
| Beste pasibo batzuk | 2.972 | 1.027 | 1.023 | 570 |
| **Guztira** | **47.774** | **23.356** | **52.039** | **40.725** |

Beste finantza-pasibo ez-korronte batzuen hurrengo urteetarako epemugaren araberako xehetasuna honako hau da (mila eurotan):

| | 2018 |
|---|---|
| 2020 | 19.726 |
| 2021 | 7.873 |
| 2022 | 6.553 |
| 2023 | 4.804 |
| 2024 eta hurrengoak | 8.818 |
| **Guztira** | **47.774** |

| | 2017 |
|---|---|
| 2019 | 9.825 |
| 2020 | 17.614 |
| 2021 | 8.286 |
| 2022 | 5.877 |
| 2023 eta hurrengoak | 10.437 |
| **Guztira** | **52.039** |

### Itzuli beharreko aurrerakinak

Ikerketa eta Garapeneko Programengatik zenbait diru-laguntza jaso ditu Taldeak. Diru-laguntza horiek benetan kobratzean erregistratzen dira edo, hala badagokie, baterako proiektuaren koordinatzaileak kobratzen dituenean. Hauek izan dira laguntzak:

– Proiektu horien gastuen eta kostuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak.

– Itzuli beharreko aurrerakinak, interesik gabeko maileguetan (gehienetan). Hiru urteko gabealdia dute hasieran, eta hamar urtetik gorako epean amortizatzen dira.



Epe luzerako zatirako aipatu ditugun programa horiek 2018ko eta 2017ko ekitaldietan sortu dituzten mugimenduak (egungo balioaren arabera) hauek izan dira:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| | **Epe luzera itzulgarriak diren aurrerakinak** |
| **Saldoa 2016/12/31n** | **43.696** |
| Gehigarriak | 2.386 |
| Erregularizazioak eta bestelakoak | 378 |
| Epe laburrerako intsuldaketak | (11.707) |
| **Saldoa 2017/12/31n** | **34.753** |
| Aldaketak kontsolidazio-perimetroan | 16 |
| Gehigarriak | 5.444 |
| Erregularizazioak eta bestelakoak | 244 |
| Epe laburrerako intsuldaketak | (7.528) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **32.929** |

Langileekiko konpromisoak

Taldeak etorkizuneko konpromisoak erregistratuta ditu aurre-erretiroko planak harpidetuta dituzten langileekin (3.k oharra). Epe laburrerako konpromisoak atxikitako egoera-balantze bateratuko "Beste hartzekodun batzuk" epigrafean erregistratuta daude eta 2018ko abenduaren 31n 2.799 mila euroko zenbatekoa du (3.113 mila eurokoa 2017ko abenduaren 31n).

Era berean, Taldeak enplegu osteko prestazioen eta epe luzerako beste ordainketa batzuekin eta horiei estaldura ematera bideratutako aktibo atxikiekin lotuta bere gain hartutako konpromisoen egungo balioaren xehetasuna hauxe da 2018ko eta 2017ko ekitaldien itxieran (3.j oharra):

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| Hartutako konpromisoen uneko balioa | 44.738 | 45.315 |
| Ken - Aktibo atxikien arrazoizko balioa | (45.006) | (42.750) |
| **Beste (aktibo) pasibo korronte batzuk** | **(268)** | **2.565** |

Hartutako konpromisoek egun duten balioa aktuario independente adituek zehaztu dute. Zenbatekoak kuantifikatzeko, irizpide hauek aplikatu dituzte:

– Kalkulatzeko metodoa: “Proiektatutako kreditu-unitatea”. Zerbitzu-urte bakoitza prestazioetarako eskubidea ematen duen unitate osagarriaren sortzailetzat hartzen du, unitate bakoitza bereizita aztertuta.

– Erabilitako aktuaritza-hipotesiak: inpartzialak eta elkarrekin bateragarriak. Oro har, kalkuluetan erabili dituzten aktuaritza-hipotesirik aipagarrienak hauek izan dira:

| **Aktuaritza-hipotesiak** | **2018** | **2017** |
|---|---|---|
| Interes teknikoko tasa | % 1,75 - % 2,47 | % 1,68 - % 2,47 |
| Heriotza-tasaren taulak | PERM/F/2000P | PERM/F/2000P |
| Soldaten edo pentsioen berrikusketako urteko tasa | % 1-2 | % 1-2 |
| Erretiro adina | 65 - 67 | 65 - 67 |



Aktibo atxikien arrazoizko balioa ekitaldiaren itxieran kalkulatu da. Horretarako, proiektatutako kreditu-unitatearen kalkulu-metodoa erabili da.

### Partaidetzak erosteagatiko pasiboak

Epigrafe honetan daude jasota Rifer SRL eta BWB Holdings, Ltd sozietateetako gainerako kapitala erosteko aukerak direla eta ordaintzeko aurrez ikusitako zenbatekoak.

## 16. ZORRAK ETA BETEBEHARRAK KREDITU-ERAKUNDEEKIN EDO BESTE BALIO NEGOZIAGARRI BATZUK

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko epigrafearen osaera honako hau da:

**Mila eurotan**

| | | 2018/12/31 | | | 2017/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Moneta nominala** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Guztira** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Guztira** |
| Maileguak eta kreditu-kontuak | | | | | | | |
| Ctrens – BNDES | BRL | 124.343 | 14.689 | 139.032 | 154.411 | 15.095 | 169.506 |
| Provetren – Banku-sindikatua | USD | 76.539 | 22.298 | 98.837 | 93.729 | 18.285 | 112.014 |
| Erakunde kontrolatzailea (CAF SA) | EUR | 463.618 | 76.259 | 539.877 | 356.779 | 9.000 | 365.779 |
| CAF Investment Projects SAU | EUR | 19.832 | - | 19.832 | 19.799 | - | 19.799 |
| Solaris Taldea | PLN/EUR | 81.319 | 63.847 | 145.166 | - | - | - |
| Taldeko gainerako sozietateak | EUR | 813 | 391 | 1.204 | 927 | 740 | 1.667 |
| | | **766.464** | **177.484** | **943.948** | **625.645** | **43.120** | **668.765** |
| Betebeharrak edo beste balio negoziagarri batzuk: | | | | | | | |
| Paper komertzialean egindako jaulkipenak | EUR | - | 75.000 | 75.000 | - | - | - |
| Sortutako eta ordaintzeke dauden interesak | | - | 2.932 | 2.932 | - | 3.142 | 3.142 |
| **Guztira** | | **766.464** | **255.416** | **1.021.880** | **625.645** | **46.262** | **671.907** |

Honako hau da "Zorrak eta betebeharrak kreditu-erakundeekin edo beste balio negoziagarri batzuk" epigrafeko saldoak ekitaldian izandako mugimendua (mila eurotan):

| | |
|---|---|
| **2017ko abenduaren 31ko saldoa** | **668.765** |
| **Kaxako fluxuak** | |
| Xedapen berriak | 533.844 |
| Ordainketak epemugan | (355.655) |
| | **178.189** |
| **Beste mugimendu batzuk (kaxako fluxurik gabe)** | |
| Eremuan izandako aldaketak (2.f oharra) | 184.822 |
| Bihurketako aldeak | (13.041) |
| Amortizatutako kostuaren doiketak eta beste batzuk | 213 |
| | **171.994** |
| **2018ko abenduaren 31ko saldoa** | **1.018.948** |



Kreditu-erakundeekiko zorren zenbatekoak zuzenduta aurkeztu behar dira balantzean, maileguen irekiera eta formalizazioak eragindako kostuak jarrita, alegia.

**Ctrens – BNDES**

9.c oharrean deskribatutako CPTMren trenen alokairu-eragiketari dagokionez, 2011ko maiatzaren 10ean egindakoan, Ctrens-Companhia de Manutençao, SA (Ctrens) sozietate filialak Banco Nacional de Desenvolvimiento Econômico e Social (BNDES) bankuarekin finantzaketa-kontratu bat sinatu zuen. Kontratuaren zenbatekoa, gehienez, Brasilgo 946.890 mila errealekoa zen. Maileguak sortzen duen interes-tasa TJLP (Taxa de Juros de Longo Prazo) gehi diferentzial bat da. Mailegu nagusia elkarren segidako 160 hilabetetan amortizatuko da eta lehen mugaeguna 2013ko urtarrila da.

Kontratu horrek Ctrens-Companhia de Manutençao SA sozietatea mugatzen duten hainbat murriztapen-klausula ditu; besteak beste, banku-mailegu berriak eskuratzea, bermeak ematea, kapital-ordainketak egitea, dibidenduak banatzea eta 2013ko urtarriletik aurrera finantza-baldintza jakin batzuk betetzeko betebeharra. Baldintza horien artean dago Zor Zerbitzuaren Estalduraren Indizea (1,2tik gorakoa izan behar du) eta Gutxieneko Kapitalaren Egitura Formula (0,24tik gorakoa izan behar du). Klausula horiek 2018ko eta 2017ko ekitaldietan bete dira.

Era berean, 2011ko ekainaren 15ean, sozietate filialak BNDESekin lagapen fiduziarioko kontratu bat sinatu zuen. Kontratu horren arabera, bermean lagatzen ditu CTRESNek CPTMrekin dituen kobrantza-eskubideak eta CPTMk filialarentzat emandako bermeak eta filialak CPTMri, erakunde kontrolatzaileari eta CAF Brasili eska diezaiokeen beste edozein zenbateko.

**Provetren – Banku-sindikatua**

9.c oharrean deskribatutako trenak epe luzera alokatzeko zerbitzuen kontratuari (PPS – 12. Linea) dagokionez, 2012ko abenduaren 7an, Provetren SA de CV sozietate filialak BBVA Bancomer SA, Banco Nacional de México SA, Banco Santander (México) SA, Sumitomo Mitsui Banking Corporation eta Caixabank SAk osatutako banku-sindikatu batekin epe luzerako finantzaketa-kontratu bat sinatu zuen, Estatu Batuetako 300 milioi dolarrekoa. Maileguak sortutako interes-tasa LIBORen araberakoa da. Interes-tasaren kurban gorabeherarik izan ez dadin, eta finantzaketa mota hauetan ohikoa den moduan, Provetrenek interes-tasaren estaldura-kontratu bat sinatu du finantzaketaren % 80rako eta epearen % 80rako (17. oharra).

Maileguaren zati nagusia hiru hilez behingo ondoz ondoko 39 kuotatan amortizatuko da eta kobrantzen profila PPSaren arabera doituko da. Lehen epemuga 2013ko urrikoa izango zen.

Kontratuak hainbat murriztaile ditu eta mugatu egiten dute Provetren SA de CV; besteak beste, bankuko mailegu gehiago lortzeko, bermeak emateko, kapital-ordainketak egiteko, ratio jakin batzuetara iristen ez bada dibidenduak banatzeko eta 2013ko urritik aurrera finantza-baldintza jakin batzuk (horien artean Zor Zerbitzuaren Estaldura Indizea 1,15 baino altuagoa izatea) izateko mugak jartzen ditu. Klausula horiek 2018ko eta 2017ko ekitaldietan bete dira.

Era berean, 2012ko abenduaren 7an, sozietate filialak Banco Invexekin fideikomiso-kontratu bat sinatu zuen. Fiduziazio gisa jokatu zuen eta BBVA Bancomer SAk lehen fideikomisario gisa. Kontratu horren bidez, bermean lagatzen ditu Provetrenek PPSren pean dituen kobrantza-eskubideak, Interes Tasa Estaltzeko kontratutik eratorritako kobrantza-eskubideak, fabrikazio- eta mantentze-lanetako kontratuen kobrantza-eskubideak, BEZa berreskuratzeko edozein diru-sarrera eta aseguru-polizatik eratorritako zenbatekoak.

Ctrens-Companhia de Manutençao SA eta Provetren SA de CV filialen akzioak BNDESen eta lehen aipatutako banku-sindikatuaren alde pignoratuta daude, hurrenez hurren. Aipatutako epe luzerako bi finantzaketa-kontratuetan mailegu-emaileek ez dute CAF Taldea osatzen duten sozietateetarako baliabiderik, baliabide teknikoetatik haragokorik behintzat.



**Erakunde kontrolatzailearen maileguak**

2018ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak bost mailegu berri kontratatu ditu finantza-erakundeekin, guztira 175 milioi euroko zenbatekoarekin. Mailegu horiek 2018ko abenduaren 31n osorik erabilita zeuden.

Gainera, 2018ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak 6,5 milioi euroko zenbatekoa duten epemugei egin die aurre.

Kreditu-erakundeekin zituen zorren zenbateko osotik, 2018ko abenduaren 31n, 410,2 milioi euro interes-tasa finkora erreferentziatuta zeuden (31,7 milioi artikulatuta interes-tasaren swap bidez, 17. oharra).

2017ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak beste hiru mailegu kontratatu zituen eta haien zenbatekoa, guztira, 65 milioi eurokoa izan zen (erabat ordainduta). Gainera, mailegu batzuk berriro negoziatu zituen 75 miloi euroko zenbatekoagatik eta disposizioa 5 milioi eurotan handitu zuen.  2017ko ekitaldian, 12 milioi euro amortizatu eta modu aurreratuan 14 milioi euroko mailegua kitatu zuten. Mailegu horiek merkatuko baldintzetan kontratatu ziren. Erabilitako zenbateko horretatik, 263 mila euroko zenbatekoa interes-tasa finkora erreferentziatuta zeuden (13,3 miloi euro interes-tasaren swap bidez, 17. oharra).

**Solaris**

2016ko urriaren 28an, Solaris Bus & Coach SAk (Solaris) bankuen kontsortzioak emandako finantzaketa jaso zuen. Finantzaketa horrek bi lerro (A eta B) jasotzen ditu. A lerroak Poloniako zlotytan egindako 400 milioiko finantzaketa-muga biltzen du, eta B lerroak, aldiz, 100 milioi zlotykoa. Bi lerroen epemuga 2020ko urrikoa da, eta 2018ko abenduaren 31n, Poloniako 349 milioi zlotytan erabilgarri zeuden (ekitaldiko itxierako kanbio-tasaren arabera, 81 milioi euro). Finantzaketa-lerro horrek Solarisek entregatutako bermeak biltzen ditu eta batez ere eskubide eta ondasunekin lotuta daude (aktibo materialak, markak, kontu korronteak eta kobratu beharreko kontuak besteak beste).

Zor hori merkatuko interes-tasei erreferentziatuta eta finantza-baldintza jakin batzuk mantentzearen mende dago. Horien artean jasota dago honako hauek mantentzea: 3,5 baino gutxiagoko zortzapen-ratioa, zorraren zerbitzu-estalduraren ratioa 1,25ean edo gehiagoan, aktiboen gaineko ondarea % 20koa edo handiagoa, emaitza garbi positiboa eta inbertsioen gehieneko zenbatekoa.

2018ko abenduaren 21ean, 2016ko urriaren 28an adostutako akordioa aldatu da. Haren arabera, bankuek sozietatea salbuetsi egin zuten ekitaldi-itxierako datan finantza-baldintzak betetzetik.

Gainera, Solarisek Poloniako 240 milioi zlotyko epe laburrerako zorra du (56 milioi euro ekitaldi-itxierako kanbio-tasaren arabera) efektu deskontatuekin lotutako zorrak direla eta (merkatuko tasetara erreferentziatuta).

Azkenik, epe laburreko zorrarekin lotuta 8 milioi euroko zenbatekoa dute Solaris Norge AS, Solaris France SARL eta Solaris Sverige AB sozietateek batez ere. Horiek guztiak merkatuko interes-tasara erreferentziatuta eta Solaris Bus & Coach Sak bermatuta daude.

**CAF Investment Projects SAU eta gainerakoak**

2016ko uztailean, CAF Investment Projects SAU mendeko sozietateak 20.000 mila euroko zenbatekoa zuen mailegua erabili zuen. Mailegu hori erakunde kontrolatzaileak bermatu du eta zortzi urteko iraupena du. Sei urteko gabealdia du, eta Euriborrari erreferentziatutako interesa sortzen du. Mailegu horrek mailegu-emailearengandik jasotako ekarpenaren eta CAF Investment Projects SAUk atzerriko sozietateetan duen inbertsio-bolumenaren artean gutxieneko ratioa mantentzeko betebeharra finkatzen du. Ratio hori betetzen zen 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n.

Finantza-zorraren gainerakoa merkatuko interes-tasa batean erreferentzia duten mendeko sozietateek jasotako maileguei dagokie.



**Paper komertzialean egindako jaulkipena**

2017ko abenduaren 21ean, erakunde kontrolatzaileak epe laburreko paper komertziala jaulkitzeko programa formalizatu zuen ("Euro-Commercial Paper Programme"), 200 milioi euroko gehieneko saldo nominal erantsiarekin (“Programa”), eta hori Irlandako Burtsan erregistratu zen (Irish Stock Exchange). 2018ko ekitaldian, programa horren kargura 230 milioi euroko balioa zuten jaulkipenak egin zituzten. Epemugan amortizatu dira. Programa 12 hilabetez berritu dute erantsitako saldo nominal maximo berarekin. Programari esker CAFek, Programari dagokion informazio-dokumentuko (Information Memorandum) baldintzetan eta 12 hilabeteko aldian, ohiko errenta finkoko baloreak jaulki ahal izango ditu 364 egun baino gutxiagoko mugaegunarekin. Horiek negoziazioan onar litezke Irlandako Balore Burtsako merkatu arautuan (Irish Stock Exchange) edo beste edozein balore-burtsatan edo negoziazio-sistematan. 2018ko abenduaren 31n, epemugaren zain dago eta 75 milioi euroko zenbatekoa du (2019ko lehen hilabeteetako epemugarekin egindako jaulkipenei dagokie).

**Erabili gabeko kredituak eta mugaegunak**

Aipatutako horrez gain, Taldeko sozietateek erabili gabeko 246.525 mila euroko (149.775 mila euro 2017ko abenduaren 31n) kreditu-erraztasunak dituzte. Horiek erabili gabeko factoring, kreditu-lerro eta mailegu gisa instrumentatuta daude eta batez ere Euriborrari gehi merkatuko diferentzial bati erreferentziatuta daude.

Epe luzera begira, kreditu-erakundeekin aurrez ikusitako zorrekiko amortizazioak jarraian daude zehaztuta (mila eurotan):

| | 2018/12/31 | | 2017/12/31 |
|---|---|---|---|
| 2020 | 142.152 | 2019 | 104.961 |
| 2021 | 173.723 | 2020 | 62.560 |
| 2022 | 138.249 | 2021 | 175.047 |
| 2023 | 77.149 | 2022 | 139.485 |
| 2024 eta hurrengoak | 235.191 | 2023 eta hurrengoak | 143.592 |
| **Guztira** | **766.464** | **Guztira** | **625.645** |



## 17. FINANTZA-TRESNA ERATORRIAK

Finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu CAF taldeak bere etorkizuneko jarduerek, eragiketek eta eskudiru-fluxuek jasaten duten arriskuez babesteko. Truke-tasen eta interes-tasaren gorabeheretatik eratorritako arriskuak dira batik bat (5.a oharra). Truke-tasarekiko babes moduan erabiltzen ditu CAF Taldeak deribatuak, haien aldaketek etorkizuneko kutxa-fluxuetan izan lezaketen ondorio negatiboa leuntzeko, salerosketak eta maileguak sozietate bakoitzak erabili ohi duen moneta ez den beste batean egiten direnean.

Era berean, integrazio globalaren metodoaren bidez integratutako hainbat sozietatek interes-tasen estaldura-kontratuak dituzte (5.a oharra).

Hona hemen 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzean zeuden deribatuen (arrazoizko balioko estaldurakoak, batik bat) balorazio-saldo garbien osaera:

**2018ko ekitaldia**

| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako salmenten eratorriak 2018/12/31n** | **2019** | **2020** | **2021 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak (*) | 471.705.519 | 13.714.275 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 244.987.890 | 183.117.700 | 249.852.362 |
| Euroaren truke-aseguruak | 3.218.940 | 159.470 | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 158.048.888 | - | - |
| Koroa suediarretara trukatzeko aseguruak | 583.657.791 | 86.664.170 | - |
| Australiako dolarren truke-aseguruak | 50.561.761 | 10.516.460 | 106.827.784 |
| Taiwaneko dolarretako truke-aseguruak | 103.345.637 | - | - |
| Saudi Arabiako rialen truke-aseguruak | 100.632.687 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 2.940.465.872 | 15.934.685 | - |
| Kanadako dolarraren truke-aseguruak | 47.047 | - | - |
| Turkiako liren truke-aseguruak | 11.565.720 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 13.589.382.335 | 4.081.705.774 | - |
| Argentinako pesoen truke-aseguruak | 76.866.717 | - | - |
| Hegoafrikako rand-etan egindako truke-aseguruak | 3.984.534 | - | - |

(*) CAF USA Inc.-ko inbertsio garbiaren estaldura partziala biltzen du 22.300 mila euroko zenbatekoarekin, eta Provetren-en egindako inbertsio garbiaren estaldura 213.106 mila USDren truke.

| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako erosketen eratorriak 2018/12/31n** | **2019** | **2020** | **2021 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 40.544.900 | 31.873.000 | - |
| Euroaren truke-aseguruak | 77.998.398 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 7.020.251 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 59.767.000 | 1.382.694.596 | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | - | 3.297.090.500 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 1.389.063 | 76.400.000 | - |
| **Eskudiruaren fluxuen estaldurak** | | | |
| Kolonbiako pesoetan egindako truke-aseguruak | - | 48.000.000.000 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 24.397.052 | - | - |



| Interes-tasetatik eratorritakoak | Maileguen epemuga nozionalak (dibisatan) 2019 | 2020 | 2021 eta hurrengoak |
|---|---|---|---|
| Swap Euribor | 6.666.667 EUR | - | 25.000.000 EUR |
| Swap LIBOR | 20.494.634 USD | 16.150.923 USD | 58.988.067 USD |

| | Mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Arrazoizko balioa | | Eskudiru-fluxuak | |
| | 2018/12/31 | 2017/12/31 | 2018/12/31 | 2017/12/31 |
| **Estaldurak:** | | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | (23.945) | 14.419 | 31 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | (19.552) | (581) | - | (38) |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | (14.962) | (16.068) | - | (1.789) |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | (2.766) | (6.409) | - | - |
| Euroaren truke-aseguruak | (1.071) | 1.900 | - | - |
| Truke-aseguruak koroa suediarretan | (2.331) | (1.066) | - | - |
| Saudi Arabiako rialen truke-asegurak | 1.218 | (2.733) | - | - |
| Taiwaneko dolarren truke-aseguruak | 798 | 666 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 4.295 | (532) | - | (288) |
| Beste dibisa batzuen truke-aseguruak | 35 | (108) | (29) | - |
| Interes-tasen truke-aseguruak | - | (23) | (525) | (88) |
| **Balorazioa, itxieran (*)** | **(58.281)** | **(10.535)** | **(523)** | **(2.203)** |

(*) Zerga mailako eragina kontuan hartu aurretik.

**2017ko ekitaldia**

| Dibisatan egindako salmenten eratorriak 2017/12/31n | Epemuga nozionalak (dibisan) 2018 | 2019 | 2020 eta hurrengoak |
|---|---|---|---|
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak (*) | 569.473.785 | 79.313.750 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 184.930.953 | 112.649.300 | 95.037.543 |
| Euroaren truke-aseguruak | 10.210.376 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 143.348.888 | - | - |
| Koroa suediarretara trukatzeko aseguruak | 293.315.120 | 301.302.732 | 86.664.170 |
| Australiako dolarren truke-aseguruak | 65.935.494 | 13.524.295 | 517.767 |
| Taiwaneko dolarretako truke-aseguruak | 401.347.969 | - | - |
| Saudi Arabiako rialen truke-aseguruak | 287.127.754 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 3.069.543.269 | - | - |
| Kanadako dolarraren truke-aseguruak | 1.212.495 | - | - |
| Turkiako liren truke-aseguruak | 4.681.236 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 13.642.169.888 | 3.694.606.739 | 4.081.705.774 |
| Argentinako pesoen truke-aseguruak | 56.000.000 | - | - |

(*) CAF USA Inc.-ko inbertsio garbiaren estaldura partziala biltzen du 67.766 mila euroko zenbatekoarekin, eta Provetren-en egindako inbertsio garbiaren estaldura 265.366 mila USDren truke.



| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako erosketen eratorriak 2017/12/31n** | **2018** | **2019** | **2020 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 7.019.282 | 11.598.823 | 24.289.000 |
| Euroaren truke-aseguruak | 156.717.045 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 628.825 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 59.767.000 | - | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 2.675.136 | - | - |
| **Eskudiruaren fluxuen estaldurak** | | | |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | - | - | 4.588.021.500 |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | - | - | 591.486.246 |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | - | 25.000.000 | - |

| | Maileguen epemugak (dibisatan) | | |
|---|---|---|---|
| **Interes-tasetatik eratorritakoak** | **2018** | **2019** | **2020 eta hurrengoak** |
| Swap Euribor | 6.666.666 EUR | 6.666.667 EUR | - |
| Swap LIBOR | 18.598.760 USD | 20.494.634 USD | 75.138.990 USD |

2018ko eta 2017ko ekitaldien amaieran, SEM Los Tranvías de Zaragoza SA sozietate elkartuak (9.a oharra) hainbat finantza-truke ditu kontratatuta, finantza-zorren nominalarekin lotuta. Finantza-truke horiek eskudiru-fluxuen estaldurarako tresna gisa izendatu dira interes-tasaren arriskuagatik eta Taldeari dagokion balorazioa efektu fiskalaren 4.994 mila euro garbikoa zen 2018ko abenduaren 31n (4.994 mila euro 2017ko abenduaren 31n). Zenbateko hori 2018ko abenduaren 31ko balantze bateratuko "Ondare garbia – Beste emaitza integral bat - Estaldurako eragiketak" epigrafean sailkatu da.

Estaldura-tresnaren epemuga bat dator eskudiru-fluxuak gertatzea aurrez ikusitako ekitaldiarekin.

Jarraian, ekitaldi bakoitzeko itxierako balorazioaren eta egoera-balantzean azaltzen diren saldoen arteko bateratzea azaltzen da (mila eurotan):

| | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Aktibo ez-korrontea | 10.720 | 15.842 |
| Aktibo korrontea | 5.849 | 41.864 |
| Pasibo ez-korrontea | (11.206) | (18.131) |
| Pasibo korrontea | (64.167) | (52.313) |
| **Balantzearen guztizko garbia** | **(58.804)** | **(12.738)** |
| Arrazoizko balioa | (58.281) | (10.535) |
| Eskudiru-fluxuak | (523) | (2.203) |
| **Deribatu edo eratorrien balorazioa, guztira** | **(58.804)** | **(12.738)** |



2018ko ekitaldian, galera eta irabazien kontuan zordundutako eta egindako estaldura-eragiketen eraginkortasunik gabeko zatiari dagokion eragina 3.618 mila eurokoa izan da (1.933 mila euroko gastua 2017an). Batez ere, estalitako kontu-sailen estimazioen zenbatekoan izandako aldaketek eragin dute hori.

Horrez gain, arrazoizko balioaren deribatuen balioak izan duen likidazioak eta aldaketak 4.861 mila euroko eta 26.827 mila euroko gastua eragin dute 2018ko eta 2017ko ekitaldietan hurrenez hurren; zenbateko horiek estalitako kontu-sailen balioak jasan duen aldaketaren antzekoak dira.

Taldean estalitako kontu-sailak (Merkatuko Arriskuei buruzko 5.a oharrean zehaztutakoaren arabera) kontratu komertzial bakoitzean bildutako dibisan egindako eragiketak izan dira. Estalduren kontratazioko hasierako unean, eragiketa horiek konpromiso irmo (kasu horretan, arrazoizko balioa duten estaldura gisa erregistratzen dira) edo gertatzeko probabilitate maila altuko transakzio gisa (kasu horretan, eskudiru-fluxuaren estaldura gisa erregistratzen dira) osatzen dira, edo atzerrian egindako inbertsio garbi gisa.

## 18. ZERGA KORRONTEAK ETA GERORATUAK

Taldeak, indarrean dagoen zerga-araudia aplikatuta, Sozietateen gaineko Zergaren horniduraren kalkulua egin du 2018ko abenduaren 31n. 2018ko maiatzaren 10ean, Sozietateen gaineko Zergaren 1/2018 Foru Araua onartu zuten Gipuzkoan, eta erakunde kontrolatzailea buru duen Talde Fiskalari aplikagarria zaion zerga-esparrua nabarmen aldarazi du horrek. Hala, zerga-tasa gutxitu izanaren (aurretik % 28koa zen eta 2018an % 26koa izatetik 2019an % 24koa izatera igaro da) eta zerga-oinarri negatiboen dedukzioak eta konpentsazioa aplikatzearekiko mugaketan egindako aldaketak direla eta, zerga geroratuengatiko aktiboen eta pasiboen zenbatekoa erregularizatu egin da eta horrek irabazien gaineko zergetan 13.753 mila euroko gastua eragin du. Dena den, zerga arloko erreformen ondorioz egungo araudiak aurrez ikusitakoekiko ezberdinak diren zerga-tratamenduak egingo balira, onarpenaren ondoren aurkezten diren hurrengo finantza-egoeretan aplikatuko lirateke.

Erakunde kontrolatzaileak, 2007ko ekitalditik, Gipuzkoako lurralde historikoan ordaintzen ditu zergak Kontsolidazio Fiskaleko Erregimenean mendeko sozietate jakin batzuekin batera.

Taldearen kontabilitateko emaitzaren eta Sozietateen gaineko Zergari dagokion gastuaren arteko berdinkatzea hauxe da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018** | **2017** |
| **Zergen aurreko kontabilitateko emaitza** | **80.575** | **67.510** |
| Matrizearen zerga-tasa | 26% | 28% |
| **Sozietateen gaineko zerga, matrizearen zerga-tasaren arabera kalkulatuta** | **20.950** | **18.903** |
| Filialen zerga-tasa ezberdinak eragindako efektua | 3.168 | 1.912 |
| Salbuetsitako sarrerek eta fiskalki deduzigarriak ez diren gastuek eragindako efektua | 4.069 | 5.008 |
| Ekitaldian erregistratutako dedukzioen eta zerga mailako beste laguntza batzuek eragindako efektu fiskala | (2.269) | (3.579) |
| Aurreko ekitaldietan onartu edo erregistratu gabeko geroratutako zergek edo zerga-kredituek eragindako efektu fiskala | 1.027 | 3.163 |
| Ekitaldian onartutako doikuntzak aurreko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergarekin lotuta | 257 | (15) |
| Aldaketak zerga-tasan | 13.753 | (399) |
| **Galera eta irabazien kontu bateratuan aitortutako zergak eragindako gastua, guztira (sarrera)** | **40.955** | **24.993** |
| **Zerga korronteak eragindako gastua (sarrera) (*)** | **36.130** | **17.160** |
| **Zerga geroratuak eragindako gastua (sarrera)** | **4.825** | **7.833** |

(*) Aurreko ekitaldietako sozietateen gaineko zergak eta doikuntzak biltzen ditu.



Erakunde kontrolatzaileak Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1996 Foru Arauko 39. artikuluan aurrez ikusitako pizgarri fiskala jaso zuen 2013an. 2018ko abenduaren 31n, Sozietateak pizgarri harekin lotutako inbertsio-konpromiso guztiak gauzatuta ditu (14. oharra).

Erakunde kontrolatzaileak, 2016an, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauko 36. artikuluan aurrez ikusitako erregimenari heldu zion 6.337 mila euroko zenbatekoarekin. Berrinbertsio-konpromisoa, 13.500 mila eurokoa, batez ere 2016ko ekitaldian sozietate nagusiak eta zerga-kontsolidazioko erregimena osatzen zuten gainerako erakundeek ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementuetan egindako inbertsioetan gauzatu zen.

Egotzitako zerga-kargaren eta, ekitaldi horretan, atxikitako egoera-balantze bateratuko aktiboaren edo pasiboaren "Zerga geroratuengatiko aktiboak" eta "Zerga geroratuengatiko pasiboak" epigrafeetan dago erregistratuta.

Honakoa da saldo horien osaera eta mugimendua:

**Mila eurotan**

| | 2017/12/31 | Hasierako doiketak (2.b, 2.f eta 7 oharrak) | 2018/01/01 ean doitutako hasierako saldoa | Perimetrora sartutakoak | Gehigarriak | Bajak | Bihurketako aldeak | Erregularizazioak eta tasa-aldaketak | 2018/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Geroratutako zerga aktiboak:** | | | | | | | | | |
| Aplikatu gabeko dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.l oharra) | 86.560 | - | 86.560 | 2.366 | 22.046 | (27.157) | (1.060) | (12.671) | 70.084 |
| Denboran deduzigarriak ez diren hornidurak | 50.486 | 2.795 | 53.281 | 12.728 | 23.510 | (12.801) | (1.399) | (4.523) | 70.796 |
| NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina | 3.109 | - | 3.109 | - | - | (215) | - | (443) | 2.451 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 4.834 | - | 4.834 | 222 | 885 | (29) | (348) | (347) | 5.217 |
| | **144.989** | **2.795** | **147.784** | **15.316** | **46.441** | **(40.202)** | **(2.807)** | **(17.984)** | **148.548** |
| **Geroratutako zerga pasiboak:** | | | | | | | | | |
| Amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7, 8 eta 9 oharrak) | 115.050 | | 115.050 | 363 | 5.153 | (6.380) | (842) | (4) | 113.340 |
| Zorroko hornidurak | 25.110 | - | 25.110 | - | - | - | - | (2.511) | 22.599 |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra) | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balio-handitzea (2.f. eta 14. oharrak) | 11.829 | 3.684 | 15.513 | 26.515 | - | (1.167) | (37) | (1.690) | 39.134 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | 58 | - | 58 | 138 | 12 | (135) | 1 | - | 74 |
| Merkataritza Funtsa | 28 | - | 28 | - | - | (2) | - | (10) | 16 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 1.730 | - | 1.730 | - | 324 | - | (10) | (16) | 2.028 |
| | **153.805** | **3.684** | **157.489** | **27.016** | **5.489** | **(7.684)** | **(888)** | **(4.231)** | **177.191** |



| | | | | | Mila eurotan |
|---|---|---|---|---|---|
| | **2016/12/31** | **Gehitutakoak (*)** | **Bajak** | **Bihurketako aldeak** | **2017/12/31** |
| **Geroratutako zerga aktiboak:** | | | | | |
| Aplikatu gabeko dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.l oharra) | 103.623 | 4.270 | (18.642) | (2.691) | 86.560 |
| Denboran deduzigarriak ez diren hornidurak (*) | 45.105 | 15.638 | (7.605) | (2.652) | 50.486 |
| NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina | 3.525 | 11 | (427) | - | 3.109 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 6.923 | 3 | (1.584) | (508) | 4.834 |
| | **159.176** | **19.922** | **(28.258)** | **(5.851)** | **144.989** |
| **Geroratutako zerga pasiboak:** | | | | | |
| Amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7, 8 eta 9 oharrak) | 133.464 | 6.200 | (8.100) | (16.514) | 115.050 |
| Zorroko hornidurak | 25.110 | - | - | - | 25.110 |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra) | (55) | 55 | - | - | - |
| Lurren birbalorazioa (14. oharra) | 11.829 | - | - | - | 11.829 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | 127 | - | (64) | (5) | 58 |
| Merkataritza-funtsa | 19 | 9 | - | - | 28 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 1.643 | 857 | (794) | 24 | 1.730 |
| | **172.137** | **7.121** | **(8.958)** | **(16.495)** | **153.805** |

(*) Kontsolidazio-perimetroko aldaketengatik 10 mila euro biltzen ditu, 2.f oharra.

Taldeak, 2018ko ekitaldian, 13.279 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak egiaztatzea aurrez ikusi du (15.036 mila euro 2017ko ekitaldian). Horiek, batez ere, I+G arloko dedukzioen eta zerga bikoitzagatiko kenkarien ingurukoak dira. 2018ko Zergaren aurreikuspenaren ostean aplikatzeke dauden dedukzioen zenbatekoa 113.250 mila eurokoa da (101.650 mila eurokoa 2017ko ekitaldian). Zenbateko horretatik, 32.293 mila euroko zenbatekoa (batez ere erakunde kontrolatzailearen zerga-taldetik jasotakoa) epigrafe honetan dago erregistratuta: Zerga geroratuengatiko aktiboak - Aplikatu gabe dauden dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (28.909 mila euro 2017ko ekitaldian). Aktibatutako eta konpentsatu gabeko zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa 37.791 mila eurokoa da 2018ko abenduaren 31n (2017ko ekitaldian, 57.651 mila eurokoa zen). Zerga-oinarri negatiboak, batez ere, erakunde kontrolatzeailearen zerga-taldeari dagozkio eta 36.708 mila eurokoak dira (41.742 mila eurokoak 2017ko abenduaren 31n). Era berean, Provetren SA de CVk, 2018ko abenduaren 31n, pasibo gerorataren zergagatik 72.148 mila euroko zenbatekoa du erregistratuta, finantza-egoeretan aktiboen liburuetako zenbatekoaren eta Mexikon indarrean den araudiaren arabera % 30eko tasarekin kalkulatutako haien balio fiskalaren arteko aldi bateko diferentzia dela eta (75.002 mila eurokoa 2017ko abenduaren 31n).

Azkenik, Ctrens mendeko sozietateak 38.820 mila euroko zenbatekoa duen zerga geroratuagatiko pasiboa du erregistratuta 2018ko abenduaren 31n liburuetan duen balioarekiko emakidaren finantza-aktiboaren amortizazio fiskalak erritmo ezberdina duelako (38.887 mila euro 2017ko abenduaren 31n).

Oro har, aipatutako dedukzioen helburu diren aktiboek edo ondare-elementuek Taldean funtzionamenduan jarraitu behar dute aurrez ikusitako helburuekin lotuta gutxienez bost urteko epean edo, hiru urteko epean, ondasun higigarriak direnean, horien bizitza erabilgarria txikiagoa denean izan ezik. Hori dela eta, ez dira transmisioaren, errentamenduaren edo erabiltzeko hirugarren batzuei egindako lagapenaren helburu bihurtuko, justifikatutako galeretan izan ezik.

Geroratutako zerga dela eta aktiboak berreskuratzearekin lotutako ziurgabetasuna kontuan hartuta, Taldeak eskaeren zorroaren ebaluazioan oinarritutako aktibazio-irizpidea mantentzen du. Irizpide horrek zehaztutakoaren arabera, Taldeak, gutxi gorabehera, aktibatu gabe ditu 133.760 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (103.754 mila euro 2017ko ekitaldian). Dedukzio horiek hurrengo ekitaldietan aplikatzeko aukera dagoen heinean aktibatuko dira indarrean dagoen araudiak zehaztutako mugen eta epeen arabera. Horrez gain, Taldeak erregistratu gabeko aktiboaren



geroratutako zergak ditu. Horiek ez dute epemuga zehatzik eta haien zenbatekoa 11.182 mila eurokoa da (12.975 mila eurokoa 2017an).

Taldearen zerga mailako dedukzioen, aktiboaren geroratutako zergen eta zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa eta aplikatzeko epea honako hau da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| Epemuga 2020an | 7 | 15 |
| Epemuga 2021ean | 1.994 | 178 |
| Epemuga 2022an | 8 | 101 |
| Epemuga 2023an | 712 | - |
| Epemuga 2024an | 788 | 788 |
| Epemuga 2025ean | 380 | 11.913 |
| Epemuga 2026an | 352 | 9.441 |
| Epemuga 2027an | 1.399 | 24.070 |
| Epemuga 2028an eta hurrengoetan | 89.442 | 44.774 |
| Epemugarik gabe | 49.860 | 25.395 |
| | **144.942** | **116.675** |

Era berean, 2017ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren estimazioaren eta azkenean aurkeztutako aitorpenaren arteko aldeak direla eta, 257 mila euroko gastua sortu da (2017ko ekitaldian, sarrera 15 mila eurokoa izan zen).

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betikoz ordaindutakotzat hartu aurkeztutako aitorpenak zerga arloko agintariek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea amaitu arte. 2018ko ekitaldia ixtean, Taldeak 2014ko eta hurrengo ekitaldiak Sozietateen gaineko Zerga ikuskapenerako irekita zituen. Gainera, 2015eko ekitaldikoak eta hurrengoetakoak irekita ditu zergak Espainian ordaintzen dituzten sozietateen eta atzerriko sozietateen kasuan aplikagarriak diren gainerako zergetarako, aplikagarria den tokiko araudiaren arabera. Erakunde kontrolatzaileko administratzaileen ustez, aipatutako zergak behar bezala ordaindu dira; hori dela eta, eragiketei emandako zerga mailako trataeragatik indarrean dagoen araudiaren interpretazioan desadostasunak gertatuta ere, bertatik erator daitezkeen pasiboek (gauzatuko balira) ez lukete eragin aipagarririk izango honi atxikita azaltzen diren urteko kontuetan.

2013ko maiatzaren 14an, Beasaingo Udalak erakunde kontrolatzaileari jakinarazi zion 2009-2013 aldietako hainbat udal-zergaren inguruko egiaztapeneko eta ikerketako jarduerak hasiko zituela. Honako hauek dira zerga horiek: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga (EIOZ). 2015eko maiatzean, eta jasotako ikuskapeneko akten ondorioz, 266 mila euroko ordainketa egin zen. Horretatik 235 mila euroko zenbatekoa 2014an eratutako horniduran aplikatu zen eta, bestalde, 223 mila euroko ordainketa egin zen. Zenbateko horretatik, 192 mila euroko zenbatekoak ibilgetu materialaren balorazio handiagoa eragin zuen. Erakunde kontrolatzaileak akta horiekin lotutako alegazioak aurkeztu zituen 2015eko ekitaldian. Hala, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokionez, Beasaingo Udalak emandako ebazpenak jaso zituen 2018ko urtarrilaren 15ean. Ezarritako berraztertzeko errekurtsoak gaitzesten zituzten ebapenek. 2018ko maiatzean, Aldundiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboari alegazioak aurkeztu zizkioten eta orain arte ez da horren inguruko ebazpenik izan. EIOZi dagokionez, helegitea administraziorekiko auzibidean aurkeztu zen, baina oraindik ez da horren inguruko berririk izan.

Horrez gain, 2017ko ekainaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde kontrolatzaileari jakinarazi zion irismen partzialeko ikerketa eta egiaztapeneko jarduerak hasiko zituztela, Sozietatearen beraren eta 03/07/G Talde Fiskalaren 2012 eta 2015 arteko aldietako Sozietateen gaineko Zergaren inguruan. Sozietateak jarduera horietarako eskatutako informazioa aurkeztu du, baina orain arte ikuskapen-organoek ez dute horren inguruko adierazpenik egin. Taldeko administratzaileek ez dute uste jarduera horietatik pasiborik eratorriko denik.



## 19. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Administrazio publikoekin ditugun saldoen osaera honakoa da 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n:

| | Mila eurotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2018/12/31 | | | | 2017/12/31 | | | |
| | Aktiboa | | Pasiboa | | Aktiboa | | Pasiboa | |
| **Kontzeptua** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** |
| Gizarte Segurantza | - | 3 | - | 15.260 | - | 6 | - | 9.662 |
| Ogasun Publikoa- | | | | | | | | |
| Balio erantsiaren gaineko zerga (9.b. oharra) | 30.055 | 80.802 | - | 45.785 | 34.691 | 65.206 | - | 32.647 |
| Beste batzuk | - | 3.335 | - | 382 | - | 2.767 | - | 72 |
| Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko | | | | | | | | |
| Zergaren konturako atxikipenak | - | - | - | 11.358 | - | - | - | 8.954 |
| Sozietateen gaineko Zerga (3.l oharra) | - | 13.633 | - | 6.447 | - | 10.030 | - | 5.009 |
| Diru-laguntzengatik zordun den ogasun publikoa | - | 1.729 | - | - | - | 1.391 | - | - |
| **Guztira** | **30.055** | **99.502** | **-** | **79.232** | **34.691** | **79.400** | **-** | **56.344** |

2011ko ekitaldian, Balio Erantsiaren Zergaren Entitate Taldeen Erregimen Berezia eskuratu genuen eta erakunde kontrolatzailea horko partaide da mendeko beste sozietate batzuekin batera.

## 20. HORNIDURA KORRONTEAK ETA EZ-KORRONTEAK

Epigrafe horien mugimendua hau izan da 2018an eta 2017an (mila eurotan):

| | | Hornidura korronteak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Hornidura ez-korronteak** | **Kontratuaren arduradunak** | **Bermea eta laguntza teknikoa** | **Auziak** | **Beste hornikuntza batzuk** | **Hornidura korronteak, guztira** |
| **Saldoa 2016/12/31n** | **4.646** | **124.597** | **95.103** | **1.780** | **6.457** | **227.937** |
| Aldaketak Kontsolidazio-perimetroan | 618 | 398 | - | - | - | 398 |
| Hornidura garbia (3.j eta 18 oharrak) | 2.678 | 8.016 | 44.792 | 646 | (1.605) | 51.849 |
| Zordunketak | (945) | (3.930) | (43.831) | (409) | (137) | (48.307) |
| Bihurketako aldeak | (300) | (498) | (2.692) | (117) | (495) | (3.802) |
| Transferentziak | 374 | (52) | (84) | - | - | (136) |
| **Saldoa 2017/12/31n** | **7.071** | **128.531** | **93.288** | **1.900** | **4.220** | **227.939** |
| 15. FINAren doiketak (2.b eta 12 oharrak) | - | (83.612) | - | - | - | (83.612) |
| **Saldoa doituta 2018/12/31n** | **7.071** | **44.919** | **93.288** | **1.900** | **4.220** | **144.327** |
| Aldaketak Kontsolidazio-perimetroan | 206 | 478 | 42.018 | 284 | 1.776 | 44.556 |
| Hornidura garbia (3.j eta 18 oharrak) | 1.834 | 13.703 | 73.473 | 1.550 | 1.751 | 90.477 |
| Zordunketak | (2.574) | (236) | (50.309) | (848) | (1.180) | (52.573) |
| Bihurketako aldeak | (1) | (258) | (552) | (88) | (300) | (1.198) |
| Transferentziak | 341 | (294) | (279) | - | (46) | (619) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **6.877** | **58.312** | **157.639** | **2.798** | **6.221** | **224.970** |



## Hornidura ez-korronteak

Taldeak laneko izaera duten hornidurak zuzkitzen ditu, "Hornidura ez-korronteak" epigrafean, iraganeko gertakariak direla eta sortutako betebehar bat dela medio. Betebeharra amaitzen denean, zenbait baliabide uztekoa da Taldea, hura kitatzeko. Erakunde kontrolatzaileko administratzaileek data horretarako eginiko kalkulurik onena da zenbatekoa, eta egungo balioarekin erregistratzen da, finantza-eragina nabarmena bada, betiere.

## Kontratu mailako erantzukizunak, eta bermea eta laguntza teknikoa

Kontratu mailako erantzukizunekin lotutako hornidurak, batez ere, kostubidezko kontratuengatik egindako hornidurei dagozkie. Bermearekin eta laguntza teknikoarekin lotutako hornidurak konprometitutako etorkizuneko kontsumoen estimazioarekin lotuta daude (historikoetan eta azterketa teknikoetan oinarrituta) kontratuetan aurrez ikusitako berme aldia kontuan izanda. Hornidurak likidatzeko aurrez ikusitako egutegia aldatu egiten da kontzeptuaren arabera. Honako hauek dira betez besteko gutxi gorabeherako epeak:

– Kontratu mailako erantzukizunak: 1-2 urte

– Bermea: 1-4 urte (dagokion kontratu-akordioaren arabera, aldatu egiten da)

Honi erantsitako 2018ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean 37.733 mila euroko gastua erregistratu da (2017ko ekitaldian 3.542 mila euroko gastua). Ekitaldia ixtean beharrezkoak diren kontzeptu horien horniduren eta aurreko ekitaldiaren itxieran erregistratutakoen arteko diferentziari dagozkio zenbateko horiek.

Kontratuak bermatzeko 2018ko eta 2017ko ekitaldietan emandako zerbitzuen gastuak (50.309 eta 43.831 mila euro, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren) erantsitako 2018ko eta 2017ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Hornidurak" eta "Pertsonal-gastuak" epigrafeetan erregistratu ziren.

# 21. BESTE AKTIBO ETA PASIBO EZ-KORRONTE ETA KORRONTE BATZUK

Honako hau da 2018ko eta 2017ko abenduaren 31ko Taldearen "Beste aktibo batzuk" atalaren xehetasuna:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| Itzulketa-eskubideengatiko aktiboak (3.f oharra) | 2.684 | - |
| **Beste aktibo ez-korronte batzuk** | **2.684** | **-** |
| Aurreratutako ordainketak | 6.203 | 3.229 |
| Itzulketa-eskubidearengatiko aktiboak (3.f oharra) | 140 | - |
| **Beste aktibo korronte batzuk** | **6.343** | **3.229** |

Honako hau da 2018ko eta 2017ko abenduaren 31ko Taldearen "Beste pasibo batzuk" atalaren xehetasuna:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018/12/31** | **2017/12/31** |
| Zerbitzuen salmentak edo prestazioak direla eta jasotako aurrerapenak (12. oharra) | 41.228 | 55.821 |
| Errentamendu operatiboengatik jasotako aurrerapenak (8. oharra) | 37.993 | - |
| Itzulketengatiko pasiboak | 2.965 | - |
| **Beste pasibo ez-korronte batzuk** | **82.186** | **55.821** |
| Errentamendu operatiboengatik jasotako aurrerapenak (8. oharra) | 4.964 | - |
| Aurreratutako sarrerak | 631 | 316 |
| Itzulketengatiko pasiboak | 219 | - |
| **Bestelako pasibo korronteak** | **5.814** | **316** |



3.f oharrean ikus daitekeen moduan, autobusen salmenta-kontratu batzuetan, bezeroek horiek itzultzeko aukerak daude jasota. Errentamendu operatiboa dela erabakiz gero, aurrerapen gisa jasotako fakturazioa epigrafe honetan aitortzen da: "Errentamendu operatiboengatik jasotako aurrerapenak". Aldiz, itzultzeko eskubidea duen salmenta dela ondorioztatuz gero, "Itzulketa-eskubideengatiko aktiboak" epigrafean jasoko da enpresak berrerosi beharreko aktiboaren balioa, eta "Itzulketengatiko pasiboak" epigrafean aktibo hori berreskuratzeko ordaintzeko aurrez ikusitako zenbatekoa.

## 22. SARRERAK ETA GASTUAK

### a) Hornidurak

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018** | **2017** |
| Kontsumoak (*) | 948.354 | 445.676 |
| Beste enpresa batzuek egindako lanak | 141.586 | 97.095 |
| **Guztira** | **1.089.940** | **542.771** |

(*) % 78 euroguneko monetetan, eta gainerakoa, batez ere, honako hauetan: Amerikako dolarrak, libra esterlinak eta Poloniako zlotyak (% 75ekoa zen euroguneko monetetan egindakoa 2017an).

### b) Ustiapeneko beste gastu batzuk

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2018** | **2017** |
| Kanpoko Zerbitzuak | 305.499 | 233.144 |
| Zergak | 4.739 | 3.273 |
| Trafikoko eragiketen eta beste batzuen hornidurek eragindako aldaketa (12. eta 20. oharrak) | 35.279 | 8.552 |
| Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk | 2.088 | 2.494 |
| **Guztira** | **347.605** | **247.463** |

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta mendeko sozietateen auditoria-zerbitzuei dagozkin ordainsariak 1.112 mila eurokoak izan dira (2017an 838 mila eurokoak). Zenbateko horretatik, Deloitte izeneko mundu mailako erakundeko enpresek ikuskatutako sozietateen urteko auditoriei 726 mila euro dagozkie (2017ko ekitaldian 568 mila euro). Horrez gain, beste zerbitzu profesional batzuengatik beste zerbitzu-sari batzuk ere fakturatu dira: 230 mila eurokoak auditore nagusiak (275 mila euro 2017ko ekitaldian). Zenbateko horretatik, 146 mila euro auditoriarekin lotutako egiaztapen-zerbitzuei dagozkie, sei hilez behin egiten diren berrikusketak barne (41 mila euro 2017ko ekitaldian), 38 mila euro zerga-zerbitzuekin lotutakoei (2 mila euro 2017ko ekitaldian) eta gainerakoa, aldiz, beste zerbitzu batzuei.

### c) Ingurumenari buruzko informazioa

2018ko eta 2017ko ekitaldietan ez da ingurumena babestera eta hobetzera bideratutako sistemetan, ekipamenduetan eta instalazioetan inolako inbertsiorik egin.

2018ko ekitaldian, Taldeak ez du ingurumen-izaerako diru-laguntzak jaso.



2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, Taldeak ez zuen ingurumena babestu eta hobetzearekin lotutako auzirik edo kontingentziarik. Taldeko Sozietateen Administratzaileen ustez, ez da enpresaren ingurumen-jarduera dela-eta pasibo aipagarririk sortuko. Horregatik, egoera-balantze bateratu honetan ez dago hornidurarik kontzeptu horretarako.

2018ko ekitaldian, Taldeak 436 mila euroko gastuak egin zituen ingurumen arloan (2017ko ekitaldian 225 mila eurokoak).

**d) Ustiapenerako laguntzak**

2018an eta 2017an emaitzetara bideratutako diru-laguntza gehienak deialdi ezberdinetan ministerioko hainbat programetatik eta Europako programetatik lortutako diru-laguntzei dagozkienak dira eta justifikatu beharreko kostuak sortu dituzte.

Laguntza horiek itzuli egin behar dira (merkatuan indarrean dagoen interes-tasa eta guzti) proiektu horietan aurrez ikusitako I+Gko inbertsioak egiten ez badira.

Atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko “Ustiapeneko beste sarrera batzuk” epigrafean 2018ko eta 2017ko ekitaldietan erregistratutako ustiapeneko diru-laguntzen zenbatekoak 4.495 mila eta 5.351 mila eurokoak izan dira, hurrenez hurren.

## 23. BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA ETA PERTSONAL-GASTUAK

2018ko eta 2017ko batez besteko langileen kopurua hau izan da:

| | **Batez besteko langile kopurua** | |
|---|---|---|
| **Kategoria profesionala** | **2018** | **2017** |
| Kontseilariak | 2 | 2 |
| Goi mailako zuzendaritza | 10 | 10 |
| Enplegatuak | 4.590 | 3.711 |
| Langileak | 5.028 | 4.225 |
| **Guztira (*)** | **9.630** | **7.948** |

(*) 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, langileen kopurua 11.433 eta 8.428 pertsonakoa zen, hurrenez hurren.

Gizonezko langileen eta emakumezko langileen batez besteko kopuruak hauek izan dira 2018an eta 2017an:

| | **2018** | | **2017** | |
|---|---|---|---|---|
| **Kategoria profesionala** | **Gizonak** | **Emakumeak** | **Gizonak** | **Emakumeak** |
| Kontseilariak | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Goi mailako zuzendaritza | 9 | 1 | 9 | 1 |
| Enplegatuak | 3.364 | 1.226 | 2.718 | 993 |
| Langileak | 4.852 | 176 | 4.081 | 144 |
| **Guztira** | **8.226** | **1.404** | **6.809** | **1.139** |

2018ko abenduaren 31n, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseilua 7 gizonezkok eta 3 emakumezkok osatzen zuten. 2017ko abenduaren 31n, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseilua 7 gizonezkok eta 3 emakumezkok osatzen zuten.



Bestalde, hauek dira pertsonal-gastuak, zehaztuta (mila eurotan):

| | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| Soldatak (3.k oharra) | 389.987 | 331.131 |
| Gizarte Segurantza | 107.248 | 94.991 |
| Beste zenbait gastu (3.j oharra) | 21.238 | 20.259 |
| **Guztira** | **518.473** | **446.381** |

## 24. ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA

### a) Administrazio Kontseiluari egindako ordainketak eta beste zenbait prestazio

2018an eta 2017an, 3.j oharrean deskribatutakoari legokiokeenaren osagarri, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseiluko kideen ordainsari orokorra 1.902 mila eta 1.721 mila euro ingurukoa izan da honako kontzeptu hauekin lotuta: soldatak, bizitza-aseguruak, asistentzia-dietak eta ordainsari finkoak. 2018an, erakunde kontrolatzaileak epe luzerako aurrezki-sistemetara ekarpenak egin ditu epe luzerako aurrezkiko aseguru kolektiboaren bidez instrumentatuta ekarpen mugatuaren sistema erabilita. Erakunde kontrolatzailea da horren hartzaile eta onuraduna eta horren zenbatekoa 1.000 mila eurokoa izan da (140 mila eurokoa 2017ko ekitaldian). 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseiluak eta gainerako filialek ez zuten egungo edo garai bateko Administrazio Kontseiluko kideei zuzendutako aurrerakinik bermerik edo kredituri emanda.

2018an, ekintzek edo ez-egiteek eragindako kalteekin lotuta administratzaileen erantzukizun zibileko aseguru-prima dela eta ordaindutako zenbatekoa 59 mila eurokoa izan da (47 mila eurokoa, 2017an).

### b) Administratzaileen aldetik izan daitezkeen interes-gatazka egoerekin lotutako informazioa

2018ko eta 2017ko ekitaldietan, Kapital Sozietateen Legean definitutakoaren arabera Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAko Administrazio Kontseiluko kideetako edota haiei lotutako inork ez die jakinarazi Administrazio Kontseiluko gainerakoei Sozietatearen interesekin izan zitzaketen zeharkako edota zuzeneko gatazka-egoerarik.

## 25. GOI MAILAKO ZUZENDARITZARI EGINDAKO ORDAINKETAK

Erakunde kontrolatzaileko Zuzendaritza Gorenaren edo Goi mailako Zuzendaritzaren ordainsariak, 3.j. oharrean zehaztutakoarekiko osagarriak izan daitezkeenak, 2.613 mila eurokoak izan dira 2018ko ekitaldian (2.075 mila eurokoak 2017ko ekitaldian) Gobernu Korporatiboaren Txostenaren arabera "Zuzendaritza Gorena" denari dagokionez modu loteslean zehazten den moduan.

2018ko eta 2017ko ekitaldietan ez da negozioaren jardun arruntaz besteko eragiketarik egin zuzendariekin.



## 26. BESTELAKO INFORMAZIOA

### a) Abalak, bermeak eta bestelako aktibo eta pasibo kontingente batzuk

2018ko abenduaren 31n, finantza-erakundeek eta aseguru-konpainiek hirugarren batzuen alde emandako bermeen eta abalen zenbatekoa 3.259.219 mila eurokoa izan da (2.512.263 mila eurokoa 2017ko abenduaren 31n). Batez ere, jasotako eskariak betetzeko abal teknikoak izan dira. Zenbateko horretatik, 12.973 mila euro Zientzia eta Teknologia Ministerioak (15. oharra) eta beste zenbait erakunde publikok emandako diru-laguntzen eta itzuli beharreko aurrerakinen abalei eta bermeei dagozkie (17.459 mila euro 2017ko abenduaren 31n).

2018ko abenduaren 31n, Taldeak auzia zuen irekita bezero batekin obra batean, eta CAF kide den partzuergoak sinatutako kontratuko mugarriak betetzean atzerapenak izateagatik gurutzatutako erreklamazioak daude tartean. Auzia bidean da, beraz, zaila da izan ditzakeen eraginak ebaluatzea. Edonola ere, erakunde kontrolatzaileko administratzaileen ustez egoera horrek Taldearentzat arazoak eragiteko probabilitatea txikia da; izan ere, inola ere partzuergoari egotz ezin dakizkiokeen atzerapenak sortu dituzten arrazoiak daude, bezeroak jasandako kalteak erreklamatutako zenbatekoak baino txikiagoak dira eta partzuergoak egindako eta bezeroari egotz dakizkiokeen gainkostuengatiko erreklamazioak daude.

2014ko martxoan, Brasilgo Defentsa Ekonomikoko Administrazio Kontseiluak (CADE), tren-fabrikatzaile ugariren partehartzearekin lotuta (Brasilgo CAF Taldearen filiala barne) 2013ko maiatzean hasitako administrazioko ikerketa burututakoan, lehiaren aurkako ustezko praktiketatik eratorritako administrazio-prozedurak abiarazi zituen. Mendeko sozietateak bere defentsa aurkeztu eta agintariekin etengabe lagundu du eskatutako informazioa emanez. Gaur egun, 2018ko abenduan CADEren Superintendentziak igorritako txostenaren ostean, prozesua CADEko auzitegiak eman beharreko ebazpenaren zain dago. Prozesu horietatik eratorritako zehapen posibleak administrazioko isunak, gastu osagarri posibleak itzultzea, eskaintza berrietan aldi jakin batez inhabilitazio potentziala ezartzea eta/edo kargu kriminalak izan daitezke. Finantza-egoera bateratu hauek formulatu diren garaian, filial horrek ez du erreklamazio ekonomikorik jaso. Era berean, prozesu horretan lortutako informazioaren ondorioz, kontu korrontea blokeatzea agindu zuten 203 mila euroko zenbatekoarekin. Data honetan, blokeo hori altxatzea ahalbidetzeko errekurtso bereziaren ebazpenaren zain daude.

Era berean, CADEk eta beste agintari batzuek (horien artean, Sao Pauloko Ministerio Público Estadualek-MP/SPk) egindako ikerketen ondorioz, prozedura judizialak abiarazi dituzte. Finantza-egoera bateratu hauek formulatu diren datan, CADEren ikerketaren ondorioz irekitako prozesuetako bakarra dago abian. Aldiz, gainerako prozesuetan, Taldea deklaratzeko edo defentsa aurkezteko deialdia jaso zain dago, oraindik inplikatu guztiei ez baitiete dei egin. Era berean, eta CADEk egindako ikerketen ondorioz, Kontuen Auzitegiak administrazioko prozedura ireki du. Hori dela eta, mendeko sozietateak 2016ko lehen hiruhilekoan aurkeztu zuen bere atariko defentsa. Kontuen Auzitegiak adierazitakoaren arabera inolako irregulartasunik zegoenik frogatutzat eman ez duenez, prozesua ixteko eta artxibatzeko eskatu da. Eskaera hori ebazpenaren zain dago. Amaitzeko, CADEk egindako ikerketa horien ondorioz, Tribunal de Cuentas Estadual de Sao Paulo izeneko kontuen auzitegiak administrazioarekiko prozedura bat izapidetu du. Mendeko sozietateak 2018ko bigarren seihilekoan aurkeztu ditu hasierako alegazioak horren inguruan.

2018ko abuztuaren 27an, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ("CNMC") prozedura zehatzailea hasi zuen hainbat enpresaren aurka eta horien artean daude hauek: CAF Signalling SA eta bere enpresa nagusia, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA, erantzule solidario gisa, lehiaren aurkako ustezko jardunbide batzuk direla eta.

CAF legezko ekintzak gauzatzen ari da bere interesak defendatu ahal izateko. Orain arte, ez ditu ezagutzen CAF Signalling SAri eta Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAri egotzitako jokabide eta jardunbideak zein diren. Ikerketak irekita jarraitzen du eta CNMCk kasua ebazteko duen gehieneko epea uneotan geldiarazita dago, eta ez da aurrez ikusi CNMCk kasuaren inguruko ebazpena 2019an emango duenik.

### b) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa

Jarraian, 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legeko Hirugarren Xedapen Osagarriak eskatutako informazioa azaltzen da (aipatutako legea 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legeko bigarren azken xedapenak aldatu zuen). Urteko kontuak biltzen



dituen memorian eragiketa komertzialetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia zehaztearekin lotuta 2016ko urtarrilaren 29an ICACek emandako ebazpenaren arabera prestatu da aipatutako informazioa.

| | **2018** | **2017** |
|---|---|---|
| | **Egun kopurua** | **Egun kopurua** |
| Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia | 80,77 | 80,91 |
| Ordaindutako eragiketen ratioa | 84,41 | 85,40 |
| Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa | 69,95 | 67,00 |
| | **Mila eurotan** | **Mila eurotan** |
| Egindako ordainketak, guztira | 731.817 | 546.477 |
| Burutzeke dauden ordainketak, guztira | 246.651 | 176.709 |

ICACek emandako Ebazpenak xedatutakoa betez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko, 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legea indarrean sartu zen datatik hasita sortutako zerbitzuen prestazioei edo ondasunen entregari dagozkien eragiketa komertzialak hartu dira kontuan.

Ebazpen horretan aurrez ikusitako informazioa emateko helburu soiletarako, hornitzailetzat hartuko dira ondasunen edo zerbitzuen hornitzaileekin izandako zorrengatiko hartzekodun komertzialak, egoera-balantzeko pasibo korronteko "Hornitzaileak" eta "Beste hartzekodun batzuk" kontu-sailean sartutakoak.

Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen eta 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritako xedapen iragankorren arabera, Estatu mailako sozietateei aplikagarri zaien legezko gehieneko epea 60 egunekoa da 2018ko ekitaldian, ordaintzeko epea edo data adostu denean izan ezik (kasu horretan, 30 egunekoa izango da).

## 27. ITXIERA ONDORENGO GERTAERAK

2018ko abenduaren 31n, 7.716.487 mila euro inguruko eskaera-zorroa zuen kontratu irmoarekin eta konturako egindako fakturazioen zenbatekoak kenduta (6.264.780 mila euro 2017ko abenduaren 31n) (11. oharra). 2019ko urtarrilaren 31n, zenbateko hori 8.071.641 mila eurokoa zen (6.158.860 mila eurokoa 2018ko urtarrilaren 31n).

Gainera, 2019ko otsailean, Transport for New South Wales-ek CAFek, Pacific Partnership-ek eta DIF Infraestructure V-k osatu duten Momentum Trains Pty Ltd. kontsortzioari esleitu dio Hegoaldeko Gales Berria izeneko Australiako estaturako eskualdeko trenen flota berria hornitzea eta 15 urtez mantentzea biltzen duen proiektua. Lan horiek partaidetza publiko-pribatuko modalitatearen (public private partnership) bidez egingo dituzte.

Kontratu honetan, CAFeko lanen irismen-bolumena 500 milioi euro baino gehiagokoa da eta eskualdeko 29 unitate diesel-elektrikoren eta bi simulagailuren hornikuntza, eta Sydneyren ipar-mendebaldean dagoen Dubbo udalerrian mantentze-lanetarako depositu berria eraikitzea eta ekipatzea biltzen ditu. Gainera, CAF partaide izango da sistema gidatuko duen sozietatearen kapitalean. Lehen unitateak 2022an zerbitzu komertzialean sartuko direla aurrez ikusi da.

## 28. EUSKARAZKO ITZULPENERAKO GEHITUTAKO AZALPENA

Taldearen finantza-egoera bateratu hauek Taldeari aplikagarri zaion finantza-informazioa emateko araudi esparruan oinarrituta aurkeztu dira (ikus 2.a oharra). Taldeak aplikatutako kontularitzako praktika batzuk, araudi esparrua betetzen dutenak, baliteke ez bat etortzea oro har onartutako kontularitzako beste printzipio eta arau batzuekin.



# Administrazio Kontseiluaren Onarpena

| | |
|---|---|
| ANDRÉS ARIZKORRETA GARCÍA jauna | Presidentea |
| JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna | Kontseilaria |
| JAVIER MARTINEZ OJINAGA jauna | Kontseilaria |
| LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna | Kontseilaria |
| CARMEN ALLO PÉREZ andrea | Kontseilaria |
| JOSÉ ANTONIO MUTILOA IZAGUIRRE jauna | Kontseilaria |
| ANE AGIRRE ROMARATE andrea | Kontseilaria |
| ALEJANDRO LEGARDA ZARAGÜETA jauna | Kontseilaria |
| JULIÁN GRACIA PALACÍN jauna | Kontseilaria |
| MARTA BAZTARRICA LIZARBE andrea | Idazkari Kontseilaria |

Administrazio Kontseiluko idazkariak egin du eginbide hori CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SAren eta CAF Taldea (bateratua) osatzen duten mendeko sozietateen Kudeaketa Txosten bateratua eta Urteko Kontu bateratuak formulatu ondoren, bertako kideek dokumentu hau sinatu dutela jakinarazteko. Aipatutako kontuak eta txostena 2018ko abenduaren 31n itxitako urteko ekitaldikoak dira eta 2019ko otsailaren 27an egindako saioan Administrazio Kontseiluko kideek egin dituzte. Elkarren segidan zenbakitutako 197 orri ditu agiriak, 1 zenbakitik 197 zenbakira arte (biak barne), eta testuaren amaieran administratzaileetako bakoitzak sinatu ditu.

Donostian, 2019ko otsailaren 27an.

| | |
|---|---|
| O.E. | Sin. |
| PRESIDENTEA | KONTSEILUKO IDAZKARIA |
| ANDRÉS ARIZKORRETA GARCÍA jauna | MARTA BAZTARRICA LIZARBE andrea |



# Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiaren onarpenaren mende jarritako akordioak

**Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia, Egoitza sozialean, Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2019ko ekainaren 15ean, 12:00etan lehen deialdian eta, hala badagokio, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian:**

**GAI ZERRENDA**

**Lehenengoa:** Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren 2018ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, sozietateen talde bateratuko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa-txostena aztertzea eta, dagokionean, onartzea.

**Bigarrena:** 2018ko ekitaldiari dagokion finantza arlokoa ez den informazio-egoera bateratua onartzea.

**Hirugarrena:** 2018ko ekitaldiari dagokion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 0,765 euroko zenbateko gordinarekin dibidenduak banatzea.

**Laugarrena:** 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako kontu-auditoreak berriro hautatzea.

**Bosgarrena:** Kontseilariak berriro hautatzea eta izendatzea.
5.1. Javier Martínez Ojinaga jauna berriro hautatzea kontseilari independente izateko.
5.2. Ignacio Camarero García jauna kontseilari independente izendatzea.

**Seigarrena:** 2018ko ekitaldiari dagokion Kontseilarien ordainketei buruzko urteko txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

**Zazpigarrena:** CAFeko Administrazio Kontseiluak onartutako Kontseiluaren Araudiaren aldaketen gaineko informazioa Batzarrari.

**Zortzigarrena:** Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

**Bederatzigarrena:** Bilerako akta irakurtzea eta onartzea, egoki bada.



# Emaitza aplikazio proposamena

Dibidenduen banaketara aplikatzea 26.225 mila euroko zenbatekoa. Banaketaren oinarria honako hau da: galera eta irabazien kontuko 4.285 mila euro, eta borondatezko erreserbetako 21.940 mila euro.

# Administrazio Kontseilua

| | |
|---|---|
| ANDRÉS ARIZKORRETA GARCÍA jauna | Presidentea |
| JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna | Kontseilaria |
| JAVIER MARTINEZ OJINAGA jauna | Kontseilaria |
| LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna | Kontseilaria |
| CARMEN ALLO PÉREZ andrea | Kontseilaria |
| JOSÉ ANTONIO MUTILOA IZAGUIRRE jauna | Kontseilaria |
| ANE AGIRRE ROMARATE andrea | Kontseilaria |
| ALEJANDRO LEGARDA ZARAGÜETA jauna | Kontseilaria |
| JULIÁN GRACIA PALACÍN jauna | Kontseilaria |
| MARTA BAZTARRICA LIZARBE andrea | Idazkari Kontseilaria |

Informazio hau 2019ko otsailaren 27an Sozietateko Administrazio Kontseiluaren konposizioari dagokio, data horretan formulatu baitziren Sozietatearen eta haren talde bateratuaren Urteko Kontuak, 2018ko ekitaldiari dagozkionak. Data horretan, Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideek kapital sozialaren % 0,005 zuten.

# INFORMAZIO OSAGARRIA
## 2014-2018
Egoera Balantze Bateratuak
Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak





# Egoera Balantze Bateratuak

## 2018, 2017, 2016, 2015, 2014, eko abenduaren 31ko (Mila eurotan)

| Aktiboa | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea:** | | | | | |
| **Ibilgetu ukiezina** | | | | | |
| Merkataritza-funtsa | 101.827 | 24.124 | 15 | 15 | 15 |
| Beste ibilgetu ukiezin batzuk | 206.535 | 46.421 | 40.129 | 34.719 | 37.673 |
| | **308.362** | **70.545** | **40.144** | **34.734** | **37.688** |
| **Ibilgetu materiala** | **365.084** | **244.513** | **229.309** | **240.787** | **271.839** |
| **Partaidetza-metodoaren aplikatuta zenbatutako inbertsioak** | **18.188** | **19.752** | **18.572** | **14.308** | **12.257** |
| **Finantza-aktibo ez-korronteak** | **537.061** | **560.660** | **653.558** | **590.829** | **651.956** |
| **Estaldurako eratorri ez-korronteak** | **10.720** | **15.842** | **12.861** | **22.068** | **17.593** |
| **Zerga geroratuengatiko aktiboak** | **148.548** | **144.989** | **159.176** | **161.108** | **163.842** |
| **Beste aktibo ez-korronte batzuk** | **2.684** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| **Aktibo ez-korrontea, guztira** | **1.390.647** | **1.056.301** | **1.113.620** | **1.063.834** | **1.155.175** |
| **Aktibo korrontea:** | | | | | |
| **Izakinak** | **375.426** | **71.654** | **60.287** | **86.253** | **180.504** |
| **Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk** | | | | | |
| Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak | 1.311.835 | 1.277.243 | 1.306.363 | 1.120.483 | 1.107.006 |
| Beste zordun batzuk | 205.122 | 198.470 | 204.033 | 169.306 | 188.410 |
| Zerga korrontearekin lotutako aktiboak | 13.633 | 10.030 | 13.426 | 8.451 | 6.493 |
| | **1.530.590** | **1.485.743** | **1.523.822** | **1.298.240** | **1.301.909** |
| **Finantza-aktibo korronteak** | **94.293** | **84.838** | **95.098** | **89.559** | **96.595** |
| **Estaldura-eratorri korronteak** | **5.849** | **41.864** | **45.382** | **32.864** | **27.350** |
| **Beste aktibo korronte batzuk** | **6.343** | **3.229** | **3.206** | **5.939** | **4.591** |
| **Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide** | **602.813** | **371.625** | **392.022** | **297.440** | **197.111** |
| **Aktibo korrontea, guztira** | **2.615.314** | **2.058.953** | **2.119.817** | **1.810.295** | **1.808.060** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.005.961** | **3.115.254** | **3.233.437** | **2.874.129** | **2.963.235** |



| Pasiboa eta ondare garbia | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ondare garbia:** | | | | | |
| **Berezko funtsak** | | | | | |
| Eskrituratutako kapitala | 10.319 | 10.319 | 10.319 | 10.319 | 10.319 |
| Jaulkipen-prima | 11.863 | 11.863 | 11.863 | 11.863 | 11.863 |
| Birbalorizazio-erreserba | 39.119 | 39.119 | 39.119 | 39.119 | 39.119 |
| Erakunde kontrolatzailearen eta sozietateen integrazio globalaren eta partaidetza-metodoaren bidez bateratutako beste erreserba batzuk | 793.755 | 770.489 | 758.268 | 734.288 | 691.777 |
| Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza | 43.462 | 42.406 | 35.013 | 41.041 | 59.679 |
| | **898.518** | **874.196** | **854.582** | **836.630** | **812.757** |
| **Beste emaitza integral bat** | | | | | |
| Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak | - | 39 | - | - | - |
| Estaldurako eragiketak | (5.024) | (6.580) | (5.908) | (5.142) | (6.212) |
| Bihurketako aldeak | (141.782) | (117.238) | (76.703) | (127.748) | (70.336) |
| | **(146.806)** | **(123.779)** | **(82.611)** | **(132.890)** | **(76.548)** |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia** | **751.712** | **750.417** | **771.971** | **703.740** | **736.209** |
| **Partaidetza ez-kontrolatzaileak** | **5.555** | **9.783** | **11.706** | **11.187** | **12.704** |
| **Ondare garbia, guztira** | **757.267** | **760.200** | **783.677** | **714.927** | **748.913** |
| **Pasibo ez-korrontea:** | | | | | |
| **Hornidura ez-korronteak** | **6.877** | **7.071** | **4.646** | **4.526** | **5.075** |
| **Finantza-pasibo ez-korronteak** | | | | | |
| Zorrak eta betebeharrak kreditu-erakundeekin edo beste balio negoziagarri batzuk | 766.464 | 625.645 | 648.145 | 662.168 | 683.062 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | 47.774 | 52.039 | 47.854 | 51.833 | 57.848 |
| | **814.238** | **677.684** | **695.999** | **714.001** | **740.910** |
| **Zerga geroratuengatiko pasiboak** | **177.191** | **153.805** | **172.137** | **156.817** | **152.426** |
| **Estaldura-eratorri ez-korronteak** | **11.206** | **18.131** | **13.574** | **23.091** | **18.557** |
| **Beste pasibo ez-korronte batzuk** | **82.186** | **55.821** | **58.039** | **63.996** | **66.880** |
| **Pasibo ez-korrontea, guztira** | **1.091.698** | **912.512** | **944.395** | **962.431** | **983.848** |
| **Pasibo korrontea:** | | | | | |
| **Hornidura korronteak** | **224.970** | **227.939** | **227.937** | **228.766** | **265.329** |
| **Finantza-pasibo korronteak** | | | | | |
| Zorrak eta betebeharrak kreditu-erakundeekin edo beste balio negoziagarri batzuk | 255.416 | 46.262 | 103.075 | 203.722 | 158.039 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | 23.356 | 40.725 | 23.059 | 18.202 | 19.034 |
| | **278.772** | **86.987** | **126.134** | **221.924** | **177.073** |
| **Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk** | | | | | |
| Hornitzaileak | 664.865 | 423.385 | 376.531 | 352.153 | 463.067 |
| Beste hartzekodun batzuk | 911.961 | 646.593 | 657.056 | 355.596 | 293.197 |
| Zerga korrontearekin lotutako pasiboak | 6.447 | 5.009 | 969 | 647 | 3.513 |
| | **1.583.273** | **1.074.987** | **1.034.556** | **708.396** | **759.777** |
| **Estaldura-eratorri korronteak** | **64.167** | **52.313** | **116.468** | **35.498** | **27.699** |
| **Beste pasibo korronte batzuk** | **5.814** | **316** | **270** | **2.187** | **596** |
| **Pasibo korrontea, guztira** | **2.156.996** | **1.442.542** | **1.505.365** | **1.196.771** | **1.230.474** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.005.961** | **3.115.254** | **3.233.437** | **2.874.129** | **2.963.235** |



# Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak

## 2018, 2017, 2016, 2015, 2014 eko abenduaren 31ri dagozkion (Mila eurotan)

| (Zor) Hartzekoak | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eragiketa jarraituak:** | | | | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 2.048.419 | 1.477.039 | 1.318.200 | 1.283.591 | 1.447.141 |
| Amaitutako produktuen eta fabrikazio-fasean dauden izakinen aldaketa +/- | 73.250 | (77.035) | (15.474) | (126.137) | 7.690 |
| Aktiborako enpresak egindako lana | 14.488 | 8.977 | 9.778 | 6.490 | 9.840 |
| Hornidurak | (1.089.940) | (542.771) | (608.669) | (435.014) | (743.140) |
| Ustiapeneko beste sarrera batzuk | 21.339 | 7.886 | 15.792 | 4.245 | 5.289 |
| Pertsonalaren gastuak | (518.473) | (446.381) | (397.634) | (402.164) | (406.236) |
| Ustiaketako beste gastu batzuk | (347.605) | (247.463) | (186.723) | (164.996) | (174.159) |
| **Ebitda** | **201,478** | **180.252** | **135.270** | **166.015** | **146.425** |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (46.738) | (34.690) | (34.669) | (38.399) | (42.398) |
| Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina | (10.572) | 148 | 11.239 | (833) | 10.958 |
| **Ustiapenaren emaitza** | **144.168** | **145.710** | **111.840** | **126.783** | **114.985** |
| Finantza arloko sarrerak | 7.627 | 7.309 | 13.643 | 10.476 | 10.187 |
| Finantza arloko gastuak | (64.160) | (68.551) | (72.819) | (56.632) | (47.252) |
| Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa | 7 | 35 | 870 | 3 | 373 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | (6.673) | (17.591) | 5.916 | (19.632) | (2.394) |
| Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko kaltea eta emaitza | 9 | 4 | (594) | (589) | 4.357 |
| **Finantza arloko emaitza** | **(63.190)** | **(78.794)** | **(52.984)** | **(66.374)** | **(34.729)** |
| Baloratutako erakundeen emaitza, partaidetza-metodoaren arabera | (403) | 594 | 473 | - | 200 |
| **Zergen aurreko emaitza** | **80.575** | **67.510** | **59.329** | **60.409** | **80.456** |
| Irabazien gaineko zerga | (40.955) | (24.993) | (22.049) | (17.795) | (18.327) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza** | **39.620** | **42.517** | **37.280** | **42.614** | **62.129** |
| **Ekitaldiko emaitza bateratua** | **39.620** | **42.517** | **37.280** | **42.614** | **62.129** |
| **Honako hauei egotzitakoa:** | | | | | |
| Erakunde kontrolatzailea | 43.462 | 42.406 | 35.013 | 41.041 | 59.679 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | (3.842) | 111 | 2.267 | 1.573 | 2.450 |
| **Akzio bakoitzeko irabazia (eurotan)** | | | | | |
| Oinarrizkoa | 1,27 | 1,24 | 1,02 | 1,20 | 1,74 |
| Diluitua | 1,27 | 1,24 | 1,02 | 1,20 | 1,74 |

# BULEGOAK

**EGOITZA NAGUSIA**
Jose Miguel Iturrioz, 26
20.200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Espainia
Tel.: +34 943 880 100
Faxa: +34 943 881 420
caf@caf.net

**MADRILGO BULEGOAK**
José Ortega y Gasset, 29 - 5º
28006 MADRIL
Espainia
Tel.: +34 91 436 60 00
Faxa: +34 91 436 03 96
caf@caf.net

**AKZIODUN SAILA**
Jose Miguel Iturrioz, 26
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tel.: +34 943 189 262 (arreta-zerbitzurako telefonoa)
Faxa: +34 943 189 226
accionistas@caf.net

---

**CAF ALEMANIA**
Seidlstraße 26
80335 Munich
Alemania
Tel.:+49 (0)89 544 790 120
Faxa:+49 (0)89 544 790 250

**CAF FRANTZIA**
16 rue Friant
75014 Paris
Frantzia
Tel.: + 33 1 82 73 01 00
Faxa: + 33 5 62 91 05 77

**CAF RAIL ERRESUMA BATUA**
The TechnoCentre Puma Way
Coventry, CV1 2TT
Rail Erresuma Batua
Tel.: +44(0)2476 158195

**CAF ITALIA**
Vía G. Parini, 2
20121 Milano
Italia
Tel.: +39 02 4975 9575
Fax: +39 02 4975 9575

**CAF HERBEHEREAK**
Graadt van Roggenweg 328 – 334
(Regus Business Centre)
3531 AH Utrecht
Herbehereak
Tel.: +31 (0)30 298 2290

**CAF POLONIA**
Emilii Plater 53/1116
00113 Warsaw
Polonia
Tel.: +48 22 5286788
Faxa: +48 22 5286701

**CAF ESTATU BATUAK**
1401 K Street, N.W. Suite 1003
20.005-3418 - WASHINGTON DC
Estatu Batuak
Tel.: +1 202 898 4848
Faxa: +1 202 216 8929

**CAF MEXIKO**
Eje 1 Norte (Mosqueta) Edificio
Oriente 1ª piso
Col. Buenavista, Delegación
Cuauhtémoc c.p. 06350
Mexiko D.F.
Mexiko
Tel.: +52 55 568 875 43
Faxa: +52 55 568 811 56

**CAF TXILE**
Avda. de los conquistadores 1700,
Piso 27
Comuna de providencia
Txileko Santiago
Txile
Tel.: +56 2 473 7200
Faxa: +56 2 473 7290

**CAF BRASIL**
Rua Tabapua, nº81 - 10º andar
CEP 04533-010 ITAIM IBI
São Paulo
Brasil
Tel.: +55 11 3074-0600
Faxa: +55 11 3074-0624

**CAF ARGENTINA**
Chacabuco 380 1er Piso
C1069AAH
Ciudad Autónoma de Buenos Aires
Argentinako Errepublika
Tel.: +54-11-4343-4500

**CAF QATAR**
Al Fardan Office Tower, 14th Floor,
West Bay, Doha
Qatar
Tel.: +974 44101506
Faxa: +974 44101500

**CAF ALJERIA**
Résidence «Petit Hydra» Entrée E107
Paradou, Hydra
Argel
Aljeria
Tel.: +213 021 60 08 07
Fax: +213 021 60 08 07

**CAF INDIA PVT LTD**
113-116, 1st Floor, Block - A, Naurang
House, 21, Kasturba Gandhi Marg,
New Delhi-110001
India
Tel.:+91 11 4025 0000/ 4734 0794
Faxa:+91 11 4734 0680

**CAF MALAYSIA**
20th Floor Menara Boustead,
69, Jalan Raja Chulan, 50200 Kuala
Lumpur
Malaysia
Tel.: +603 21449371
Faxa: +603 21418006

**CAF RAIL AUSTRALIA PTY LTD**
Level 20, Suite 2002, 321 Kent St
2000 Sidney NSW
Australia
Tel.: +61 (0) 2 8084 5119

**CAF TURKIA**
Altay Çeşme Mah. Çam Sk. No:16/14
D Blok DAP Royal Center
34843 Maltepe/Istanbul
Turkia
Tel.: +90 216 457 1227

**CAF HUNGARY KFT.**
Váci út 22-24, 7 emelet
1132 Budapest
Hungría
Tel.: +36 1 808 9444